



Liburu honen x  
 udaletatik bult  
 ezagutaraztea  
 denboran, nos  
 eta eredugarri  
 Gipuzkoako Fo  
 era batera egi  
 Partaidetzarak  
 esperientzia gi  
 gizarte-elkarte  
 bultzatutakoak  
 genuelako her  
 partaidetze su

# herritarrek in

PARTE HARTZEKO ESPERIENTZIAK GIPUZKOAN (2011-2013)

# herritarrekin

PARTE HARTZEKO ESPERIENTZIAK GIPUZKOAN (2011-2013)

Argitaratzailea: © Gipuzkoako Foru Aldundia  
Egilea: Imanol Azkue Ibarbia  
Arte Grafikoak: IPAR, S.L. Donostia  
ISBN: 978-84-7907-703-7  
Lege-gordailua: SS-1605-2013

# Gure baitan datza eguzkia iluna eta izotza urratu dezakeen argia urtuko duen bihotza

“Martxa baten lehen notak”, Joxean Artze

## eskerrak

Liburu hau zerbait baldin bada, elkarlana da. Hasieran, asmoa besterik ez zenean, laguntza eske jo nuen Gipuzkoako udaletara, trukean ezer gutxi (lana besterik ez) eskaintzen, batzuetan ezezagunengana, beste batzuetan ezagunengana, askotan lagunengana, eta gehien-gehienek abegitsu hartu ninduten. Izan alkate, zinegotzi, udal-teknikari edo -langile, laguntzaile..., gogotsu eta eskuzabal heldu zioten pixkanaka denona bihurtu den proiektuari.

Hitz hauek motz geratuko dira egindako lan eskerga ordaintzeko, baina balioko ahal dute esker ona adierazteko guztiei: Ager, Agurtzane, Ainhoa, Aintzane, Aiora, Aitor, Aitziber, Alaitz, Amaia, Ana, Arantxa, Arantzazu, Asier, Axier, Beatriz, Beñat, Daniel, Eñaut, Eneko, Enekoitz, Erkuden, Esther, Estitxu, Fernando, Garbiñe, Garikoitz, Goiatz, Gregorio, Idoia, Igor, Iñaki, Inma, Ion, Iratxe, Itsasne, Izaro, Izaskun, Jabier, Jaione, Javier, Jesus, Jokin, Jon, Joseba, Jose Martin, Josu, Joxe Luix, Joxemari, Juanra, Julen, Leire, Lorena, Luix, Maialen, Maitane, Maite, Mariano, Maribi, Marijo, Mertxe, Mikel, Mila, Miren, Nekane, Nerea, Oihane, Olatz, Olga, Oxel, Pedro, Pilar, Ruben, Sagrario, Sonia, Tere, Urrategi, Urtzi, Yolanda eta Zeziliari, bihotzez, eskerrik asko!


Horiez guztiez gain, gogoan dauzkat libururako partaidetzako esperientzien testigantza eman duten guztiak. Zuei ere, nire eskerrik beroena!

Bukatzeko, bereziki eskerrak eman nahi dizkiet Elhuyar Aholkularitzako lankideei eta lankide izandakoei. Zuek gabe, ez ginateke izango.

**IMANOL AZKUE IBARBIA**

Liburuaren egilea





7 hitzaurrea  
9 atarikoak  
13 bi hitz (eta gehiago)  
parte-hartzeaz

# aurkibidea

253 Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
Herritarren Partaidetzarako  
Zuzendaritza  
271 aurkibideak  
288 bibliografia





# hitzaurrea

Liburu honen sarrera idazteak emozio berezia sorrarazten dit, askotariko sentimenduak. Herritarren parte-hartzea bultzatzea lan ederra da, baina ez erraza. Inurri-lan handia egin behar da, lorpenak ez dira berehala ikusten eta bidean poz handiak hartzen diren moduan, atsekabeak ere izaten dira. Lagun, jakintza eta ikuspegi berriak eskuratzeko aukera ezin hobeak sortzen dira eta horiek guztiak aprobetxatuz gero, hazi egiten gara. Dударik gabe merezi du!

Herritarren parte-hartzea herritarrok dugun eskubide garrantzitsu bat da. Eskubide hori paperetik erreallitateara ekartzeko aspalditik lanean ari garenontzat Gipuzkoan barrena loratu, loratzen eta loratuko diren parte hartzeko esperientziek izugarritzko balioa dute, hori delako egon daitekeen hiritartasun-eskolarik eraginkorra. Denon artean lan hori eginda, orain egindako lana denon eskuragarri jartzeko momentua iritsi da, denon artean gauza gehiago eta gauzak hobeto egiten ditugula ikusteko. Ametsa erreallitate bihurtzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udaletako ordezkariak Herritarrekin Sarea sortu genuenean, parte-hartzaileek bereziki nabarmendu zuten beharrezkoa zela esperientziak partekatzeko eta harremanetarako guneak edota aukerak sortzea. Hain zuzen ere, jardunaldi edo topaketak antolatzea proposatu zuten, horien bidez zuzenean jaso ahal izateko Gipuzkoako herrietan gauzatzen ari ziren partaidetzako esperientzien berri. Proposamen hari heldu eta gauzatzeko asmotan, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza honek, Sarearekin batera, Sarearen I. Topaketa

antolatu zuen, 2012ko ekainaren 8an, Donostian; Sarearen II. Topaketa 2013ko otsailaren 1ean izan zen, Hernanin; eta Sarearen III. Topaketak, “Herritarrekin Topaketak”, hain zuzen ere, 2013ko ekainaren 6, 7 eta 8an, Donostian, Kursaal. Topaketa horiei guztiei esker, Gipuzkoan legealdi honetan egin diren partaidetzako hainbat esperientzia ezagutu ahal izan ditugu. Topaketa horiek amaituta, hurrengo antolatzen hasiak gara, 2014ko urtarrilean egiteko, oraindik zehaztu ez dugun Gipuzkoako txokoren batean.

Proiektu asko eta anitzak jarri ditugu martxan Gipuzkoako herri gehienetan. Horiek jasotzea eta denontzat eskuragarri jartzea da liburu honen helburua, herritarrek eta erakundeek elkarrekin egindako lana aitortzearekin batera. Herritarren parte-hartzea indartzeko eta bultzatzeko bidean urrats garrantzitsuak ari gara egiten; izan ere, Gipuzkoan errotzen eta indartzen ari da parte hartzeko kultura eta horregatik ugaritzen ari dira partaidetzako esperientziak. Horrez gain, erakundeen arteko harreman berriak sortzen ari gara Sarearen bidez, elkarlanean, errespetuan, eraginkortasunean eta, nola ez, konfiantzan oinarritutako harreman- eta lan-molde berriak Gipuzkoako udalen eta Aldundiaren artean.

Bizi dugun testuingurua ziurgabetasunez beteta dago, baina egoera honek aukera berriak sortzen dizkigu gauzak beste modu batera egin daitezkeela erakusteko. Erakuts dezagun politika letra larriz idazten, politika ez delako bakarrik medioen bidez egiten den zerbait, edo erakundeetatik soilik

egiten den zerbait, eta are gutxiago hauteskunde-garaietara mugatzen den gauza aspergarria. Politika egiteko modu berriak eraikitzeko, izateko modu berriak topatu beharko ditugu, sentitzeko modu berriak, eta horretan ari gara. Orain arte ez baduzu aukerarik izan zure herrian partaidetzazko esperientzia batean parte hartzeko, gonbidatzen zaituztenean, parte hartzera animatu nahi zaitut. Oraindik zure herrian ez badago aukerarik, mugitzera eta aukera horiek sortzen laguntzera animatu nahi zaitut. Parte hartzeko aukera izan baduzu, berriz, eskuartean duzun liburu hau ikusmiratu, irakurri, erabili, gozatu beste herrietan egin dutena dastatuz.

Bukatzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet liburu hau egiten era batera edo bestera, zuzenean edo zeharka, parte hartu edo lagundu duten guzti-guztiei, eta, bereziki, nola ez, gure ametsa errealitate egitea lortu duen liburuaren idazle, koordinatzaile, dinamizatzaile eta lagun apartari, Imanol Azkueri. Liburu hau egitea proposatu nionean, baiezkoa eman zidalako lehenbizi eta gero galdetu zizkidalako baldintzak eta epeak.

Bihotzez, mila esker! Etorkizunean ere izango ahal dugu aukera elkarrekin jarduteko!

**ARANTZA RUIZ DE LARRINAGA OLAIZOLA**

Herritarren Partaidetzarako zuzendaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
2011-2015 legegintzaldia, Gipuzkoa berria



# atarikoa

Liburu honen xedea, batez ere, azken bi urteotan Gipuzkoan udaletatik bultzatutako parte hartzeko esperientzia batzuk ezagutaraztea eta horiei balioa ematea da. Jo genezakeen atzerago denboran, noski, eta aurkituko genituen esperientzia interesgarri eta eredugarriak, baina 2011ko udan izan zen gobernu-aldaketa Gipuzkoako Foru Aldundian eta bistakoa da ordutik gauzak beste era batera egiten dituztela Aldundiak eta Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak. Liburu honetan ez daude esperientzia guztiak, ez horixe, eta kanpoan geratu dira gizarte-elkarteek edo -taldeek sustatutakoak; udalek eta Aldundiak bultzatutakoak baino ez daude jasota, batez ere erakutsi nahi genuelako herri-erakundeek ardura handia daukatela herritarren partaidetza sustatzen, eta neurri batean aitzindari izatea ere badagokiela. Hemen jasotakoak bukatutako esperientziak dira, errealak, eta gertuko jendeak eginak, gainera, hurbil dauzkagun hautetsi, teknikari, langile edo herritarrek bultzatuak eta gauzatuak. Parte hartzeko esperientziak liburu honetan jasota, eredu erabilgarriak eta adibideak erakutsi nahi izan dizkiegu gipuzkoarrei, oro har, eta bereziki herritarren partaidetzan sinesten dutenei eta areagotzea nahi dutenei; halaber, egindako lana eta ahalegina aitortu eta eskertu nahi izan diegu proiektu hauetan izerdia, indarra, denbora eta bihotza jarri duten guztiei.

Nonbait kokatzekotan, liburu honen sorrera Lezon jarriko nuke. Arantza eta biok orduan lankideak ginen eta elkarrekin ari ginen parte hartzeko proiektu batean. Ordurako, Arantzak eskarmentu handia zeukan partaidetzazko egitasmoetan; ni, berriz, hasi berria nintzen, euskara-planetan eta trebakuntzan (laneko

euskaran) zaildua eta ia espezializatua, eta alor berriak deskubritzen eta probatu nahian ari nintzen. Lezon ordura arte hainbat urtetan egindako lan handiari begiratura, komentatu genuen polita litzatekeela han-hemenka egiten ari ginen parte hartzeko proiektuak liburu batean biltzea eta argitaratzea; izan ere, sentsazioa geneukan (eta oraindik badaukagu) oso lan aberasgarriak eta interesgarriak egiten ditugula herritarren partaidetzaren alorrean, baina ez ditugula behar bezala zabaltzen edo ezagutarazten; gauzatu, proiektu asko gauzatu direla bazterretan, batzuk handiak eta konplexuak, beste batzuk txikiak eta xumeak, gai anitzetakoak, baina ez dugula horietako askoren berririk eta ia oharkabean pasatzen zaizkigula, izan ez balira bezala.

Lezon sortutako asmo hura hor egon da nonbaiten gordeta gogoan, eta bizitzaren fandangoak ematen dituen buelta horietako batean, hara non sortu zaigun amets hura errealitate bihurtzeko aukera.

Lan hau egiteko, Aldundiaren parte hartzeko diru-laguntzetako dokumentazioa aztertuta, ahaleginu ginen liburua bere osotasunean aurreikusten eta zer eduki eta itxura izan zezakeen zirriborroa egiten: zer jaso eta zer irizpide edo baldintzaren arabera, nolako egitura izango zuen, zer zati errepikatuko ziren atal guztietan... Ondoren, Gipuzkoako udalekin harremanetan jarri ginen eta parte hartzeko esperientzien inguruko informazioa eskatu genien; hori izan da, hain zuzen ere, lan honen oinarri nagusia, udaletatik jasotakoaren gainean baitago eraikita liburua: zer geneukan eskura edo zer bidali ziguten herrietatik, horixe ageri da liburuan. Horregatik, batzuetan desorekak ikus



daitezke eskualdeen eta herrien artean, informazioari dagokionez. Nolanahi ere, guztira 62 herritako 137 esperientzia jaso ditugu, 21 alor desberdinetakoak.

Materiala **eskualdeka** dago antolatuta, Aldundiak egiten duen banaketa geografiko berberarekin, Gipuzkoa 10 eskualdetan zatituta, eta banaketa ez dator bat Euskaltzaindiak 140. arauan (“Gipuzkoako herri-izendegia”-n) proposatzen duenarekin, ezta eskualdeen izenekin ere, batzuetan. Horrela, Hondarribia eta Irun Bidasoaldea eskualdean sartu ditugu (eta ez Oiartzualdean), Oarsoaldea izendatu dugu Euskaltzaindiarentzat Oiartzualdea eskualde gehiena dena, Buruntzaldea izendapena erabili dugu

Donostia-Beterriko herri gehienak biltzeko, Donostia aparte jaso dugu eta Urola Kosta eskualdea bitan banatu dugu (Kosta eta Urola Erdia).

Eskualde bakoitzaren barruan, sarrera labur baten ondoren, **herriak** datoz ordena alfabetikoaren arabera, baina eskualde batzuetan ez dira ageri guztiak. Izan ere, arestian esan bezala, jasotako informazioa da oinarria, eta herri batzuetatik ez dugunez ezer ere jaso, ez ditugu sartu.

Herri bakoitzari dagokion atalean, hasieran herriari buruzko **hainbat datu orokor** daude, labur, nolako herria den jabetzeko:

**Azalera (km<sup>2</sup>)**

**Biztanle-kopurua eta nola deitzen zaien herritarrei**

**Udalbatzarraren osaera (alderdi edo hautagaitza bakoitzaren zinegotzi-kopurua) eta alkatetza zeinek daukan (beltzez adierazita), 2011-2015eko legealdian**

**Udalaren webgune ofiziala**

Herriaren **tamaina**, ikonoen bidez adierazita:

- txikia (4.000 biztanle bitartekoa)
- ertaina (4.001-10.000 biztanle bitartekoa)
- handia (10.000 biztanletik gorakoa)

Non kokatzen den herria eskualdean eta Gipuzkoako mapan

Gehienetan, herrian **parte-hartzearen ardura** nork daukan, batzuetan marrazki eta guzti





Herrietako esperientziek osatzen dute liburuko mamia, eta beste zatiak (hitzaurrea, parte-hartzeaz, aurkibidea eta bibliografia) horien **osagarriak** edo lagungarriak baino ez dira. Azkenik, aurkibidean, aukera dago bilaketak hainbat erataria egiteko: tamainaren arabera, biztanle-kopuruaren arabera, esperientzia-motaren arabera...

Liburuko **datuak** direla eta, batzuk oso zehatzak eta errealak dira; beste batzuk, berriz, gutxi gorabeherakoak eta ideia bat egiteko baino ez dira, eta gerta daiteke azken datuak ere ez izatea; hori gertatzen da, adibidez, biztanle-kopuruekin, non begiratzen den edo zer hartzen den erreferentziazat, datua desberdina baita.

Liburuan testuak garrantzitsuak dira, baina **protagonismo berezia** eman nahi izan diegu **irudiei** eta **argazkiei**. Gipuzkoa askotarikoa da, eta aniztasun hori jasota dago irudien bidez. Horrela, herri txiki, ertain eta handietako argazkiak daude, barrualdekoak eta kostaldekoak, baserri-girokoak eta gunea industrialetakoak... Baina, batez ere, **jendea** ageri da, gipuzkoarrak, ez dagoelako parte-hartzerik pertsonarik gabe: emakume eta gizon, gazte eta heldu, ikasle eta langile... denetarik, gipuzkoarrok parte hartzen, lanean, jardunean, auzolanean...

Egindakoari eta liburu osoari begiratuta, harrigarria da partaidetzazko **zenbat esperientzia** desberdin egin diren hain denbora laburrean, eta poza ematen du jakiteak beste hainbeste daudela martxan edo bidean. Seguru asko, aurkituko duzu zure herriaren tamainako herriren bat, antzekoa, parte hartzeko esperientzia interesgarriren bat egin duena, edo zure eskualdekoa, aspaldian herrian egin nahi duzun esperientzia hori egin duena; balioko ahal dute hemen jasotakoek beste hainbeste esperientzia jartzeko abian... Gustura jasoko ditugu horiek guztiak beste liburu batean, bi urte barru!

Liburuaren aitzakian, **bidai handia** egin dut Gipuzkoan zehar: Bidasoa ibaiaren uretatik hasita Aizkorriren oinetara, Elgetako plazatik Ibarakora, Zaldibiako belardietatik Mutrikuko kresala usaintzera... Izugarri gozatu dut, eta orain zuk beste hainbeste egitea nahiko nuke. Zatoz!

#### **IMANOL AZKUE IBARBIA**

Liburuaren egilea

# bi hitz (eta gehiago) parte-hartzeaz



**IMANOL AZKUE IBARBIA**

Liburuaren egilea eta parte hartzeko teknikaria

Parte hartzeko esperientzien liburuan, bidezkoa iruditzen zitzaidan herritarren partaidetzaren gaineko zerbait idaztea, batez ere gogoetarako lagungarria izan daitekeelakoan; baina garbi neukan ez nuela nahi hitzez hitz errepikatu lehen beste nonbaiten argitaratua, batik bat hemen baino hobeto azalduta egongo direlako jatorrizko lekuetan. Horregatik, eskarmentu pertsonaletik abiatuta, bereziki azpimarratu nahi izan ditut zenbait alderdi, baina oholtzara igo gabe, ez baita nire asmoa inori inolako leziorik ematea.

Bizi osoa daramagu parte hartzen. Ez gara akordatzen, ahaztu egiten zaigu, baina txiki-txikitatik ari gara parte hartzen. Egin atzera denboran, ume-garaira, eta hasi akordatzen zertan eta nola hartzen zenuen parte: lagunekin, eskolan, jolasean edo aisialdian... Zenbat ekintzatan eta ekitalditan hartu duzun parte ordutik. Sarritan. Berdin gaztaroan, edo pertsona heldu eta arduratsu bihurtutakoan. Parte hartu, askotan eta askotarikoetan hartu duzu parte, aritu zara beste batzuekin parte hartzen, maiz horiek ahaztu egiten bazaizkizu ere. Akordatzen? Txikitan, gaztetan, heldutan, edozein adinetan...

Bizitza osoa daramazu parte hartzen, besteekin erlazionatzen, harremanak egiten eta desegiten.

Parte-hartzea eremu zabala da eta era askotara uler daiteke, baina ezinbestean giza ingurua behar du: jendarteko kideak gara, begiratu besterik ez daukagu gure ingurura eta ikusiko ditugu senideak, lagunak, lankideak, ikaskideak, auzokoak, herrikideak... Jendartean bizi gara eta elkarrekin erlazionatzeko joera daukagu; inguruan daudenei begiratu eta denok bilatzen ditugu gureen antzeko ideiak, kezak, gustuak, zaletasunak, iritziak, motibazioak... dauzkaten pertsonak, eta horiekin erlazionatzen gara; zabalik egoten gara harreman berriak egiteko, eta laster ikasten dugu pertsona bakoitza bakarra eta berezia dela, ez dagoela bi berdinik, eta gure arteko hartu-emanetan etengabe sortzen direla lakarkeriak eta gozaldiak, pertsonok helduleku leun adina ertz zorrotz dauzkagula eta batzuetan ez daukagula nondik heldu. Bakarrak eta bereziak gara, baina zorionez ez gaude bakarrik, eta hainbeste jenderen artean, ikasi beharra daukagu besteekin bizitzen, erlazionatzen, jarduten, haserretzen, adiskidetzen... Jendarteko kideak gara, eta zenbat eta gehiago hartu parte, orduan eta integratuago egongo gara inguru horretan. Izan ere, parte hartzea parte izatea da, nonbaiteko edo zerbaiteko kide izatea, nonbaiten errotzea edo zerbaiti atxikitzea, kide garen horrekiko konpromisoa eta lotura berrestea eta sendotzea. Parte-hartzea eta herrigintza estu-estu daude lotuta, eta batean egiten dugunak eragina izango du bestean.

Parte-hartzea hitz berri samarra dela iruditzen zaigu, baina ez da hala. Gurean, auzolana ez da atzo goizeko kontua. Auzolanak

batez ere herri txikietan iraun du bizirik, ohikoa da auzokoan arteko elkarlana, herriko eraikinak konpontzeko, bideak txukuntzeko, elurra kentzeko, zoritxarren bat izan zuen auzokoari laguntzeko, soroko uzta txandan-txandan jasotzeko...

Baina auzolana hitza erabili gabe, herri handiagoetan ere jotzen dugu besteengana laguntza eske, egin beharrekoak gure ahalmena gainditzen duenean. Ez da kasualitatea gurean elkartean eta taldeetan biltzeko daukagun joera, gehienetan interes komunak lortze aldera, baita arazoak konpontzeko, zailtasunak gainditzeko, elkarrekin jarduteko... Ondo daukagu ikasita “Ezina ekinez egina”, elkarrekin bada, batik bat.

Distira atera diegu “parte hartu” eta “partaidetza” hitzei, eta letra larriekin idatzi ditugu, beste hitz batzuekin batera: aritu edo jardun; elkarri, elkarrekin eta elkarrengana; hartu eta eman, jaso eta eskaini; harremanak egin; ehundu, hariak josi, sarea egin, zubiak eraiki; gerturatu edo hurbildu; partekatu; iritzi-truke, adostasun-puntu, ikuspegiak bateratu; hitz egin eta entzun, kontuan hartu eta aintzat hartu; proposamenak, premiak, nahiak eta beharrak; informazioa eman; gardentasuna ziurtatu; auzolana eta elkarlana; eraikuntza kolektiboa; abian jarri eta amaitu... Horra hor liburu honetako esperientzietan behin eta berriz aurkituko dituzun hitzak edo kontzeptuak. Hitz hotzak, hitz hutsak, ordea, letrak elkartzea baino ez, edukirik ezean, bihotzik eta taupadarik ezean, eta horixe da erronka, hain zuzen ere: hitz horiek hornitzea eta betetzea, berez daukaten esanahia izan dezaten.

Urte askotan, parte hartzeko era nagusi bat zegoela sinetsarazi nahi izan digute batzuek: lau urtean behin botoa eman, ordezkariak aukeratu eta utzi lasai dakienari egiten; urteotan nagusitu den mezua izan da ez dela beharrezkoa herritarrek parte hartzea, hor daudelako pertsona batzuk herritarren nahiak eta interesak kontuan izan eta zainduko dituztenak, ondo

prestatuak, gestore bikainak... Herritarrek parte-hartzea baino, herritarrak apartatzea bultzatu nahi izan da, erakundeetako gestiotik urruntzea, traba edo oztopo balira bezala, herritarren partaidetzak lana moteldu, zaildu, eragotzi egingo balu bezala... Horrela, handitu egin da erakundeen eta herritarren arteko lubakia, tartea, eta “politika” hitza lohitu egin zaigu, balioa galdu du, ez dago onenean, politika egiteko era jakin bati lotu izan zaiolako; politika, ordea, beharrezkoa da, eta aurreikusi behar dira politikan eta erakundeetan herritarrek iraunkorki parte hartzeko guneak, are gehiago herritarrengandik gertuen dauden erakundeetan, udaletan.

Herrigintza guztion ardurua da, alderdi politikoena eta erakundeetako arduradunena ez ezik, herritarrena ere bai, eta aukera eman behar zaie herritarrei udaletako gestioan parte hartzeko eta eragiteko. Udal-gestioan parte hartzea, ordea, ez da udalari laguntzea, edo iritzia ematea, edo informazioa jasotzea, hori baino askoz ere gehiago da: gauzak elkarrekin aztertu, elkarrekin landu eta elkarrekin zerbait sortzea da. Parte-hartzea ez da berez edo bakarrik gertatzen; aitzitik, landu beharra dago, lagundu eta sustatu, baldintza egokiak sortu behar dira herritarrek parte har dezaten. Besteak beste, informazio osoa jarri behar da herritarren eskura; uneak eta guneak pentsatu eta prestatu behar dira hausnartzeko, iritziak partekatzeko, eztabaidatzeko; hasieratik, garbi izan behar dugu zein izango den helburua edo nora iritsi nahi dugun, nahiz eta ez jakin amaieran zein izango den emaitza.

Partaidetzazko prozesuei esker, herritarrek parte hartzen dutenean, demokrazian sakontzen dugu, balio demokratikoek dimentsio handiagoa hartzen dute. Halaber, prozesu horiek informazio-iturri garrantzitsuak dira eta balio dute udal-ordezkarien eta herritarren arteko komunikazioa eta harremanak sendotzeko, zubiak eraikitzeko; izan ere,

partaidetzako prozesuen bidez aukera ematen dugu iritziak adierazteko eta partekatzeke, bakoitzarengandik talderako urratsa egiteko eta elkarrekin jarduteko, eta iritzi guztiak errespetatuta, aniztasunean eta adostasunean oinarritutako kultura politiko berria eraikitzen da. Azkenik, lan handia da partaidetza bultzatzea, sarritan esker txarrekoa edo aitortza txikikoa, epe laburrera baino, epe luzera fruituak ematen dituen: nola egiten dugun orain lan, halako emaitzak jasoko ditugu etorkizunean.

Gure erakundeetatik herritarren partaidetza bultzatu nahi badugu, kultura politiko berri bat martxan jarri nahi badugu, herritarrak eguneroko lanera, gestiora, erabaki-guneetara ekarri nahi baditugu, komeni da aurretik parte-hartzeaz gogoeta egitea, hausnartzea, eta deklinabideak ederki lagunduko digu horretan: nor, nori, nork, non, norekin... Parte hartzeko sistemaz ari gara, partaidetzaren egituraz edo arkitekturaz. Baina hausnarketa hori beharrezkoa izanik ere, ez da komeni horretan gehiegi luzatzea, are gehiago ez atzera eta ez aurrera, hausnarketa huts eta hutsalean, kateatuta geratzeko arriskua baldin badago. Egin geldialdia eta hausnartu zenbat ikasi duzun orain arte, bizitzan zehar... Nola joan zaren zailtzen, nola eta zenbat gauza ikasi dituzun... Ikasteko, aritzea bezalakorik ez dago, eta praktikan jardunda eta egindakoa aztertuta, ikusi zertan asmatu duzun eta zertan ez, zer ikasi duzun. Parte-hartzean trebatzeko, ez dago parte hartzea bezalakorik.

Liburu honetan parte hartzeko esperientzia ugari daude, nahi izanez gero ikusteko eta ikasteko, baina guztiak ondo irakurrita ere, antzekoren bat praktikan jartzen saiatuta, emaitza desberdina izango da seguru, arestian adierazi bezala pertsonok hartzen dugulako parte, zorionez guztiok desberdinak garelako eta badaudelako hainbat alderdi kontrolatu ezingo ditugunak eta emaitzan eragingo dutenak.



Parte hartzeko prozesuetan, badaude ezinbestean kontuan hartu beharreko aldeak fase guztietan, nahitaez aurreikusi eta landu beharrekoak: aurrelanetan baldintza egokiak sortzea prozesua abiatzeko, garapenean herritarrek parte hartzeko guneak eta uneak bermatzea, amaieran balorazioa egitea eta ikasitakoak identifikatzea, emaitza herritarrei itzultzea, etorkizuneko konpromisoak eta urratsak prestatzea... Aztertu zer egiten dugun herritarrek parte hartzeko, zer erraztasun ematen ditugun, zer zailtasun edo oztopo jartzen dizkiegun; begiratu praktikari, jokamoldeari, eta saiatu etengabe ikasten eta hobetzen. Prozesuaren amaierara iritsirik, eraldaketa-prozesu guztietan bezala, beste prozesu bat abiatu beharko dugu, eta egoera hobean egongo gara horri ekiteko, aurretik egindako guztiak horretan lagunduko digulako. Izan ere, aurreak erakusten du atzea nola dantzatu.

Hasieran adierazi dut ez nuela nahi eman ikasgai magistralik, eta iruditzen zait horretan hasia naizela... Isiltzeko ordua da, beraz, eta hitz egin dezatela liburuko benetako protagonistek.

# bidasoaldea



## Herriak (2)

Hondarribia eta Irun

## Biztanleak

77.524 (gipuzkoarren % 10,92)

## Azalera

71,43 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 3,59)





g

ipuzkoako eskualderik txikiena da, eta ez da zaila ia osorik ikustea, begi bistan, inguruko mendietako batetik. Gipuzkoaren ekialdean dago, eta hauek ditu mugak: iparraldean, Kantauri itsasoa; ekialdean, Lapurdi; hegoaldean, Bortziriak (Nafarroa); eta, mendebaldean, Oarsoaldea.

Bidasoa ibaitik hartzen du izena eskualdeak, bertatik pasa eta itsasoratzen baita, Txingudiko badian, Nafarroan (Erratzun) sortu eta 66 km-ko bidea egin ondoren.

Bidasoaldean bi udal bakarrik daude: Irun (Gipuzkoako bigarren herririk handiena biztanle-kopuruari dagokionez) eta Hondarribia. Gaur egun, bi udal horien herriguneak ia elkarturik daude.

Urte askotan, Bidasoa ibaia mugatzat hartu izan dute Frantziako eta Espainiako estatuek, eta horrek eragin handia izan du eskualdean, batik bat ekonomia-jardueraren zati handi bat aduana-burokraziaren ingurukoa izan zelako. Europako Batasunaren baitan mugak zabaltzearekin edo ezabatzearekin, jarduera horiek gainbehera egin zuten, baina oraindik ere nabarmena da jendearen joan-etorria, batik bat erosketak egitera, mugaren alde batean edo bestean prezioetan izaten diren gorabeherengatik.

Eskualdean hainbat garraio-azpiegitura daude: errepideei dagokienez, A-8 autobidea (Bilbao-Behobia), N-I errepidea (Madril-Irun) eta N-121 eskualdeko errepidea (lotura honi esker, harreman estuak daude Nafarroako ipar-ekialdeko herriekin); treni dagokienez, tren-geltokia dago Irunen eta *Topoa* ere bai (EuskoTren, Donostia eta Hendaia artekoa); aireportua dago Hondarribian, pista bakarrekoa eta txikia.

Hondarribian turismoak pisu handia dauka ekonomian, eta bisitarientzat bereziki nabarmentzekoak dira Alde Zaharra eta hondartza. Halaber, jarduera garrantzitsua da arrantza, eta baxurako portuetatik, euskal kostaldeko bigarrena da Hondarribia, Ondarroaren atzetik.

Irunen, berriz, industriak eta zerbitzuek garrantzi handiagoa daukate. Hainbat industrialde daude, eta aldameneko nafar herrien eta Lapurdiko biztanleen merkataritza-jarduera asko Irunen egiten dira.

Irun epai-barrutiko burua da, eta eskualdeko ospitalea ere badago bertan ■

# Irun



Azalera: 42,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 61.006, irundarrak


Udalbatzarraren osaera:

**PSE-EE** (9), **EAJ-PNV** (5), **Bildu** (5),  
**PP** (5) eta **Ezker Batua-Berdeak** (1)

[www.irun.org](http://www.irun.org)

Parte-hartzearen ardura

**PEDRO ALEGRE ARRIZBALAGA**  
(zinegotzia)



# ARTIA ETA BELASKOENEA

Noiz

2012ko iraila-azaroa

Parte-hartzaileak

110 lagun (43 emakumezko, 67 gizonezko)

Belaskoenean: 70 lagun (% 50 emakumezkoak, % 50 gizonezkoak)


Artian: 40 lagun (% 20 emakumezkoak, % 80 gizonezkoak)

hirigintza



**A**rtia eta Belaskoenea Irungo bi auzo dira, bakoitza bere berezitasun eta iazerarekin.

Artia 60-70eko hamarkadan hain ohikoa izan zen hirigintza-garapenaren ondorioa da: solairu askoko eraikin-multzo ugari daude, berdegune gutxi eta lur azpiko aparkalekurik ez; horrek aparkatzeko eta mugikortasunerako gorabehera handiak sortzen



ditu, eta, gainera, orografiak areagotu egiten du arazoa, desnibel asko eta handiak baitaude; gaur egun, Artian, 6.448 biztanle bizi dira (Irungo biztanle guztien % 10,52); neurri batean "lotarako" auzoa denez, auzokoen erreklamazio nagusia aparkalekuena da, batez ere gauerako.

Belaskoenean, berriz, hirigintzaren aldetik, bi errealitate oso desberdin elkartzen dira: batetik, familia bakarreko etxeak edo etxebizitza-kopuru txikiko gunek, zaharragoa eta erdigunetik





hurbilago; bestetik, 1960-70eko hamarkadetako etxeak daude, solairu askokoak eta tartean berdegune zabal batzuekin; halaber, oso hurbil daude hiriko parke publiko zabalak; gainera, ondoan industrialde handi bat ere badago.

Bi auzoetan ere hirigintza-aktuzio bana (kaletik aparkalekuak eta trafikoa kendu eta oinezkoentzat izatea) egiteko asmoa zeukan Irungo Udalak, eta parte hartzeko prozesu baten bidez auzotarrei horien gaineko iritzia eskatzeaz gain, aukera baliatu nahi izan zuen bertan bizi direnen beharrak eta interesak jasotzeko, etorkizunean horiei lehentasuna emateko. Beraz, bi prozesu izan ziren, aldi berean egin zirenak, antzeko helburuekin baina edukiaren aldetik desberdinak. Bi prozesuetan asistentzia nahi baino txikiagoa izan zen (batez ere Artian), baina eragin sozial handiko pertsonen presentzia nabarmena izan zen (auzo-elkarteetako kideak edo ordezkariak, enpresariak, merkatariak, eskoletako ordezkariak...). Herritarrek argi adierazi zuten zer iritzi zeukaten Udalak proposatutako proiektuez eta auzoek eta auzotarrek zeuzkaten beharrez eta nahiez. Oso giro ona izan zen, eta bertaratuek gogotsu hartu zuten parte.

Aurrera begira, hurrengo prozesuetan kontuan izatekoetan, ondorengoak azpimarratu zituen Udalak: herritarrei iradoki edo erakutsi behar zaizkien aukerak eta irtenbideak ondo landuta eramane behar direla, bakoitzaren aldeko eta aurkakoak ondo adierazita. Halaber, herritarren parte-hartze zuzenak auzo-elkarteen ordezkariak aberastu zuten.



## ESPERANZA MARTÍN

Belaskoenea ikastetxe-ko zuzendaria

**"B**elaskoenea auzoko partaidetzako prozesuari dagokionez, nire ustez nabarmentzekoa da auzoan parte hartzen duten talde eta eragile guztiak biltzea, eta bakoitzak bere kezak eta beharrak adieraztea.

Prozesuaz arduratu zen enpresa egokia iruditu zitzaidan. Auzotar batzuei iruditzen zitzaie inbertsio hori dirua alferrik galtzea zela, baina guri (eskolatik joan gineno) asko gustatu zitzaigun. Eskolan oso antzeko metodologia erabiltzen dugu, uste dugulako eraginkorra eta demokratikoa dela.

Emaitei dagokienez, oso gustura gaude, eskolako jolaslekua estaltzea lortu dugulako; baziren urte batzuk hori eskatu eta eskatu ari ginela, batere emaitzarik lortu gabe.

Ez dakit parte hartu zuten gainerakoek guk bezain gustura amaitu zuten. Mahai gainean jarri ziren beharretako asko konpondu edo asetu gabe geratu ziren, hainbat arrazoiengatik.

Hau lehen urratsa da herria eta auzoak hobetzeko. Bilera gehiago egin beharko dira, eta emaitzak lortzen badira, herritarren partaidetza bultzatu egingo da, gizartean –arrazoiarekin– hain hedatua dagoen eszeptizismo honetatik irteteko //



## MIKEL ALZAGA

Artia auzoko bizilaguna

**Zer nabarmenduko edo azpimarratuko zenuke esperientziatik?**

Parte hartzen dudana lehen aldia da, eta balorazio positiboa egiten dut.

**Zer gustatu zaizu bereziki?**

Udaleko ordezkariak aurrez aurre ikustea, eta gaiak beraiekin zuzenean aztertu eta eztabaidatu ahal izatea.

**Nola sentitu zara?**

Ba, iritzia emateko aukera izan dut eta horregatik integratuta sentitu naiz. Nire ideiak azaldu ahal izan ditut, konponbideak aurkitzeko.

**Zer emaitza lortu da?**

Jende berria ezagutu dut eta orain harreman handiagoa daukat auzoko jendearekin.

**Prozesuak izan al du eraginik herrian?**

Beno! Nola gauden ikusita, zerbait egin da. Ulertzekoa da gehiago ez egitea.

**Parte-hartzeari dagokionez, zer erronka dago etorkizunerako?**

Alderdi politikoek lan egin dezatela hiriaren alde eta konfiantza eman jendeari.

# ALKATEA AUZOETAN

Noiz  
2012. urtetik aurrera


Parte-hartzaileak  
650 lagun 10 saiotan  
(% 50 emakumezkoak, % 50 gionezkoak)



**A**uzoetako eta auzotarren behar eta nahi zehatzak jasotzeko, legealdia hasi zuenean, Irungo alkateak hainbat bisita egin zituen auzoetara. Horrela, herritarren ekarpenak jasotzeko kanal berri bat ireki nahi izan zen, alkatetza jendeari hurbilduta, eta gardentasuna eta parte-hartzea bultzatu nahi izan zituen Udalak. 2013ko ekaina arte, 10 bilera egin ziren, eta urtea amaitzerako beste sei egiteko asmoa zegoen; 2014an, berriz, bigarren bira hasteko asmoa dago.

Bilera guztietan, antzeko lan-eskemari jarraitu zioten: prestaketa-lanak egin ondoren (auzo-elkarteekin lankidetzan jardun eta antolatu, bilerarako leku egokia aurkitu, auzoko egoera aztertu, komunikazioa landu...), aurrez aurreko saioa egiten zen; bertan, alkateak azalpenak ematen zituen, eta, ondoren, herritarrek hartzen zuten hitza eta alkateak entzun egiten zuen; bisita amaitu ondoren, bideak jartzen ziren bestelako ekarpenak Internet bidez jasotzeko eta saioa ebaluatzeko; azkenik, herritarrek adierazitakoaren aurrean, Gobernu Taldeak konpromisoak hartzen zituen eta jakinarazi egiten zituen.

Prozesu honetan, auzo bakoitzarekin hartutako konpromisoen segimenduak garrantzi handia du. Horretarako, semaforo-sistema argigarri baten bitartez, Udalaren webgunean hilero eguneratzen da auzo guztien egoera:



Bileren balorazioari dagokionez, argi geratu zen zenbat eta komunikazio hobea edo handiagoa egin, orduan eta asistentzia handiagoa lortzen dela eta jendeak eskertu egiten duela alkatea auzora bertara joatea. Halaber, oso garrantzitsutzat jo zen bilera ondo prestatzea, hau da, aurretik auzoaren ezaugarriak eta errealitatea ondo landuta eramatea.





# buruntzaldea



## Herriak (6)


Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil

## Biztanleak

68.934 (gipuzkoarren % 9,71)

## Azalera

139,62 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 7,02)



**e**skualde hau beste izen batzuekin ere izendatu izan da: Hernanialdea, Donostialdea, Beterri..., baina azken urteetan indar handia hartzen ari da Buruntzaldea izendapena<sup>1</sup>. Hauek ditu mugakide: iparraldean, Donostia; hegoaldean, Tolosaldea; mendebaldean, Urola Kosta; eta, ekialdean, Oarsoaldea.

Buruntza menditik hartzen du izena eskualdeak. Mendi horrek 441 metro dauzka, eta Andoain eta Lasarte-Oria artean dago, Adarra mendiaren aurrez aurre. Gailurretik, nahikoa ondo ikusten da eskualde osoa.

Jarduerei dagokionez, Buruntzaldeak Euskal Herriko sagardotegi-kontzentrazio handiena dauka, eta horixe da eskualdearen ezaugarri nagusietako bat.


Antolaraerari edo egituraketari dagokionez, Gipuzkoan hauxe da udalen artean mankomunitaterik eratuta ez daukan eskualde bakarra. Nolanahi ere, zenbait gaitan (adibidez, euskaran edo kiroletan), eskualde ikuspegiarekin jarduten dute udalek elkarlanean ■

---

<sup>1</sup> Badirudi azken erabakia dela eskualdeari etorkizunean Donostialdea-Mendebaldea izendatzea.



# Andoain



Azalera: 27,17 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 14.702, andoaindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), PSE-EE (6),  
EAJ-PNV (3) eta PP (1)

[www.andoain.org](http://www.andoain.org)



# PARTE HARTZEKO HARIAK LOTUZ

## Noiz

2011ko abendua-2012ko otsaila

## Parte-hartzaileak

389 lagun (175 emakumezko, 214 gizonezko)

herritarrekin  
harremanak



**E**gitasmo honen bidez, Andoaingo Udalak auzoetara eta herritarrengana gerturatu nahi izan zuen, harremanak josteko hari zuzenak ezarri nahi izan zituen, elkarrekin komunikatzeko eta parte hartzeko bideak ezartzeko.

Hori lortzeko, Udalak Andoain sei gunetan banatu zuen, eta horietako bakoitzean batzar bat egin zuen, betiere antzeko egiturarekin: hasteko, udal-ordezkari eta hautetsiek Udaleko egoeraren berri eman eta asmoak azaldu zituzten; ondoren, herritarren proposamenak eta beharrak jaso zituzten.



Gero, herritarrek adierazitako horiek guztiak aztertu eta sailkatu egin zituzten, egin beharreko garaiaren arabera (epe laburrean, ertainean edo luzean egitekoak) eta Udalak konpromiso zehatzak hartu zituen etorkizunean eta denbora-tarte horren barruan gauzatzeko; egin edo gauzatu ezin ziren proposamenei zegokienez, Udalak zergatiak azaldu zituen. Herritarren ekarpenak bi mailatakoak izan ziren: auzoari begirakoak eta Andoain osoari begirakoak. Guztira 300 ekarpen inguru jaso zituzten, eta gaika sailkatu zituzten (Hirigintza, Ongizatea, Zerbitzuak, Ekonomia, Kultura...). Bilerak oso giro onean egin ziren eta herritarrek, balorazio ona egiteaz gain, eskerrak ere eman zituzten aukeragatik.

Lortutakoen atalean, bereziki azpimarratzekoa izan zen bide berri bat sortu zela herritarren eta Udalaren artean komunikatzeko eta parte hartzeko, eta kultura politikoaren eraldaketa sustatu zela, hau da, ordura arte indarrean zegoen “demokrazia” kontzeptua zabaldu egin zela, baita herritarrek instituzioetan gehiago parte hartzea ere; hobetzekoetan, berriz, batez ere bi hutsune nabarmendu ziren asistentzian: saioetan ez zuten parte hartu nahi/espero adina gaztek eta etorkinek.



"Oso ondo iruditzen zait egin dena.  
Espero egindakoa paperetan ez  
gelditzea eta benetan aurrera  
eramatea"

"Merezi du  
proposamenak  
aurrera eramaten  
badira"

"Horrelako hitzaldiak  
oso komenigarriak  
eta onak dira"

"Urtero egin  
beharko litzateke"

"Partaidetzazko prozesua  
oso positiboa herriarentzat.  
Jarraipena izan beharra  
dauka"

"Oso ideia ona"

"Ondo legoke  
proposamenak egiteko  
bide iraunkorrak  
zabaltzea"

"Espero honek  
segida izatea.  
Oso ongi"

"Egokia.  
Dinamizazio-lanetan  
ohituta ez egon arren,  
merezi du"

"Oso interesgarria,  
emaitzak ikusi  
behar"

"Oso ondo iruditzen zaizkit  
honelako bilerak"

"Positiboa, eta  
gehiago egin  
behar dira"

"Oso ondo iruditzen zaizkit bi  
bilerak. Ikusten da herriarekin  
zaudetela eta ardura daukazuela  
dena ondo joateko. Eskerrik asko"

"Bazen garaia herrirako zer  
egin behar dugun hitz egin  
edo erabaki ahal izateko"

"Interesgarria benetan.  
Eskertzekoa eta baloratzekoa.  
Eskerrik asko"

"Ikasten ari gara  
parte hartzen"

# Astigarraga



Azalera: 17,156 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 4.818, astigartarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (2) eta

Hamaikabat (2)

[www.astigarraga.net](http://www.astigarraga.net)



# HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA BERRIA

## Noiz

2012ko urria-abendua

## Parte-hartzaileak

Bileretan: 496 lagun (268 emakumezko, 228 gizonetzko)

Batzar orokorrean: 115 lagun

garapen  
iraunkorra



**A**stigarragako Udalak hondakinak jasotzeko sistema aldatzeko erabakia hartu zuen eta parte hartzeko prozesua jarri zuen martxan herritarrei sistema horren gaineko informazio zuzena emateko eta sistema herritarrekin batera zehazteko. Guztira 25 batzar egin zituzten, bederatzi auzotan eta sektoreka (merkatariak eta dendariak, sagardogileak, tabernariak eta udal-langileak), bi erronda edo txandatan. Lehen errondan, gaur egungo sistemaren datuak eta ondorioak azaldu zituzten, baita atez ateko sistema ezartzeko zergatiak edo arrazoiak ere; bigarren errondan, berriz, herritarrekin batera, sistema berria ezartzeko hainbat erabaki hartu zituzten: biltzeko egutegia, maiztasuna, edukiontziak nolakoak izango ziren... Amaieran, batzar orokorra egin zuten, bigarren errondako edukien berri emateko eta erabakitako behin betiko sistema aurkezteko.

Herritarren ekarpenak oso baliagarriak izan ziren, eta kopuruaren aldetik parte-hartzea oso handia; hala ere, hutsune batzuk nabarmenak izan ziren, bereziki dendari eta tabernarien sektorearena eta landa-lurreko herritarrena. Udalak DVD bat prestatu zuen, sistema berriaren inguruko informazioarekin, bileretara etorri ezin zirenei emateko.







## OLATZ SOTO

Kazetaria  
45 urte

“**P**arte hartzeko prozesu honetan ahots desberdinak entzuteko aukera izan genuen. Alde batetik, atez ateko bilketa-sistemaren ardatz nagusiak eta ezaugarriak, eta, bestetik, bizilagunen kezka eta zalantzak. Informazio dezente jaso nuen eta baliogarria izan zen, hondakinak guk kudeatu behar ditugula kontzientzia hartzeko. Azpimarratuko nuke, batez ere, gai honen inguruan zegoen jakin-mina. Denok informazioa behar genuen, zuzeneko informazioa, une horretan informazio-iturri nagusia komunikabideen aldetik zetorrelako eta informazio hori nahikoa biziartuta zegoelako.

Uste baino jende gutxiagok hartu zuen parte. Halere, parte hartu genuenok orokorrean gustura atera ginen. Bilera bakoitzean balorazioa egiten genuen eta nik parte hartu nuen saioetan guztiz positiboa izan zen. Gainera, parte hartzeko prozesu honetan zehar aukera izan genuen beste herrietako esperientziak gertutik ezagutzeko, beraiek lortutako emaitzak.

Parte hartzeko prozesu honek eragina izan du herrian, atez ateko bilketa-sistema aurrera eramateko orduan. Hainbat gauza eztabaidatzeko aukera izan genuen: hondakinak jasotzeko ordutegia, egutegia, ontzien kokapena eta abar. Erabaki horiek finkatu zuten aurrera eramaten ari garen bilketa-sistema. Iradokizunak ere kontuan hartu ziren eta aldaketa batzuk egin ziren, sistema gure herrira egokitzeko.

Balorazio ona egiten dut, parte hartzeko prozesu honetan hitz egiteko eta iritzi desberdinak entzuteko aukera izan genuelako. Oso didaktikoa izan zen. Kezka azaltzeko gunea izan genuen eta hori oso inportantea dela iruditzen zait. Pega bakar bat aipatuko dut: jende gutxi hartu zuela parte.

Astigarraga asko aldatu da azken urte hauetan, eta egokitze-prozesu bat beharko du herri honek. Biztanle-hazkunde handia izan du; zerbitzuak eskaintzeko instalazioak, ordea, ez dira gehiegi aldatu, ia berdinak mantentzen dira. Beraz, lana badugu herri honetan: zer nolako herria nahi dugun argitzea //



## JOXEAN OTAEGI

Metalgintzako langilea  
46 urte

“**N**abarmenduko nuke eztabaida handia egon zela, iritzi eta mota askotako aportazioekin. Uste dut emaitza onak izan direla, baina urtebete-edo pasa beharko da emaitza horiek onak izan diren ala ez ikusteko.

Parte hartzeko prozesuak dezenteko eragina izan zuela uste dut gaiak zuen eraginarengatik. Eztabaida kalean, tabernetan eta abarretan zegoen eta denok inplikatu behar izan dugu.

Balorazio positiboa egingo nuke, gai honekin herriko biztanle guztiak inplikatu behar izan dutelako.

Aztertu beharko litzateke zer pauso eman beharko liratekeen, baina garbi dagoena da gaiak berebiziko garrantzia duela. Hau da, denoi eragiten digun gaia bada, herritarren inplikazio handiagoa lortzen da //

# EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Noiz

2012ko iraila-2013ko apirila

Parte-hartzaileak

16 lagun (10 emakumezko, 6 gizonezko)

euskara



**A**stigarragako Udalak euskararen aldeko sentsibilizazioa handitu nahi zuen, baita herriko eragileak aktibatu ere. Horretarako, garrantzitsutzat jo zuen Astigarragan euskararen alorrean hurrengo 3-4 urteetan egin beharrekoak aurreikustea Plan Estrategikoaren bidez: helburu nagusia, hori lortzeko estrategiak, ekintzak... Herriko eragile nagusiak (merkatariak, kirol-elkarteak, Sagardun partzuergoa, Gaztelekua, Gazte Asanblada, Xaguxar elkarteak, Musika Eskola...) Euskararen Aholku Batzordean parte hartzera gonbidatu zituen eta elkarrekin hainbat saio egin zituzten Plan Estrategikoa zehazteko.

# IKASTOLAKO JOLASLEKUA

Noiz

2013ko maiatza

Parte-hartzaileak

150 haur, 5-12 urte artekoak

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**2**013ko udan, Astigarragako Arantzazuko Ama ikastolako patioko jolaslekua berritzeko eta handitzeko asmoa zeukaten. Udaleko teknikariek (aparejadoreak, delineanteak...) eta ikastolako irakasle eta gurasoek lanak zehazteko hainbat bilera egin zituzten, baina orduan konturatu ziren proiektuan haurrak falta zirela; hau da, proiektua haurrentzako izanik, ezinbestekoa zela hurrek ere proiektuaren gaineko iritzia ematea. Horregatik, 5 urtetik 12 urte bitarteko ikasleekin (150 guztira) elkartu ziren taldez talde, eta lanak nolakoak izango ziren azaldu ondoren, hurrei eskatu zieten ideiak, nahiak eta beharrak adierazteko. Taldean eztabaidatu ondoren, hurrek proposamenak egin zituzten, marrazki bana eta idatziz.

Horrela, hurrek egin zuten eskaera ez zetorren bat Udalak hasieran zituen asmoekin: helduek diseinatutako jolaslekuan futboleko, saski-baloioan... aritzeko guneak aurreikusitakoak; haurren proposamena, berriz, guztiz bestelakoa zen, eta, besteak beste, honelakoak eskatzen zituzten: tirolina, txirrista luzeak, taldean jolasteko kulunkak, dorre altuak, hondarra, mahaiak eta eserlekuak, loreak, zuloak, etxetxoak...

Prozesuaren ondorioz, diseinu berrirako Udalak kontuan hartu zuen hurrek proposatutakoa.





# Hernani



Azalera: 42 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 19.296, hernaniarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), EAJ-PNV (3), PSE-EE (3)  
eta Hamaikabat (2)

Parte-hartzearen ardura

**LUIX INTXAUSPE AROZAMENA**

(alkatea)



[www.hernani.net](http://www.hernani.net)



# HERRITARREN PARTAIDETZA BULTZATZEKO AUZOETAKO BIZILAGUNEKIN BILERAK

## Noiz

Lehen txanda, 2012ko urtarrila-otsaila; bigarren txanda, 2012ko iraila-2013ko ekaina

## Parte-hartzaileak

554 lagun (251 emakumezko, 303 gizonetzko)

1. txanda: 352 lagun (159 emakumezko, 193 gizonetzko)
2. txanda: 202 lagun (92 emakumezko, 110 gizonetzko)

herritarrekin  
harremanak



**2**012an, Hernaniko Udalak bilera-erronda bat egin zuen Udallerri osoan, hiru helburu nagusi hauekin: auzoekin harremanak estutzea, auzoen eta herritarren beharrak edo nahiak zuzenean jasotzea eta auzoetako ordezkariekin Udalean batzorde berezi bat sortzea.

Guztira 24 bilera egin zituzten (1. txandan, 14; 2. txandan, 10), denak ere eskema beraren arabera antolatutak eta garatuak: hasteko, udal-ordezkariak Udalaren Parte Hartzeko Sailaren asmoak, ikuspegia... azaldu zituzten; gero, Udalaren egoera ekonomikoaren berri eman zuten eta 2012ko aurrekontuak azaldu zituzten; azkenik, auzotarren kezak, beharrak, arazoak... jaso zituzten. Bileren ondorioz, "Hernani Parte Hartzea" izeneko batzordea eratu zen Udalean, harremanetarako eta lanerako egitura egonkor gisa. Halaber, prozesuetako helburuetako bat zen auzoak berrindartzea, eta lortu ere egin zen, bi auzo-elkarte berri sortu baitziren.

Oro har, oso balorazio ona egin zuten parte-hartzaileek eta Udalak, eta batik bat giro ona eta asistentzia nabarmendu



zituzten, espero baino jende gehiagok hartu baitzuen parte. Halaber, prozesuak balio izan zuen auzoetan auzotarrak elkartzeko lokalak nola zeuden ikusteko eta berriak lortzeko edo egokitzeko. Hobetzekoetan, berriz, ondorengo hauek azpimarratu zituzten: asistentziaren segimendu zehatzagoa egitea eta bileraren amaieran balorazioa egitea.





## BEGOÑA GURRUTXAGA URDANGARIN

Harreragilea  
40 urte

**"G**ure auzo-elkarteko kide bezala joan nintzen bilera hauetara eta ez nekien zer aurkituko nuen. Hasieratik oso interesgarria iruditu zitzaidan.

Jendeak kalean beti esaten du politikariek beraiena egiten dutela, herritarrei iritzia galdetu gabe eta horiei kasurik egin gabe.

Jardunaldi hauetan oso giro ona topatu nuen.

Udalaren izenean parte hartu zuten pertsonak gure iritzia entzun ez ezik, zer asmo, nahi edo behar genituen ere jakin nahi izan zuten. Adibidez, azken bileretan elkartearen aurrekontuaz eta diru-laguntzaz aritu ginen lanean eta denon artean adostu genuen Udaleko diru eskasa elkarteen artean nola banatu behar dugun eta aurtengo banaketan kontuan hartuko dute.

Ikusi duzuenez, oso pozik nago esperientzia honekin eta espero dut honelako ekimenek jarraipena izatea eta berriak sortzea, gure herria hobetzeko //



## JOXEBA GAINZA

Funtzionarioa  
(mantentze-lanak)  
35 urte

**"A**uzoetan izan den parte hartzeko prozesuak alde onak eta txarrak izan ditu.

Alde ona izan da Udala auzoetara gerturatu dela. Auzotarren kezak, iradokizunak, kezak... entzun eta argitu ditu. Herriaren egoera, Udalaren asmoak eta egoera ekonomikoa aurkeztu dizkigu.

Alde txarra izan da bilera hauen ondoren gauzak ez direla asko aldatu. Egoera ekonomikoaren ondorioz edo Udalak ezin duelako egin, arazo askok bere horretan jarraitzen dute.

Hala ere, eta alde onak nabarmentzearen, herritarrok Udala gertuago sumatzen dugu eta gauzak hobetzeko asmoa ere bai.

Bilera hauetan jendeak bere iritzia emateko aukera izan du eta horrek garrantzi handia dauka.

Orain erronka da bilera hauek maiztasun batekin egitea eta ahal den neurrian emaitzak ikustea; bestela, egindako lanak ez du etekinik izango.

Prozesu honi lotuta, Parte Hartze Batzordea dago eta hor emaitzak ikusten dira; beraz, bide horretatik joan behar dela uste dut //

# Lasarte-Oria



Azalera: 5,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 17.889, lasartearrak, oriatarrak

Udalbatzarraren osaera:

PSE-EE (6), **Bildu** (5), EAJ-PNV (2),  
Plataforma Ciudadana Lasarte-Oria (2),  
PP (1) eta adskribatu gabeko zinegotzia (1)

[www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org)



Parte-hartzearen ardura

**ALAITZ MENDIZABAL URDAPILLETA**  
(zinegotzia)



# TOKIKO EKONOMIA DINAMIZATZEKO PARTAIDETZA-PROZESUA

## Noiz

2012ko maiatzetik aurrera

## Parte-hartzaileak

67 lagun (37 emakumezko, 30 gizonetzko)

sozio-ekonomia



**B**izi dugun krisi ekonomiko larriaren zurrunbiloan, udal askoren ardura eta nahia da tokiko ekonomia suspertzea, herritarren eta herriaren ongizaterako; baina ez da erraza udaletatik sozio-ekonomiaren esparruan eragitea, oso eskumen, ahalmen eta baliabide murrizak dituztelako eta ekonomian eragiten duten faktore gehienak udalerriaz gaindikoak izaten direlako. Horrek ez du esan nahi, ordea, udalek geldirik eta zain egon behar dutenik, zer gertatuko, eta beti dago ekimenen bat sustatzea, tokiko ekonomia suspertzeko.

Zerbait egin nahian, Lasarte-Oriako Udalak baloratu zuen hirugarren sektorean eragin zezakeela errazen, lagun zezakeela merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan ekonomia suspertzen, eta horiekin batera elkarlanean jarduteko, parte hartzeko prozesua jarri zuen martxan. Epe laburrera, proiektuak helburu hauek zituen: sektoreen eta Udalaren arteko komunikazio-bideak zabaltzea eta martxan jar zitezkeen neurriak identifikatzea. Horretarako, hainbat bilera egin zituzten, sektore bakoitzaren gabezia eta kezkak identifikatzeko. Gabezia edo hutsune horiei erantzuna emateko, Udalaren eta sektoreen

inplikazioa eskatu zen, bakoitzak zer egin zezakeen proposatzeko; azken finean, elkarlana, herriko ekonomia sustatze aldera.







## JENNIFER GARCIA

Ostalaria  
32 urte

"Aterpea"-ko lehendakaria



## TXEMA GALARRAGA

Ostalaria  
36 urte

“Oso positiboa iruditzen zait edozein parte hartzeko prozesu. Azpimarratzekoa da, behintzat, Udalak bizilagunen iritzia jakin nahi duela, eta sentsazio ona ematen du hartzen diren erabakietan zerbait esateko daukagula jakiteak.

Badakigu prozesuak bere denbora behar duela, baina azkenean herrian emaitzak nabarmentzen badira, ikusiko da denbora horrek merezi izan duela.

Orain, biztanleok eskatzen duguna da eta prozesuan parte hartu dugunok batez ere (nire ustez) Udalaren aldetik erabakiak lehenbailehen hartzea, eta aldaketak ikusten joatea. Bestela, sentituko dugu denbora galtzea izan dela eta hurrengo parte hartzeko prozesuetarako oso negatiboa izan daiteke. Azkenean bakoitzak bere bizitza dauka eta denbora horretan erabiltzea erabakitzen duenak zerbait lortu nahi du.

Lortu den emaitzarik azpimarragarriena, nire ustez, Udala eta biztanleria gerturatzea izan da. Ez bakarrik instituzio baten moduan ikustea, baizik eta arazoei aurre egiteko tresna bilakatzea //

## Zer nabarmendu edo azpimarratuko zenuke esperientziatik?

Tokiko ekonomiari buruzko prozesuari dagokionez, bi puntu azpimarratuko nituzke.

Alde batetik, prozesuaren jaiotza bera nabarmenduko nuke. Gure herrian orain arte ez zegoen honelako prozesurik, eta nire ustez oso garrantzitsua da gaur egungo egoera larriaz hitz egiteko mahai berezi bat eskura izatea. Beraz, prozesuaren ideia bera oso egokia iruditzen zait, oso probetxugarria izan daiteke herrikideak eta Udala elkarrekin eseri eta mintzatzeko aukera izatea.

Bestetik, prozesu honek ireki dituen informazio-bideak azpimarratuko nituzke. Orain, gure arteko komunikazioa askoz azkarragoa eta zehatzagoa da, eta gehiago izan liteke oraindik. Informazio askoz gehiago dugu eskura (ordutegiak, diru-laguntzak eta abar), eta Udalak azkar eta argi erantzuten die gure galderari.

# AUZOS AUZOKO PARTE HARTZEKO PROZESUA

## Noiz

2012ko martxotik aurrera

## Parte-hartzaileak

390 lagun (208 emakumezko, 182 gizonetzko)



**E**gitasmo honen bidez Lasarte-Oriako Udalak herritarrengana eta bereziki auzoetara iritsi nahi izan zuen, Udalaren eta auzotarren artean harremanetarako eta elkarlanerako guneak sortu, auzotarrei udal-jardueretan eragiteko eskubidea bermatu, herritarrek eguneroko bizimodua egiten duten tokira gerturatuta elkargune iraunkor bat lortu. Guztira 8 gune edo auzo bereizi zituzten, eta horietan bilera bana egin zuten. Bileran, Udalaren egoeraren berri jaso zuten auzotarrek; Udalak, berriz, auzoetako beharrak jaso zituen eta herritarrek auzoa hobetzeko proposamenak egin zituzten.

Etorkizunean horrelako bilerak egiten jarraitzeko asmoa dauka Udalak, beste helburu batzuk gehituta, gainera: auzotartasuna indartzea, aurreko bileretan azaldutako nahiei eta beharrei erantzuna ematea, komunikazio-bide eta ohiturak egonkortzea...





# Urnieta



Azalera: 23 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.167, urnietarrak

Udalbatzarraren osaera:

**EAJ-PNV** (5), Bildu (5) eta PSE-EE (3)

[www.urnieta.org](http://www.urnieta.org)



Parte-hartzearen ardura

**MIKEL PAGOLA TOLOSA**

(alkatea)



# URNIETAKO MUGIKORTASUN-PLANA

Noiz

2012ko maiatza-azaroa

mugikortasuna



**M**ugikortasun-planen bidez, lurralde jakin baten azterketa sozio-urbanistikoa egiten da, lurralde horretako hirigintza eta garraiobideak antolatzeko. Urnietako Udalak plan hori egiteko asmoa zeukan eta herritarrekin batera egin nahi zuen, parte hartzeko prozesu baten bidez.

Prozesuan, 4 fase nagusi izan ziren: lehena, datuak biltzea; bigarrena, datuak landu eta simulazio-eredua garatzea; hirugarrena, mugikortasunaren diagnosia egitea; eta, laugarrena eta azkena, ekintza-proposamenak egitea. Lau horietatik, herritarren partaidetza azken bietan (diagnosian eta proposamenetan) landu zuten. Horretarako, herritarrentzat bi foro antolatu zituzten eta bertara gonbidatu zituzten urnietar guztiak, baina bereziki mugikortasunarekin harremanen bat zuten eragileak edo interesatuak (garraiobideak, ikastetxeak, elkarteak...). Foro horien bidez, herritarren behar, nahi, iritzi eta proposamenak jaso zituen Udalak. Tailerretako asistentziari dagokionez, askoz ere gizonetako gehiagok hartu zuten parte emakumezkoek baino.





# BERDINTASUNERAKO DIAGNOSTIKOA ETA I. PLANA

Noiz

2012ko otsaila-abendua

Parte-hartzaileak

34 lagun (22 emakumezko, 12 gizonetzko)

berdintasuna



Urnietako Udalak emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta plana egin nahi zituen, eta horretarako parte hartzeko prozesua jarri zuen martxan, herritarren sentsibilitateak, iritziak, egoerak eta proposamenak kontuan edo barne izango zirela ziurtatzeko. Egitasmoan, ondorengo urratsak egin zituzten: hasteko, informazio kualitatiboa bildu eta aztertu; horrekin batera, Urnietako eragileei elkarrizketak egin; eta, azkenik, hainbat bilera edo tailer egin herritarrekin, udal-teknikariekin eta -hautetsiekin. Horrela, amaieran, Diagnostikoa eta I. Plana amaituta geratu ziren, abian jartzeko prest.



# Usurbil



**Azalera:** 24,9 km<sup>2</sup>

**Biztanleak:** 6.062, usurbildarrak

**Udalbatzarraren osaera:**

**Bildu** (7), Aralar (2), Hamaikabat (2),  
EAJ-PNV (1) eta PSE-EE (1)



Parte-hartzearen ardura  
**JOSU PORTU ALZAGA**  
(zinegotzia)

[www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)



# USURBILGO HEZKUNTZA-EREDUA

Noiz

2012ko ekaina-2013ko otsaila

Parte-hartzaileak

55 lagun (34 emakumezko, 21 gizonzko)

hezkuntza



U surbilen, hezkuntza formalari dagokionez, 2 eskola txiki (Zubieta eta Aginaga auzoetan) eta Udarregi Ikastola daude. Guraso-talde batek eskatu zuen eskola txikietatik aurrerako hezkuntza-eskaintza publikoa zabaltzeko, berez Usurbilen tamainako herri batek aukera hori eskaini behar duelako. Bestalde, Udarregi Ikastola aspaldi geratu zen txikiegi hainbeste haur eta gazte hartzeko, eta handitzeko pausoak eman zituen (lurrak eskuratu, proiektua egin...). Usurbilgo Udalak ikusten zuen gaiak ezinegona eta zatiketa eragin zezakeela herrian, eta komeni zela gaiaz hausnartzea, hitz egitea eta usurbildarrek etorkizunerako hezkuntza-eredu bateratua adostea, herriko hezkuntza-eragileak eta herritarrak bilduko zituen parte hartzeko prozesu baten bidez.

Horrela, lanerako, bi gune nagusi eratu ziren: alde batetik, Talde Eragilea (edo motorra, 15 lagun ingurukoa, non elkartzen ziren gurasoak, Ikastolako ordezkariak, Udaleko alderdi politikoetako ordezkariak...); eta, bestetik, Herritarren Lantaldea (eragile eta herritar guztiei irekia, batez beste 30 lagun inguru bildu zituena bilera bakoitzean). Bai Talde Eragileak, bai Herritarren Lantaldeak guztira zazpi bilera edo batzar egin zituen



bakoitzak; Talde Eragilean aurrelanak egiten ziren, geroko herritarren bilerak prestatzen ziren. Horrela, bilera horien bidez, hasieran Usurbilgo hezkuntzaren errealitatea aztertu zuten herritarrek, baita diagnostikoa egin ere; gero, Usurbilerako nolako hezkuntza-eredua nahi zuten zehaztu zuten eta dokumentu batean jaso zuten; azkenik, hezkuntza-eredu horretara iristeko bidea nola egin aurreikusi zuten.

Prozesuaren hasieran, garrantzitsua izan zen elkarlanerako baldintza egokiak lortzea. Azkenik, proiektu osoari begiratu, ikusi zen emaitza bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa izan zela ibilbidea, hau da, eragileek elkarrekin egin zituzten urratsak; izan ere, eragileen eta parte hartu zutenen arteko harremanak estutu eta sendotu egin ziren eta etorkizunerako oinarri sendoa ezarri zen.





## MARIAJE IMAZ

Irakaslea eta Udarregi  
Ikastolako zuzendaria  
54 urte

“**N**iretzat oso aberasgarria izan da egindako saiakera hezkuntza-zentro ezberdinetako pertsonak elkartu eta hausnarketa partekatzeko.

Horretaz gain, azpimarratzekoa dela iruditzen zait hezkuntza-ikuspegia mugatu ez izana hezkuntza-zentroetan lan egiten duen langileriari bakarrik, baizik eta hezkuntza ez-formaleko esparrura eta baita familien, ikasleen edota orokorrean hezkuntzan interesa eduki dezakeen edozein herritarren parte hartzeari zabaltea.

Hausnarketak oso interesgarriak izan dira eta parte-hartzaileen artean sortu den harremana funtsezkoa izango da hemendik aurrera landu nahi den prozesuari begira.

Azaleratu diren pertzepzioen aniztasunak asko osa dezake eraiki nahi den egitasmoa. Bestalde, adostasunetara iristeko bidean, pentsatzen dut norbanakoarentzat erronka handia bihur daitekeela, konplexua izaten baita norberak duen ikuspegian besteenei leku egitea. Horra hor erronka! //



## XABIER ARREGI

**EHUko irakaslea**  
**49 urte**

“**H**erriko hezkuntza-eredua adosteko helburua jarri zen lantaldean. Ausarkeria ikus lezake norbaitek planteamendu horretan: herriko hezkuntza-eredu bateratua definitzea ez da nolanahiko helburua!

Hasieratik jabetu ginen parte-hartzaile guztiok zailtasun franko zituela geure buruari jarri genion erronkak.

Batetik, hezkuntza-ereduaren gaiak ertz asko ditu: nondik, nola eta zeri begiratzen zaion, hainbat iritzi eta ikusmolde ateratzen dira. Eta, askotan, iritzi oso kontrajarriak eta bateraezinak dira, gainera.

Bestetik, hezkuntza guztiok ukitzen gaituen gaia da, berotasun handiz bizi duguna. Denok gaude alde edo moldez harrapatuta hezkuntzaren mataza nahasi horretan. Beraz, zaila da axaletik edo distantziatik heltzea gaiari. Berotasun hori, ondo bideratzen jakinez gero, positiboa izan daiteke, baina aldi berean zaila ere gerta daiteke eragiten duen sentimenduzko zama horrek itsutuz gero.

Horra hor, bada, esperientzia horrek eragin didan lehenengo hausnarketa: hezkuntzaz aritu gara, eta arian-arian, gure jarduera bera bilakatu da hezkuntza-esperientzia.

Nolakoa behar du hezkuntzak? Gure jarduerak erakutsi digu: besteari entzun, bestearen iritziak ulertzen saiatu, talde-lana bultzatu, sentimenduak ez ezkutatu baizik eta bidea eman... Hori guztia egin dugu parte hartzeko prozesuan, eta, ez al da, ba, hori hezkuntza-ereduaren oinarrian dagoena?

Ikasgai asko utzi dizkit prozesu honek. Ikasi dut, noski, hezkuntza-ereduez. Ikasi dut talde-lanean eraman beharreko dinamikaz. Ikasi dut parte hartzeko prozesuetan denboraren kudeaketak zer-nolako garrantzia daukan: gaiak korapilatzen direnean, utzi asentatzen, eman denbora, ez tenkatu jarrerak, bilatu tarteko bideak, saiatu elementu bateratzaileak aurkitzen...

Hezkuntza-ereduaren gai konplexuari, azkenean, erantzun positibo bat aurkitu geniola esango nuke. Aurki geniezaiokeen onena? Ez dakit. Baina bai, behintzat, denon ekarpenez osatutakoa. Eta horrek berez du sekulako garrantzia.

Azpimarratuko nituzkeen beste bi puntu:

- Herritarrek, aukera emanda, bidea zabaldua eta erraztuta, erantzun egin dute eta parte hartu. Ez da berez gertatzen, baina landuz gero lortzen da herritarrek parte hartzea.
- Dinamizatzaileak eta koordinatzaileak rol garrantzitsua jokatu dute prozesuan //

# debabarrena



## Herriak (6)

Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze

## Biztanleak

55.084 (gipuzkoarren % 7,76)

## Azalera

180,52 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 9,07)



# g

ipuzkoako ipar-mendebaldean dago. Mendebaldean, Bizkaiko Lea-Artibai eta Durangaldea ditu mugakide; ekialdean, Urola Kosta; hegoaldean, Debagoiena; eta, azkenik, iparraldean, Kantauri itsasoa.

Deba ibaiak zeharkatzen du Debabarrena; Leintz-Gatzaga aldean jaio eta 58 km egin ondoren, izen bereko herrian itsasoratzen da.

Eskualdean, oso irudi desberdinak aurki daitezke, nora begiratzen den: Deban eta Mutrikun, kostaldea eta itsasoa daude, hondartza eta guztirekin; Mendaron, Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen, paisaia industrial da nagusi, metalen transformazioko industriarena, batik bat makina-erremintaren sektorekoak; azkenik, eskualdean haran ezkutu eta gordeak ere badaude, ederrak, naturaren altxor txikiak (adibidez, Olatz, Lastur eta Kilimon).

Industrian ari diren langileak biztanleria aktiboaren erdiak dira, gutxi gorabehera, eta hirugarren sektoreak ehuneko berrogei hartzen du.

Komunikabideei dagokienez, A-8 (Bilbao-Behobia) autobideak eta kostaldeko N-634 errepideak lotzen dituzte herri nagusiak. Beste errepide batzuk ere badaude, oinarriko sarekoak: Mutriku eta Ondarroa Debarekin lotzen dituena (GI-638), Elgoibar Azpeitiarekin lotzen duena (GI-2634) eta Elgoibar Markinarekin lotzen duena (GI-2636), besteak beste. Eskualdea burdinbide bakarrak zeharkatzen du, Donostiatik Bilbora doan bide estuko trenak (EuskoTrenak). Halaber, autobus-zerbitzuak (Lurraldebus) lotzen ditu eskualdeko herri guztiak.

Turismoari lotutako jarduerak Deban eta Mutrikun dauka garrantzirik handiena. Mendaron dago eskualdeko ospitalea, eta Eibar da eskualde osoko epai-barrutiko burua.

Baxurako itsasoko arrantza batez ere Mutrikun egiten da, baina azken urteetan gainbehera dator ontzi-kopuruan eta harrapatutako arrain-kopuruan ■



# Deba



Azalera: 52 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.420, debarrak

Udalbatzarraren osaera:


**Alternatiba eraikitzen** (5), EAJ-PNV (3),  
EA (2), Aralar Ezker Batua Berdeak (2)  
eta Itziar Herria Sortzen (1)

[www.deba.net](http://www.deba.net)

Parte-hartzearen ardura

**MILA IDIAKEZ**

(laguntzailea)



# DEBAKO KIROL-ELKARTEEN PARTAIDETZA-PROZESUA

Noiz

2012ko iraila-abendua

Parte-hartzaileak

33 lagun (7 emakumezko, 26 gizonetzko)

kirola



**D**ebako Udalak partaidetzazko prozesua jarri zuen abian debarrak, Udala eta batez ere kirol-esparruan lan egiten zuten elkarteak elkarrekin harremanetan eta elkarlanean jartzeko, guztiek elkarrekin ondorengoak egiteko: kirola Deban nola zegoen aztertu (diagnostikoa), kirol-ekipamenduen funtzionamendua edo erabilera-arauak zehaztu, kirol-elkarteak elkarrekin koordinatuta aritu eta benetan herritarren beharrei erantzungo zien kirol-planifikazioa aurreikusi. Horretarako, lau fasetan banatuta, hainbat bilera edo saio egin zituzten, eta amaieran, Debako Kirol Mahaia osatu zen, Debako kirol-proiektua egiteko, guztien (herritarren, Udalaren eta elkarteen) arteko harremanak sendotzeko eta bereziki emakumeen kirola eta kirolean euskararen erabilera bultzatzeko.

Egitasmoaren balorazioari helduta, oro har prozesua oso ondo baloratu zuten, ordura arte ez zelako izan aukerarik antzeko ezer egiteko. Prozesuak balio izan zuen oinarria jartzeko, baina asko geratu zen egiteko eta helburu batzuk betetzeko denbora gehiago beharko da. Ikasitakoetan, berriz, azpimarratu zen badirela metodologia bereziak eragileen partaidetza handitzeko, aktibatze eta harremanak lantzeko, batez ere desberdinen arteko adostasun-puntuak aurkitzeko.



# MUGIKORTASUN JASANGARRIA

## Noiz

2011ko ekaina-2013ko ekaina

## Parte-hartzaileak

7.563 gazte (eskualde osoan)



mugikortasuna

**P**roiektu hau Debabarrena eskualde osoan egin zen, Debegesak koordinatuta eta eskualdeko udalek bultzatuta, ikastetxeekin batera udal bakoitzeko eta eskualde osoko mugikortasun-arazoak aztertzeko, ulertzeko eta ahal zen neurrian konpondu eta garraio-bideak herritarren beharretara egokitzeko.

Hasieran, prozesua antolatu eta planifikatu ondoren, irakasleen sentsibilizazioa eta motibazioa landu ziren, eta, ondoren, tokian tokiko mugikortasun-arazoak aztertu ziren, baita konponbideak proposatu ere. Eskolako Agenda 21aren bidez hezkuntza-komunitatearekin egin zen lan, hau da, herri horietako ikastetxeekin eta ikasleekin, baina emaitzak edo ondorioak eskualde osora eta herritar guztiei zabaldu zitzaizkien.

Lanerako, ikasleak kalera irten ziren eta herri bakoitzeko mugikortasun-arazoak bertatik bertara aztertu zituzten. Zehazki, mugikortasuna eta osasuna izan zuten aztergai eta gehienek herriko zein ikastetxeetako zarata neurtu zuten. Herriko diagnostikoa egin eta hobetzekoak identifikatu eta gero, hobetzeko horiek bideratzeko, udaletako teknikariek in bilerak izan ondoren, proposamen zehatzak aurkeztu zizkieten udalei: behar ez zen tokian ez aparkatzeko neurriak jartzea, garraio publiko erabiltzeko kanpainak egitea, egoera txarrean zeuden espaloi eta bideak zein ziren nabarmentzea eta konpontzea, herriko leku zaratatsuenetan panel isolatzaileak jartzea edota herri barruan ibilgailuak motelago ibiltzeko neurriak ezartzea, besteak beste.



# Eibar



Azalera: 22 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 27.396, eibartarrak

Udalbatzarraren osaera:

**PSE-EE** (9), Bildu (6), EAJ-PNV (4)  
eta PP (2)



[www.eibar.net](http://www.eibar.net)

Parte-hartzearen ardura

**ENEKO ANDUEZA LORENZO**

(zinegotzia)





# PLAN ESTRATEGIKOA BERRAZTERTZEA

Noiz  
9 hilabete


tokiko plana /  
plan estrategikoa



**E**ibarren garapen sozioekonomikoa bultzatzeko eta hobetzeko, duela hamahiru urte Eibarko Udalak Plan Estrategikoa landu, onartu eta martxan jarri zuen. Hainbeste urteren ondoren, Udalak erabaki zuen une egokia zela geldialdia egin, hausnartu eta egindakoa baloratzeko. Horretarako, Plan Estrategikoaren barruan biltzen ziren proiektu guztiak (232) hartu eta berraztertu egin zituen; hau da, udal-teknikari eta -hautetsiek baloratu egin zituzten.

Balorazio horrez gain, ordea, eibartarren ikuspegia ere jaso nahi izan zuten azterketan, eta hori bi bidetatik lortu zuten: batetik, kale-inkesta bat eginda, kontuan izanda inkestatuen unibertsoa Eibarko biztanleriaren ezaugarriekin bat etor zedila; bestetik, herriko talde eta eragileekin batera, partaidetzazko bi tailer egin zituzten Plan Estrategikoan egindakoak baloratzeko. Horrela, balorazio erabat kualitatiboa lortu zuten, eta horren osagarri, aurrera begira, adierazle kuantitatiboak ezarri zizkieten plan estrategikoan zehaztutako aldagai nagusiei, segimendua egin eta ekintzen benetako inpaktua neurtzeko.

# Elgoibar



Azalera: 39,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 11.360, elgoibartarrak

Udalbatzarraren osaera:


**EAJ-PNV** (7), Bildu (7), PSE-EE (2)  
eta PP (1)

[www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org)

Parte-hartzearen ardura

**ALFREDO ETXEBERRIA MURUA**

(alkatea)



Argazkia: Barren aldizkaria

# PARTAIDETZARAKO TREBAKUNTZA-SAIOAK

## Noiz

3 hilabete


## Parte-hartzaileak

52 lagun (25 emakumezko, 27 gizonetzko)

Udal-hautetsiak: 13 lagun (6 emakumezko, 7 gizonetzko)

Udal-teknikariak: 20 lagun (11 emakumezko, 9 gizonetzko)

Herritarrak: 19 lagun (8 emakumezko, 11 gizonetzko)



**E**gitasmo honen bidez, partaidetzaren gaineko trebakuntza emanda, herritarren partaidetzarako udal-arauaren oinarria landu nahi izan zuen Elgoibarko Udalak. Horretarako, proiektuaren baitan, bi fase nagusi bereizi ziren, hurrenez hurren: lehenengoan, trebakuntza eman zieten hautetsiei, teknikariei eta herritarrei, partaidetza-eskemetan hezteko, talde bakoitzari bi saioren bidez, eta hurrengo faseko edukiak ere landu zituzten, Elgoibarren partaidetza praktikara eramateko eskema nagusia ere landu baitzen. Bigarren fasean, berriz, aurreko saioretan landutakotik abiatuta, Elgoibarko Udaleko partaidetza-araua sortzeko ekarpenak jaso zituzten, betiere adostasunak lortu nahian, eta amaieran, araurako dokumentu-zirriborroa lortu zuten; gero, Udalak agiri hori arau bihurtzeko konpromisoa hartu zuen.

Bereziki aberasgarria izan zen hiru posizio eta ikuspegi desberdinak zituzten taldeak (hautetsiak, teknikariak eta herritarrak) elkarlanean jartzea, baina horrexegatik ez zen erraza izan mesfidantzak uxatzea, partaidetza ulertzeko modu desberdinak baitzeuden; halaber, garbi geratu zen talde-lana batez ere eraikuntza kolektiboa dela, eta ez besteek norberaren proiektua beraiena egin dezaten saiatzea.

# GURE BALIOAK: GIZARTE-PLATAFORMAK

garapen  
iraunkorra



**B**alioak gizarte baten oinarri ideologiko eta moralak dira, eta ezinbesteko osagaiak dira erronkei aurre egiteko. Debabarrena eskualdean, aspaldiko xedea eta asmoa da garapen iraunkorra eta lehiakorra bultzatzea, eta eskualde-mailan erronka nagusiei aurre egiteko, beharrezkotzat jo zen bultzatu edo indartu nahi ziren balioak identifikatzea lehenengo. Horretarako, eskualdeko 100 lagunekin batera egindako prozesuan, Debabarrena bultzatzeko, lau balio hauek jo ziren garrantzitsuentzat edo gakotzat: osotasuna, errespetua, ekintzailtza eta lankidetzeta. Balio horiek ahalik eta herritar gehienengana ailegatzeko, ahalegin berezia egin nahi izan zen herritarrek parte hartzeko kanal bereziak erabiltzeko, hau da, herritarren esku partaidetzarako tresnak jartzeko: webgunea, bloga, twitterra... Horiek guztiak martxan jarri ziren eskualdeko herritarrengana iristeko, eta bide horiek gero eta erabiltzaile gehiago dauzkate. Horrela, gizarte-plataforma berriak ezarrita, balio horiek eta horiekiko kontzientziazioa are gehiago zabaldu ziren.



# Mendaro



Azalera: 25,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.898, mendaroarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5), **EAJ-PNV** (3) eta **PSE-EE** (1)

[www.mendaro.net](http://www.mendaro.net)



Parte-hartzearen ardura

**SONIA GARTZIA RAPOSO**  
(alkatea)



# LANTALDEAK OSATZEA

Noiz

2011ko irailetik aurrera

**Parte-hartzaileak**

Lantalde bakoitzean 7 herritar inguru

parte hartzeko  
sistema



**2**011ko udal-hauteskundeen ondoren, Udalean batzordeak eratu zirenean, Gobernu Taldeak gaikako lantalde batzuk sortu nahi izan zituen, ahalik eta herritar gehien iritzia jasotzeko; horrela, guztira hiru lantalde sortu ziren: Hirigintza, Euskara eta Nekazaritza; Hirigintzakoak ez zuen denbora luzerik iraun, baina beste biek martxan jarraitu zuten. Udaletik, batzordeburuak eta alkateak hartzen dute parte lantaldeotan.

Lantalde horietan, antzeko pausoak eman zituzten: hasteko, atal bakoitzari zegokion diagnostikoa egin zuten, orduko errealitatea zein zen jasotzeko; gero, ekintza zehatzak adostu zituzten, eta ahal zen neurrian horiek gauzatzen ahaleginduko ziren. Horrela, Hirigintza lantaldearen bidez umeentzako bi

parke berriztatu ziren, irisgarritasun aldetik hainbat obra txiki egin ziren....; Nekazaritza, berriz, baratzean zerotik nola hasi ikastaroa antolatu zuten (arrakastatsua izan zen, gainera, 40 lagunek hartu baitzuten parte), lehengo mendi-bideak garbitu zituzten auzolanean...; azkenik, Euskara eta Kultura hainbat ekintza martxan jarri zituzten euskararen erabilera indartzeko, jaiak antolatzeko jai-batzordea eratu zen...

Lantalde horiei esker, erabakiak hartzeko babes eta laguntza handiagoa izan zuten udal-hautetsiek; halaber, herrian lehen baino kultur ekintza gehiago egin ziren eta horietan jende gehiagok hartu zuen parte. Gainera, herri-sentimendua indartzeko balio izan zuten.

# Mutriku




Azalera: 27,7 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.029, mutrikuarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), EAJ-PNV (4) eta

Berdeak Independentek (1)



Parte-hartzearen ardura

**JOSEBA PALENZUELA ARRIETA**

(alkatea)

[www.mutriku.net](http://www.mutriku.net)





# MUTRIKU 2022

Noiz  
2012-2013

## Parte-hartzaileak

Hausnarketa-prozesuan: 132 lagun  
Mahaietan: 10-12 pertsona mahai bakoitzeko

garapen  
iraunkorra



“M utriku 2022” egitasmoaren bidez, Mutrikuko Udalak hausnarketa bultzatu nahi izan zuen herriaren garapen sozio-ekonomikoaren inguruan, garapen iraunkorrerako estrategietan sakonduta eta etorkizunerako ekintza zehatzak proposatuta. Horretarako, hainbat sektoretako kideak, adituak, profesionalak eta herritarrak bildu zituen zortzi lantalde edo mahaitan: nekazaritza, merkataritza-ostalaritza, industria, artisau-arrantza, akuikultura, itsas turismoa eta kontserba-industria. Mahai horietako bakoitzak bere kasa jardun zuen lanean, eta ekintza-plana landu eta aurkeztu zuen. Udalak konpromisoa hartu zuen ahal zuen neurrian horiek gauzatzeko, baina ez zen erraza izan, Udalaren egoera ekonomiko zaila zela medio; hala ere, proposatutako ekintza gehienak gauzatu ziren, % 70, hain zuzen ere. Udalak Garapen Batzordea osatu zuen, egitasmoari bultzada emateko.

Prozesu honi esker, dinamika eta lan-ohitura berriak sortu ziren herrian, lehendik ez zeuden harremanak ezarri ziren eta asko indartu zen sektore pribatuaren eta publikoaren arteko elkarlana eta lotura. Aurrera begira, Udalak babes handiagoa eskatu zien erakundeei, honelako prozesuak antolatzeke eta aurrera eramateko ez ezik, ekintza zehatzak gauzatzeko ere bai.

# HONDAKINEN KUDEAKETA

Noiz  
2012. urtean zehar

garapen  
iraunkorra



H ondakinak kudeatzeko beste era iraunkorrago baterako bidean, Mutrikuko Udalak lehen urratsak eman nahi zituen. Horretarako, lantalde bat eratu zuten, eta horrek hainbat ekintza landu eta martxan jarri zituzten: batzuk, informatzeko eta sentsibilizatzeko (hondakinen gaiari buruzko hitzaldiak, zineforumak, bisita gidatua Usurbila...); beste batzuk, berriz, herritarren partaidetzari begirakoak (herria 4 eremutan banatu eta horietan bilerak egin, eta beste bilera bat herriko eragileekin), komunikazioa... Esperientzia positibotzat jo zen, batez ere guneak sortu zirelako elkarrizketarako, ekarpenak jasotzeko, eztabaidatzeko... Hala ere, bigarren faserako, hobetzeko hainbat alderdi ikusi ziren: hobeto prestatu saioak, metodologia, komunikazio-plan sakonagoa eta eraginkorragoa...



# debagoiena



## Herriak (8)

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati

## Biztanleak

62.170 (gipuzkoarren % 8,76)

## Azalera

345,35 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 17,37)



g

ipuzkoako hego-mendebaldean dago. Iparraldean, Debarrena du mugakide; ekialdean, Goierri eta Urola Kosta; mendebaldean, Durangaldea eta

Gorbeia inguruak; eta, azkenik, hegoaldean, Arabako Lautada.

Deba ibaiak zeharkatzen du eskualdea, Leintz-Gatzagan jaiota, eta hortik datorkio eskualdeari izena.

Industria da eskualdeko jarduera ekonomiko nagusia, eta industrian lanean jarduten duten langileei dagokienez, Gipuzkoako proportziorik handienetako bat dauka; zerbitzuen sektoreak, berriz, ez dauka hainbesteko indarririk. Debagoiena kooperatiben lurraldea da, mugimendu horrek oso indar handia baitauka. 1941ean, Arrasaten, “Lanbide Eskola” zabaldu zen eta horixe izan zen mugimenduaren sorlekua, han ibilitako bost ikaslek eratu baitzuten ULGOR, lehen kooperatiba, 1956an. Kooperatibetan lanean ari ziren langileen behar sozial eta ekonomikoek eraginda, 1959an kreditu-kooperatiba sortu

zuten, Lankide Aurrezki Kutxa (gaur egungo Laboral Kutxa), eta hortik aurrera, kooperatiben mugimenduak urrats handiak egin zituen, langintza anitzagoetara zabaldu eta Arrasatetik kanpora hedatu zen. Gaur egun, Mondragon Korporazioak berrehun bat kooperatiba elkartzen ditu, hainbat alorretakoak: industria, elikadura, irakaskuntza...

Donostia urrun eta Gasteiz gertuago dagoenez, Arabako hiribururako joera handia dago; eskualdea zeharkatzen duen Maltzaga-Urbina edo AP-1 autobideak are gehiago gerturatu ditu, gainera. Herrien artean, bi dira oinarritzko errepideak: bata, Deskargatik barrena (GI-623) Beasain, Zumarraga, Bergara eta Durango lotzen dituen; bestea (GI-627), Maltzaga, Bergara, Arrasate eta Gasteiz lotzen dituen.

Osasun-zerbitzuei dagokienez, Arrasaten dago eskualdeko ospitalea, baita Euskal Herriko ospitale psikiatrikorik handiena ere. Epai-barrutiko burua, berriz, Bergara da ■

# Antzuola



Azalera: 27,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 2.177, antzuolarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), **EAJ-PNV** (3) eta **PSE-EE** (1)



Parte-hartzearen ardura

**INMA BERISTAIN ARAMENDI**

(alkatea)

[www.antzuola.com](http://www.antzuola.com)





# 2013KO PARTE HARTZEKO AURREKONTUAK ANTZUOLAN

Noiz

2012ko urria-abendua

Parte-hartzaileak

244 lagun (113 emakumezko, 131 gizonezko)

partaidetzazko  
aurrekontuak



**E**gitasmo honen bidez, Udala eta herritarrak elkarrengana gerturatu nahi izan zituen Antzuolako Udalak, eta 2013ko aurrekontuetan herritarren presentzia eta iritzia bermatu eta 2013. urterako lan-ildoak definitu.

Esperientziak bi fase nagusi izan zituen: lehenengoan, Udalak galdera-sorta bat banatu zuen herrian, etxez etxe; jasotako erantzunetatik ondorioak atera eta herritarrei aurkeztu zizkieten, batzar informatiboen bidez; bigarren fasean, berriz, Udaleko sail nagusiak hiru arlotan banatu zituzten (lehena, Euskara eta Kultura; bigarrena, Gazteria, Hezkuntza, Kirola eta Ongizatea; eta, hirugarrena, Hirigintza, Nekazaritza eta Ingurumena). Horrela, bilera irekiak egin zituzten 2013an lehenetsi nahi zituzten proiektuak zehazteko, urtean zehar zer asmo edo proiektu bultzatu behar ziren ikusteko.

Halaber, udal-hautetsi, -teknikari eta -laguntzaileek trebakuntza jaso zuten, bileretan zer paper jokatu zuten argitzeko eta zehazteko.

Egitasmoan komunikazioak pisu handia izan zuen, antzuolar guztiengana iristeko: bandoa, mailinga, elkarteei eta taldeei gonbidapen berezia, ahoz ahokoa, eskualdeko hedabideak...

Balorazioari dagokionez, herritarrek aipatu zuten lehen prozesua izateko aberasgarria izan zela, eta adierazi zuten etorkizunean parte hartzeko prozesuak gai irekiagoetarako eta gehiago egin beharko liratekeela, betiere herritarren aniztasunari garrantzi berezia emanda (gazteak, helduak, beste jatorri bateko antzuolarrak...). Horri lotuta, herritarrek gai zabalagoen beharra sumatu zuten, saio gehiagotan landu eta sakon hausnartu ondoren lehenesteko, saio bakar batean lehentasuna ematea zaila izan baitzen. Aukeratze hori are zailagoa izan zen krisi-garaia izanda, Udalak maniobrarako tarte txikiagoa baitzeukan. Horrez gain, herritarrek esan zuten batzordeen lan-metodologia ere aztertu egin behar zela.








**ANASTASI  
GABILONDO  
ARANZABAL**

Jubilatua  
71 urte

**"E**sperientzia interesgarria izan da, orain arte ez baitugu horrela parte hartzeko aukerarik izan. Prozesutik, gogoko izan dut jendeak izan duen jarrera, eta horrek gustura egoten lagundu digu guztioi.

Nire ustez, bilerak egiten jarraitu behar da eta gaietan gehiago sakontzen **"**



**ION  
LIZARAZU  
ARBULU**

Ikaslea  
23 urte

**"E**sperientzia polita izan da, herriko jende desberdinarekin bestela hitz egingo ez nuen gauza batzuei buruz hitz egin dudalako, kezkak partekatu ditugu, ikasi dut denon partaidetzarekin gauza polit eta handiak egitera irits gaitzkeela.

Prozesuaren izenak dioen bezala, azpimarratuko nuke oso partaidetzakoa izan dela. Sarritan isilagoa den jendeak ez du askorik hitz egiten, talde handietan zailagoa delako aurrerapauso hori ematea, eta kasu horretan, jolasek eta talde txikietan elkarteak guztion partaidetza bermatu du. Horregatik, gustura sentitu naiz bileretan. Giro polita egon da taldean, errespetuz jokatu dugu guztiok, eta ez da egon arazorik.

Aurrera begira, uste dut parte hartzeko prozesuak erabaki garrantzitsuagoetarako erabili beharko genituzkeela, jendearen nahia hortxe islatzen delako **"**

# ELKARBIZITZA-PLANA

Noiz

2013ko apirila-ekaina

Parte-hartzaileak

42 lagun (28 emakumezko, 14 gizonezko)

aniztasuna



**2**012an eginiko aurrekontuen prozesuaren ondoren, argi gelditu zen herritarren eta Udalaren kezketako bat elkarbizitzarena zela. Prozesuan azpimarratu zen antzularren arteko komunikazio-bideak eta elkarlanerako aukerak jorratu egin behar zirela, ezagutzatik hasita. Horregatik, 2013ko apirilean, Elkarbizitza Plana jarri zen abian, jatorri desberdinetako herritarren arteko topagunea izan zena.

Prozesua hiru bileratan oinarritu zen eta herritarren profila garrantzitsua zenez, ahalegin berezia egin zen bileretan aniztasuna ziurtatzeko. Bilera horietan, bizipenak partekatzeaz eta elkarbizitzarako balioak lantzeaz gain, guztien artean ezagutza eta bizikidetzat sustatzeko egin zitezkeen ekimenak ere garatu zituzten.

Parte hartu zuten herritarrak oso gustura gelditu ziren esperientziarekin, eta bereziki azpimarratu zuten aurrera begira elkarbizitzaren gaia jorratuko zuen talde bat eratu beharra, informazioa hartu eta zabaltzeaz gain, elkarbizitzarako ildoan segimendua egiteko.





**NAGORE  
DOS SANTOS  
ROMARATEZABALA**

Irakaslea eta Ongizateko  
zinegotzia  
38 urte



**ANTONIO  
DEOGRACIAS  
CÁCERES**

Erretiroaduna  
63 urte

**"E**sperientziatik azpimarratuko nuke herritarren ekarpenek izan duten garrantzia, herritarrek erakutsitako interesa eta motibazioa. Ekarpenek islatu dute herritarrak aurrera jarraitzeko gogoz eta ilusioz geratu direla. Horrekin gustura sentitu naiz, prozesuak ilusioak pizteko eta indarrak hartzeko balio izan baitit. Gainera, prozesuak elkar entzutea izan du ardatz eta hori oso positiboa izan da gai desberdinen inguruan taldean egin diren hausnarketetan ere. Niretzat punturik aberasgarriena horixe izan da.

Hemendik aurrera, Udaletik prozesuaren ekarpenak betetzeko bideak bermatu behar ditugu, eta herritarren parte-hartzea indartu //

**"M**omentuz bilera bakarra izan dugu eta guztiok dakigu lehen kontaktuan zaila dela erabat irekitzea. Nire ustez, beste pertsona batzuekin bizipenak partekatzea beti da positiboa.

Esperientziari dagokionez, zegoen giro aparta azpimarratuko nuke. Horrez gain, estereotipoak apurtzea lortu ez dugun arren, ezagutzen ez nuen jendeari izena jarri diot, eta hori etorkizunerako lehen pausoa da //



# Aretxabaleta



Azalera: 26 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.990, aretxabaletarrak (*atxabaltarrak*)

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), Aralar (3), EAJ-PNV (2)  
eta PSE-EE (1)

[www.aretxabaleta.com](http://www.aretxabaleta.com)

Parte-hartzearen ardura

**ANA BOLINAGA URIBARREN**  
(alkatea)



# 2013KO UDAL-AURREKONTUAK

## Noiz

2012ko azaroa-abendua

## Parte-hartzaileak

56 lagun (23 emakumezko, 33 gizonzko)

partaidetzazko  
aurrekontuak



**E**gitasmo honen bidez, Aretxabaletako Udalak partaidetzazko aurrekontuak sustatzeko lehenengo urratsak egin nahi izan zituen: 2012ko udazkenean, 2013ko aurrekontuak herritarrekin batera lantzeko dinamika jarri zuen abian, eta protagonista nagusiak herriko eragileak eta norbanakoak izan ziren.

Prozesuan, Udalak aurrekontuen inguruko informazioa eman zuen: Udalaren egoera ekonomikoa, aurrekontuen osaketa eta funtzionamendua, sailen jarduera...; halaber, herritarren kezka, ekarpen eta proposamenak jaso zituen, ahal zen neurrian horiek aurrekontuetan txertatzeko. Egoera ekonomikoa zaila izanik, arlo edo proiektu garrantzitsuenak azpimarratu zituzten, baita lehenetsi ere. Bi saio egin zituzten, azaroaren 15ean eta 24an, eta hurrengo hilean, abenduaren 13an, ondorioak aurkeztu zituzten.





**IÑAKI  
MADINAZCOITIA  
ALTUBE**

Irakaslea, Aretxabaleta  
Lanbide Eskolan  
54 urte

**"A**retxabaleta Lanbide Eskolatik, horrelako prozesu batean parte hartzen genuen lehen aldia zen. Gure ustetan, horrelako ekintzak lagungarriak dira Aretxabaletako herrian esku-hartze bizia sortzeko, eta hartzen diren erabakiak herriaren nahiei eta beharrei erantzuteko.

Horrelako esperientziak, ekarpen apalak eginez eta herriko bidearen ildoetara jarraituz, ohitura bihurtzea izango litzateke etorkizunerako erronka garrantzitsuenetako bat, ez dadila izan egun bateko lorea, zeren orain arteko oinarritzko parte hartzeko ereduak agortzen hasita daudela iruditzen baitzaigu **"**



## HERRITARREN PARTAIDETZA

Noiz

2012ko maiatza-ekaina

Parte-hartzaileak

30 lagun (11 emakumezko, 19 gizonetzko)

garapen  
iraunkorra



**H**ondakinen kudeaketaren gaiarekin arduraturik, Aretxabaletako Udalak herritarrekin landu nahi izan zuen etorkizunean zer bilketa-sistema ezarri, hondakinen % 80tik gorako birziklatze-tasak lortzeko.

Horretarako, hainbat ekimen jarri zituen martxan: hitzaldi informatiboak herritarrentzat, Antzuolara bisita (atez ateko sistema ezarrita baitauka)..., eta, gainera, Hondakinen Kontseilua deitu zuen gaia herritarrekin batera lantzeko.

Kontseiluak lau lan-saio antolatu zituen, gai hauekin: lehenengoan, prozesua aurkeztu eta antolatu; bigarrenean, hondakinen hierarkia Europako legedian eta horren garrantzia; hirugarrenean, eragileek hondakinak biltzeko proposamen zehatzak; eta, azkenik, proposamen zehatz horiek aztertzen jarraitu eta sistematik eraginkorrena zein zen ahalik eta adostasun handienarekin erabaki. Saioetan egindakoa eta proposamen zehatza txosten batean jaso zuten eta udal-hautetsiei aurkeztu zieten. Azkenik, Aretxabaletako Udalak, 2012ko ekainean, osoko bilkuran, bere egin zuen % 80tik gorako birziklatze-tasak lortzeko helburua, eta konpromisoa hartu zuen helburu hori lortzeko sistematik eraginkorrena martxan jartzeko.


## BESTE ESPERIENTZIA BATZUK



**B**este hainbat ekimen martxan jarri izan ditu Aretxabaletako Udalak, hala nola, berdintasunari lotutako “Martxoak 8... egunero izan dadila” eta Mankomunitateko “emakumeen mahaia”, kiroldegi berriaren izena hautatzekoa, kultura sustatzeko herriko mahaia eta jaietako kultur programazioa lantzeko dinamika, autobus-geltokien kokapena eta urbanoaren ibilbidea erakustea eta aukeratzea...

la bilera edo saio guztiak Arkupe kultur etxean edota Udaletxean egin izan dira. Baina udal-ordezkariek uste dute horrek herritarren partaidetza mugatzen duela, eta Udala herritarrengana hurbildu beharrean (auzoetara, elkarteetara, eskoletara...) herritarrak Udalera gerturatzeak zaildu egin du. Aurrera begira, Udalaren helburuetako bat zen inertzia horretatik irtetea.

# Arrasate



Azalera: 34,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 21.972, arrasatearrak

Udalbatzarraren osaera:


**Bildu** (11), PSE-EE (4), EAJ-PNV (4),  
Aralar (1) eta PP (1)

[www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)

Parte-hartzearen ardura

**JOSEBE LANDALUZE RUIZ DE ALEGRIA**

(zinegotzia)



# GUREZTATU: ARRASATEKO AZOKA BIRPENTSATZEKO ETA BIZIBERRITZEKO PARTE HARTZEKO EKIMENA

Noiz

2011ko abendutik aurrera

Parte-hartzaileak

400 lagunetik gora

hirigintza



**H**errietako azoka-plazak herritarren bilguneak izaten dira, herriaren bihotzak; baina herritarren ohitura-aldaketak direla medio, herri askotan jendez husten eta jarduerak itzaltzen joan dira, bizitasuna eta garrantzia galtzen. Arrasateko azoka-plaza etorkizunean gune bizia, atsegina eta erakargarria izateko, benetan arrasatearren nahiei eta beharrei erantzuteko, parte hartzeko prozesu bat jarri zuen martxan Arrasateko Udalak. Bertan, herritar askok hartu zuten parte (400 herritarrek baino gehiagok), 50 talde baino gehiagotan antolatua (kulturakoak, hezkuntzakoak, politikakoak...).

Lehen fasean, hainbat tailer eta bilera egin zituzten iritziak jasotzeko eta egoeraren diagnostikoa egiteko; gero, lau lantalde eratu zituzten, besteak beste gai hauek lantzeko: elikadura eta lehen sektorea, kontsumo arduratsua eta iraunkorra, aisialdia eta jolasa eta arrasatear guztientzat erakargarria izango zen azoka prestatzea; gero, lantaldeek egindakoa bateratu egin zuten, proposamen zehatzak egin eta ondorioak atera zituzten.

Horrela, azoka berritzeko, herritarrekin batera eta herritarren neurri egindako proiektu bat lortu zuten, hainbat sentsibilitate

eta ikuspegi bateratzen zituena. Halaber, lortu zuten udalgintzako esperientzia berritzaile bat martxan jartzea, elkarrekin lanean jarri baitzituen udal-hautetsiak, -teknikariak eta herri-eragileak, guztiak aldi berean. Ekimenak gerora ere jarraitu egin zuen, "Gureztatu" izenpean, eta 2013ko apirilean "Azoka Eguna" antolatu zuen.







## GOIATZ MURUA LETURIAGA

Podologoa · 35 urte  
**Harremaneko partaidea**

**"O**so esperientzia ona izan da. Ideia ona iruditu zait herritarroi aukera ematea prozesuan parte hartzeko, lantalde batzuetan banaturik. Herritarrok gara azokaren erabiltzaileak eta gure ideiak kontuan hartzea oso garrantzitsua ikusten dut. Badakit zaila dela denon gustua egitea, ezinezkoa sarritan, baina nire ustez gizarte eredugarri bat denon artean sorturiko, adostutako ekimenaz izan behar da.

Oso gustura sentitu naiz. Lantaldean ondo konektatu dugu eta uste dut probetxuzko dinamika izan dela. Gauza asko ikasi ditut, alde pertsonaletik oso gustura, eta neure buruari, berriz, ziurtatu diot gizarte honek aurrera egin dezan harremanetan dagoela gakoa. Batak besteari lagundu, besteengatik arduratu, besteen ideiak kontuan hartu, 'ninismoa' alde batera utzi. Azokako prozesua hasieran dago, baina ziur nago denon artean aurrera irtengo dela //



## JESUS MARI ELKORO

Merkataria · 61 urte  
**Ibai-Arteko partaidea**

**"Z**erbait mugitzen ari da. Ibai-Arteren aldetik urteak daramatzagu Udal Merkatura birgaitzeko eskatzen, uste dugulako herriaren bertebrazio komertzialean eragile garrantzitsua dela. Urteak joan dira, krisia etorri da eta dena dago egiteko.

Nola joan aurrera, baina? Ba, beti bezala, buruari bueltak emanez, ideia berriak asmatuz, ausardiaz eta posible diren indar guztiak metatuz.

Hori da, funtsean, egiten ari garena. Nork usteko zuen hainbeste gazte eta era guztietako elkarte eta taldeetako partaideen ilusio eta indarrak batuko zirela azoka tradizional bati buelta emateko asmoz?

Azokako esperientzia honi buruz, azpimarratuko nuke, antzina bezala, talde guztiek ikusi dutela herriko aktibitate desberdinak egiteko espazio bat: umeen jolasgunea, elkartrukea, artisauen erakustokia, bertako baserritarren produktuen irteera, betiko postu finkoen jarduerak..., horiek guztiak bata bestearen ondoan indartuz.

Ezinbestekoa izan da, baita ere, Udalaren konpromisoa, ia talde politiko guztien babesaz eta orkestra honen zuzendaritzan, BAGARA //

# “HIRI-ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN AURRERAPENA” AGIRIA AZTERTZEA

## Noiz

2012ko otsaila-maiatza

## Parte-hartzaileak

Aholku Kontseiluan, 33 lagun (10 emakumezko, 23 gizonetzko).  
Batez beste, saio bakoitzean 25 lagunek hartu zuten parte.

hirigintza



**H**irigintzako plan orokorrak lurraldea antolatzeko tresnak dira, eta horien bidez, udalek lurra sailkatu egiten dute, lur-mota bakoitzari zer erregimen ezarriko zaion; halaber, udalerriko ekipamenduen osagaiak ere zehazten dira; beraz, oso tresna garrantzitsuak dira herrien etorkizuna zehazteko.

Horretaz jabeturik, Arrasateko Udalak ahalegin berezia egin zuen Planeamenduaren Aholku Kontseiluarekin batera, ahalik eta herritar gehienek parte hartuta egiteko. Hasieran, lau saio egiteko asmoa zegoen, baina gaia hain konplexua izanik, azkenean sei bilera behar izan ziren. Horrela, Aholku Kontseiluak Plan Orokorraren Aurrerapena aztertu ondoren, horri buruzko iritzia eman zion Udalari, txosten baten bidez.

Parte-hartzaileei dagokienez, Udalak herriko talde eta eragileak gonbidatu zituen, eta hauek hartu zuten parte: Arrasateko alkateak eta Hirigintzako batzordeburuak; Bildu, EAJ-PNV eta Aralar alderdiek; industriako ordezkariak; Txatxilipurdi aisialdi-elkarteak eta Arrasateko kultur ondarearen aldekoak;

sindikatuak eta kooperatibetako kontseilu sozialek; gazteak; auzo-elkarteak; merkataritzako eta ostalaritzako ordezkariak; talde ekologistak; abeltzainak eta nekazariak.

Balorazioari dagokionez, hauxe nabarmendu zen: jendeak ikusten duenean bere ekarpenak kontuan izango direla eta ondorioak izan ditzakeela, lan egiteko prest egoten dela; halaber, saioek ikasteko ere balio izan zuten, aurrera egin ahala jendeak errazago hartu baitzuen parte.

# HONDAKINAK KUDEATZEKO OINARRIAK

Noiz  
2012ko maiatzean

Parte-hartzaileak  
30 lagun inguru saio bakoitzean  
(19 emakumezko, 11 gizonezko)

garapen  
iraunkorra



**E**gitasmo honen bidez, Arrasateko Udalak etorkizunean hondakinak kudeatzeko sistemaren oinarriak zein izango ziren ezarri nahi izan zuen, herritarrekin batera. Hondakinen kudeaketan hausnarketa bultzatu nahi izan zuen, eta irizpideak finkatu. Guztira lau saio egin zituzten herritarrekin, eta ondorengoak landu zituzten: hondakinen gaineko legedia, eskumenak, datuak (kualitatiboak eta kuantitatiboak), hondakinen hierarkia, hondakinak biltzeko sistemak eta horien eraginkortasuna. Informazioa zabaltzeaz gain, hausnartzeko eta eztabaidatzeko guneak sortu nahi izan ziren, eta lortu zen; aniztasunari dagokionez, ordea, ez zen lortu atez atekoaren aurkako plataformakoek prozesuan parte hartzea.

# AUZOLANARTEAN

Noiz  
2012tik aurrera

Parte-hartzaileak  
278 ikasle

kultura

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**A**uzolanartean proiektuak auzolana eta naturarekin sortutako artea biltzen zituen, eta proiektu honetako protagonista nagusiak herriko gazteak izan ziren: 15 eta 18 urte bitarteko gazteen nahi, ideia, amets eta aldarrikapenak elkarlanean eta natur elementuekin herrian artelan bihurtzea. “Land art” teknikaren bidez, gero agintari izango diren egungo gazteei herrian espazioa eta espresioa izateko aukera eskaini zieten.

Lehen urratsa ikastetxean eman zen: ikasle-taldearekin, ordubeteko saioan, auzolanean sortu ahal ziren ekimenen inguruan hitz egin zuten, eta gaiari buruzko adibide errealek ikusi zituzten. Ondoren, gazteen txanda hasi zen: herrian euren hitza artelan baten bidez hartzeko aukera eskaini zieten. Zer esan nahi zuten herrian? Zer mezu zuten plazaratzeko? Zer forma zuen mezu horrek? Non kokatuko zen artelana? Eta galdera horiei guztiei erantzun ondoren, ekintza gauzatzeko eguna eta ordua adostu zuten. Bost orduko laneguna izan zen, hamarretako eta guzti.

Arrasaten, guztira, azken bi urteetan, 9 artelan egin dira eta ikastetxe guztiek ezagutu dute proiektua.

Ekimen honetan garbi geratu zen gazteek badutela zer esana eta badutela hori egiteko gogo. Aukera eta bideak eskaini behar zaizkie, ordea, horretarako.



# Bergara



Azalera: 77,05 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 14.577, bergararrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), EAJ-PNV (5), Aralar (2)  
eta PSE-EE (1)

[www.bergara.net](http://www.bergara.net)



Parte-hartzearen ardura

**JAIONE ISAZELAIA IGARTUA**

(alkatea)



# KIROL-SAREA

Noiz  
2012-2013

Parte-hartzaileak  
25 lagun (8 emakumezko, 17 gizonetzko)

kirola



**B**ergara oso herri kirolzalea da eta kirol-elkarte eta -talde ugari daude, oso aktiboak, gainera. Horietako gehienak, ordea, bakoitza berean ari zen, loturarik gabe elkarren artean eta besteak zertan ari ziren jakin gabe. Bergarako Udalak ikusi zuen beharrezkoa zela eragile horiek guztiak artikulatzea edo egitura komuna eratzea eta etorkizunera begirako gogoeta egitea.



Horrela, deialdi baten bidez, kirolaren esparruan mugitzen diren herriko hainbat eragile elkartziren: kirol-elkarteak, ikastetxeak, guraso-elkarteak, erretiratuen elkarteak, osasun-zentroa,

gimnasioak eta fisio-zentroak, herritarrak... Batzorde iraunkor bat sortu zen, eta batzorde horrek 2012-2015erako lehentasunak zehaztu zituen; ondoren, Kirol Kontseilu osoa

berriz elkartzu eta lehentasunak berrestez gain, 2012-2015 epealdirako Planaren ildo nagusiak zehaztu zituen. Hurrengo bileretan Plana lantzen jarraitu zuten, eta Plana 2013-2016 epealdirako moldatzea erabaki zuten. Udaleko Kirol Batzordean Plana onartu ondoren, Udaleko Gobernu Batzordeak ontzat eman zuen "Begarako Kirol Zerbitzuko Plana 2013-2016 epealdirako". Horrela, eta etorkizunera begira, zehaztuta geratu ziren Bergarako kiroltako 10 lerro estrategikoak.

## HONDAKINEN PROBLEMATIKA

Noiz  
2012. urtean zehar

Parte-hartzaileak  
591 lagun (378 emakumezko, 213 gizonezko)

garapen  
iraunkorra



**B**ergarako Udalak hondakinak biltzeko sistema aldatzeko erabakia hartu zuen, atez atekoa ezartzeko, eta gaiaren gainean herritarrak sentsibilizatzeko, informazioa emateko, zalantzak argitzeko eta ekarpenak jasotzeko, egitasmo hau jarri zuen martxan. Lau saio egin zituzten herritarrekin, euskaraz eta gaztelaniaz, oro har giro egokian.

Saioak bi zatitan banatu ziren: lehenengo, azalpenak eman zituzten (hondakinaren problematika, Udalaren erabakiak eta atez ateko sistemaren ezaugarriak...); ondoren, herritarrek ekarpenak egin zituzten, lantalde txikietan jarrita. Helburua herritar guztiengana iristea zen, sistemaren berri zuzenean jakiteko, baina atez atekoaren aurkako gehienak prozesutik kanpo geratu ziren, ez zuten parte hartu.

## EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2013-15

Noiz  
2012ko urria-2013ko urtarrila

Parte-hartzaileak  
37 lagun (22 emakumezko, 15 gizonezko)

euskara



**E**uskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan, Bergarako Udala aspalditik ari zen lanean euskararen alde, arloz arlo. 2012an, ordea, beste erronka bat ezarri zuen: hizkuntza-normalkuntzaren aldetik egoera baloratzea eta hurrengo urteetarako ildoak finkatzea, ahalik eta partaidetza handienarekin (herriko talde eta eragileak, adituak, herritarrak...). Hain zuzen ere, herritarrekin bi saio antolatu zituen, batetik, euskara Bergaran nola zegoen baloratzeko; bestetik, hurrengo hiru urteetarako egitasmoak lehenetsunaren arabera ordenatzeko eta ekintza horiek nork, nola, noiz... bideratuko zituen aztertzeko. Adostasun zabala lortu zen eta herritarren ekarpenak oso interesgarriak izan ziren.



# Elgeta



Azalera: 16,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.106, elgetarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Aralar-Independenteak** (4), Bildu (3)  
eta EAJ-PNV (2)

[www.elgeta.org](http://www.elgeta.org)



Parte-hartzearen ardura  
**OXEL EROSTARBE TUBILLA**  
(alkatea)



# HEZKUNTZA-ZERBITZUAK ETA GARRAIO PUBLIKOA

Noiz  
2012an

Parte-hartzaileak  
100 lagun (70 emakumezko, 30 gizona)



**K**osta egiten da herritarrak parte hartzeko eta erabakiak hartzeko dinamiketan aritzea eta ohitzea, udalak herritarrengana gerturatzea, eta egitasmo honen bidez aurrerako urratsa egin nahi izan zuen Elgetako Udalak. Hiru gai jorratu zituen hori lortu nahian: lehena, hezkuntza-zerbitzuak (Ludoteka, Gaztelekua, haurren zaintza), eta horien inguruan hausnartzea eta etorkizunean nola emango ziren zehaztea; bigarrena, garraio publikoan herritarrek zeuzkaten beharrak zehaztea; eta, azkenik, Udalaren webgunean parte-hartzea bideratzeko ekimenak txertatzea.

Hezkuntza-zerbitzuaren gaien batzarrak egin ziren zerbitzuen erabiltzaileekin eta gurasoekin; garraio publikoaren kasuan, berriz, batzarrez gain, esku-orri bat banatu eta jaso zuten beharrak zein ziren jakiteko, eta herriko enprekin ere harremanetan jarri zen Udala, kanpotik zetozen langileen beharrak jasotzeko; azkenik, webgunean atal berriak sortu zituzten (sare sozialetan kontua, udalbatzarretako aktak jasotzeko atala, alkateari eta zinegotziei galdera egiteko atala...).



Egindako lanaren ondorioz, 2012-2013an hezkuntza-zerbitzuak nolakoak izango ziren eta nola emango ziren adostu zuen Udalak erabiltzaileekin, baita abian jarri ere; garraio publikoari dagokionez, herritarren beharrei erantzuteko zerbitzua eta ordutegiak adostu ziren, gero Gipuzkoako Foru Aldundiari proposamena egiteko; azkenik, webgunean aukera eman zitzaizen herritarrei Udalarekin hartu-emanak izateko eta informazio zuzena jasotzeko.



# Eskoriatza



Azalera: 40,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 4.043, eskoriatzatarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6), Elizateak (2), EAJ-PNV (1),  
PSE-EE (1) eta EB-Berdeak (1)

[www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net)



Parte-hartzearen ardura  
**IGOR EZPELETA OREGI**  
(zinegotzia)





# HAURRENTZAKO JOLASTOKIAK

## Noiz

2012ko ekaina

## Parte-hartzaileak

12 lagun (9 emakumezko, 3 gizonetzko)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**H**erri gehienetan daude haurrentzako jolastokiak, gurasoek eta ume txikiek asko erabiltzen dituztenak, baina apenas hausnartzen den horien gainean: egoera, egokitasuna, hobetzeko neurriak eta proposamenak... Eskohitza prozesuan, 2011ko azaroan, ondorioetan haurren jolastokiaren gaia jaso zen, eta Udalak, aintzat hartuta, sakontzea erabaki zuen.

Hasteko, 2012ko ekainean, guraso guztiak gonbidatu zituzten parte hartzera eta ohiko komunikabideak ere erabili ziren deialdia zabaltzeko. Herriko jolastokiaren egoeraren inguruko iritzia jaso nahi zuen Udalak; gero, iritzietatik beharrak identifikatu eta lehentasunak adosteko beharra ikusi zen, etorkizunean nondik jo jakiteko, hain zuzen ere. Lan-mahai bat osatu zuten Udalak eta ikastetxeetako guraso-elkarteetako ordezkariak; bertan, Eskoriatzako jolastokiak aztertu zituzten mapa baten gainean, eta horietako bakoitza baloratu egin zen (egoera, erabilera...); ondoren, horiek hobetzeko proposamenak egin zituzten, eta Udalak konpromisoa hartu zuen hobekuntza horiek 2013ko aurrekontuen barruan sartzeko.

Prozesuak balio izan zuen Eskoriatzan ez zegoen beste jolastoki-eredu baten beharra identifikatzeko: naturaguneko jolastokia, ingurumenaren aukerez baliatzen dena.

Bilerak oso giro onean egin ziren, jarrera onarekin; halaber, aukera eman zuten ikastetxeetako gurasoak elkarlanean jartzeko. Hobetzekoetan, berriz, nabarmendu zen komeni zela haurren iritzia ere jasotzea, jolastokiaren erabiltzaile nagusiak eta zuzenak beraiek baitira.





**MAIDER  
OTAMENDI  
TOLOSA**

Ingeniaria eta ama  
41 urte

“**O**so positibotzat jo nuen Eskoriatzako jolastokiei buruz balorazio bat egiteko bilera ireki batera gurasoak eta hainbat eragile deitzea. Espero nuena baino jende gutxiago elkartu ginen, baina kontuan izanik orokorrean jendeak ez daukala oso barneratuta parte-hartzearen garrantzia zenbaterainokoa den, elkartutakoon artean azterketa polita egin genuen. Alde batetik, dauden jolastokiak baloratu genituen, eta, bestetik, zer falta zen komentatu genuen.

Emaitzarekin oso gustura gelditu nintzen, lehenetasunak markatuz, egun dagoen jolastoki bat berritzeko eta 6-7 urtetik gorako haurrentzako jolastoki berri bat eraikitzeko konpromisoa hartu baitzuen Udalak”



**ROSA  
LASAGABASTER**

Kirol-aholkularia  
41 urte

“**P**arte hartzeko prozesuak beti eraikigarriak diez ta gure asmua hoixe da, eraikitzia. Aniztasunetik beti ideiak sortzen diez ta bai norberandako ta baita taldiendako etekin positibuak ataratzen diez.

Oin arte parte hartutako ekintza guztietan asko disfrutau dot ta hoixe da transmitiru biouna, gure ilusina elkartasun bat lortzeko”

## ESKOHITZA 2013

Noiz  
2012ko abendua-2013ko urtarrila

Parte-hartzaileak  
41 lagun

partaidetzako  
aurrekontuak



**2**012ko urrian eta azaroan zehar diseinatu zuten prozesua, Eskoriatzako Udaleko Parte Hartze eta Komunikazioa batzordearen ekimenez. 2012ko abenduan herritarrekin bilera sektorialak egin zituzten, aurrekontuak lantzeko: gizarte-zerbitzuak; kirola; turismoa eta ingurumena; eta, azkenik, kultura, euskara, gazteria eta hezkuntza.

Lau multzo horietako bakoitzarekin bilera ireki bat egin zuten, eta gai hauek jorratu zituzten: udal-aurrekontuen testuingurua eta mugak, 2013rako kudeaketa-planaren eta aurrekontuaren proposamena eta horietarako ekarpenak jaso eta lehentasunak ezarri. Bilerak kontsultiboak izan ziren, eta halaxe adierazi zieten bertaratuei hasieratik. Azkenik, bileren ondoren, otsailen informazioa itzultzeko garaia iritsi zen, eta Eskohitza 2013 prozesu honetan parte hartu zuten eragile guztiei memoria bidali zieten.

## ATXORROTZEKO GAZTELUA: BISITA GIDATUAK

Noiz  
2012ko iraila-azaroa

Parte-hartzaileak  
Ikasleak: 100 neska-mutil  
Helduak: 60 lagun (35 emakumezko, 25 gizonezko)

kultura



**A**txorrotz Eskoriatzako herrigunearen goialdean dago, gain batean, eta garai batean gaztelua ere izan zen. Horregatik, hainbat indusketa egin izan dira bertan. Udalak horiek bisitatzeko aukera ematen die herritarrei, egindako lanak, lortutako emaitzak eta inguruaren historia ezagutzeko, Atxorrotzen bertan.

Egitasmo honen bidez, Eskoriatzako Udalak bisitarien ideiak eta iritziak jaso nahi izan zituen indusketen zabalpenaren inguruan. Bisitei dagokienez, bi motatakoak izan ziren: batetik, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleak, eta, bestetik, herritar arruntak. Guztiak ere beraien kabuz joan ziren Atxorrotzera, eta han elkartuta, bisita gidatua egiten zuten, 30'-40' ingurukoak; hasierako azalpenen ondoren, zalantzen eta galderen tarteak izaten zen.



# “ESKORIATZA ERE ZERO ZABOR NORABIDEAN” KANPAINA

Noiz  
2012ko maiatza-abendua

Parte-hartzaileak  
200 lagun

garapen  
iraunkorra



**E**skoriatzako Udalak hondakinak kudeatzeko eredu berri bat jartzeko asmoa izanik, arazoaren gaineko informazioa emateko, egin nahi zena azaltzeko eta herritarren kezka, zalantza eta proposamenak jasotzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituen egitasmo honen baitan: bi hitzaldi, kafe-tertulia bat eta irteera bat atez ateko bilketa-sistema ezarrita zeukan herri batera...

# ZALDIBAR ARETOA: OBRATAN ETA ZABALIK

Noiz  
2012ko martxo

Parte-hartzaileak  
30 lagun

kultura



**E**skoriatzan, Zaldibar antzokian, 2012an hainbat lan egin zituzten berritzeko eta egokitzeko. Ezin izan ziren antolatu ohiko zenbait ekitaldi, baina zabalik egon zen aretoa herritarrentzat, barrutik ezagutzeko aukera izan baitzuten, zer lan egin behar ziren eta etorkizunean nola kudeatuko zen hantxe bertan jakiteko, bi bisita gidatu antolatuta. Ahalegin berezia egin zen kultur elkarteek eta eragileek parte hartzeko, eta lortu ere egin zen.

# Oñati



Azalera: 108,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 11.033, oñatiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (11) eta **EAJ-PNV** (6)



Parte-hartzearen ardura

**NEREA ZUBIA BLAZQUEZ**

(zinegotzia)

[www.oinati.org](http://www.oinati.org)



Argazkia: Asier Egaña

# HERRIJORRAN PROIEKTUA

Noiz

2012. urtean zehar eta ondorenean

## Parte-hartzaileak

Ez da erraza denak zenbatzea edo kopuru zehatza ematea. Hainbat prozesu (dozenatik gora) egin dira herrijorran, eta horietan herritar askok hartu dute parte.

parte hartzeko sistema



**H**errijorran egitasmoaren bidez, Oñatiko Udalak gobernatzeko era berri bat jarri nahi izan zuen abian, ordezkari bidezko demokraziaren funtzionamendua indartzeko. Proiektu honekin, harremanei eman nahi izan zieten garrantzia, gai publikoetan herritarrek esku hartzeko, gobernatzeko mekanismo berri eta hobeak sustatzeko.

Herrijorran proiektua, azken finean, Oñatin parte-hartzearen bidez egindako prozesu guztien txapela da, marka edo bereizgarria. Hilean gai bat ardatz hartuta, lantaldeak antolatuta zituzten, guztira hamar: urtarrian, Euskal Herria herrijorran; otsailean, kultura herrijorran; martxoan, berdintasuna herrijorran; apirilean, basogintza herrijorran; maiatzean, sozio-ekonomia herrijorran... Horien guztien lagungarri, webgune berezia ere jarri zuten martxan. Herrijorran dinamikoa da, eta ez da denbora konkretu bati lotutako proiektua. Herrijorran auzolana, elkarlana, parte-hartzea... da.



Herrijorran proiektuaren helburu orokorra herriko parte-hartzea sistematizatu eta antolatzea izan da. Hau da:

- Herritarren eta tokiko gobernuaren arteko harremanak hobetzea
- Herritarrek politika kudeatzeko orduan partaidetza zabalagoa edukitzea
- Informazio gehiago, partaidetza handiagoa eta gardentasun handiagoa eskaintzea
- Tokiko gobernuaren eta herritarren arteko koordinazio-gune izatea
- ...

Eta dinamika hau barneratu izanaren erakusle da, besteak beste, gurpil honetan sarturik eta paralelo parte hartzeko beste prozesu batzuk ere egin direla:

- Euskararen Plan Estrategikoa herrijorran
- Elurteen aurrean herrijorran
- Jai Batzordea herrijorran
- ...





**IBIS  
RODRIGUEZ  
JOHNSON**

ACESMAko lehendakaria  
49 urte

**"18** urte daramatzat Oñatin eta jendearen parte-hartzean, auzo-lanean, herriarekiko inplikazioan, jaitsiera nabarmena sumatzen nuen azken urteotan. Honelako ekimenez, ordea, aldaketarako palanka gisa funtzionatu dute. Ni elkarte bateko kide naiz eta horrek motibatu ninduen parte hartzera, bereziki, iruditzen zaidalako guk masak mugitzeko aukera daukagula eta inizatiba dugunoi aukera ematea dela.

Aurrerantzean ere horrela jarraitzea animatzen dut Oñatiko Udala, jendea xaxatu egin behar dugu, eta 'kutsatu'. Herrigintzan, ezinbestekoa da Udala, eragileak eta norbanakoak elkarrekin aritzea //



**MIEL  
GURIDI  
URZELAI**

Teknikaria  
51 urte

**"E**uskara Biziberritzeko Plana diseinatzen hartu nuen parte. Oso perfil diferenteetako pertsonak elkartu ginen: irakasle, ikasle, gazte, nagusi, kirolari... Alde horretatik, oso aberatsa izan zelakoan nago.

Era berean, hain perfil desberdineko jendea hurbildu arren, elkarriketa, iritzi-trukea eta adostasuna izan ziren giltzarri. Horrek guztiak emaitza izan zuen eragina, Plana adostea lortu baikenuen.

Bizi izandako prozesu horrek herrian eragina izan duelakoan nago, dagoeneko bertan adostutako zenbait ekintza abian dira. Eta beste batzuk abian jartzeko zorian, laster martxan jarriko direlakoan nago //

# HARREMAN-ESTILO BERRI BATERANTZ

Noiz

2012. urtean zehar

Parte-hartzaileak

79 lagun (43 emakumezko, 36 gizonetzko)



parte hartzeko  
sistema




**E**gitasmo honen bidez, Oñatiko udal-antolaketa-astindua eman nahi izan zioten, ohiko antolamendu eta funtzionamendua baztertuta, lantalde autogestionatueta banatuta. Udal barruko parte-hartzea landu nahi izan zuten, pertsonen arteko harremanetan oinarritutako kudeaketa-eredua martxan jarrita.

Proiektuak hiru fase nagusi izan zituen: 2012an antolaketa-eredua behatu, diagnostikatu eta aldaketa-proposamena egin zen; 2013an lantaldeetan alde politikoak txertatu ziren; azkenik, Udala partaide den erakundeak txertatu ziren proiektuan. Horrela, herritarrenganako arreta zuzenagoa lortu zuten, baita herriko taldeak udal-jardunean txertatzea ere. Proiektuari esker, komunikazio-bide edo gune berriak sortu zituzten: hileroko komunikazio-bilerak, lankideen asanbladak...

Balorazioan, nabarmendu zen egitura politikoa hasieran sartu beharra zegoela prozesuan, gerora zain egon gabe, eta prozesuaren ondoren langileei egindako asebetetze-neurketetan, emaitza hobekak lotu ziren komunikazioan, parte sentitzean...

# donostia



## Biztanleak

186.185 (gipuzkoarren % 26,23)

## Azalera

61,5 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 3,09)





# d

onostia da Gipuzkoako hiriburua eta udalerrri nagusia.

Urumea ibaiaren bokalean dago, Igeldo, Urgull eta Ulia mendien artean. Hego-mendebaldean, Zubieta auzoaren zati bat ere bere mende dago administratiboki; ekialdean, Landarbaso eta hegoalderago Urdaburu mendi-barrutiak ere Donostiako udalerrriaren eremuan daude.

Hauek ditu mugakide: iparraldean, Kantauri itsasoa; ekialdean, Oarsoaldea; hegoaldean, Buruntzaldea; eta, mendebaldean, Urola Kosta.

Donostiak Urgull mendiaren oinetan du bere gune zaharrena, Parte Zaharra izenekoa. XIX. mendearen bukaeran, gune hori ixten zuten harresiak eraitsi eta hiria hegoalderantz zabaltzen hasi zen pixkanaka. Horrela, erdialdeko zabalgunea osatu zen lehenik, eta geroago Gros eta Amara auzoak. Gaur egun, Donostian auzo hauek daude: Amara Berri-Loiolako Erriberak, Amara, Zentroa, Parte Zaharra, Altza, Añorga, Ibaeta, Antigua, Aiete/Miramón, Zubieta, Egia, Igeldo, Gros, Ulia, Bidebieta, Intxaurren, Loiola, Txomin eta Martutene.

XIX. mendearen amaieratik, turismoa izan da hiriaren euskarri ekonomiko nagusietako bat, hiri polita izateaz gain, urbanismoaren aldetik nahikoa orekatuta dagoelako eta naturaren aldetik ikuspegi ederrak dituelako. Merkataritzak eta bestelako zerbitzuek ere jendetza handia erakartzen dute probintziako herrietatik hiriburura. Halaber, zentro administratibo garrantzitsua da: Gipuzkoako erakundeek eta Euskal Autonomi

Erkidegoko zenbait organok Donostian dute egoitza. Unibertsitateek pisu handia dute hiriaren bizimoduan, hiru unibertsitate-campus kokatzen baitira bertan, eta ikerkuntzaren arloan garrantzizko erreferentzia da.

Donostia puntu garrantzitsua da Europako errepide-sarean. Iparretik hegoaldera, E-05 errepidea (Glasgow-Paris-Algeciras), eta mendebaldetik ekialdera, E-70 (Coruña-Bordele) eta E-80 (Lisboa-Burgos-Pabe) errepideak Donostiatik igarotzen dira. Ibilbide horietan, Irundik etorrira, A-8 autobidetik sar daiteke Donostiara, eta Bilbotik etorrira autobide beretik. Madril-Gasteiztik etorrira, berriz, N-1 errepidetik egiten da sarrera. Donostiaren inguruan, errepide-gerriko edo -sare trinkoa dago. Gipuzkoa mendebaldeko kostaldeko herrietatik Donostiara etortzeko, azkenik, N-634 errepidea erabiltzen da.

Autobus-zerbitzuari dagokionez, hiri barruko zerbitzu zabala dauka Donostiak, Donostiako tranbia-konpainiaren bidez, baita Gipuzkoa osorakoa (Lurraldebus) eta herrialdetik kanporakoa ere.

Trenbideari dagokionez, Iparraldeko geltokian Espainiarako eta aldiriko trenak har daitezke, eta EuskoTren konpainiak Hendaiarako (*topoa*) eta Bilborako bidaiak eskaintzen ditu Easo plazako geltokitik.

Hegazkinez, Hondarribiko aireportua dago hiritik gertuen, baina hegaldi nahikoa mugatuak eskaintzen ditu, pista txikia daukalako.

Hiri txikia da Donostia, oinez erraz eta eroso zeharka daitekeena, oinezkoentzako kale eta ibilbideei esker ■

# Donostia



Azalera: 61,5 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 186.185, donostiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), PSE-EE (7), PP (6)  
eta EAJ-PNV (6)

Parte-hartzearen ardura

**AXIER JAKA GOIKOETXEA**  
(zinegotzia)

**AMAIA AGIRREOLEA GOMEZ**  
(teknikaria)



[www.donostia.org](http://www.donostia.org)



# ANTIGUAKO GAZTEEKIN GAZTEGUNEA ERAIKITZEKO PARTE HARTZEKO PROZESUA

Noiz

2012ko azaroa-2013ko ekaina

Parte-hartzaileak

Lehen fasean: Talde Motorrean 14 lagun (7 emakumezko, 7 gizonetzko)

Bigarren fasean: Talde Motorrean 20 lagun (12 emakumezko, 8 gizonetzko)

Lantalde Zabalean: 35-40 gazte saio bakoitzean  
(% 50 emakumezkoak, % 50 gizonetzkoak)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**D**onostiako Udalak 2011n auzoz auzo egin zituen bileretan, Antigua auzoko hainbat gazte leku bat eskatu zuten, elkartzeko eta aisialdi-alternatibak bultzatzeko.

Adinaren arabera, Donostiako Udalak gazteentzat haurtxokoen (6-12 urte) eta gaztelekuen (13-17 urte) sareak dauzka, eta 18 urtetik goragoko gazteentzat gaztegunea bat sortzeko proiektua jarri nahi zuen martxan. Antigua auzoan bazegoen Udalaren etxe bat (Villa Alegria), bere garaian haurtzaindegia izandakoa, gaztegunea izateko egokia izan zitekeena, eta parte hartzeko prozesu hau jarri zuen abian Udalak, hasierako eskaera egin zuten gazte haiekin elkarlanean.



Egitasmoak bi fase nagusi izan zituen: lehen fasean, 2012ko azarotik 2013ko otsailera, Udalaren ordezkariak eta gazteek hurrengo fasea aurreikusi eta landu zuten, hau da, diseinatu egin zuten nolakoa izango zen gaztegunea sortzeko geroko prozesua; bigarren fasean, berriz, 2013ko martxotik ekainera, prozesua erabat zabaldu zuten auzoko gazte guztiei eta gazteek beraiek bideratu zuten. Pixkanaka, larunbat goizetan egin ziren hainbat saiotan, hausnarketa eta auzolana tartekatu zituzten: alde batetik, zehazten joan ziren proiektuaren ezaugarriak, Udalarekin izan beharreko koordinazioa eta harremanak, gazteen antolaera, dokumentazioa...; bestetik, bilera amaitutakoan, auzolanean jarduten zuten, etxea eta inguruak egokitzen: belarra moztu, etxea garbitu, traste zaharrak atera...

Horrela, amaieran, Donostiako Udalak eraikina laga zien gazteei, gazteek beraiek moldatutako proiektua gauzatzeko.





## ITZIAR BILBAO ESTEVEZ

Gazteria Saileko teknikaria  
33 urte

“**A**ntiguako auzoan gazteekin aurrera eraman dugun parte hartzeko prozesua, orokorrean, prozesu polita izan dela uste dut. Udaleko kideek eta prozesuan parte hartu duten gazteek elkar ezagutu dugu, gauza asko eztabaidatu ditugu, batzuetan pixka bat haserretu ere egin gara, baina adostasunetara ere iritsi gara. Guztiok ikasi dugu asko hilabete hauetan.

Alderdi positiboenen artean, Udalaren eta gazteen artean eman den elkarlan zuzena azpimarratuko nuke. Udaletik, zuzenean gazteen nahi, kezka eta beharrak ezagutzeko aukera izan dugu eta prozesu esperimental bat den heinean, uste dut etorkizunera begira asko balioko digula. Dena den, Antiguako proiektu honekin, hasierako pausoa besterik ez dugu eman eta bide luzea dugu oraindik egiteko.

Bidean hainbat zailtasun topatu dugu eta askotan ez da erraza izan horiei aurre egitea. Alde batetik, gai askoren inguruan Udalaren eta gazteen interes eta ikuspuntu desberdinak egon dira, nahiz eta orokorrean adostasunetara iristeko gai izan garen. Bestalde, Udaletik, prozesua bera ondo burutzeari garrantzi handia eman diogu, eta, gainera, zenbaitetan Administrazioaren denborak nahiko genukeena baino motelagoak izan daitezke eta horrek talka egin izan du gazteek prozesua azkar amaitzeko zeukatzen nahiarekin.

Bestalde, iruditzen zait auzolana eta bilerak batera egitea, etxean bertan, ideia ona izan dela. Proiektuarekiko gertutasun handiagoa eman dio horrek eta gazteek erreala goa bezala bizitzen lagundu du. Gainera, momentu horiek ideia, iritzi eta asmo desberdinak eztabaidatzeko tarte informalak izan dira, bai teknikariok gazteekin, baita gazteek beraien artean ere ”



### Zer nabarmenduko edo azpimarratuko zenuke esperientziatik?

Egia esan, oso esperientzia polita eta aberasgarria izaten ari da. Horrelako prozesuak ez dira inoiz errazak izaten, baina jarrera irekia izanda (bai Asanbladaren eta bai Udalaren aldetik, Elhuyarren bitartekaritzaren laguntzarekin) ikusten da lana bere fruituak ematen ari dela. Bereziki garrantzitsua iruditzen zait nolabait gazteok erakusten ari gareen gogoia eta parte hartzeko nahi hori.

### Zer gustatu zaizu, bereziki?

Pertsonalki, helburua gazteontzako gune aktibo hau lortzea izanik, egin ditugun bileretan zehar proiektuaren nondik norakoek forma hartzen ikustea izan da bereziki gustatu zaidana. Lerro hauek idazten ari naizela, etxeko giltzak oraindik ez daude gure eskuetan eta argi dago bide guztia dagoela egiteko, baina proiektu honen atzean lan, bilera eta buruhausteak badaude; dena den, etxean orain arte bildu garenak gogoz ikusten ditut eta jendea benetan era sortzaile eta aktiboan proposamenak egiten ikuste hutsagatik merezi du

## ANDER ETXEBERRIA ARANBURU

Santo Tomas Lizeoko  
ikasle ohia eta ingeniari-tza  
industrialeko ikaslea

21 urte

egindakoak. Horrez gain, jende berria ezagutzeko aukera ikaragarria izaten ari da; beraz, esan beharrik ez dago esperientzia ederra dela.

### Nola sentitu zara?

Egia esan, oso motibatua sentitu naiz prozesu honetan guztian zehar; izan ere, Gazte Asanbladan etxe hau lortzea ez zen helburu bat, gazteok gure beharrak asetzeko gune bat lortzea baizik, eta biak betetzen ari direla ikusten ari naiz. Etxea lortu dugu eta gazteak erantzuten ari dira.

### Zer emaitza lortu da?

Honen guztiaren emaitza nagusia gazteon mugimendua dela esango nuke. Jende asko gerturatu da gutxinaka etxearen kontu honi esker eta denen jarrerarekin benetan txundituta gelditu nintzen. Oso pozgarria izan zen niretzat. Sortzaileak gara izatez eta gaztetxe honen bidez, iruditzen zait gure nahiak betetzeko erraztasun gehiago ditugula; beraz, ondo aprobetxatzen badugu emaitza, izugarriak lor daitezkeela uste dut.

# PARTE-HARTZEA AKTIBATZEA DONOSTIAKO HAURTXOKOEN ETA GAZTELEKUEN SAREETAN

## Noiz

2012. urte osoan zehar

## Parte-hartzaileak

Haurrak: 3.724 (1.964 neska, 1.760 mutil)

Gazteak: 2.607 (1.050 neska, 1.557 mutil)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**H**aur eta gazteentzat, haurtxokoak eta gaztelekuak dauzka Donostiako Udalak. Haurtxokoak 6-12 urteko haurrentzako tokiak dira, beharrezkoa den elementu materialekin (jostailuak...) eta pertsonalarekin, haurren jarduerak egiteko (jolastu, tailerretan parte hartu, marraztu, mozorrotu...); gaztelekuak, berriz, 13-17 urteko gazteentzako espazioak dira, aisialdi alternatiboko lekuak, gazteak elkartzeko, baliabide materialekin (aldizkariak eta komikiak, ordenagailuak, futbolinak eta ping-pongak...) eta pertsonal egokiarekin. Guztira 8 haurtxoko eta gazteleku daude Donostian, auzoetan (Aiete, Bidebieta, Martutene, Amara, Egia...).

Egitasmo honen bidez, Donostiako Udalak partaidetza aktibatu nahi izan zuen haurtxokoen eta gaztelekuen sareetan.

Haurtxokoei dagokienez, batik bat lau ildo landu nahi izan zituen: haur guztiei (eta batez ere behar bereziak zeuzkatenei) jolas-jardueretan partaidetza bermatzea; jolasak haurraren nortasunean daukan garrantziaz kontzientziaraztea; auzoko elkarteak adin txikikoekin elkartu eta aritzea; eta, azkenik,

ekintzetan parte hartzeko motibazio-prozesuak landu eta ziurtatzea; horrela, haurtxokoaren bitartez, haurrek gero eta gehiago hartzen dute parte auzoko bizitzan eta egunerokoan, baita ekintza berezietan ere (festak, ekitaldiak...). Gaztelekuetarako dagokienez, gaztelekuak zenbait lan-ildo jorratzen dituzte gazteekin: balioak barneratzea (bakea, elkartasuna, giza eskubideak...); aniztasuna bultzatzea; gazteen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzea; sozializazio-ekintzak, gazteen arteko harremanak sortu nahian; aisialdi osasuntsua eta baikorra izateko informazioa eta esperientziak; auzoarekiko lotura indartzea... Halaber, gazte-batzordeak sortu ziren gaztelekuetan, gazteak gaztelekuen gaineko erabakietan partaide izateko.



# LOIOLAKO HIRI-LORATEGIAREN BIZIBERRITZE-PLANA: DISEINU BERRI BATEN BILA

## Noiz

2012ko iraila-azaroa

## Parte-hartzaileak

batez beste, 35 lagun saioko  
(% 40 emakumezkoak, % 60 gizonezkoak)

hirigintza



**L**oiola auzoan, Donostiako Udalak Loiolako Lorategi Hiriaren diseinu berria egin nahi zuen eta horretarako parte hartzeko prozesu hau jarri zuen martxan, bizilagunekin batera lantzeko: nahi zuten edo interesa zuten 50 auzotari aukera eman zien proiektua aztertu, landu eta sakontzeko, talde egonkor batean antolatuta. Besteak beste, talde horretan ondorengoak landu ziren: espazioaren erabilera, ekipamenduak, azpiegiturak...

Ez zen lortu 50 laguneko taldea osatzea, baina hori baino garrantzitsuagoa zen interes eta ikuspuntu desberdinak jasotzea, eta hori lortu zen. Guztira hiru eztabaida-tailer izan ziren, hiru aste jarraitan. Udalak konpromisoa hartu zuen proposamenak eta emaitzak kontuan izateko Plan Berezia idaztean, baita auzotarrei erantzuteko ere.

Azkenik, bi bilera ireki egin ziren informazioa auzoan zabaltzeko eta partekatzeko.

# TTIPI-TTAPA

## Noiz

2012ko martxo-ekaina

## Parte-hartzaileak

50 lagun

mugikortasuna




**H**erri eta hirietan badaude oinezkoentzako ibilbideak, arrazoi bat dela edo bestea dela (ordeka, paisaia, lasaitasuna, harremanak sortzeko aukera...) oso estimatuak. Gero eta gehiago dira paseatzeko ohitura hartzen dutenak, horietako asko helduak, eta osasunerako gomendagarria da jarduera hori hainbat gaixotasun prebenitzeko. Horregatik, egunero oinez ibiltzea ona delako, esperientzia hau jarri zuen martxan Donostiako Udalak, beste hainbat erakunderekin batera (tartean, Osasun Lurralde Zuzendaritza, auzoetako zaharren egoitzak, auzo-elkarteak, Plus 55, Club Vasco de Camping, Kalapie...). Horrela, hainbat auzotan (Aiete, Martutene...), guztien artean oinez egiteko ibilbide zirkularrak aztertu eta prestatu zituzten, eta esku-orri batzuk atera ere bai, anbulatorioetako medikuek ibilbide horietan gomendatzeko.



# AUZOTARRAK ETA UDALA: PARTAIDETZA-HARREMANAK

Noiz  
2012ko uztaila-iraila

Parte-hartzaileak  
35 lagun (Donostiako auzo-elkarteen ordezkaririk)



**D**onostiako Udalak hausnartzeko prozesu bat jarri nahi zuen abian definitzeko nolakoak izan behar zuten Udalaren eta herritarren arteko partaidetzazko harremanak, herritarrekiko harremana iraunkorra eta denen artean eraikia izateko, parte-hartzea modu puntualetan edo ekimen jakin batzuetan martxan jartzetik harago. Horretarako, garrantzitsua zen parte hartzeko eredia herritarrekin batera lantzea, eta egitasmo honen bidez prozesuak nolakoak izan behar zuten definitu zuten. Nagusiki bi fase aurreikusi zituzten: lehen fasean, auzo edo herri barruko hausnarketa, auzo-elkarteen ingurukoa, Udalaren eta auzo-elkartearen beraren ikuspuntuetatik, auzoz auzoko egoera ezagutzeko eta mapa sozialak landuta, auzo bakoitzeko gizarte-mugimenduaren inguruan hausnartzea; bigarren fasean, berriz, auzoetako herritarren eta Udalaren arteko harremanen inguruko prozesua, oinarriak zehazten hasteko.

# TREBAKUNTZA-SAIOAK

Noiz  
2012ko urtarrila-martxo

Parte-hartzaileak  
90 lagun (49 emakumezko, 41 gizonezko)



**E**lkarrekin eta taldeekin jendarekin egiten dute lan, baina askotan ez daude behar bezala trebatuta edo gaituta auzoetan kalitatezko partaidetza-proiektuak planifikatzeko eta garatzeko, ez daukate nahikoa baliabide metodologikorik; halaber, askori kostatu egiten zaie Administrazioaren diru-laguntzetarako pausoak betetzea edo eskaerak ondo bideratzea. Horietan guztietan laguntzeko, trebakuntza-saioak antolatu zituen Donostiako Udalak, Herritarren Partaidetza Sailaren bidez.

Saio horien eragina nabarmena izan zen, diru-laguntzen 2012ko deialdian forma eta eduki aldetik hobekuntza nabarmena izan baitzen. Ikastaroak batez ere praktikoak izan ziren, kasu errealen gainean, eta horrela eraginkorrak izan ziren.





# goierri



## Herriak (22)


Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga

## Biztanleak

69.779 (gipuzkoarren % 9,83)

## Azalera

424,5 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 21,34)



**g**oierrri eskualdea bi zatitan ere banatu izan da: batetik, Urola Garaia (Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga); bestetik, Oria Garaia (Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain).

Gipuzkoako probintziaren hego-ekialdean dago. Iparraldean, Urola Kosta eskualdea du muga; ipar-ekialdean, berriz, Tolosaldea; mendebaldean, Debagoiena; eta hegoaldean, Araba eta Nafarroa.

Urola eta Oria ibaiek jasotzen dituzte eskualdeko urak. Urola ibaia Aizkorriko mendietan sortzen da, Arbelaitz (1.513 m) inguruan; Legazpi, Urretxu eta Zumarraga zeharkatu ondoren, irten egiten da eskualde honetatik, Azkoitirako bidea hartuta. Oria ibaia, berriz, Otzaurte aldean sortzen da, eta eskualdeko lurretan barrena doa Itsasondoraino, eta handik Tolosaldean barrena aurrera jarraituta, Orion itsasoratzen da; bidean, beste erreka askoren urak jasotzen ditu, besteak beste: Mutiloa, Estanda, Santa Luzia, Arriaran, Urtsuaran, Agauntza eta Zaldibiarenak.

Naturaren aldetik hainbat gune babestu daude Goierriin, besteak beste, hegoaldean, Aralar eta Aizkorri-Aloña-Leintz; iparraldean, berriz, Murumendiko gune naturala.

Beasain, Ordizia eta Lazkaoko herriguneez izan duten zabalkundearen indarrez, esan daiteke hiru udal-barruti horiek elkartu egin direla, eta eskualdearen buru egiten duen gunea sortu. Haren eraginpean bizi dira inguruko herri txiki gehienak.

Urola Garaian ere beste horrenbeste gertatzen da. Zumarraga eta Urretxu ia elkartuta daude, eta horien eraginpean bizi dira Legazpi, Gabiria eta Ezkio-Itsaso.

Komunikabideetan, eskualdeko bizkarrezurra N-I (Madril-Irun) errepidea da; Nafarroa nahiz Araba aldera (Etxegarateko gaina, 658 m) lotzeko bidea da. Beasaindik GI-120 errepidea abiatzen da, Nafarroarekiko lotura egiteko (Lizarrustiko gaina, 822 m). Zumarraga eta Debagoienarekiko lotura (Deskargako gaina, 587 m) GI-632 errepidearen bitartez egiten da. Zumarragatik Urola Kostaldera jotzeko GI-631 errepidea erabili daiteke, eta Legazpi edo Debagoienara jotzeko (Udanako gaina, 617 m), berriz, GI-2630 errepidea.

Trenbideak ere garrantzi handia izan du eskualdearen bizitza eta egitura sendotzeko, Oriako haranetik sartzen baita Gipuzkoara: Urolan barrena, Urretxu eta Zumarragara heltzen da, eta handik berriz Oria aldera jotzen du, Irungo bidean Beasain eta Ordizia zeharkatuta.

Goierriko ekonomia industriaren gainean dago antolatua; sektore horretan aritzen dira, hain zuzen ere, eskualdean lan egiten duten langile guztien erdiak baino gehiago. Lantegi gehienek metalgintzan jarduten dute, eta horietako batzuk oso enpresa handiak dira, dauden herrian arrasto eta pisu nabarmenekoak, “herriko fabrika” izenez ere ezagunak: Patrizio Etxeberria, Legazpin; Esteban Orbegozo, Zumarragan; Aristrain, Olaberrian; CAF, Beasainen... Horien inguruan enpresa txikiagoak sortu dira, metalaren transformazio-lanetan espezializatuak: Indar, Estandako Fundizioa eta Ampo, Beasainen; Jaso, Idiazabalen eta Itsasondon; Irizar, Ormaiztegin; Irimo eta Sarralde, Urretxun; eta abar ■



# Arama




Azalera: 1,33 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 217, aramarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Aramako Herri Batzarra** (5)

[www.aramaudala.net](http://www.aramaudala.net)



Parte-hartzearen ardura  
**AXIER MUJIKA OTEGI**  
(alkatea)





# HERRI-BATZARRAK

Noiz  
2012an zehar

**Parte-hartzaileak**  
batez beste 25 lagun (% 50 emakumezkoak, % 50 gizonetzkoak)

parte hartzeko  
sistema



**A**ramako Udala herri-batzar baten ondorioz osatzen da, eta hauteskudeetara ez da programa jakin edo zehatz batekin joaten. Udal-programarik gabe, gai garrantzitsuak herri-batzarretan eztabaidatu eta hausnartzen dira, eta organo hori funtsezkoa da hautetsiek eta herritarrek bat egiteko. Baina beste herri batzuetan bezala, hautetsiak eta herritarrak elkarrengandik urrun sentitzen ziren, aparte, eta proiektu honen bidez ahalegin berezia egin nahi izan zuten aramarrak Udalera gerturatzeko, herriko arduetan eta ekimenetan zuzenago parte hartzeko, herritarrak aktibatzeko, eta, batez ere, epe ertain edo luzearako egitasmoak lantzeko (arauak, ordenantzak...). Horretarako hainbat bilera egin zituzten, hautetsiek beraiek bideratuta, gehienak gai librean, baina zinegotziek ere eraman zituzten propio jorratu nahi zituzten gaiak.

2012an, herriaren beharren eta gabezien inguruko hausnarketa orokorra egin zuten, eta horretarako zenbait batzar egin zituzten; horrela, herritarrei galdetu zieten zerk kezkatzen zituen, zerk arduratzen zituen, eta horiei erantzuteko ahalegina egin zuten: argiteria, saneamendua... Bestelakoak ere landu zituzten: Internet sarea, arau subsidiarioak, baso-pistak... Familiaka hartuta, ia herritarren erdiek hartu zuten parte

bileretan, eta parte hartu zutenek garrantzitsua ikusi zuten ekimenak denboran irautea, segida izatea. Horrela, 2013an, herri-batzarren bidez, aurrekontuen eztabaida bultzatu zuten, eta hondakinen kudeaketa ere landu zuten. Balorazioari dagokionez, baliabide falta jotzen zuten zailtasun nagusitatz.





## MARIJO OLAZABAL ALDASORO

Irakaslea  
44 urte

**"E**dozein ekintza edo proiektutan borondatezko partaidetza beti positiboa dela esango nuke. Kasu honetan, gure herrian ikusten genituen gabezien eta premiazko beharren inguruan aritu ginen.

Herritarrek aukera paregabera izan zuten, talde txikitik, jendetza ugariaren inongo presiorik gabe, beraien bizipenak adierazteko eta beraien nahiak mahai gainean jartzeko. Aukera ezin hobea gure herriaren gidariekin gertuko solasaldia izateko eta norabide bikoitza duen komunikazioa lantzeko: guk gure ideiak aurkeztu eta beraiek beraien asmoak, limiteak, arazoak eta abar.

Bestalde, eta are gehiago gure herria hain txikia izanik, horrelako ekintzak antolatu eta parte hartzeko aukera izateak herri horretako partaide bizi sentiarazten zaitu. Sentitzen duzu zuk diozunak baduela lekua zure herrian eta, beste herrikideekin elkarlanean, zure herria egiten ari zaren sentazioa jasotzen duzu. Hori aberasgarria da benetan eta ezinbestekoa gaur egun bizi garen gizarte indibidualista honetan.

Azkenik, esperientzia hauen bidez zure herriaren ikuspegi zabalagoa lortzen duzu. Beste herritarren kezkek zein diren konturatzen zara eta guztiontzako garrantzitsuak diren beharrak lehenesten ikasten duzu, komunitate-zentzua jasoz eta

denontzat onak diren proiektuak denon artean lor daitezkeela sinetsi.

Ziur nago honek guztiak eragina duela, epe luzean bada ere. Komunikazioak beti ematen ditu fruituak, erein gabe ez baitago uztarik, eta, jasotakoa gutxi izanda ere, apreziatu behar dugun zerbait da, gure esfortzuen emaitza izango delako //



## UNAI GALPARSORO PRESA

Ingeniaria  
33 urte

**"Z**aborren bilketa-sistemaren inguruko batzarrean egon nintzen beste hainbat herritarrekin batera. Egia esateko, oso interesgarria eta beharrezkoa iruditu zitzaidan; batetik, gaiaren inguruko informazioa jaso genuelako, informazio horren ondorioz sortu ziren zalantzak argitzeko aukera paregabera izan genuelako; eta, ondoren, gure ikuspuntua eta iritzia konpartitu ahal izan genuelako. Eta, egunerokotasunean, oso gutxitan topa ditzakegu hiru gauza horiek batera egin ditzakegun eremuak. Gainera, konbentzimendu osoa dut honelako batzarrek herri hobea egiten laguntzen dutela //

## AURREKONTUAK

Noiz  
2013ko martxoan

Parte-hartzaileak  
17 lagun (7 emakumezko, 10 gizonezko)

partaidetzazko  
aurrekontuak



**L**ehenengo aldiz Araman, 2013rako udal-aurrekontuak herritarren aurrean aurkeztu zituzten, herri-batzarrean. Saioa oso ondo joan zen, baina egoera berezian egin behar izan zuten: aurrekontuak onartuta zeudela, Espainiako Gobernuak ezarritako baldintza berezi batzuk zirela medio; horren ondorioz, iritzia emateko aukera izan zen, baina ez aurrekontuetan eragitekoa. Nolanahi ere, herritarren ekarpenak kontuan hartu zituzten hautetsiek, etorkizunerako.

## HONDAKINEN KUDEAKETA

Noiz  
2013ko martxoan

Parte-hartzaileak  
22 lagun (10 emakumezko, 12 gizonezko)

garapen  
iraunkorra



**B**este herri askotan bezala, hitzetik hortzera ibili zen Araman hondakinen kudeaketaren gaia. Herritarrek informazioa eskatzen zuten, iritzia emateko nahia nabarmena zen eta hainbatek propio adierazi zuten behar hori. Horregatik, hondakinen kudeaketaz prozesua jarri zen abian. Etabaida oso mamitsua eta emankorra izan zen.



# Ataun



Azalera: 58,9 km<sup>2</sup>


Biztanleak: 1.680, ataundarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5) eta Herrigintza (4)



[www.ataun.net](http://www.ataun.net)



# EMAN ETA HARTU, UDALAK HERRITIK GERTU

Noiz  
2012an zehar

garapen  
iraunkorra



**A**taungo Udalaren ustez, hondakinen kudeaketan herritarrei ere bazegokien ardura, eta garrantzitsua zen gai horren gainean sentsibilizatzea. Horretarako, lehenik eta behin, kanpaina bat egin zuten hedabideen bidez eta gai horren gainean informatzeko esku-orriak banatu zituzten herrian. Horren ondoren, auzo-batzarrak antolatu zituzten eta asistentzia ona izan zen. Agerian geratu zen gaiak herritarrekin lantzen direnean, oso ekarpen interesgarriak jasotzen direla.



# Beasain



Azalera: 29,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 13.849, beasaindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6), EAJ-PNV (6), PSE-EE (2),  
Hamaikabat (1), PP (1) eta Aralar (1)

[www.beasain.net](http://www.beasain.net)



Parte-hartzearen ardura

**ZEZILIA HERRADOR GARIN**  
(zinegotzia)





# TERRAZEN ORDENANTZA

Noiz

2012ko uztaila

Parte-hartzaileak

15 lagun (2 emakumezko, 13 gizonzko)

hirigintza



**B**este herri batzuetan bezala, azken urteetan Beasainen ugaritu egin dira tabernen kanpoaldeko terrazak eta horrek hainbat arazo eta gai jarri ditu agerian, besteak beste: garbiketa, bizilagunekin gorabeherak, oinezkoen guneen okupazioa, zarata, berogailuak, urte osoan terraza erabiltzeko aukera, tasak, ordutegia..., batzuk aipatzearren.

Horiei konponbidea aurkitu nahian eta Udalak terrazen ordenantza berria egiteko asmoa zeukanez, Udalak inplikatuengana jo zuen (bizilagunengana, tabernariengana eta merkatarieganana), iritziak, proposamenak eta ideiak jaso eta adostasun-puntuak bilatzeko, elkarlanean jardun zuten Udaleko ordezkariekin eta teknikariekin. Horrela, zenbait bileratan,



hasteko, egoeraren diagnostikoa egin zuten; gero, konponbideak proposatu zituzten; eta, azkenik, lehengo ordenantzaren gainean hobekuntzak proposatu zituzten. Horri esker, alde guztietako iritzi, ekarpen eta ideiekin aberastu egin zen ordenantza berria. Hala ere, azkenean behin betiko araudian ezin izan ziren jaso parte hartu zuten guztien nahiak, batzuetan iritziak edo proposamenak kontrajarriak zirelako.



## UDALAREN PARTE HARTZEKO ESTRATEGIAK ETA OINARRIAK

Noiz  
2012ko maiatza-uztaila

parte hartzeko sistema



## GAZTEEN SORKUNTZARAKO LOKALAK

Noiz  
2012ko urria-azaroa

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**B**easaingo Udaleko hautetsi eta teknikari batzuek Beasain herria eta Udala parte-hartzearen alorrean nola ikusten zuten landu zuten, eta etorkizunera begira jarrita, Udalak herritarrekin zer eta nola lan egin aztertu zuten, epe ertain eta luzera. Egindako lan horrek aukera eman zuen etorkizuneko plangintza osatzeko. Emaiza oparoa izan zen, eta orain helburua da emaitza hori egunerokoan txertatzen joatea.

**B**easaingo Udalak hainbat lokal zeuzkan gazteek erabiltzeko, sorkuntzarako (musika-taldeentzat...). Lokal horiek ez zeukaten inolako arautegirik erabilerari edo funtzionamenduari zegokienez, eta azken urteetan, gainera, kontrolez kanpo egoteaz gain, hainbat arazo ere sortu ziren: segurtasuna arriskuan jarri zuten ekipamenduak jarri zituzten erabiltzaileek, kasu batzuetan ez ziren partekatu lokalak...

Horregatik guztiagatik, lokalak berritzeko garaia iritsirik, lokal horiek erabiltzeko interesa zeukaten herriko hainbat gazterekin parte hartzeko prozesua gauzatu zen, guztien artean arautegia osatzeko. Udalak aurretik landu zuen gaia, eta ondoren irizpide horiek gazteekin partekatu, aztertu eta osatu egin zituzten. Halaber, lokalen gaiak atea zabaldu zuen gazteek autogestioan aurrera egiteko eta zenbait lan eta ardura beraien gain hartzeko.

# PARTE HARTZEKO AURREKONTUAK: AUZOAK ETA ELKARTEAK

Noiz  
2012ko abendua

partaidetzako  
aurrekontuak



## Parte-hartzaileak

Auzoan: 11 lagun (1 emakumezko, 10 gizonetzko)  
Elkarteen bileran: 33 lagun (19 emakumezko, 14 gizonetzko)



**U**dalaren eta herritarren arteko distantzia laburtu eta zubiak eraiki nahian, aurrekontuen arloan ordura arte egindakoa azaldu eta 2013rako udal-aurrekontuen informazio zuzena eman nahi zuen Beasaingo Udalak. Proba egin nahi izan zuen, eta horretarako bi sektore edo gune aukeratu zituen: auzoak eta elkarteak.

Auzoen kasuan, ordurako parte-hartzean eskarmentua zeukan auzo bat aukeratu zuen Udalak elkarlanerako, eta bilera deitu zuen; halaber, beste bilera bat deitu zuen elkarteentzat. Bi bileretan ahalegin berezia egin zen Beasaingo ikuspegi orokorra lantzeko, bakoitzak berearen muga gainditu eta besteena edo herri osokoa ere ikusteko; horrela, lehenengo, gaiaren inguruko informazioa eman zen, eta ondoren aurrekontuak landu ziren. Hautetsiek beraiek prestatu eta bideratu zituzten saioak.

# IGARTZA

Noiz  
2012ko maiatzean

kultura



**I**gartzako monumentu-multzoa da Beasainen bereizgarrietako bat; bertan biltzen dira Donejakue bideko ostatua, burdinola, jauregia... Horien guztiak nola erabiliko ziren finkatzeko, Udalak parte hartzeko prozesua jarri zuen abian.

Helburu nagusietako bat izan zen bertan aurrera eramateko lan-ildoen proposamenak jasotzea. Horretarako, herriko eragile eta herritarrak bildu zituzten, gaia lantzeko eta proposamenak adosteko. Emaitza oso oparoa izan zen, proposamen ugari jaso baitziren, eta lehenetsiak ezarri zituzten herritarrek, garrantziaren arabera, Udalak nondik hasi behar zuen jakiteko.



# Ezkio-Itsaso

Azalera: 21,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 609, ezkiotarrak, itsasoarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Ezkio-Itsasoko kideak (7)**

[www.ezkio-itsaso.net](http://www.ezkio-itsaso.net)



Parte-hartzearen ardura

**GARIKOITZ Aiesta ETXANIZ**

(alkatea)



# HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA AUKERATZEA

Noiz

2012ko iraila-2013ko martxo

Parte-hartzaileak

Auzoetan: 6-8 lagun bilera bakoitzean

Udaletxean egin zen bileran: 25 lagun (% 50 emakumezkoak, % 50 gizonezkoak)

garapen  
iraunkorra



**P**roiektuaren helburu nagusia zen parte hartzeko demokrazia bultzatzea herrian eta herritarren arteko harremana indartzea. Horretarako, aukera egokia suertatu zen, gainera: beste hainbat herritan bezala, Udalak hondakinak biltzeko sistema aldatzeko asmoa zeukan, eta herritarrei azaldu nahi zien horretarako zer aukera zeuden. Sasieta Mankomunitateko ordezkariekin batera, bilera-erronda egin zuen auzoetan, eta, amaieran, bilera orokor bat Udaletxean.



Esperientzia positiboa izan zen eta etorkizunean bilerok segida izatea zen asmoa, beste gai zehatz batzuekin: hautetsiek etorkizuneko asmoen berri emateko, aurrekontuak azaltzeko... Garrantzitsutzat jo zuten informazioa zabaltzea eta erabakiak adostasunean hartzea, hau da, pertsona askoren iritziak jaso ondoren.



**PILARE  
MUJIK  
LOPETEGI**

Irakasleriaren  
Prestakuntzarako eta  
Hezkuntza Berriztatzeko  
zerbitzuko zuzendaria  
(G04 Berritzegunea)  
51 urte

**"G**ure parte hartzeko prozesu honetan aldaketa eraginkorra izan da, nire ustez, elkartzeko guneen eszenatokiak herritarrengana hurbiltzea: Udaletzeko espaziotik testuinguru naturaletara, hau da, herriguneetara, elkarteetara, jendea non parte-hartzea han. Lehenbizi, gehienen presentzia lortu behar da, horretarako egon daitezkeen oztopoak gaindituz, eta parte-hartze ekitatiboa bermatuz, adostutako lorpenak izateko "



**PEDRO  
ETXEZARRETA  
IPARRAGIRRE**

Erretiratua  
66 urte

**"E**zkio-ltsasok duen biztanle-kopururako parte-hartzea bultzatzeko prozesu egokia iruditu zait, auzoetan bilerak eta azkenik Udaletxean herri-mailako bilera egin da. Azken horretan, aztertu diren aukeretatik egokienak izan litezkeen bi aukerak azaldu dituzte Udalak eta Mankomunitateak, eta bertaratu diren herritarrek zalantzak eta iritziak adierazteko aukera izan dute. Jende dezente bertaratu da, galderak egin eta iritzia emanez, nahiz eta parte-hartze handiagoak beti aberastu dezakeen. Lortu den emaitza ere ona, bertaratuek zer bilketa-sistema aplikatu adostu baitzuten. Parte-hartzeari begira, erronkak ez dira falta, hala ere. Besteak beste:

- Herri-eskola martxan ipintzeko prozesua: herriari ekar liezaiokeen aldaketa, gaur bizi dugun sakabanaketa-joerari buelta emateko aukera, haurrek elkar ezagutzeko aukera, epe luzerako parte-hartzea eskatuko duena.
- Abiadura Handiko Trenaren egoerari kontu hartzeko garaian herriaren parte-hartze zabalagoa... "



# Idiazabal



Azalera: 29,5 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 2.307, idiazabaldarrak

Udalbatzarraren osaera:

Izal Bai (6), Bildu (5)

[www.idiazabal.info](http://www.idiazabal.info)



Parte-hartzearen ardura  
**DANIEL OIARBIDE RUIZ**  
(zinegotzia)



# IDIAZABAL BIZIRIK ETA IDENTITATE PROPIOAREKIN

Noiz

2012ko iraila-azaroa

Parte-hartzaileak

32 lagun (15 emakumezko, 17 gizonezko)

herri-izaera



**H**erri-izaera edo herritartasuna indartzea da herri askoren kezka edo nahia, eta proiektu honen bidez horixe landu nahi izan zuen Idiazabalgo Udalak, baina orokorrean ez ezik, bereziki arlo zehatz batzuetan lortu nahi zuen: kulturean, euskaran, hezkuntzan eta gazterian.

Guztira 7 saio egin zituzten herritarrekin eta hurrenez hurren, pauso hauek eman zituzten: egoera aztertu, norabidea finkatu, helburu estrategikoak landu, ekintzak eta proiektu nagusiak zehaztu eta horiek lehenetsi.

Prozesu dinamikoa izan zen, bizia, eta jendea gustura aritu zen lanean. Ekintzak zehaztuta eta lehenetsita, aurrerapausoak emateko oinarria finkatuta geratu zen, martxan jartzeko prest.



# Itsasondo



Azalera: 8,94 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 667, itsasondoarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7)

[www.itsasondo.net](http://www.itsasondo.net)

Parte-hartzearen ardurak

**ERKUDEN MENDIZABAL SAN SEBASTIAN**  
(zinegotzia)





# ITSASONDO EKINEZ EGINA

**Noiz**  
2012ko maiatza-abendua

**Parte-hartzaileak**  
43 lagun (23 emakumezko, 20 gizonzko)



**E**gitasmo honen bidez, Udalak nagusiki bi arlo landu nahi izan zituen herritarrekin batera, partaidetzazko prozesu bakarraren baitan. Lehenengoa, hurrengo urteetarako Herri Plan berria osatzea, Itsasondo herria pizteko eta suspertzeko pentsatua, eta, bertan, herritarrek herriaren egoera aztertu eta ekintza zehatzak proposatu zituzten; bigarren arloan,



berri, herritarrek Udalean nola hartu behar zuten parte aztertu eta landu zuten, herritarren parte-hartzea indartzeko eta bultzatzeko.

“Itsasondo ekinez egina”-ren aurrekaria 2004-2005ean garatu zen, eta Agenda 21a izan zen. Orduetik, Agendako Ekintza Planean zehaztutakoa gauzatzen ahalegindu zen Udala. Plan horrekin batera, ordea, ikusi zen herria piztu egin behar zela; horregatik, herri-izaera lantzeko ahalegin berezia egin zuten, herri-kohesioa indartzeko, herri bizia behar zelako, eta horretarako ezinbestekoa zen guztien parte-hartzea. Horrela, herritarren parte-hartzean oinarritutako Herri Plan berria landu zuten 2012an.





Prozesuan, ondorengo pausoak edo faseak izan ziren: lehenengo, prestaketa, prozesua martxan jartzeko egin beharreko lanak zehazteko; gero, diagnostikoa osatzea, informazioa bilduta eta hainbat herritar elkarrizketatuta; ondoren, herritarrekin bilerak, 3 lantaldeetan banatuta (Ingurumena eta Hirigintza; Herri Bizitza eta Ongizatea), herriaren inguruan hausnartzeko (hutsuneak, gara zitezkeen ekintzak, lehentasunak); gero, udal barruko lanak, herritarren ekarpenak bideragarriak ziren edo ez aztertzeko, udal-teknikariekin batera; parte hartze metodología zehaztea eta balorazioa (Itsasondoko Udalean, herritarren parte-hartzea nolakoa izan daitekeen zehazteko); eta, azkenik, bukaera, prozesuaren emaitzak azaldu, prozesua baloratu eta egindako lana ospatzeko.

Prozesua aurrera eramateko, ondorengo egiturak aritu ziren lanean: Talde Eragilea, Komunikazio Taldea, Herri Batzarra eta lantaldeak (3).

Aurrera begira, Itsasondoko Udalarentzat erronka izango da kudeaketan herritarren parte-hartzea xertatzea. Horretarako, eredu eta egutegi jakin batekin proba egiteko asmoa daukate, eta ongi funtzionatuz gero, aurrera jarraituko dute proiektuarekin. 3 lantaldeek martxan jarraitzen dute, hilean behin bilduta, eta lantalde bakoitzean Udaleko langile batek ere hartzen du parte. Lantaldeetan, Udalaren funtzionamenduan eguneroko martxan sor daitezkeen gaiak lantzeaz gain, aurrekontuak prestatu behar direnerako, Planean jasota dauden ekintzak lehenesten eta lantzen joango dira. Horrela, urrirako edo azarorako, lantalde bakoitzetik, hurrengo urtera begira proposatzen diren ekintzak aurkeztuko dira, ondoren Udalak onar ditzan.





## MIRARI GAZTAÑAGA

Psikologian ikertzailea  
25 urte

“ Itsasondan egin den parte hartzeko prozesuaren inguruan nabarmendu nahiko nukeena da Udalak herritarroi gure iritzia eta kezka adierazteko eman digun aukera. Itsasondo herri txikia izanik, gainera, aurrez aurre udaletxean lan egiten duten agente ezberdinekin lasai solasean aritzeko aukera eman digu parte hartzeko saioetan, herritarrok dugun herriaren irudia adieraziz, faltan sumatzen duguna komentatuz eta gure iritziz faltan dugun hori nola lor litekeen adieraziz. Horrek, nolabait, herritarra Udaletik gertuago sentiarazten duela iruditzen zait. Gainera, saioetan nabaritzen da Udaleko agenteek herritarren iritzia entzun nahi dutela eta erlazio hori sustatu nahi dutela bakoitza bere aldetik joan ordez ”



## AITOR GARMENDIA MATE

Langabezian  
43 urte

“ Itsasondan burutu den parte hartzeko prozesuan “Herri Bizitza” taldean hartu dut parte. Talde nahiko zabala eta jendetsua izan da, 15 bat lagun bilera gehienetan. Bilerak ondo joan dira, eta nik beste kontu bat nabarmenduko nuke:

Prozesuan urte gutxitik hona kanpotik etorritako jendeak parte hartu dugu, eta ez genuen oso ondo ezagutzen nondik gentozen. Ba, prozesu honekin hobeto kokatu dugu geure burua herriko dinamiketan eta oinarriak jarri dira hemendik aurrera bideari jarraitzeko. Beraz, eragin handia izan du herritarrengan ”



# Lazkao



Azalera: 11,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.407, lazkaotarrak


Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (5) eta PSE-EE (1)

Herritarrek parte hartzeko webgunea:

[www.lazkaotarrok.org](http://www.lazkaotarrok.org)

[www.lazkao.net](http://www.lazkao.net)



Parte-hartzearen ardura  
**URTZI IRUIN ARRUTI**  
(zinegotzia)



# HERRITARREI HITZA

## Noiz

2012ko maiatza-abendua

## Parte-hartzaileak

320 lagun (% 50 emakumezkoak, % 50 gizonezkoak)

herritarrekin  
harremanak



Udala herritarrengana gerturatzeko eta batez ere lazkaotarren arazo, proposamen, kexa, kezka eta abarrekoak aurrez aurre ezagutzeko, Udalak hainbat bilera egin nahi izan zituen auzoz auzo. Hasteko, Udalerria hiru gunetan banatu zuten, eta horietako bakoitzerako bilera-deialdiak egin zituzten.

Egitasmoak hiru fase nagusi izan zituen: lehenengoan, herritarrei entzutea, hau da, herritarren kexa, iradokizun, proposamen eta abar jasotzea; bigarren fasean, herritarrek adierazitakoak Udaleko batzordeetan landu zituzten; hirugarren eta azken fasean, berriz ere bilerak egin zituzten herritarrekin, erantzunak emateko eta ordurako konponduta zeuden arazoen berri emateko. Hirugarren fase horretan ekarpen berriak jaso zituzten, eta horiek aurrerago, urtean zehar, beste bilera batzuetan, lantzeko asmoa zegoen. Bilera horietan guztietan Gobernu Taldeko zinegotziak eta alkatea ibili ziren, eta bilerak batez ere praktikoak izan ziren, dinamikoak eta giro onean.

Egitasmoari esker, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio-bideak ezarri ziren, hitz egin eta elkarrizketatzeko.



# Legazpi




Azalera: 41,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 8.684, legazpiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (3), PSE-EE (2)  
eta Hamaikabat (1)

[www.legazpiko-udala.info](http://www.legazpiko-udala.info)



Parte-hartzearen ardura  
**SAGRARIO ETXABE LASA**  
(zinegotzia)





# HIRI-EKIPAMENDUEN ERABILERA HERRITARREKIN ZEHAZTEKO PROZESUA

## Noiz

2012ko otsaila-ekaina

## Parte-hartzaileak

100 lagun (65 emakumezko, 35 gizonezko)

hirigintza



Legazpiarren nahiei eta beharrei erantzuteko, Legazpiko Udalak hainbat eraikin eta lokal dauzka: hezkuntzakoak, zortzi; gazteentzakoak, lau; gizarte-zerbitzuetakoak, sei; kulturakoak, hamabost; kiroltakoak, zazpi; eta, horiez gain, biltegia, Agirre Etxeberri eta abar.

Ekipamendu anitza eta ugaria izan arren, herriko talde batzuek arazoak zituzten; beste batzuek, berriz, ez zeukaten lokalik. Hori horrela izanik, Udalak partaidetzazko prozesu baten bidez legazpiarren ekipamendu beharrak ezagutu nahi izan zituen, eta horietan oinarrituta, herritarrekin lokal horien erabilpena antolatzea izan zuen helburu.

Prozesu honetan, hainbat taldek jardun zuten lanean: Talde Eragileak, Herritarren Taldeak, Teknikarien Lantaldeak eta teknikari eta herritarren ordezkariak osatutako lantaldeak.

Hasteko, eraikin eta lokal guztien inbentarioa osatu eta horien balorazioa egin zuten parte-hartzaileek; bertan, indarguneak, hobetu beharrekoak eta proposamenak jaso zituzten. Ondoren,

prozesu honetako parte-hartzaileei eskatu zieten lehentasunak zehazteko, Udalak aurrera begirako planifikazioan eta erabakietan kontuan izan zitzaizkien. Besteak beste, ekipamenduen erabilera antolatzeko irizpideak ere landu zituzten.



Prozesu osoan, bi alderdi nagusi landu zituzten: batetik, elkarteen lokalen gaia; bestetik, udal-eraikin nagusien (erabilera handia dutenen) berrantolaketa. Behin ekipamenduen erabilera antolatzeko irizpideak landuta, horietan oinarritutako proposamen edo aukera zehatzak planteatu zituzten herritarren ordezkariekin eta teknikariekin osatutako taldean.



Argazkia: Josu Altzeia

## GENTZANE ARRUABARRENA DIAZ

Oripavi elkarteko kide  
sortzailea eta irakaslea

### Zer nabarmenduko zenuke esperientziatik?

**O**ripavi elkartearen oinarrietako bat lan-sareak sortzea da.

Prozesu berari dagokionez, batetik nabarmenduko nuke esperientzia bezala onuragarria iruditu zitzaigula, herriko agente ezberdinekin eta gure iritzia bertan islatzearekin gustura sentitu baikin.

Bestetik, elkarte bezala ez ditugu emaitza zehatzak nabarmendu, espazio-banaketari dagokionez. Luzea suertatzen ari zaigu prozesua eta horrek berak mesfidantza-sentimendu puntutxo bat eragiten digu.



Argazkia: Josu Altzeia

## JUAN PEDRO AGIRRE UGARTE

Erretiroduna

### Parte-hartzeari dagokionez, zer erronka dago etorkizunerako gure herrian?

**O**ker ez banago, hemendik bi urtera Herriko Araudi Urbanistikoak berrikusi behar dira. Prozedura horrek herriko alor guztiak ukitzen ditu (urbanismoa, nekazaritza, industria, kultura, azpiegiturak, zerbitzuak...); bi hitzetan esanda, datorren hamarkadarako zer herri-mota nahi dugun erabaki behar dugu.

Gaia oso garrantzitsua da eta beharrezkoa ikusten dut herritarren parte-hartzea. Beste aldetik, patxadarekin hartu beharreko gaia da eta bi urte oso azkar igarotzen dira. Beraz, komenigarria izango litzateke jadanik parte hartzeko prozesuan pentsatzen hasia.

## ATEZ ATEKOA EZARTZEA

### Noiz

2013ko martxo-maiatza

### Parte-hartzaileak

937 lagun (% 58 emakumezkoak, % 42 gizonezkoak), gehi etxe-atarietako bileretan parte hartu zutenak

garapen  
iraunkorra



**G** arapen iraunkorraren bidean aurrera egiteko eta ahalik eta birziklatze-tasa handiena lortzeko, Legazpiko Udalak atez atekoaren alde egin zuen herrian hondakinak biltzeko, baina ereduaren diseinua parte hartzeko prozesu baten bidez landu nahi izan zuen, betiere gutxienez hondakinen % 73 gaika biltzea helburutzat hartuta.

Horrela, herritarrei aukera eman zitzaizen bilketa-sistemaren inguruko xehetasunak zehazteko (egutegia, maiztasuna, ordutegia, edukiontzia non...), ekarpenak eta proposamenak egiteko eta aukera batzuen artean bozkatzeko (edukiontzi arinak eta papera). Bilera ugari egin ziren, askotarikoak: batzar irekiak (4), bilerak sektoreen arabera (3. adina, ostalariak eta dendak, hezkuntza...), bilerak auzoka (16), bilerak etxe-atarietan (30 inguru)... Hizkuntza oztopo ez izateko, euskarazko eta gaztelaniazko bilerak egin ziren. Amaieran, sistema



berriaren ezaugarriak zehaztu ziren, herritarren ekarpenak kontuan izanik.

Bileretan oso giro ona izan zen, eztabaidak irekiak izan ziren eta parte-hartzaileek ekarpen eta proposamen zehatz asko egin zituzten, sistema osatzeko. Hobetzekoetan, berriz, azpimarratzekoa izan zen prozesutik kanpo geratu zirela sistemarekiko zalantzak zeuzkaten edo sistemaren aurka zeuden hainbat herritar, ez zutelako parte hartu nahi izan.

## AGENDA 21EKO HERRITARREN FOROAK

### Noiz

2001etik aurrera

### Parte-hartzaileak 2012an

274 lagun, 25 lagun inguru bilerako

garapen  
iraunkorra



**B** adira 12 urte Legazpiko Udalak Agenda 21eko herritarren foroak bultzatzen dituela, garapen iraunkorrerako bidean, eta hainbat gai joratu izan dira bertan, urtez urte: elikadura jasangarria, irisgarritasuna, hondakinak... Behin baino gehiagotan aitortu zaio Legazpiko Agenda 21ari egindako lan eredugarria, eta, adibidez, 2012an, urrezko TAK saria jaso zuen. Gainera, foroetan landutakoa gero praktikara eramateko ahalegina egiten da; esate baterako, udal-aurrekontuetan inbertsioetan kontuan izan beharreko irizpideak landu zituzten foroetan, eta horiek aintzat hartzen ditu Legazpiko Udalak.



# Mutiloa



Azalera: 8,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 246, mutiloarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Mutiloako Herri Kandidatura (5)**

[www.mutiloa.net](http://www.mutiloa.net)



Parte-hartzearen ardura  
**IÑAKI UGALDE ALUSTIZA**  
(alkatea)



# HERRIAREN ETORKIZUNA ERABAKITZEKO HERRI-MAILAKO HAUSNARKETA

## Noiz

2012ko iraila-2013ko abendua

## Parte-hartzaileak

24 lagun (12 emakumezko, 12 gizonezko)

tokiko plana /  
plan estrategikoa



**B**este herri txiki askotan bezala, Mutiloan ere Udalak aukerak zabaldu nahi zizkien mutiloarrei herriaren etorkizuna definitzeko garaian parte hartzeko, batik bat iradokizunak eta proposamenak egiteko eta jasotzeko, eta gero Udalak aztertzeko eta lantzeko zenbateraino ziren bideragarriak edo ez.

Orain dela hamar urte herri-mailako hausnarketa bat egin zen; ondoren, 2005ean, Agenda 21aren bidez ere landu zuten gaia. Egitasmoarekin hasteko, udal-hautetsiek proiektuaren berri izan zuten, ordura arte egindakoaz jabetzeko. Gero, Herri Batzarrean proiektuaren berri eman zuten eta ordutik aurrerako lanketa talde txikiagotan egitea erabaki zuten.



# Ordizia



Azalera: 5,65 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 9.817, ordiziarrok

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (5) eta PSE-EE (1)

[www.ordizia.org](http://www.ordizia.org)



Parte-hartzearen ardura

**IZARO INTSAUSTI ZINKUNEGI**  
(zinegotzia)





# OIANGUKO PARTAIDETZAZKO PROZESUA

## Noiz

2012ko otsaila-abendua

## Parte-hartzaileak

63 lagun (34 emakumezko, 29 gizonetzko)

hirigintza



Oiangu Ordiziako baserri eta lursail bat da, eta Andres Urdaneta esploratzaile eta nabigatzailea han jaio zen, ustez, 1508an. Herrigunearen gainaldean dago, muino batean, belardiz eta basoz inguratuta, eta natur balio handikoa izateaz gain, inguruko mendi eta herrietarako bista ikusgarria dauka, arnasa sakon hartzeko modukoa. 1973an, Ordiziako Udalak erosi egin zuen, ordiziarrek aisialdirako gune bat izateko, eta bertako baserria Ingurugiro Eskola izan zen 80ko hamarkadan. 2005ean, Udalak

kontzesioan eman nahi izan zuen, bertan zenbait jarduera gauzatzeko: golfean jokatzeko zelaia, paintballean jolastekoa, igerilekua... Ordiziar asko, ordea, ez zeuden ados horrekin, Oianguk izaera publikoa mantentzearen alde zeudelako; horregatik, plataforma bat eratu zuten, “Oiangu publikoa eta bizirik” izenekoa. 2010ean, parkea kudeatu behar zuen enpresak uko egin zion kontzesioari, eta berriz ere Udalaren esku geratu zen parkearen ardura.

2011ko udal-hauteskundeen ondoren, Udalbatza berria eratu zenean, Gobernu Taldeak partaidetzazko prozesu hau jarri zuen martxan, plataformarekin eta herritarrekin batera Oianguren etorkizuna elkarrekin erabakitzeko. Prozesuak lau fase izan zituen: lehenengoan, otsailetik apirilera, Talde Eragilea sortu, prozesua diseinatu eta prozesuan bideratzaile-lanetan arituko ziren herritarrak trebatu zituzten; bigarrenengoan, apiriletik ekainera, bost bileratan, eraikuntza kolektiboaren bidez eta adostasunez, herritarren ekarpenak eta iritziak jaso zituzten, eta, amaieran, lantalde bat eratu zuten; hirugarrenengoan, ekainetik irailera, herritarren eta udal-teknikarien arteko elkarriketa eta elkarlana izan zen, ekarpenen bideragarritasun sozioekonomikoa lantzeko; eta, azkenik, laugarren fasean, prozesuak emandakoa aurkeztu zieten ordiziarrei.



Prozesuari esker, ordizarrak jabetu ziren Oiangu beraien naturgune nagusia zela eta ordiziarrei zegokiela haren etorkizuna elkarrekin lantzea eta adostea. Prozesuan zehar, herritarrek hainbat ekintza zehatz proposatu zituzten Oianguako, baita lehentasunaren arabera ordenatu ere, eta aurreikusi ere egin zuten horietatik zein egin zitezkeen auzolanean, zein egin behar zituen Udalak eta zein egin behar ziren bestela. Udalak horiek gauzatzeko konpromisoa hartu zuen, eta pixkanaka urratsak egiten hasi zen: golfeko zutoinak kendu, 50.000 euro gorde lehenetsitako proiektuak gauzatzeko, baserriaren teilatua eta saneamendua konpondu...

Parte-hartzaileek prozesua ondo baloratu zuten, aitortu zuten ordura arte ez zutela izan horrelako aukerarik eta gustura aritu zirela, parte-hartzaile sentitu zirela. Emaitza ere ondo baloratu zuten, talde osoarena zelako. Hobetzekoetan, berriz, parte-hartzaileen kopurua azpimarratu zuten, hau da, jende gehiagok parte hartzea nahi zuten.



# ORDIZIA KOLORE

## Noiz

2012ko urritik aurrera

## Parte-hartzaileak

60 lagun (% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)

aniztasuna



Ordiziako Udaleko Migrazio eta Aniztasun

Sailak bultzatutako proiektu honetan, gune berean elkartu ziren kanpotik (Amerikatik, Asiatik, Europatik...) Ordiziara etorritako jendea eta jatorriz ordiziarak izanik gaiarekiko sentsibilitate

handia zeukaten hainbat lagun, hitz egiteko, bizipenak partekatze...

Hasteko, tailer batzuk egin zituzten; ondoren, Ordiziako migrazio- eta aniztasun-technikariak dinamizatuta, taldeak helburuak definitu zituen, besteak beste, hauek: giro egokia eta gertutasuna sortzea bilgunean, errespetuzko balioak lantzea eta aniztasunaren balioak goraiatzeko, elkarbizitza ulertzeko modu desberdinak ezagutzeko, elkarbizitza hobetzeko ekintza zehatzak prestatzea... Hilean behin edo bitan elkartzen joan ziren, indar

hartzen, eta pixkanaka ekintzak gauzatzen hasi zen taldea, ordiziarrek gaiarekiko sentiberatzeko: kultura desberdinen arteko afariak, inguruko herrietara txangoak, bizitzako pasadizoen kafe-tertulia, hainbat herrialdetako abestiak, danborradan argi-zuzia eramatea, Gabriel Arestiren “Nire aitaren etxea”-ren pasarte bat irakurtzea ama-hizkuntzan (I. Irakurketa Multikulturalaren baitan)... Etorkizunean, biltzen eta lanean jarraitzeko asmoa daukate.





# ATEZ ATEKOA MARTXAN JARTZEKO PROZESUA

Noiz

2013ko martxo-ekaina

Parte-hartzaileak

1307 lagun (764 emakumezko, 543 gizonezko)

garapen  
iraunkorra



Ordiziako Udalak erabaki zuen hondakinak biltzeko sistema aldatzea, birziklapen-tasa gaur egungo % 35etik % 73ra pasatzeko, eta parte hartzeko prozesua jarri zuen martxan sistema hori ordiziarrekin batera definitzeko eta egokitzeko.

Prozesuan guztira 28 saio egin dira: 4 batzar ireki, 12 batzar auzoka (Ordizia sein zonatan banatuta, bakoitzean bi bilera), 10 saio sektoreka (udal-langileak, hirugarren adina, merkataria, ostalariak, elkarteak...) eta 2 saio goizetan, edozeinentzat irekiak.



Prozesuan zehar, gai ugari landu ziren: egutegia, maiztasuna eta ordutegia; papera eta kartoia; banakakoa eta komunitarioa; edukiontziak non (lurrean edo zintzilik), garbigunea, bolumen handikoen bilketa, hondakinen tasak, autokonposta eta hobariak... Horietako gehienetan ekarpen eta proposamen ugari egin zituzten parte-hartzaileek, eta batzuetan jendeak aukeretatik baten alde egin zuen.

Hondakinen gaiak gizartean ezinegon edo krispazio handia eragin zuenez, gune bakoitzean bi bilera egin ziren, bata euskaraz, bestea gaztelaniaz, ordiziar guztiek aukeran izateko zer hizkuntzatan nahiago zuten, bermatzeko dena ulertuko zutela eta ez zutela ezer ere galduko, baita zer hizkuntzatan nahi zuten lan egin ere.

Prozesuaren balorazioa oso positiboa izan zen: Ordizian inoiz egin den prozesurik jendetsuena izan zen, eta kalitate handikoa. Jarrerak eta eztabaidak oso irekiak izan ziren, eta Udalaren jarrerarekin bat egiten zutenak eta ados ez zeudenak azaldu ziren. Bileretan giro egokia izan zen, eta pertsona guztiek izan zuten hitz egiteko eta iritzia emateko aukera.

# HARTU HITZA, PIZTU ORDIZIA

Noiz

2011ko azaroa

Parte-hartzaileak

97 lagun (% 55 emakumezkoak, % 45 gizonetzkoak)

parte hartzeko sistema



**L**egealdiaren hasieran, ekimen honen bidez, ordiziarrek aukera izan zuten Udalaren jardueran parte hartzeko eta inplikatzeko, nahi zuten edo gogoko gaien.

Aurrelan handia egin zen, batez ere komunikazioan, herritarrengana eta elkarreartara iristeko eta jardunaldira gonbidatzeko. Egunean bertan, ongi etorriaren eta Udal Gobernuari buruzko azalpenen ondoren, parte-hartzaileek 10 gaietatik bat aukeratu zuten lanerako: euskara; berdintasuna; gazteria; kirola; kultura; gizarte-ongizatea; sustapena, garapena eta merkataritza; hirigintza eta obra handiak; eta garapen iraunkorra eta mugikortasuna. Gero, lantaldeetan jarrita, alor jakin horiek Ordizian zituzten indargune eta ahulezien inguruan hitz egin zuten, baita proposamen zehatzak egin ere. Atsedendaldiaren ondoren, osoko bileran lantalde bakoitzak bere lana azaldu zuten, eta parte-hartzaileek aukera izan zuten iritzia emateko. Bukatzeko, saioa baloratu zuten.

Ekimena oso ondo baloratu zuten guztiek, balorazioa oso positiboa izan zen. Parte-hartzaile gehienek ziotenez, ekimena oso interesgarria izan zen eta segida izan behar zuten. Antolatzaileen ustez, helburuak bete egin ziren, jende askok hartu zuten parte, oso ekarpen baliagarriak jaso ziren... Horrela, Udalaren eta herritarren arteko harremana estutzeko eta herritarrek Udaleko erabakiguneetan gero eta partaidetza gehiago eta handiagoa izateko, hiru bide nagusi identifikatu zituzten, etorkizunera begira, jorrazteko: auzoz auzoko dinamika, aholku-batzordeak eta berariazko prozesuak.

# Ormaiztegi

Azalera: 6,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.320, ormaiztegiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (3), Ormaiztegiako Bizilagunak  
Elkarlanean (3) eta Ormaiztegiako  
Herri Taldea (3)

[www.ormaiztegi.net](http://www.ormaiztegi.net)



Parte-hartzearen ardura  
**AITOR IRAETA SIMON**  
(zinegotzia)





# ORMAIZTEGIKO PARTE HARTZEKO SISTEMA

## Noiz

2012ko iraila-azaroa

## Parte-hartzaileak

13 lagun (6 emakumezko, 7 gizonezko)

parte hartzeko sistema



**N**ola hartu parte herritarrek udal-jarduera eta -gestioan? Nola laburtu Udalaren eta ormaiztegiarren arteko etena, nola gerturatu elkarrengana? Nola bultzatu partaidetzako kultura herrian?...

Galdera horiek eta gehiago landu zituen Ormaiztegin herritarren talde batek, hiru larunbat goizetan, hamabostean behin egin zituzten bileretan.

Hasteko, hausnartu egin zuten partaidetzaz eta partaidetzak Ormaiztegin izan zuen bilakaeraz eta gaur egungo egoeraz; gero, etorkizunean herritarren partaidetza nolakoa izatea nahiko luketen landu zuten, eta hori lortzeko zer pauso, ekintza, baliabide, egitura eta abar gauzatu edo ezarri behar ziren, berariazko parte hartzeko sistema baten bidez. Proposamen zehatza egin zuten, eta taldeak berak hartu zuen herrira eta herritarrei zabaltzeko ardura.



# Segura



Azalera: 9,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.488, segurarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5), Segura Lantzen (4)

[www.seguragoierri.net](http://www.seguragoierri.net)



Parte-hartzearen ardura  
**AXIER ALUSTIZA TAPIA**  
(zinegotzia)



# WEB-ORRIA: SEGURAKO HERRI-ATARIA

## Noiz

2012ko urritik aurrera

## Parte-hartzaileak

20 (11 gizona, 9 emakumezko)



**H**erriarren eta elkarte edo eragileen parte-hartzea sustatzeko, garrantzitsua da tresna egokiak izatea, batik bat elkarteek beraien lana zabaltzeko, ezagutarazteko, koordinatzeko..., baita elkarren arteko harremanak bultzatzeko ere. Horretaz jabeturik, Segurako Udaleko Parte Hartzeko Demokrasiako Batzordean egitasmo hau diseinatu zuten Segurako webgune edo herri-ataria elkarteekin eta eragileekin batera lantzeko. Besteak beste, ondorengoek hartu zuten parte: jubilatuek, elkar-arteak, koruak, musika-eskolak, guraso-elkarteak, Zero Zabor taldeak, odol-emaien elkarteak, kirol-taldeak, dantza-taldeak, kultur elkarteak... Hasteko, Udalak hainbat harreman egin zituen zuzenean, eta, ondoren, deialdi berezia eginda, bilera batean, ataria diseinatzeko ekarpenak jaso zituzten, zalantzak argitu zituzten... Harrezkero, Udalaren eta elkarten arteko harremanak estuagoak dira, eta nahi izan duten eragileek Udalarekin elkarlanean jarraitzeko aukera izan dute.







## MARIA JESUS MENDIZABAL ZURUTUZA

Dendari erretiratua · 71 urte  
Odol Emaileen Taldeko  
arduraduna

### Nola sentitu zara proiektuaren parte izanez?

Oso ongi, eroso. Planteamendua oso txukuna izan da eta elkarte eta taldeok eskertzeko moduko proiektua.

### Interesgarria eta erabilgarria izango da Herri Ataria?

Oso interesantea eta erabilgarria. Edozein albiste eskaini eta ingurukoez jakitun egoteko baliagarria izango da. Herritarrekin kontaktu zuzena izateko aukera aprobetxatu egin behar da. Interneta oso erabilia da gaur egun, eta guk ere hor egon nahi dugu, saiatzea da kontua.

### Funtzionatuko al du proiektuak herrian?

Funtzionatu beharko luke! Gehixeago edo gutxixeago, baina herritarrek erabiliko dute. Tresna oso positiboa da. Taldeetatik saiatuz gero eta arduratsu jokatzuz gero, lortuko da. Elkarteetan horretaz arduratuko den pertsona egokia topatu behar da.



## JABIER ALBIZU APAOLAZA

Irakasle erretiratua · 69 urte  
Elorri Kultur Elkarte eta  
Iparra-Hegoa taldeko kidea

### Zer nabarmenduko zenuke esperientziatik?

Batez ere, herriko eragile diren taldeek herriaren alde egiten duten lanarengatik Udalak eskainiriko hitz onak, eta proiektu honen bitartez egiten duen aitortza zabala.

Herritik eta herriarentzat, sarean ere herria batu nahi du Udalak; kanporako ez ezik, herri barrurako aukera eskaini zaigu. Segura guztiok osatzen eta lantzen dugun ideia indartu du.

### Zer erronka dago herrian etorkizunerako?

Ildo honi lotua, herriko gaietan herritarren parte-hartzearen ohitura indartzearena. Lan aldapatsua, baina Udalak bide honetatik jarraituz lortuko duena!

# SEGURAKO HIRIGINTZAKO PLAN OROKORRA BERRIDAZTEA

## Noiz

2012ko azaroa-2013ko ekaina

## Parte-hartzaileak

8 lagun (4 gizonetzko, 4 emakumezko)

hirigintza



**H**irigintzako Plan Orokorra oso tresna garrantzitsua da herriaren etorkizuna zehazteko, eta bertan ezartzen diren irizpide batzuek eragin zuzena izaten dute herrian. Horretaz jakitun, Segurako Udalak segurarrekin batera landu nahi izan zuen gaia, eta, horretarako parte hartzeko prozesu hau jarri zuen martxan.

Lehenik eta behin, prozesua bera definitu zuten; gero, aurreikusi zen teknikariek diagnostikoa egitea herria zer egoeratan zegoen jakiteko, eta horretan oinarrituta, herritarrek herria nola ikusten zuten jasotzea; horretatik abiatuta, etorkizuneko Segura definitzeko asmoa zegoen.

# ATEZ ATEKOA EZARTZEA ETA AUTOKONPOSTA BULTZATZEA

## Noiz

2012ko martxoa-2013ko maiatza

## Parte-hartzaileak

389 lagun (204 emakumezko, 185 gizonetzko)

garapen  
iraunkorra



**G**ipuzkoako udal askotan landu da hondakinen kudeaketaren gaia, eta Segura da horietako bat. Udalak erabaki zuen atez ateko bilketa-sistemaren alde egitea, eta egitasmo honen bidez bi helburu nagusi bete nahi izan zituen: batetik, segurarrek sistema berria martxan jartzea eta segimenduan aktiboki parte hartzea; bestetik, segurarrek autokonposta lantzea. Horrela, lehen fasean, herria 9 zatitan banatu zuten, eta horietako bakoitzean bilerak egin zituzten sistema aldatzeko arrazoiak eta xehetasunak emateko, konposta egiteko aukera azaltzeko herritarrei eta auzokonposta egiteko erraztasunak emateko.

Bigarren fasea 2012ko urritik 2013ko maiatzera izan zen, bizilagunen ekarpenak jasotzeko: ontziak posteetan edo lurlean jarri behar ziren, posteak non kokatuko ziren... Guztira 25 bilera egin zituzten.

Azkenik, autokonpostaren inguruan bi bilera informatibo edo praktiko egin zituzten.

Oso giro ona izan zen bileretan, eta balorazioa positiboa.

# Urretxu



**Azalera:** 7,9 km<sup>2</sup>

**Biztanleak:** 6.930, urretxuarrak

**Udalbatzarraren osaera:**

**Bildu** (6), EAJ-PNV (4), PSE-EE (2)  
eta Hamaikabat (1)

**Parte hartzeko webgunea:**

[www.urretxubiziz.com](http://www.urretxubiziz.com)

[www.urretxu.eu](http://www.urretxu.eu)

Parte-hartzearen ardura

**JON ALTOLAGIRRE ASKASIBAR**

(zinegotzia)





## URRETXUKO PARTE HARTZEKO ESTRATEGIA

Noiz  
2012an zehar

Parte-hartzaileak  
131 lagun (79 gizonetzko, 52 emakumezko)

parte hartzeko sistema



**H**erriko parte hartzeko estrategia lantzea erronka handia da, eta horixe egin zuten Urretxun: eduki nagusiak definitu eta horiek lantzeko epeak edo datak ezarri legegintzaldirako. Besteak beste, zehaztu ziren zein izango ziren erabakitzeko protokoloak eta horien egiturak, nola arautuko eta komunikatuko zen parte-hartzea, zer landuko zen parte hartzeko prozesu puntualen bidez...

Hori guztia lantzeko sektoreka (mahaien bidez) eta auzoka (bilereen bidez) egin zen lan, eta horietan guztietan eragiteko bi talde sortu ziren: segimendurako taldea eta komunikaziorako taldea. Sektoreekin lan egiteko, aurrekontuen prozesua baliatu zuten, eta lan egiteko era, berriz, orokorretik zehatzera izan zen, hau da, parte hartzen zutenen nahi nagusiak azalerauta, horiek lortzeko helburu eta ekintza zehatzagoak ezarri zituzten; auzoetan, berriz, bi ildotako gaiak landu zituzten: behar materialak (konponketak, garbiketa, trafikoa...) eta gizarte-gaiak (kutsadura, jaiak, auzolana...).

## HERRIGINTZA URRETXUN

Noiz  
2012ko urtarila-ekaina

herri-mugimendua



Parte-hartzaileak  
70 lagun (34 emakume, 36 gizonetzko)



**H**errigintza indartzeko asmotan, parte hartzeko egitasmo honen bidez Udala harremanetan jarri zen herriko bederatzi gizarte-sektore jakinekin, etorkizunari begira zer asmo zeukaten jasotzeko eta horietan ahal zuen neurrian laguntzeko; erantzuna ona izan zen, bederatzi sektoretatik zazpik egin baitzituzten proposamenak, aurretik diagnostikoa ere eginda.

## ESKOLA AGENDA 21

Noiz  
2012-2013 ikasturtea

garapen iraunkorra



**A**genda 21a programa errotuta dago Urretxun, eta horren ataletako bat da Urola Garaiko eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoekin lan berezia egitea, horien guztien parte-hartzearekin gai jakin bat lantzeko. 2012-2013. ikasturterako "biodibertsitatea" gaia aukeratu zuten. Agenda 21a lantzea eskoletako curriculumetan integratuta dago, eta ikasleak batez ere fitxen bidez aritzen dira lanean. Amaieran, ikasleek konpromiso batzuk hartu zituzten, baita Udalari proposamen zehatzak egin ere.

# Zaldibia



**Azalera:** 16,2 km<sup>2</sup>

**Biztanleak:** 1.522, zaldibiarrak

**Udalbatzarraren osaera:**

**Bildu** (7), Zaldibia Herrigintza (2)

**Parte hartzeko webgunea:**

[www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org)

[www.zaldibia.net](http://www.zaldibia.net)



Parte-hartzearen ardura

**EÑAUT HERNANDEZ IRASTORZA**

(zinegotzia)



# ZALDIBIA.ORG

## Noiz

2011ko urria-2012ko abendua

## Parte-hartzaileak

18 lagun (8 emakumezko, 10 gizonetzko)



**G**ipuzkoako herri gehienetan elkarte eta eragile asko daude, gai edo helburu jakin baten inguruan elkarrekin lan egiteko sortuak, eta ikaragarriko bizitasuna ematen diete herriei. Elkarte eta eragile horiek, ordea, sarritan ez daukate komunikazio-tresna egokirik egiten dutena ezagutarazteko, herrikideekin harremanetan jartzeko, besteen berri izateko... Gainera, bakoitza berean aritzen da, besteak zertan ari diren jakin gabe, eta ez dira behar bezala aprobetxatzen elkarrekin jarduteko aukerak.

Horretaz jabetuta, Zaldibian parte-hartzea sustatzeko, Udalak Interneteko gune bat landu zuen elkarteekin. Guztira 5 fase izan zituen egitasmoak: lehenean, bilerak egin zituzten Udalak eta Zaldibiako talde eta eragileek; bigarrenean, lantalde bat osatu zuten, proiektuaren zirriborroa egin eta kanpoko enpresa bati eskatu zioten teknikoki gauzatzeko; hirugarrenean, aurreproiektua lantzen jarraitu zuten enpresak eta lantaldeak, elkarlanean; laugarrenean, proiektua martxan jarri zuten, proban, eta herriko taldeen ekarpenak txertatu zituzten; bosgarrenean, azkenik, proiektua aurkeztu eta martxan jarri zuten.

Horrela, hainbat helburu bete zituzten: herri osoko informazioa gune bakarrean izatea, talde bakoitzak bere txokoa edukitzea

eta kudeatzea, herriko taldeek elkarren arteko harremanak izatea eta elkarren osagarri izatea (elkar zapaldu gabe)... 15 talde inguruk hartu zuten parte webgunea eratzeko prozesuan: jubilatuek, dantza-taldeak, ikastetxeak eta guraso-elkarteak, gazte-asanbladak, kirol-elkarteak...

As.	As.	As.	Ost.	Ost.	Lar.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				





## LURDES ARTEAGA

Kultur teknikaria  
54 urte

“Eragin guztiz positiboa izan duela esango nuke.

Sortu den Herri Ataria erakargarria gertatzen da, albistek jasotzeko modu azkarra eta dinamikoa.

Gertutasuna lortzen du. Albisteen eta kroniketako protagonistak inguruakoak baitira.

Herriko taldeak ari dira ohitura hartzen beraien dinamikako jarduerak bertan argitaratzen eta batzuei hasieran arrotza egiten bazaie ere, erabileran, azkar hartzen diote neurria.

Teknologia berriekin hain ohituta ez daudenei ere hurbiltzeko bidea ematen die, eta eguneroko jarduna bilakatzen da azkenean.

Amaitzeko, esango nuke tresna honek ere auzolanaren filosofia zabaltzeko balio duela, bakoitzak berea emanaz, guztion artean, herritar guztientzat balagarria den komunikazio-bidea zabaltzen delako //



## ORKATZ GORROTXATEGI

Delineatzailea · 25 urte

Tellatuberri  
areto-futboleko taldea

“Herriko ikuspegi zabala webgune bakar batean biltzea izan da emaitza. Herriko talde bakoitzak beretik jarri du eta denen parte-hartzearekin herritarrari begirako atari nagusiari eman diogu jaten //

# Zerain



Azalera: 10,37 km<sup>2</sup>


Biztanleak: 265, zeraindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Zeraingo Independentek** (4).

PPk uko egin zion lortu zuen eta berez ez zegokion zinegotziari. Udaleko lantaldea 7 lagunek osatzen dute.

[www.zerain.com](http://www.zerain.com)



Parte-hartzearen ardura

**ARANTZAZU MUÑOA ERRASTI**  
(laguntzailea)



# ZERAIN HERRI-EREDUA

Noiz

2012ko ekainetik aurrera

Parte-hartzaileak

50 lagun (27 emakumezko, 23 gizonzko)

tokiko plana /  
plan estrategikoa



**E**UDELen Berrikuntza Agendaren berri izanda, Zeraingo Udalak programa horretan parte hartzea erabaki zuen, etengabeko berrikuntzan aurrera egiteko; baina programa horren ohiko metodologiak ez zuen balio Zerainerako, batez ere lehendik ere Zerainen lan handia eginda zegoelako eta lan egiteko modua ere oso desberdina zelako. Horregatik, beste formatu bat erabili zuten proiektua gauzatzeko: “espazio irekia” (edo Open Space) izenekoa. Horrela, zeraindarrek hainbat gairen inguruko gogoeta egin zuten 2012ko azaroko asteburu batean, bi egunetan, “Nola etengabe egokitu eta berritu Zerain herri-eredua” izenburupean, eta bertan azaldu ziren Zerainen eta zeraindarrek



une hartan eta etorkizunera begira zituzten kezka, ideia eta erronka nagusiak.

Guztira, 14 gai desberdin proposatu ziren lantzeko (herritarren partaidetza Udalean, hazkunde orekatua, bizi-kalitatea, euskara...) eta Berrikuntza Agendaren txostena osatu zuten, baita Zerainerako erronka nagusiak identifikatu ere. Horrela, hiru proiektu aukeratu zituzten etorkizunean lantzeko, hitz edo asmo hutsetatik urrunago joan eta gauzatzeko: lehena, ahalik eta herritarren partaidetzarik handiena eta eraginkorrena lortzea; bigarrena, Zerain proiektua eta aurrekontuaren kudeaketa; eta hirugarrena, Mutiloa eta Zerainen arteko elkarlana eta harremana estutzea (lankidetzeta, zerbitzuak partekatzea...). Gero, proiektu horietako bakoitza lantzen hasi ziren.





# AUZOLANA

## Noiz

2011ko abendutik aurrera

## Parte-hartzaileak

65 lagun (31 emakumezko, 34 gizonezko)

parte hartzeko sistema



**H**erriarren parte-hartzea, auzolana, komunitatean eta komunitaterako lan egitea... Zerainen aspalditik ari dira horretan lanean, eta Udalaren nahia, herritarrak jarduera orean oinarrian egotea da. Horregatik, Udaleko gaiak lantzeko, hainbat batzorde daude, herri-batzarrak eta auzolanak antolatzen dira... Helburu nagusietako bat da ahalik eta zeraindar gehienen parte-hartzea bultzatzea eta inplikazioa lortzea.

Egitasmo honen baitan, lantaldeak eratu zituzten, gaika, eta Udaleko kideren batek gutxienez hartzen zuen parte horietan. Besteak beste, hauek izan ziren lantaldeak: Komunikazioa; Hirigintza; Hezkuntza; Ingurua, baserria eta mendia; Iraunkortasuna (Agenda 21); Azpiegiturak; Zerain Dezagun Fundazioa (Zeraingo jarduera ekonomikoa sustatzea helburu duen fundazioa)... Lantaldeek auzolanean funtzionatu zuten, bakoitzak berean, eta lau hilabetera herri-bilera egiten zen, elkarren berri izateko, koordinatzeko eta balorazioa egiteko.

Oso balorazio ona egin zen, baina batzorde gehiegi ziren, eta udal-ordezkarientzat zaila zen denetara iristea. Horregatik, 2012ko ekainetik aurrera, hainbat batzorde elkartu egin ziren eta une honetan 7 daude aktibo.



## ERREMENTARI ARETOA

Noiz  
2011ko udazkenean

Parte-hartzaileak  
80 lagun (41 emakumezko, 39 gizonetzko)

kultura



**2**005ean, Agenda 21aren barruan, Zerainen balio anitzeko zentro bat behar zela azaldu zen, eta ordutik hainbat urrats egin ziren zentro hori lortzeko, bilera batzuen bidez, 2007-2010 artean; azkenean, zentroaren kokalekurik egokiena Errementari-Serorategi zela erabaki zen.

2011n, Errementari aretoaren proiektua aurkezteko lehiaketa publiko bat ireki zen eta Aldundiari esker eraikina erosteko aukera sortu zen. Horrela, proiektu guztietatik teknikoki onenak ziren 5ak hautatu zituzten teknikariek, baita bilera batean herritar guztiei aurkeztu ere. 5 proiektuak Udaletxean egon ziren ikusgai 10 bat egunez eta herritarrek, ikusteaz gain, bakoitzaren inguruko informazioa ere jaso zezaketen udal-ordezkarien bidez. 5 proiektu horietatik gustukoena bozkatu ahal izan zuten herritarrek egun horietan, eta punturik gehien lortu zituenak irabazi zuen. Behin proiektu gustukoena erabakita, Errementari izeneko komisioa jarri zen martxan, proiektua are gehiago egokitzeko.

Gaur egun komisioa geldirik dago, baina egunen batean lanekin hasteko dirua lortzen bada, berriz ere funtzionatzen hasi beharko du: lehenik, lanak aurrera doazen bitartean, proiektuari segimendua egiteko; ondoren, zentroaren funtzionamendua eta erabilera, arauak, etab. zehazteko.

## HONDAKINEN KUDEAKETA

Noiz  
2012ko urria

Parte-hartzaileak  
107 lagun (erroldako 227 lagunetatik)

garapen  
iraunkorra



herri-galdeketa



**Z**erain Sasetako Mankomunitateko kide da. Hondakinen kudeaketa zela-eta, Zeraingo Udala Mankomunitatean posizionamendu bat hartu beharrean zegoen. Horregatik, galdetegi baten bidez, Udalak herritarrei iritzia eskatu zien eta iritzi horrekin bat egiteko konpromisoa adierazi zuen hasieratik, hau da, loteslea izango zela.

Udalaren balorazioa positiboa izan zen, baina egitasmoan arantza bat ere izan zen: zenbait herritarrek ez zuten parte hartu galdeketan, azken unean.



# Zumarraga



Azalera: 18,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 10.007, zumarragararak

Udalbatzarraren osaera:

**PSE-EE** (8), Bildu (5), EAJ-PNV (3)  
eta PP (1)



[www.zumarraga.net](http://www.zumarraga.net)





# URRETXU-ZUMARRAGAKO MUSIKA-ARLOAREN KOHESIOA

## Noiz


2012ko iraila-2013ko otsaila

## Parte-hartzaileak

Parte-hartzaileak: 16 lagun (6 emakumezko, 10 gizonzko)

Jarraipen Taldean: 7 lagun (2 emakumezko, 5 gizonzko)

Musika-taldeetan: 9 lagun (4 emakumezko, 5 gizonzko)



**M**usikaren alorra garrantzitsua da herrietan eta proiektu honen bidez etorkizun hobea bermatu nahi izan zioten Urretxun eta Zumarragan. Bi herriak elkarren ondo-ondoan daude, eta ikusi zen proiektua bietan batera landu beharra zegoela, ez zeukala zentzurik bakarrean lantzeak; horregatik, bi udalen artean prestatu eta gauzatu zuten.

Proiektua aurrera eramateko, bi talde eratu ziren:

Jarraipen Taldea (prozesuari eragiteko) eta musika-taldeena.

Jarraipen Taldean, bi udaletako ordezkari politikoak eta teknikoak elkartu ziren, eta lehen bileran, prozesuko helburuak zehaztu zituzten: Urretxu eta Zumarragako musikaren alorra zaindu eta belaunaldi-aldaketa erraztu, bi herrietan kultura musikala hedatu, musika-berrikuntza eta -sormena sustatu, eragile musikalen arteko koordinazioa bideratu, ekipamendu eta ekipoen eskaintza hobetu... Gero, helburu horiek musika-taldeekin landu zituzten, hainbat bileratan. Bilera bakoitzean helburu bat landu zen, baita helburu hori gauzatzeko ekintza-plan bat egin ere, arduradun eta epeekin.

Prozesuari esker, hainbat irizpide eta ekintza-plan zehaztu zituzten Zumarragako eta Urretxuko musika-arloa gestionatzeko, eta hiru emaitza zehatz utzi zituen: musika-sektorea gestionatzeko ekintza-plana, ekiopetarako eta ekipamenduetarako planaren irizpideak eta diru-laguntzen banaketa berri baterako irizpideak. Horrez gain, bestelakoak ere lortu ziren: taldeen arteko elkarlana, elkar ezagutzea, musika-errepertorioak partekatzea, ekitaldi bateratua antolatzea... Prozesuan musika-arloaren ordezkari-tza zabala bildu zen, baina talde batzuk kanpo geratu ziren.

Prozesuaren balorazioa oso positiboa da, baina bereziki azpimarratu zen aurreikusitako guztia aurrera eramateko ezinbestekoa zela dinamizazioa, eta, horretarako, dedikazioa eta gidaritzaren behar zirela, batez ere udal-ordezkari eta teknikarien inplikazioarekin.

# kosta



## Herriak (5)

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia

## Biztanleak

42.450 (gipuzkoarren % 5,93)

## Azalera

101,27 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 5,09)



**e**skualde honen bereizgarri nagusia itsasertzarekin edo kostarekin daukan lotura da. Iparreko muga Kantauri itsasoa da, eta herri guztien lurrek ukitzen dute, gainera; ekialdean, Donostia, Buruntzaldea eta Tolosaldea dauzka; hegoaldean, berriz, Goierrri eta Urola Erdia; eta, azkenik, mendebaldean, Debabarrena.

Sarritan, eskualde handiago baten barruan ere azaltzen dira hemengo herriak, Urola Erdikoekin bat eginda: Urola Kosta izenekoan.

Bi ibai nagusi itsasoratzen dira eskualde honetan: Urola (Zumaian) eta Oria (Orio eta Aia artean).

Eskualdeko biztanleriaren bilakaerak goranzko joera izan du, oro har, eta kostaldeak erakarmen berezia dauka, batez ere udan. Halaber, Gipuzkoako eskualderik euskaldunenetakoa bat da.

Zerbitzuen sektorean eta industrian lanean ari diren kopuruak berdintsuak dira –% 40 inguru–; era berean, eraikuntzan eta lehen sektorean kopuru berdintsuak ari dira lanean

–% 8 inguru–. Lehen sektoreak beste eskualdeetan baino pisu nabarmenagoa dauka Kostan, bereziki baxurako arrantzak Getarian eta Orion, eta nekazaritzak, Aian.

Komunikazioei dagokienez, A-8 (Bilbao-Behobia) autobidea doa Orio eta Zumaia artean, baita N-634 kostaldeko errepidea ere. Urolako arroarekin lotura GI-631 errepidearen bitartez egiten da (Zumaia-tik Zumarragara). EuskoTrenek, berriz, geltokiak ditu Getarian ez beste herri guztietan eta ondo lotzen ditu herriak elkarrekin eta Donostiarekin. Autobus-zerbitzua ere badago, Lurraldebussek eskainia, eta Zumaia da abiapuntua, bai Donostia aldera, baita Zumarraga aldera ere.

Turismoari lotutako jarduerak garrantzi handikoak dira kostaldean, batez ere hondartzekin erlazionatuak (adibidez, Zarautzen). Azkenaldian, berriz, indar handia hartzen ari da Zumaia ingurua, geoparkearekin eta harraldearen inguruko eskaintzarekin. Halaber, Getariako Balentziaga museoak kanpotar asko erakartzen ditu. Azkenik, eskualdean nahikoa ohikoak dira oporretako “bigarren etxeak” eta udaldiko alokairuzkoak, batez ere Zarautzen eta Zumaian ■



# Getaria



Azalera: 10,60 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 2.666, getariarrak


Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5), **EAJ-PNV** (5) eta **Aralar** (1)

Parte-hartzearen ardura

**AITOR IRIGOIEN ODRIUZOLA**

(zinegotzia)



[www.getaria.net](http://www.getaria.net)



# GUZTIOK BAT!

## Noiz

2012ko abendua-2013ko martxo

## Parte-hartzaileak

63 lagun (32 emakumezko, 31 gizonzko)

partaidetzako  
aurrekontuak



**2** 012ko aurrekontuak osatu behar zirenean, Gobernu Taldeak aurkezpen irekiak eta formazio-saioak antolatu zituen herritarrentzat, eta esperientzia oso positiboa izan zen. 2013ko aurrekontuak egiteko, berriz, bide horretatik aurrerago joateko asmoa izan zuten: informazioa emateaz gain, herritarrek aurrekontuak lantzea eta proposamen zehatzak egitea.

Horrela, proiektua prestatu ondoren, bilera irekiak egin zituzten auzoetan (batetik, Meagan eta Eitzan; bestetik, San Prudentzion eta Askizun) eta arloka (hirutan: kirola-kultura-euskara-gazteria, hirigintza-zerbitzuak-ingurumena eta turismoa). Beraz, guztira 5 bilera egin zituzten.

Saioetan guztira 40 proposamen inguru jaso zituzten, eta horiek kontuan izanik, otsailean aurrekontuen behin-behineko bertsioa aurkeztu zien Gobernu Taldeak herritarrei; azken ekarpenak jasotzeko tarte utzi ondoren, martxoan behin betiko proposamena aurkeztu zuten jende aurrean. Oro har, herritarren iradokizun edo proposamenak aintzat hartu zituzten, eta hala izan ez zenean, ezezkoaren arrazoiak eman zituzten.



Argazkia: Amanken



# Orio



Azalera: 9,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.600, oriotarrak

Udalbatzarraren osaera:

EAJ-PNV (6), **Bildu** (5) eta Orain (2)

[www.oriora.com](http://www.oriora.com)

Parte-hartzearen ardura

**AMAIA DORRONSORO PORTULARRUME**  
(zinegotzia)





# ORIOKO CURRICULUMA

Noiz  
2012-2014

Parte-hartzaileak  
Lantalde iraunkorren 10 lagun (6 emakumezko, 4 gizonetzko)

herri-izaera



**H**ausnarketa bultzatu nahi izan zuten egitasmo hau martxan jarri zutenean; hau da, Orioren kokapena eta bisioa zehaztea, hainbat galderari erantzunez: zein dira Orioren eta oriotarren bereizgarriak eta nortasuna? Zer dute komun oriotarrek eta etorkizunean zer eduki nahi dute? Zer transmititu nahi diete oriotarrek hurrengo belaunaldiei? Zer eman nahi dio Oriok Euskal Herriari eta munduari?... Galdera potoloak egin zituzten oriotarrek, sakonak eta garrantzitsuak, hari eta mami asko eta handikoak, herritarren partaidetzako prozesu baten bidez erantzun eta landu nahi zituztenak. Horretarako, lehenengo, lantalde iraunkor bat eratu zuten, Udaleko ordezkariekin eta herriko hezkuntza-eragile nagusiekin, eta lantaldeak proiektuaren txosten bat atondu zuten, lanerako oinarriak finkatzeko; halaber, lantaldeari egoitza bat eman zioten lanerako. Curriculumua, ordea, herritarrekin eta herriko eragile guztiekin landu nahi dute, eta, horretarako aukera emango diete herritar guztiei, bilketa-fasea abian jartzen denean.



# Zarautz



Azalera: 14,3 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 22.697, zarautzarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), EAJ-PNV (6), PSE-EE (3),  
Aralar Ezker Batua Berdeak (2) eta PP (1)



Parte-hartzearen ardura  
**JABIER ETXABURU ELU**  
(zinegotzia)

[www.zarautz.org](http://www.zarautz.org)



## TAO SISTEMA

Noiz  
2012ko ekaina-abendua

Parte-hartzaileak  
449 lagun (160 emakumezko, 289 gizonetzko)

mugikortasuna



**B**este herri askotan bezala, Zarautzen ere autoa nahi den lekuan aparkatzeko arazoak izaten dira eta duela urte batzuk martxan jarri zen TAO sistema (Trafikoaren eta Aparkamenduaren Ordenamendua, gatzelaniaz OTA); horrek, bere garaian, aurkako jarrera eta kritika ugari eragin zituen herrian.

Udal Gobernu berria eratu zenean (2011n), eredu hori aldatzeko asmoa azaldu zuen, baita proposamen zehatza egin ere, baina eredu berri hori herritarrekin aztertu nahi izan zuten, iritzia jasotzeko eta ekarpenekin edo proposamenekin osatzeko edo aberasteko. Horretarako, parte hartzeko prozesua jarri zuten abian, eta horren baitan, hainbat bilera egin zituzten herrian eta herritarrak TAOren proposamen zehatzetik harago, asmoa Zarauzko Mugikortasun Ereduaren baitan kokatu eta ulertzea lortu zuten; gainera, herritarrek gaiarekiko zeukaten konpromisoa eta ardura areagotu egin ziren. Halaber, prozesu honen bidez iritzia emateko eta ekarpenak egiteko lehen ez zeuden kanalak sortzea lortu zen, eta Udal Gobernuak elementuak jaso zituen TAOren esleipenarekin jarraitu edo ez erabakitzeko, hau da, etorkizunerako gakoak. Hobetzekoetan, bereziki aipagarria izan zen kolektibo jakin batzuk prozesutik kanpo geratu izana, gazteena eta etorkinena, bereziki.

## NOLA KOMUNIKATU?

Noiz  
2012ko Abendua

Parte-hartzaileak  
18 lagun (13 emakumezko, 5 gizonetzko)

trebakuntza



**K**omunikazioa (barnekoa zein kanpokoa) oso alderdi garrantzitsua da partaidetzako esperientzietan, eta horretaz jabetuta, Zarauzko Udalak trebakuntza-saioa antolatu zuen Udaleko teknikarientzat, komunikazioaz hausnartu, kontzientziatu eta etorkizunean lanean txertatzeko. Saio horretan, besteak beste, ondorengoak landu zituzten: komunikazio publikoaren kontzeptuak eta ideiak, komunikaziorako irizpideak, komunikaziorako tresnak... Aurrera begira, baloratu zuten denbora gehiago behar zela jasotako edukiak ondo aprobeztatzeko eta ondo komunikatu nahi izanez gero, aholkularitza edo laguntza ere behar dela; halaber, baloratu zen honelako saioek batez ere praktikoagoak izan behar dutela.





# ZARAUZKO HIRI DEBEKATUAREN MAPA

Noiz

2012ko iraila-2013ko ekaina

Parte-hartzaileak

56 lagun



**H**erriak hirigintzaren aldetik nola diseinatzen diren garrantzitsua da herritarren eguneroko bizimodua erosoagoa, seguruagoa eta errazagoa izateko, eta badaude zenbait alderdi, kontuan hartzen ez badira, bizimodu hori zailtzen edo oztopatzen dutenak.



Udalaren II. Berdintasun Planaren barruan, parte hartzeko prozesu hau jarri zuten abian, herritarren egunerokoan zuzenean eragiten zuten alderdiak

aztertzeko, besteak beste, mugikortasuna. Horretarako, hainbat tailer antolatu zituzten, arloka (hezkuntza, 3. adina, gazteak...), baina horietan nahi zuen edonork har zezakeen parte, ez zegoen sarrera mugatuta.

Oso giro ona izan zen saio guztietan, herritarrek maila handiko ekarpenak egin eta kalitate handiko neurri zuzentzaileak proposatu zituzten; horiekin guztiekin Hiri Debekatuaren Mapa marraztu zen planoetan. Espero baino asistentzia txikiagoa izan zen bileretan, eta hurrengorako, kontuan hartzekoetan, nabarmendu zen eraginkorragoa dela bilerak auzoetan bertan egitea, herritarrengandik ahalik eta gertuen.



# Zumaia



Azalera: 11,3 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 9.461, zumaiaarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6), EAJ-PNV (5), PSE-EE (1)  
eta Aralar (1)

[www.zumaia.net](http://www.zumaia.net)

Parte-hartzearen ardura


**MAITANE AGIRRE ARRIETA**  
(zinegotzia)



# ODIETA-SAN JOSEKO PLAN BEREZIA

Noiz

2012ko ekaina-uztaila



**Z**umaiako San Jose-Odieta (edo Arroakalea) auzoa aspaldikoa da, baina batez ere XX. mendearen erdialdean hazi zen, etxebizitza berrien premia handiari erantzuna eman nahian; etxe berriak eraiki behar ziren nola edo hala, eta garai hartako beste urbanizazio asko bezala, hirigintzan eta bereziki irisgarritasunean zer ez den egin behar adibide garbia da: igogailurik ez etxeetan; eskailera malkartsuak eta estuak; aparkalekurik, jolastokirik edo elkartzeko lekurik ez... Auzotarrek behin eta berriz eskatu zioten Udalari arazoak konpontzeko, eta halako batean, Udalak Plan Berezia egin zuen, auzoko gabezia eta oztopoei erantzuteko. Plan horrek hainbat fase eta lan zeuzkan aurreikusita auzoa eraberritzeko, eta Planaren baitan, bizilagunei hitza eman nahi izan zien Udalak, auzotarrek beraiek, beharren eta nahien arabera, lanak nondik hasi eta zer hurrenkeratan egitea nahi zuten erabakitzeko.

Guztira bi bilera egin zituzten auzotarrekin: lehenengoan, teknikariek hirigintza-prozesua eta auzoa eraberritzeko faseak aurkeztu zituzten; bigarrean, berriz, egin beharreko lanen lehentasunak eta hurrenkera ezarri zituzten herritarrek.

Prozesu honi esker ikasitakoetan, bereziki nabarmendu zen herritarrei informazioa garbi eta argi adierazi behar zaiela, plano

eta argazkiekin, ulergarri, eta herritarrek ez dituztela jakin nahi hirigintza-prozesuaren xehetasunak, baizik eta emaitza zuzenak ikusi nahi dituztela, hau da, obrak lehenbailehen egitea.







**JUANI  
CASTILLO  
ALVAREZ**

Etxeko langilea  
59 urte

“**A**spaldidanik ari ginen gure auzoaren beharrei buruzko proposamenak eta kexak Udalari azaltzen. Azkenean, auzoa eraberritu eta ditugun mugikortasun-arazoei irtenbide integrala emateko Plan Berezia egitea onartu zuen Udalak.

Jakitun gara, krisi-garai honetan, aurrekontu txikiagoa dutela udalek ere. Hala ere, Udalaren ekimenez, parte hartzeko prozesuaren bitartez auzoan egin beharreko lanen arteko lehentasunak zehaztu genituen. Hala, Plan Berezia gauzatzen joateko pausoak zein izango diren adostu genuen guztion artean. Plan Bereziak gain, gainera, beste zenbait obra txiki egiteko konpromisoa ere hartu zuen Udalak, auzoko egunerokoa errazteko ”



**ION  
ARRIZABALAGA  
MUGERZA**

Makina-erreminta  
38 urte

“**U**dalak gure arazoak azaltzeko eman digun aukera azpimarratu nahi nuke nik. Parte hartzeko prozesuan nahiz aurretik eta ondoren, gure arazoak entzun eta irtenbideak bilatzeko prestutasuna sumatu dugu. Auzotarrok ere auzoa hobetzen joateko gogo handia dugu, eta auzotar ugari inplikatu zen parte hartzeko prozesuan.

Gero, obrak beti oso pixkanaka joaten dira, eta krisi-garai honetan oraindik eta motelago, eta gauzak ez doaz guk nahi bezain bizkor. Baina, beno, ematen du badoazela, behintzat. Guk gure auzoko mugikortasun-arazoak lehenbailehen konpondu nahi ditugu. Azken finean, herriaren erdigunean gaude, baina auzotik ibiltzeko arazo asko ditugu ”

# oarsoaldea



## Herriak (4)


Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia

## Biztanleak

71.193 (gipuzkoarren % 10,03)

## Azalera

114,9 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 5,78)



g

ipuzkoaren ipar-ekialdean dago. Iparraldean, Kantauri itsasoa dauka; ekialdean, berriz, Bidasoaldea eta Bortziriak; mendebaldean, aldiz, Donostia eta Buruntzaldea; eta, azkenik, hegoaldean, Nafarroa.

Berez, eskualdearen izena nahikoa berria da, duela hogeit hamar urte inguru sortua eta pixkanaka errotzen joan dena. Euskaltzaindiak Oiertzualdea izendatzen du eskualde zabalagoa, herri horiez gain, Hondarribia eta Irun ere barne hartuta.

Pasaiako badiaren inguruan eta Oiertzungo mendien artean kokatutako eskualdea da, eta Jaizkibel mendia eskualde honen bereizgarri garrantzitsua da. Aiako Harria Parke Naturalaren zati bat ere eskualde honetako parte da.


Gizarte eta ekonomiaren aldetik begiratuta, Donostiak itzal handia dauka eskualdean, eta harekin ondo komunikatuta dago. Horrela, sorburua eskualdean duten lau autobus-lineaz

gain (Pasaiatik, Oiertzundik eta Errenteriatik), EuskoTrenen (*topoa*) nahiz Renferen burdinbideek lotzen dute eskualdea Donostiarekin. Horrekin batera, Oarsoaldetik A-8 autobidea eta N-I errepidea igarotzen dira, eskualdea Donostiarekin eta Bidasoaldean nahiz Lapurdirekin lotzen dute. Halaber, eskualdeak portu bat du, Pasaiakoa, Gipuzkoako handiena. Hondarribiko aireportua, gainera, oso gertu dago.

Oarsoaldea leku estrategikoan dago, orografiarengatik eta kokapenagatik, Baiona-Donostia EuroHiriaren barruan, 600.000 biztanleko metropoli-korridore batean. Pasaiako portuko jarduerak industria-garapen handia ekarri zuen bere garaian, baina gaur egun eskualdeko biztanle gehientsuenek zerbitzuen arloan egiten dute lan (biztanleria aktiboaren % 60); industrian, berriz, biztanleria aktiboaren % 21 aritzen da; azkenik, nekazaritzan eta arrantzan % 1,05 baino ez da aritzen ■



# Errenteria



Azalera: 31 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 39.208, errenteriarak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), PSE-EE (7), EAJ-PNV (3),

PP (2) eta EB (1)

[www.errenteria.net](http://www.errenteria.net)



Parte-hartzearen ardura

**JULEN MENDOZA PEREZ**


(alkatea)



# PARTE HARTZEKO PLANA 2012

## Parte-hartzaileak

24 lagun (8 emakumezko, 16 gizonetzko)



**E**rrenterriko Udaleko hautetsiek eta teknikariek prozesu hau gauzatu zuten Errenteriarako parte hartzeko plangintza diseinatzeko. Hainbat saiotan, 16 ordutan, besteak beste, hauek landu zituzten: parte-hartzearen gaineko trebakuntza (zer den, hobetzeko erremintak, lanerako tresnak...), etorkizuneko plangintza diseinatzea (baliagarria eta egingarria, zerbitzua hobetzeko, etorkizuneko herriaren ideiak zehazteko...), herria hobeto ezagutzea, egitura/rola (funtzionarioen profila aldatzea, Udalaren eta herritarren arteko harreman-dinamikak aldatzea) eta taldea sortzea eta kohesionatzea (elkar ezagutzea, ondo pasatzea, konfiantza izatea, errespetatzea, elkarrengana gerturatzea).

Partaidetza eta emaitza orokorra oso onak izan ziren.

Garrantzi handia izan zuen hautetsiak eta teknikariak elkarrekin eta maila berean biltzeak, eta elkarlanean jarraitzeko beharra nabarmendu zuten, Udalaren funtzionamendua aldatzeko.

Bereziki nabarmendu zuten parte-hartzearen garrantzia, Udalaren barruan ez ezik, edozein errenteriarrena ere bai.



## AUZOAK

Noiz  
2011tik aurrera

Parte-hartzaileak  
2011. urtean, 1.500 lagun

herritarrekin  
harremanak



**A**uzo-elkarteekin elkarlan hau 2011n abiatu zuten, eta helburu nagusiak hauek izan ziren: Udala eta auzoetako bizilagunen arteko harremana areagotzea; solaskide egokia izatea, auzoetako bizilagunen ahotsa auzo-elkarte bera izatea, ez norbanakoa; eta auzo-elkarteen arteko topagunea antolatzea, auzo-elkarteek duten premia eta beharrak antzekoak baitira, euren artean ere horiek guztiak konpartitzeko.

2011n, martxan jarri zenean, auzo-elkarteekin 3 mailatako harremana adostu zituen Udalak: a) bi urtetik behin, auzo guztiekin banan-banako batzar irekiak; b) bi hilabetetik behin, auzo-elkarte guztiekin bilera orokorrak (denak elkartuta, auzo-elkarteetan dituzten beharrak eta premiak aztertu eta kezkek konpartitzeko); eta, c) hiriko mantentze-lanekin harreman zuzena (egunerokoan sortzen diren gorabehereri irtenbidea emateko eta komunikazio azkarra ziurtatzeko).

## MADALENAK JAI BATZORDEA

Noiz  
2013ko martxoa-uztaila

kultura



**E**rrenteriako Udalak ahalik eta jai herrikoenak bultzatu nahi ditu, hau da, herritar guztiek parte hartzea jaietan. Horregatik, 2012an lehen aldiz eta 2013an ondoren, Jai Batzordea osatu zuten herriko jaiak (Madalenak) antolatzeko, parte hartu nahi zuten Errenteriako talde eta norbanako guztiekin. Batzordean, nolako jaiak nahi zituzten, horretarako zer behar zen eta zer egingo zuten... landu zuten. Talde bakoitzak bere proposamena egin zuen; gero, programazioa adostu egin zuten; eta, azkenik, lanak eta ardurak banatu egin zituzten, berariazko lantaldeak osatuta.





# KABIA ESPAZIO KREAKTIBOA

Noiz

2012ko maiatza-iraila

Parte-hartzaileak

Batzarrean: 93 lagun (31 emakumezko, 62 gizonezko)

Ekitaldietan: 49 ekintzatan, 2.500 lagunetik gora

hirigintza

herri-mugimendua



**E**rrenteria egiteko modu berri eta berritzailea izan zen Kabia: Errenterian, Pontika auzoan, orube batean (Barandiaran parkea izango denean) karpa bat jarri zuten, 30×15 metroko azalerakoa, eta horren barruan egon zen KABIA, sormen eta elkarlanerako espazioa.

5 lantalde sortu ziren Kabian egin beharreko ekintzak dinamizatzen: “Elkarbizitza”, “Normalizazio politikoa”, “Kultura eta sormena”, “Teknologia berriak” eta “Hirigintza”. Lantalde bakoitzak bere jarduerak eta dinamikak izan zituen, baita ekintzak proposatu ere. Horrela, bi helburu bete nahi izan zituzten: batetik, degradatuta zegoen espazio bat eraldatu auzotarrekin batera; bestetik, Errenteria egiteko beste modu bat martxan jartzea.



## UDAL-AURREKONTUAK 2013

Noiz  
2012ko urria-abendua

partaidetzako  
aurrekontuak



**E**gitasmo honen bidez, Errenteriako Udalak herritarrekin batera landu nahi izan zituen 2013. urteko aurrekontuak. Hasteko, bilera orokor bat deitu zuen Udalak, eta bertara gonbidatu zituen herriko eragile eta talde guztiak (baita nahi zuen edozein norbanako ere), aurrekontuen zirriborroa aurkezteko; gero, arloz arlo, Udaleko departamentu bakoitzak berari zegokion aurrekontua landu zuen (aholku-kontseiluen edo bestelako foroen bidez), eta bereziki landu zuten auzo-elkarteekin; azkenik, berriz ere bilera orokor bat egin zuten, egindako lana azaltzeko eta behin betiko proposamena aurkezteko eta kontrastatzeko.



## GAZTEEN LOKALAK

Noiz  
2013ko martxoa-maiatza

haurrak/gazteak/  
adinekoak



Parte-hartzaileak

1. saioan: 10 mutil
2. saioan: 37 lagun (16 emakumezko, 21 gizonezko)
3. saioan: 20 lagun (9 emakumezko, 11 gizonezko)



**G**azte-lokal ugari daude Errenterian, eta lokal horien gutxieneko azpiegitura eta erabilpen-baldintzak hainbat lagunen (gazteen, gurasoen, jabeen, bizilagunen...) kezka-iturri dira. Horregatik, Errenteriako Udalak, partaidetzan oinarritutako egitasmo honen bidez, aratu beharreko atalak zehaztu nahi izan zituen inplikatu guztiekin batera, etorkizunean sor zitezkeen gatazkak edo arazoak ekiditeko. Lau orduko hiru saio egin zituzten gutzira.

# PLAN ESTRATEGIKOA 2025

## Noiz

2012ko iraila-2013ko uztaila

## Parte-hartzaileak

Hasierako fasean: 400 herritarri galdeketa egin zieten

Batzordeetan: 300 lagun inguru

tokiko plana /  
plan estrategikoa



**E**gitasmo honen bidez, Errenteriako Udalak hausnarketa-prozesu bat jarri zuen abian Errenteriak etorkizunean nolako udalerrria izan nahi zuen zehazteko, Plan Estrategiko baten bidez. Hiru fase bereizi ziren: lehenengoan, diagnostikoa egin zuten; bigarrenengan, Plan Estrategikoa landu eta zehaztu zuten; eta, hirugarrenengan, Plana ezagutarazi eta aukeratutako estrategia eta definitutako proiektuak sustatu zituzten.





# Lezo



Azalera: 12,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.101, lezoarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), **EAJ-PNV** (3) eta **PSE-EE** (1)

[www.lezo.net](http://www.lezo.net)



Parte-hartzearen ardura

**MIKEL ARRUTI SALABERRIA**  
(zinegotzia)



# IRRIEN LAGUNAK OARSOALDEAN



Noiz

2 urtekoa. Egitasmoa 2011n jarri zen abian eta izaera edo bokazio iraunkorra du

Parte-hartzaileak

1.100 lagun inguru eskualdean (% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)

Batzorde eta lantaldeetan: 150 lagun (% 75 emakumezkoak, % 25 gizonezkoak)

Jaiaren antolaketan eta emanaldietan: 200 lagun (% 70 emakumezkoak, % 30 gizonezkoak)

Haurren parte hartzeko prozesuan: 640 haur

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**E**gitasmo hau Oarsoaldeko Euskara Batzordeak bultzatu du elkarlanean, familien aisialdia berriaz lantzeko, balio positibo eta hezitzaileen araberakoa izan dadin; Irrien lagunak proiektuaren bidez, herrietan aisialdiko egitarau hezitzaile iraunkorrak diseinatu eta martxan jarri nahi dira, pixkanaka errotzeko eta herrigintza berri baterako ilusioa pizteko.

Proiektua martxan jartzeko, lehenik eta behin batzordeak sortu zituzten herrietan eta HUHEZIK egitasmoaren inguruko oinarri teorikoak azaldu zituen, trebakuntzaren bidez; ondoren, herrietako batzordeak bi lanetan murgildu ziren: herri bakoitzean haurren parte hartzeko prozesu bana gauzatzea (hiru saiokoa bakoitza) eta I. Irrigintza Jaia antolatzea, 2012ko abenduaren 2an egin zena. Gero, herri bakoitzak aisialdiko bere egitaraua diseinatu zuen eta gauzatzen hasi zen, baina betiere eskualde-mailan koordinatuta eta ekintza bateratu koordinatuak gauzatzeko aukerarekin.


Lezon, hilero egitasmoaren oinarriekin bat egiten duen ekintza bat antolatu da 2012ko urritik aurrera. Hasiera-hasieratik jende

ugarik egin zuen bat proiektuarekin (gurasoek, hurrek, ikastetxeek...) eta aukera eman zuen herrietan eta eskualdean hainbat lagun harremanetan eta elkarlanean jartzeko.





# Oiartzun



Azalera: 60 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 10.015, oiartzuarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (10), EAJ-PNV (2)

eta Hamaikabat (1)

[www.oiartzun.org](http://www.oiartzun.org)

Parte-hartzearen ardura

**AIORA PEREZ DE SAN ROMAN URIA**

(alkatea)





# OIARTZUNGO PLAN OROKORRA

Noiz

2012ko amaieratik aurrera

Parte-hartzaileak

168 lagun (88 emakumezko, 80 gizonezko)

hirigintza



**H**irigintzako plan orokorren bidez udalek geroko herria edo hiria irudikatzen dute eta oso agri garrantzitsuak bezain konplexuak dira, bere baitan erabaki mamitsuak eta potoloak dituztenak.

Oiartzungo Udalak Plan Orokorra herritarrekin batera landu nahi zuen, eta, horretarako, lehenengo, Aholku Kontseilua eratu zuen, hainbat herritarrekin, gero Plana idatzi behar zuen taldea ere bertan txertatuta, hasiera-hasieratik. Kontseiluak aurretostena osatu zuen 2013. urtearen hasieran, eta Udalarai aurkeztuta, Osoko Bilkurak erabaki zuen jendaurrean jartzea ekainaren amaiera arte.

Jendaurrean jartzeko, dokumentua moldatu egin zuten, ulergarriago izateko, eta horretarako euskarri bereziak prestatu zituzten: powerpointeko aurkezpenak, panelak, iritziak jasotzeko txartelak... Bestalde, ahalik eta ikuspuntu desberdinenak jaso ahal izateko eta herritarren partaidetza eraginkorra lortzeko, tailer-formatua erabiltzea erabaki zuten. Tailer horietan azalpenak ematen zituzten hautetsiek eta teknikariek (Planaren idazleek eta Udalekoek), eta beti antzeko egituraren arabera izan ziren: azalpenen ondoren, parte-hartzaileak talde txikiagoetan jartzen ziren,



aurkeztutakoari buruzko iritzia emateko; gero, talde bakoitzak berea aurkeztu zuen, eta, amaitzeko, balorazioa egiten zuten.

Oiartzun osora iritsi nahian, tailerrak sektoreka (5) eta auzoka (8) bilerak antolatu zituzten, eta horiekin batera, auzoetan Plan Orokorrari buruzko erakusketak antolatu zituzten, bost bat egunekoak, goizez eta arratsalde; bertan teknikari bat egoten zen, joaten zen orori beharrezko azalpenak emateko, eta liburu bat ere jarri zen joaten zirenen eskura, iritziak, ekarpenak... jasotzeko.

Etorkizunean, bigarren fasean, hasierako onarpenerako dokumentua jendaurrean jarriko da eta bereziki haurrekin eta nerabeekin landu nahi da.

Prozesuari esker, parte hartu zuten herritarren proposamenak eta ikuspegiak aintzat hartu diren neurrian, amaierako dokumentuak berme edo babes handiagoa izango du.



## BELEN GOIA

Administraria  
45 urte

“Lagun batek tailerrean parte hartzeko asmoa aipatu zidanean animatu nintzen ni ere bertara joatera. Adituak ez garenontzat modu ulergarri eta laburrean azalpenak ematea gauza erraza ez den arren, esango nuke hasierako adierazpenak oso argi eman zirela eta bertaratutako guztiek ideia orokor bat hartu genuela planteatzen zitzaigunaz. Ondoren, gure parte-hartze zuzena planteatu zenean, erabilitako metodologia azpimarratuko nuke. Ez da erraza publikoan hitz egitea, baina talde txikitan banatu gintuzten lehenik, eta hor bai, hor lagun artean bezala aritu ginen, eta esandakoak laburtuz guztiekin partekatu genituen gero. Ez dakit zenbateraino kontuan hartuko dituzten azaldu ziren puntuak, baina entzun gintuztelako sentsazioarekin gelditu ginen, ez da gutxi...”



## XABIER IZAGIRRE ELIZONDO

Gureak Taldeko  
monitorea eta LAB  
sindikatuan liberatua  
56 urte

### Zer nabarmenduko edo azpimarratuko zenuke esperientziatik?

Gure herri eta auzoetako etorkizuna jokoan, oraingo erabakiak geroko bizitza-moldeak izango dira.

### Zer gustatu zaizu bereziki?

Partaidetzakoa izatea eta ez teknikoen eskuetan bakarrik uztea.

### Izan du eraginik herrian?

Herritarren aldetik izan du eragina, baina nik uste baino gutxiago. Arrazoiak? Mesfidantza? Krisia? Utzikeria?

### Zer emaitza lortu da?

Parte-hartzeari dagokionez, esan behar dut, dauden erronka pilaren aurrean, parte-hartze txikia iruditu zaidala. Zerbait nahi badugu, borrokatu beharra dago, gure ondorengoei herri/auzo polit bat uzteko.

## 2013KO AURREKONTUAK

Noiz  
2012. urtearen amaiera

Parte-hartzaileak  
164 lagun

partaidetzazko  
aurrekontuak



**O** iartzunen, tradizio handia dago udal-aurrekontuak herritarrekin batera lantzeko. Auzoz auzo egiten dira bilerak, hautetsiak eta auzotarrak elkartuta. Bertan, Udalak egoera ekonomikoa azaldu eta aurrekontuen zirriborroa aurkezten du. Auzotarrek ekarpenak egiteko aukera dute. Auzo bakoitzean, beharrak jaso nahi izaten dira, eta horiek ase ahal izateko beharrezko lanak, aurrekontuak... aurreikusten dira gero.

## ARAU SUBSIDIARIOEN PROZESUA

hirigintza



**A** rau Subsidiarioen berrikusketan herri- eta auzo-batzarrak egin ziren, ordura arte zegoen plana aztertzeko eta berriz planteatzeko. Auzoetako elkarteek eta herriko beste zenbait eragilek eskatuta, Arau Subsidiarioen zati batzuk bertan behera geratu ziren eta horiek lantzeko parte hartzeko mekanismoak jarri ziren martxan.

## HIRIGINTZAKO AHOLKU-KONTSEILUA

Noiz  
2007-2011 legegintzalditik aurrera

hirigintza



**A** rau Subsidiarioei lotuta sortu den kontseilua da eta herriko talde, eragile eta norbanakoei zabalik dago. Bertan Hirigintzarekin eta Arau Subsidiarioarekin zerikusia duten gaiak lantzen dira. Kontseiluan hartzen diren erabakiak ez dira lotesleak, baina Udalak aintzat hartzen ditu.

Hirigintzako Aholku Kontseilua 2007-2011 legegintzaldian jarri zen martxan eta oraindik indarrean jarraitzen du. Kontseiluaren jardueraren baitan, parte hartzeko saio bereziak egin izan dira.

## KIROLDEGIKO EGUTEGIA

Noiz  
2012ko azaroa-abendua

Parte-hartzaileak  
84 lagun

kirola



**2** 013ko egutegia zehazteko, Elorsoro kiroldetegi erabiltzaileei bi proposamen aurkeztu zitzaizkien, horien artean gustukoena aukera zezaten. 84 lagunek eman zuten iritzia eta gehienek hobetsi zuten egutegia izan zuten kiroldetegi 2013an.



## XANISTEBANAK

Noiz  
2013ko apiriletik uztaiera

Parte-hartzaileak  
35 lagun (30 elkarteren ordezkariak)

kultura



**U**dalak herriko talde eta eragileekin batera antolatzen ditu herriko festak. Horretarako, Jai Batzordea eta Txosna Batzordea daude. Batean, jaien egitarauaren barruan zerbait antolatzen duten talde eta eragile guztiek hartzen dute parte; bestean, berriz, festetan txosnak jartzen dituzten eragileek.

Jai Batzordeak erabakitzen du, adibidez, nork botako duen jaiei hasiera emango dion suziria, su artifizialak egongo diren edo ez..., eta Jai Batzordeak erabakitzen duena loteslea da. Txosna Batzordeak, aldiz, txosnen gunearen funtzionamendua adosten du Udalarekin: ordutegia, edalontzien erabilera...

## ESKOLA AGENDA 21

Noiz  
hainbat urtetan, eskola-ikasturtearen barruan

Parte-hartzaileak  
1.000 ikasle inguru

garapen  
iraunkorra



**E**skola Agenda 21aren baitan, Udaleko Gobernu Taldeko ordezkari bat herriko bi ikastetxeetako ikasleekin biltzen zen urtean bitan, ikasturtearen hasieran eta bukaeran. Ikasturtean zehar gai bat landu ondoren, ikasleek zenbait proposamen, iradokizun... helarazten zizkioten Udalari. Hurrengo saioan "kontuak" ematen zituen Udalak: egindakoari buruz informatu, egin ez zena zergatik ez zen egin... Gaur egun, Eskola Agenda 21a ez du bultzatzen Udalak.

# Pasaia



Azalera: 11 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 15.869, pasaitarrak

Lau barruti ditu: Pasai Antxo, Pasai Donibane,  
Pasai San Pedro eta Trintxerpe

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), PSE-EE (3), EAJ-PNV (3),  
PP (2) eta Ezker Anitza-IU (1)

[www.pasaia.net](http://www.pasaia.net)



Parte-hartzearen ardura

**JUANRA CANO CEREIJO**

(zinegotzia)

**OIHANE ORONOZ ELZAURDI**

(zinegotzia)





# LA HERRERA HERRIRAREN V. TOPAGUNEA

Noiz

2012ko maiatza

Parte-hartzaileak

56 lagun (28 emakumezko, 28 gizonezko)

herri-mugimendua



**P**asaian, Trintxerpen, bada La Herrera izeneko lur-eremua, tamainaz Donostiako Alde Zaharra adinakoa; garai batean, portuaren jardueraren onenean, industrialde indartsua izan zen, lantegi eta biltegi askoren kokalekua, baina azken urteetan gainbehera joan zen eta eraikinetako asko hutsik geratu ziren. Lurra Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren eskumenpekoa da, eta kanpoko kaiaren proiektuari loturik, etxebizitzak egiteko asmoa zeukan bertan. Trintxerpen, ordea, gizarte-mugimendu zabal eta anitz bat sortu zen, “La Herrera

Herrira” izeneko batzordea aurrean zuena, eta eskatzen zuen lur horiek Trintxerpek eta inguruko herriek dauzkaten gabeziak eta nahiak asetzeko erabiltzea: aparkalekuak, ekipamenduak, aisialdiko guneak, etxebizitzak... Ingurua antolatuzko proposamen zehatza ere egin zuten herritarrek, leku bakoitzean zer joango zen.

Batzordeak aldiari behin deialdia egiten die herritarrei, egindakoaren berri emateko eta asmoak azaltzeko, etorkizuneko egitasmoak lantzeko... Bilera horiek topaguneak izenekoak dira, eta V. honetan, bereziki landu zuten batzordearen barruan lantaldeak sortzea (finantzaketa, komunikazioa eta aktibitateak) eta aurrera begirako estrategia berriak zehaztea. Udalak sorreratik lagundu dio mugimenduari eta Batzordeari, behar dituen baliabideak emanda.

Hurrengorako, topaguneetan hobetzekoetan, bereziki azpimarratu ziren asistentziari zegozkion bi kontu: gazterik ez joatea (gazteenak 34 urte zeuzkan) eta aurreko topaguneetan parte hartutako jende asko ere falta zela.







## TXARO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ

Administrazioko langilea  
53 urte

“**T**opaguneak aukera ezin hobeak dira herritarrek denen intereseko gaiez hitz egiteko, eta, batzuetan, bizi garen herriko edo inguruko gauza zehatzak jorrazteko ere bai. Horregatik, positiboak dira gure inguru hurbila eraikitzeo daukagun ideia edo egitasmoa adierazteko, edo hobetzeko balioko duten ekarpenak egiteko; azken finean, gure bizi-kalitatea hobea izateko.

Oro har, honelako topaketetan parte hartzen dugunean herritarrok garrantzitsuagoak eta konprometituagoak sentitzen gara, ikusten dugulako aintzat hartzen gaituztela. Baina parte-hartzea urria eta aldakorra izaten da, eta desilusia nagusitzen da jarritako helburuak ez direnean betetzen edo ez direnean emaitzak ikusten.

Erabateko interesik eza etor daiteke, ordea, prozesu jakin batzuetara deitzen eta parte hartzera animatzen gaituztenean, eta ikusten dugunean herritarrek manipulaturik daudela eta proiektuak gehiengoari jaramonik egin gabe erabakitzen direla, ezkutuko interesak daudelako edo erabakiak lehendik hartuta zeudelako.

Horregatik, topaketa batzuetan, herritarrek pentsa dezakete dena dagoela pentsatuta, erabakita, eginda... eta guri iritzia eskatzea fartsa handitzeko eta arrazoitzeko baino ez dela ”



## IÑAKI ARISTI

Igeltseroa · 54 urte  
**La Herrera Herrira  
batzordeko kide eta  
bozeramailea**

“**T**opaguneetan, herritarrek herriaren diagnostikoa egiten dute, eta horretan oinarrituta, etorkizuna zertan oinarritu behar duten identifikatzen dute, baita zehaztu ere. Eta garrantzitsuena: beraien etorkizuna eraikitzen hasten dira, erabakiak hartzeko ardura bere gain erabat hartuta, gogotsu eta irmo; laburbilduz, parte-hartzeaz gain, herriaren orainaren eta etorkizunaren gainean erabakiak hartzen ditu.

Topagunea da herritarrek erabakiak hartzeko eta berresteko erabiltzen duten tresna, baina elkarrekin eraikitzeo prozesuak egunerokoan jarraitzen du, lerro gorritik, alderdi politikoekin ados jarriz zehaztasun teknikoetan, ekarpenak eginez, proposamenak aberastuz..., azkenean lortzeko Udalak berretsiz egingo duela eraikuntza-prozesu hori, eta ez alderantziz. Azken finean, elkarrekin eraikitzeo prozesua ez da hasten edo ez da bukatzen topagunean, baizik eta etengabea da, jarraitua, eta herritarrei aukera ematen die beraien orainean eta etorkizunean parte hartzeko eta erabakitzeo ”

## ALABORTZAKO PARTE HARTZEKO PROZESUA

hirigintza



**A**labortza Pasai Donibaneko paraje bat da, Puntetara bidean dagoen senaia edo kala bat. Pasaitarrek behin eta berriz eskatzen zuten bere onera ekartzeko, aprobetxatu nahi zutelako, eta Pasaiako Udalak parte hartzeko prozesua jarri zuen abian, herritarrekin batera helburuak finkatu eta adostasunak identifikatzeko, proiektua idazteko baldintza-ordria idatzi aurretik.

Hainbat saioren ondoren, helburuak eta adostasunak garbi ezarritakoan, Udalak bi zirriborro landu zituen eta herritarrei itzuli zizkien. Haiek zirriborroen gainean ekarpen eta iradokizunak egin ondoren, horietan oinarrituta, aurreproiektua aurkeztu zuen Udalak. Azkenik, eskumena daukaten agintariei bidali zien, behar ziren baimenak lortzeko eta behar ziren neurri zuzentzaileak proposatzeko, proiektua gauzatu ahal izateko.

## PASAI DONIBANE ATEZ ATE

Noiz

2013ko martxoa-maiatza

Parte-hartzaileak

Lehen errondan: 400 lagun inguru

Bigarren errondan: 200 lagun inguru

Batzar nagusian: 60 lagun (34 emakumezko, 26 gizonezko)

garapen iraunkorra



**Z**aborra sortzetik hondakinak baliaztera pasatu behar dugula jabetuta, Pasaiako Udalak hondakinak atez ate biltzeko sistema martxan jartzea erabaki zuen, hasteko Donibaneko barrutian, eta ondoren, pixkanaka, Udalerrri osoan zabaltzea. Hondakinak nola, non eta noiz bilduko ziren herritarrekin erabakitzeko, parte hartzeko prozesua jarri zuen martxan, bi fasetan eta bost lantaldetan bereizita: Kaskoko bizilagunak, Meipiko bizilagunak, merkatari eta ostalariak, erretiratuak eta landa-eremukoak. Amaieran, batzar nagusia egin zen, egindako guztia laburbiltzeko eta aurrera begirako urratsak aurkezteko.





# tolosaldea



## Herriak (28)


Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona-Amasa eta Zizurkil

## Biztanleak

45.925 (gipuzkoarren % 6,47)

## Azalera

325,79 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 16,38)



**L**ehen Toloserri izenez ere ezaguna zen, baina gaur egun Tolosaldea izendapena nagusitu da.

Gipuzkoaren ekialdean dago. Iparraldean, mugakide ditu Kosta eta Buruntzaldea; ekialdean, Nafarroa; hegoaldean, Goierri; eta, azkenik, mendebaldean, Urola Erdia.

Eskualde menditsua da, baina ez dira mendi altuak; Herniok eta Herniozabalek ozta-ozta gainditzen dituzte 1.000 metroak, eta Larrunarri edo Txindoki da inguruko altuena, Aralarren ertzean, 1.346 metroekin. Ibai-sarea, berriz, garrantzitsua da, eta Gipuzkoako ibairik luzeena, Oria, igarotzen da eskualdetik, hegoaldetik iparraldera.

Tolosa da eskualdeko herri nagusia eta hortik hartzen du izena; historikoki, gainera, udalerrri guztiak Tolosaren parte izan ziren, eta handik banantzen eta udalerrri berriak sortzen joan ziren, pixkanaka. Tolosa bailararen erdigunean dago, eta haren bueltan-bueltan daude gainerako herriak, gehienak oso txikiak. Gipuzkoako herri gehien biltzen dituen eskualdea da.

Herri batzuek, ordea, Tolosaldeaz kanpoko beste herrigune batzuen eragina dute: Villabona-Amasak, Zizurkilek eta Adunak, adibidez, Donostiarena; kontrakoa ere gertatzen da: Beizama, berez, Urola Erdiko herria da, baina Tolosaldearen eraginpean bizi da.

Etxebizitza bakanetan (baserrietan eta antzekoetan, alegia) bizi den biztanleriaren proportzioa Gipuzkoako handiena da

eskualdean: biztanleriaren % 15. Herri txikietan ehuneko hori are handiagoa da.

Komunikabide-sarearen elementu nagusiak bi dira: N-I (Madril-Irun) errepidea eta trenbidea. Ibilbide laburretan, trenak garrantzi handia dauka eskualde honetan. Gipuzkoak Nafarroarekin aspaldidanik izan duen lotura zaharra (N-130 errepidea, alegia) guztiz bazterturik utzi du A-15 (Andoain-Irurtzun) autobideak. Beste errepide nagusiak hauek dira: Tolosatik Azpeitira doan GI-2634 errepidea eta Tolosatik Leizara doan GI-2130 errepidea.

Industria da jarduera ekonomiko nagusia eskualdean. Tolosaldeko langileria 16.000 lagunek osatzen dute, eta horietatik, % 43,8 bigarren sektorean aritzen dira lanean. Tolosaldeko industria gehienak txikiak dira, metalgintzan eta papergintzan ari direnak. Papergintzako lantegiak teknologia aldetik zaharkiturik gelditu ziren, eta horren eraginez enpresa asko itxi egin ziren eta beste askok berregituratu egin behar izan zuten. Bestalde, Tolosak eta Villabona-Amasak industriagintzarako lurra prestatzeko arazoak dituztenez, industria berri asko eskualdeko beste herri batzuetara joan dira (Aduna, Zizurkil, Anoeta eta abar). Langileen % 42,7 zerbitzuen sektorean ari da lanean. Inguru guztiko herriak oso txikiak eta biztanle gutxiak direnez, ez da harrizkoa eskualdeko zerbitzurik gehienak Tolosan bertan bildurik egotea.

Tolosa da epai-barrutiko burua, eta ospitale bat dauka ■

# Abaltzisketa



**Azalera:** 11,2 km<sup>2</sup>

**Biztanleak:** 324, abaltzisketarrak

**Udalbatzarraren osaera:**

**Herritarrak** (7)



Gure eskerrik beroenak  
Nekane idazkariari eta M<sup>º</sup> Angeles  
administrariari, urte hauetan  
guztietan Udaletik abaltzisketarren  
parte-hartzea bultzatzeko egin duten  
lan isil eta emankorrenagatik.

[www.abaltzisketa.net](http://www.abaltzisketa.net)





# PARTE-HARTZEA INDARTZEN

Noiz  
2012an zehar

Parte-hartzaileak  
45 lagun (21 emakumezko, 24 gizonzko)

parte hartzeko  
sistema



**U**dal-korporazioari dagokionez, Abaltzisketan azken hogei urteotan hauteskunderen aurretik hautatzen dira kideak, eta ez dira izaten alderdi politiko jakin bati lotuak, baizik eta independenteak. Legealdia hasi aurretik, herritarrek euren iritzia ematen dute, eta ondoren herritarren bilerak egiten dira. Beraz, Udalean legealdia hasteko moduan ere parte-hartze berezia dago.

Legealdiaren hasieran, aztertu egiten dira Udalaren egoera eta hasita eta amaitu gabe dauden asmo eta proiektuak, eta korporazio berriak aurreikusten dituen proiektuak herritarrei azaltzen dizkie. Herritarrek bileran bertan euren ekarpenak egiten dituzte, eta, horretaz gain, hilabeteko epean, egokien iruditzen zaien moduan, idatziz edo ahoz, herritarren ekarpenak zuzenean jasotzeko bideak daude.

Herritarren ekarpenek legealdiko plana egiteko laguntza handia ematen dute eta kontuan hartzen dira.

Urtean behin, proiektu eta asmoen egoera nolakoa den azaltzeko, herri-bilera egiten da, eta herritarren ekarpenak jaso egiten dira.



Urteko bilera horiez gain, zerbait berria edo berezia dagoenean, herri-bilera deitzen da, eta Udalak herri-bileretan nagusitzen den iritzia errespetatzen du. Besteak beste, honelako gaiak landu izan dira: herriko jaiak, mendi-probak, kultur ekitaldiak, herri-batzarrak... Horietako batzuetan, helburuak berriz planteatu ere egin ziren, eta ekintza horiek egiteko arrazoia eztabaidatu, lehentasunak ezarri eta abar. Udalak hartzen dituen

erabakiak web-orrian argitaratzen dira, eta gehienetan etxe guztietara ere banatzen dira, bando bidez.

Aurrera begira, kontuan hartzekoen artean, bereziki nabarmendu zen adin-tarte gehiagotako jendeak parte-hartzea, batez ere gazteek (20-35 urte) hartu baitzuten parte.

## EMAKUMEZKO HERRITAR ANONIMOA

“**H**erriko emakume bezala eta herriko emakumeen izenean, esango nuke, azken urte hauetan, pertsona bezala, emakume-talde bezala eta guraso bezala, nire kezkak, zalantzak, eta ekarpenak egiterakoan patxada handiarekin zuzendu naizela, bai udal-ordezkariegana, bai Udaleko langileengana.

Nire kasuan, nabarmenena da Udalari luzatu dizkiodan proposamenak, bere osotasunean onartu ez badira ere, elkarrekin bildu, arrazoitu eta guztion artean adostasunetara iristeko bideak aurkitzen saiatu izan garela, eta hori da herri batean gehien balio duena. Elkarrekin bizi behar dugunez, elkarren artean gauzak adostuak izatea eta horrela aurrera eramatea ”



## GIZONEZKO HERRITAR ANONIMOA

“**A**baltzisketako Udalak niri dagozkidan gai garrantzitsuetan, parte hartzeko moduak ikusi ditut, eta ikusi dut auzo arteko tirabiretan ere bitartekari-lanak egin behar izan dituela. Hau da, gai orokorretan informazioa eman eta nire iritzia ematen saiatu naiz, eta beste herritarrek ere emateko aukera izan dute.

Eta gai orokorrez gain, auzoetako gaietan ere, bertaratu, iritzi guztiak jaso eta guztientzat egokiena den irtenbidea bilatzen da.

Parte hartzeko modu honekin ados nago eta horrela jarraitzea nahiko nuke ”

# Aduna



Azalera: 7 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 452, adunarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Aurreko legealdiko zinegotziak (7),**  
egoerak behartuta

[www.aduna.net](http://www.aduna.net)



Parte-hartzearen ardura  
**JOSU AMILIBIA ALSUA**  
(alkatea)





# GAZTEENTZAKO ETA HAURRENTZAKO LOKALAK

## Noiz

2012ko martxo-maiatza

## Parte-hartzaileak

26 lagun (14 emakumezko, 12 gizonzko)

Gazteak: 6 neska eta 9 mutil

Haurren gurasoak: 8 emakumezko eta 3 gizonzko

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**A**dunako Udalak bi lokal gorde zituen, bata haurrentzat, bestea gazteentzat, eta horien erabilera eta kudeaketa erabakitzeko, partaidetzako bi prozesu jarri zituen abian aldi berean. Bi lokalak elkarren ondoan zeuden, eta horietako bakoitza adin-tarte jakin batentzat zen: haurrena, 11 urte bitartekoentzat; gazteena, berriz, 12-16 urte bitartekoentzat.

Haurren prozesua gurasoekin landu zen eta gazteena gaztetxoekin beraiekin, eta bietan ere antzeko urratsak egin ziren: talde bakoitzarekin bi bilera, lokalak kudeatzeko irizpideak adosteko (erabiltzaileen adina, izena nola eman eta kuota, nola kudeatu, nola garbitu edo txukundu, funtzionatzeko arauak...); gero, bi bileren ondoren, Udaleko ordezkariak parte hartu zutenekin elkartu ziren, taldeetan egindako proposamenak zenbateraino ziren bideragarriak azaltzeko.

Gazteen prozesuak balio izan zuen gazteak aktibatzeko eta herriguneari bizitasun handiagoa emateko; haurren lokalari dagokionez, horrelako lokal baten eskaria eta beharra nabarmena zen herrian, baina hasieran espero baino guraso

gutxiagok hartu zuen parte; hala ere, behin lokala martxan jarri zenean, guraso gehiago gerturatu ziren eta gaur egun erreferentzia-leku garrantzitsua da haurrentzat, oso erabilera handia baitauka.

Hurrengo parte hartzeko prozesuetan kontuan hartzekoetan, Udalak nabarmendu zuen egitasmoa eta prozesua abian jarri aurretik eragile edo eragindako guztiekin elkartu edo bilerak egin beharra, herritar gehiagoren parte-hartzea eta inplikazioa lortzeko.





## LEIRE SAIZAR ALTUNA

Gozogile-okina  
37 urte

Haurren lokalaren  
prozesuan hartu  
zuen parte



## JOKIN ARRUTI BEREZIARTUA

Ikaslea  
17 urte

Gazteen lokalaren  
prozesuan hartu  
zuen parte

### Prozesuak izan al du eraginik herrian?

**H**erriko plazan dago kokatuta haurren lokala eta horren eraginez plazari bizia ematen hasi da. Bi aukera dauzkagu: lokalean egon edo plazan.

Parte hartzeko prozesuari eta lokalaren funtzionamenduari esker helduen eta haurren artean ere harremana sendotu egin da, leku txikia denez denok batera egoten gara-eta. Parte-hartze handia dago lokalean, agian berria delako edo horrelako lokal bat falta zelako herrian. Udaberrian goxo-goxo egon gara euria nola egiten zuen ikusiz.

Eskerrak eman Udalari eta azkenean bigarren saiakeran proiektua aurrera atera dela, aurretiko parte hartzeko prozesuak lagunduta.

### Zer emaitza lortu da [parte hartzeko prozesuarekin]?

**O**so emaitza ona lortu dela esango nuke nik. Lokala jarriko zigutela esan zigutenean, oso gustura hartu genuen berria, eta parte hartzeko prozesuari gogoz ekin genion. 12 eta 18 urte bitarteko gazteak hobeto moldatzera bultzatu gaituela esango nuke nik. Lehenagotik ere ondo moldatzen ginen, baina ez ginen asko elkarrekin egoten; eta lokalak asko lagundu digu horretan, zeren orain ia egun guztietan geratzen gara lokalean.

# ADUNAKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANAREN BERRIKUSPENA

## Noiz

2012ko apirila-2013ko urtarrila

## Parte-hartzaileak

45 lagun (22 emakumezko, 23 gizonzko)

garapen  
iraunkorra



**A**dunak aspalditik dauka abian Agenda 21 Plana, eta horren baitan, 2012an Plana berrikustea eta ekintza-plan berria diseinatzea tokatzen zen; horretarako, herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzea ezinbestekotzat jo zuen Udalak, eta berariazko parte hartzeko prozesua gauzatu zuen, hainbat alorretan bereizita, baina elkarrekin koordinatuta eta osagarri: Udaleko hautetsiak eta eskualdeko teknikariak, alde batetik; batzarretan parte hartu zuten herritarrak, bestetik; eta batzarretan parte hartu ez zuten herritarrak, azkenik. Horrela, herritarren, hautetsien eta teknikarien ikuspegia txertatuta geratu zen Planean.

Hobetzekoetan, herritarren batzarretako asistentzia azpimarratu zen bereziki, kostatzen baita 10-15eko parte-hartzaileen muga gainditzea edo hortik gorakoa izatea.



# Albiztur



Azalera: 12,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 312, albizturtarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Aralar** (7)

[www.albiztur.com](http://www.albiztur.com)



Parte-hartzearen ardura

**GREGORIO IRAOLA TEJERIA**

(alkatea)



# PLAN OROKORRA

## Noiz

2012ko ekaina-abendua

## Parte-hartzaileak

Informazioa emateko bileretan (auzoka/sektoreka): 44 lagun

Informazioa emateko herri-batzarrean: 35 lagun

Parte hartzeko bi herri-batzarretan: 53 lagun (24 eta 29 lagun)

hirigintza



**2**011ko udal-hauteskundeen ondoren, herri-plataforma bat sartu zen Albizturko Udalean, Aralarren izenarekin, eta talde horrek ikusi zuen Plan Orokorrean ez zirela jaso herritarren eskaerak eta ez zirela kontuan hartu alegazioak. Talde berriarentzat garrantzitsua zen herritarrek hitza eta erabakia izatea, eta horregatik Plan Orokorra berriz lantzeko konpromisoa hartu zuen, elkarlanean. Hasteko, ordea, barruko edo “sukaldeko” lana egin zuen Udal Taldeak, irizpide objektibo batzuen arabera: herriko beharrei begiratzea eta ez pertsoneri, hirigintzako aukera guztiak neurri berean bermatzea, interes orokorraren arabera jokatzeara..., eta lehen proposamena landuta, udal-ordezkariek Planak eragindako lursailen jabeekin elkartu ziren, aurreikusitako aldaketak adosteko.

Behin proposamenaren zirriborroa edukita, parte hartzeko prozesua jarri zen martxan. Hasteko, informazioa zuzenean emateko, bilerak antolatu zituzten eremuka eta gaika, eta horien ondoren, astebeteko tarte utzita, herri-batzarra egin zen. Bertan iritzi kontrajarriak azaldu ziren, batez ere etxe libreen gaietan, eta erabaki zen parte hartzeko prozesua jarriko zela abian, argitzeko eta erabakitzeko; horrela, beste bi batzar egin ziren.

Udal Taldeak oso balorazio positiboa egin zuen, 2012ko Plan Orokorra herritarrekin batera landu zelako, albizturarren parte-hartzearekin, eta errespetuzkoa izan zelako.

Oro har, Albizturaren Udaleko gai eta kontu guztiak herri-batzarretan hitz egin eta erabakitzen dituzte, adostuta eta behar baldin bada bozkatuta.



# PARTE-HARTZEA: AURREKONTUEN ETA HONDAKINEN PROZESUAK

Noiz

2012ko maiatza-2013ko urtarrila

partaidetzako  
aurrekontuak

garapen  
iraunkorra



**H**erri askotan, hautetsien esku uzten da erabat udaleko gaien kudeaketa, eta hautetsiek herrikideei laguntza eskatzen dietenean, sarritan entzun behar izaten dute “Baina horretarako bozkatu zaitut, ba! Zuk gestionatzeko!” erantzuna; batzuk, ordea, konbentzituta daude horrek ez duela izan behar horrela, herritarren eta hautetsien arteko tarte hori txikitzeko edo murrizteko ahaleginetan ari dira, proiektu zehatz eta jakinetan herritarren inplikazioa bilatzen eta lantzen. Egitasmo honen bidez, Albizturren Udalak kudeatu beharreko bi gai (2012-2015 arteko Plan Ekonomikoa eta hondakinak kudeatzeko eredu berria) herritarren esku utzi ziren, herritarrek beraien lantzeko eta kudeatzeko, eta horrelaxe egin zuten.

Amaieran, emaitza gisa, arlo bakoitzean dokumentu bana egin zen, eta albizurtarrei eman zitzaizen egindakoaren berri. Horrela egiaztatu zen, beste behin, herritarrei hitza eta ardura emanaz gero, guztiek egin ditzaketela ekarpenak eta ekarpen horiek onuragarriak ez ezik, beharrezkoak ere badirela.

Hobetzekoetan, berriz, parte-hartzaileen kopurua azpimarratu zuten; izan ere, uste baino jende gutxiagok hartu baitzuen parte.





# Alkiza




Azalera: 11,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 357, alkizarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Alkizako Abertzale Ezkertiarrak (7)**

[www.alkiza.net](http://www.alkiza.net)



Parte-hartzearen ardura  
**JON UMEREZ URREZOLA**  
(alkatea)



# ALKIZAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Noiz

2012ko abendua-2013ko martxo

Parte-hartzaileak

60 lagun

tokiko plana /  
plan estrategikoa



**E**gitasmo honen bidez, Alkiza 2020. urtera begira jarri zen, eta etorkizun hurbileko Alkiza hori nolakoa izango den alkizarrekin batera aurreikusi eta landu zuen Udalak: zenbat eta nola hazi nahi zuen herriak, zer ezaugarri eduki nahi zituen...

Agenda 21aren metodologiaren baitan landu zen proiektua. Horrela, amaieran, “gidaliburu” bat lortu zen, Alkizako udal-teknikariek eta -hautetsiek etorkizunean aintzat hartzeko edo jarraitzeko. Hainbat bilera egin ziren, eta horietako bakoitzean 15-20 lagunek hartu zuten parte; halaber, ahalegin berezia egin zen saioetan parte hartzen ez zuten herritarrengana ere iristeko (etxeetan eta baserrietan galdetegiak banatuta eta jasota, jendea elkarrizketatuta...). Hasieran herritar batzuek mesfidati hartu zuten parte egitasmoan, aurreko esperientzia txar edo oker batzuk zirela medio, baina horiek gaindituta, giro on eta baikorrean gauzatu zen proiektua.



## NAROA GOROSTIDI MURUA

GAZTEAK bileran parte hartutakoa

Zer nabarmenduko edo azpimarratuko zenuke esperientziatik?

**N**abarmenduko nukeen aurreneko gauza bertan egon ginen kide guztien arteko giro ona da. Esan beharra daukat bertan egon ginen guztiak lagunak garela eta oso ongi ezagutzen garela; horregatik, gure arteko konfiantza nabarmena zen eta edozer gauza esateko garaian ez zegoen arazo edo lotsarik.

Gai ezberdinen inguruan hitz egin genuen eta ezagutzen ez genituen datuak ere ezagutu genituen. Esan beharra daukat bertan egin genuen denbora azkar pasatu zitzaidala eta nire ustez oso interesgarria izan zela ikusi eta entzundakoa. Horrez gain, aipatu nahi dut, lagunaren artean gai honetaz hitz egiten dugun arren, saioko elkarrizketak ezberdinak izan zirela eta bakoitzak pentsatzen genuena esateko aukera izan genuela. Beraz, amaitzeko, nire ustez esperientzia oso aberasgarria izan zen, gauza ezberdinak ikasi eta ezagutzeko aukera izan genuelako eta, horrez gain, metodologiari esker guztiok parte hartzeko aukera izan genuelako.

## IMANOL LIZARDI CAMARERO-NUÑEZ

LMHko irakaslea · 56 urte

Zer gustatu zaizu bereziki?

**P**arte hartzeko aukera eskaini izana. Iruditzen zait bilera horien bidez, herri honetan aspaldi egiteke zegoen zerbaitetan aurrerapausoak eman zirela. Hau da, udal barruko kontuak herriratu, jendearengana hurbildu egin zirela neurri batean, behintzat. Iruditzen zait herritarrek asko eskertzen dutela normalean ematen ez den informazioa ematea, nahiz eta gero bilera horietara jende asko ez hurbiltzean bestelakorik iruditu. Baina baita ere iruditzen zait jende gutxi egon den bilera horietan emandako informazioa gero asko iristen dela, jendeak asko galdetzen baitu, nahiz eta bertaratzeko garaian, beldurra, pereza, lotsa edo dena delakoa izan. Tabernako edo meza ondoko tertulietan asko hitz egiten da kontu horien inguruan. Ez da egia, nire ustez, Alkizako jendeari ez zaizkiola herriari dagozkion arazoak axola. Axola zaio, era informalean asko hitz egiten baita horietaz. Beste kontu bat da kezka horiek askotan ez direla agertu beharko luketen lekuan agertzen. Baina hori heziketa-kontua dela uste dut, eta horrelakoei buelta emateak, normalean, luze jotzen du. Halere, bidea hau dela iruditzen zait. Hau da, pazientzia, eta segi aukerak eskaintzen.

Ez dakit Agenda 21arekin zerikusirik duen ala ez, baina bereziki gustatu zaidan beste kontu bat da azken bolada honetan Udalak herriari zuzenduta, tarteka, argira ematea, idatziz, herriari buruzko zenbait informazio. Baita *Oilategitik* aldizkariaren bitartez, urtean behin, egiten duena.



# Altzo




Azalera: 9,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 405, altzotarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7)

[www.altzo.net](http://www.altzo.net)



# PARTE-HARTZEA ALTZON 2012

Noiz  
2012an zehar



**A**ltzo herri txikia da, denek ezagutzen dute elkar, eta ohikoa da herritarrek udal-gaietan parte hartzea. Baina 2012an ahalegin berezia egin zen Udalak antolatzen zituen ekimen eta erabakietan altzotarren parte-hartzea eta inplikazioa are handiagoa izateko. Horrela, deialdi orokorrak edo bereziak (herritar jakin batzuk gonbidatzeko) egin zituen Udalak, zenbait gai lantzeko eta erabakiak hartzeko.

Herritarrek gogotsu hartu zuten parte, eta hautetsientzat babes eta laguntza handia izan zen. Aurrera begira, dinamika honi eusteko borondatea zeukan Udalak.





# Amezqueta



Azalera: 20,6 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 970, amezketarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** 6), Amezketarrok Elkar Lanean (1)

[www.amezqueta.org](http://www.amezqueta.org)





# AMEZKETAKO GAZTELEKUA

## Noiz

2012ko martxoa-iraila

## Parte-hartzaileak

30 lagun (12 neska, 18 mutil)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**A**mezketako Udalak gazte edo nerabeentzako partaidetzazko zerbitzua edo Gaztelekua jarri nahi zuen abian, espazio fisikoa emanda eta adin-tarte horren behar eta nahiak ase nahian. Horretarako, parte hartzeko prozesu hau jarri zuen martxan, eta tailerren bidez, nerabeak adin-tarteka bereizita, gazteleku hori nolakoa izango zen definitu zuten: espazioaren diseinua, ordutegia, programazioa...

Gazteek guztira zazpi tailer egin zituzten: lehenengoan, proiektua aurkeztu zieten; bigarrenagoan eta hirugarrenagoan, espazioaren diseinua landu zuten; laugarrenagoan, ordutegia; bosgarrenagoan, ekintzen programazioa; seigarrenagoan, hartutako erabakiak berretsi zituzten; eta, azkenik, zazpigarrenagoan, emaitzaren berri eman zuten herrian.

Gazteak lanean aritu ziren eta egiaztatu zuten zerbait lortzeko ahalegina egin beharra dagoela, edo taldean nola egiten den lan, edo helburu batzuk lortzeko pixkanaka eta pausoak emanez joan beharra dagoela; gazteek, oro har, oso proposamen zehatzak eta baliagarriak egin zituzten eta gehien-gehienak gauzatzeko bidean jarri ziren. Azkenik, hobetzekoetan hauxe nabarmendu zen: tailerretako asistentzia, gorabehera dezente izan baitzen.



## NESKA IKASLEA · 14 urte

“**H**asieran pentsatu genuen parte hartzeko prozesuaren saioa Gaztelekua hurrengo egunean irekitzeko zela. Saioetan Gaztelekua zertarako, zergatik... behar genuen landu genuen. Era berean, gure nahi eta interesak zein ziren jakin nahi zuten, Gaztelekua geuk nahi genuen bezalakoa izateko eta bertan zer egin nahi genuen jakiteko”



## MUTIL IKASLEA · 14 urte

“**S**aioak Gaztelekuan zer jarri eta zer egin erabakitzeko izan ziren. Gaztelekuan zer material egongo zen eta nolakoa izango zen geuk erabaki genuen. Nire ustez, horrelako gauzak egiten direnean, gauzak horrela egin behar dira, guretzako zerbait bada eta guk erabiliko badugu, geuk hartu behar ditugu erabaki batzuk”



# HONDAKINEN KUDEAKETA BERRIA

Noiz  
2012ko martxo-abuztua

Parte-hartzaileak  
150 lagun

garapen  
iraunkorra



**H**ondakinak beste era batera kudeatu behar zirelako uste osoarekin, Amezketako Udalak egitasmo hau jarri zuen abian. Hasteko, herritarren zalantza, kezka, galdera eta abar jasotzea erabaki zuen eta horretarako saio ireki bat antolatu zuen; herritarrek adierazitakoa jasota, horie erantzuteko, Udala harremanetan jarri zen Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideekin, Foru Aldundiarekin eta Tolosaldeko Mankomunitatearekin. Horrela, hondakinak kudeatzeko sistema berri bat diseinatu zen eta hori herritarrei aurkeztu zien Udalak, hainbat saioren bidez. Herritarren ekarpenak kontuan izanik, sistema berriz aztertu zen eta martxan jartzeko epeak ezarri ziren; nahi zuten herritarrak abuztuan hasi ziren sistema berria erabiltzen, eta gainerakoei epe luzeagoa eman zitzaienten, ohitzeko, 2013ko ekaina arte. Sistema berriarekin arazoak edo desadostasunak zituztenekin azken erronda egin zuten udal-ordezkariek, etxez etxe.



# ESPAINIAKO BANDERAREN INPOSIZIOA

Noiz  
2013ko otsaila-apirila

Parte-hartzaileak  
35 lagun

herri-izaera



**B**este udaletxe askotara bezala, Amezketakora ere heldu zen Espainiako bandera nahitaez jartzeko agindua, eta Udalak erabaki zuen parte hartzeko prozesu bat jartzea abian, zer egin behar zen edo nola erantzun behar zen erabakitzeko.

Hasteko, herri-batzar bat egin zuten gaiaren inguruko informazioa emateko eta legeek ematen zituzten aukerak aztertzeko. Ondoren, jendearen iritzia jaso eta gero, beste bost herri-batzarretan, pixkanaka zehazten joan ziren herritarrek proposatutakoetatik zer egingo zen eta plangintza batean gauzatu zuten. Horrela, herritarrekin batera erabaki zuten Udaletxean bandera non eta nola jarriko zen, Udalak erabakia betetzeko; eta herri bezala zer erantzun emango zen ere zehaztu egin zen, herritarrek beraiek proposatutakoa beteta.






# Anoeta

Azalera: 4,1 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.832, anoetarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (2)



Parte-hartzearen ardura

**MAIALEN SAN SEBASTIAN  
KORTAJARENA**

(zinegotzia)

[www.anoeta.net](http://www.anoeta.net)



# HERRIKO KULTUR ANIZTASUNA LANDUZ: JATORRI ETA KULTURA DESBERDINAK, DENAK ANOETARRAK

Noiz  
2013an zehar

Parte-hartzaileak  
27 lagun (17 emakumezko, 10 gizonetzko)

aniztasuna



**A**noeta herri bizia da, eta urtean zehar herritarren partaidetza dela medio, hainbat ekintza antolatzen dira: Kalderero Festa, Dantza Soka Eguna, Euskal Jaia, herri-kirolak... Bizitza propioa eta biztanle aktiboak eta dinamikoak dituen herria da, eta Udala etengabeko harremanetan egoten da elkartegintza-sare horrekin, herria eraikitzen jarraitzeko; hortaz, bilerak antolatzen dira herritarren parte-hartzea bideratzeko hainbat esparrutan. Baina badago gai bat sarritan eskuetatik ihes egiten duena, heltzeko zaila dena: beste herrialdeetatik gurera etorritako herritarren partaidetza bermatzea herriko kultur bizitzan.

Izan ere, Anoetan jatorri desberdinetako pertsona asko bizi dira, Euskal Herriko beste herrietatik zein espainiar estatutik eta munduko beste herrialde batzuetatik etorriak. Denak Anoetan bizi arren, ez da erraza izaten bertan jaio direnek eta kanpoan jaio direnek elkarrekiko harremanak sortzea eta egonkortzea, batez ere kultura desberdinetakoak izanik; eta askotan,





herri berean bizi arren, ezer gutxi dakite batak besteaz, nor bere egunerokotasunean murgilduta, eta finkatuta daukan harreman-saretik irten gabe. Nahi gabe, ondoan duten aberastasunaz ez dira ohartzen; eta, fisikoki gertu bizi arren, urruti sentitzen dira. Denentzat aberatsa delakoan, muga horiek apurtzeko lehen pausoak eman nahi izan ditu Anoetako Udalak.

Horiek horrela, helburua da orain arte kultur bizitzan parte hartu ez duten herritar batzuk inplikatzeko; hori berez da aberatsa, baina are aberatsagoa jakinda beste kulturetako ordezkariak direla, hizkuntzan eta ohituretan oso desberdinak. Horregatik, proiektu honen oinarria herriko aniztasunaren aberastasuna azpimarratzea da.

Prozesua bideratzeko, Tolosaldea Garatzeneko Migrazioaniztasun teknikariaren laguntza jaso du Udalak, eta hurrenez hurren pauso hauek eman dira: lehenik eta behin, bilera bat egin zen herriko gizarte-eragileekin, gaia jorratzeko, egitasmoa aurkezteko eta iritziak, iradokizunak eta proposamenak jasotzeko; horren ondoren, apirilean, beste bilera bat egin zen Euskal Herritik kanpo jaio eta gaur egun Anoetan bizi diren herritarrekin, gai honetaz hausnartzeko eta ekarpenak jasotzeko. Eta herriko festei begira egitasmo berri bat antolatzea proposatu zen: kultur aniztasunaren azoka.

Azoka antolatzea oso erraza izan zen; partaideei komentatu eta berehala baiezkoa eman zuten eta izugarri inplikatu ziren gainera, ilusio handiz. 25 bat lagunek hartu zuten parte, hainbat herrialdeetakoak: Ekuador, Nikaragua, Kolonbia, Sahara, Nigeria, Maroko eta Euskal Herria. Asko eta asko beraien herrialdeetako jantzi tipikoak jantzita azaldu ziren, eta batzuk ere dantzatzen animatu ziren herriko plazan, beren abestien erritmoaz. Herrialde desberdinetako artisautza, musika,







argazkiak, jakiak eta abar ezagutzeko aukera paregabea izan zen, baita elkar ezagutu eta harremantzeko aukera bikaina ere. Oso giro jatorra sortu zen, eta partaideek zein ikusleek ederki gozatu zuten.

Udalaren asmoa da kultur aniztasunaren irizpidea urtean zehar antolatzen diren beste ekimenetan ere txertatzea, eta jatorri desberdinetako herritarroi ateak zabaldu eta udal-baliabideak eskaintzen jarraitzea, ahal den heinean. Horren harira, aipatu beharra dago 2012ko abenduaren 31n Ekuadorreko elkarte bati baimena eman zitzaiola beren urtezaharreko festa frontoian egiteko, eta behar zituzten mahaia eta aulkiak utzi zizkien Udalak. Esan bezala, herriko kultur aberastasuna babesteak eta bultzatzeak merezi duelako.



**BLEYDI  
LÓPEZ  
CENTENO**

Nikaragua

**"K**ultur aniztasunaren azokak aukera eman zigun gure kultura (nire kasuan, Nikaraguakoa) Anoetako gainerako biztanleei erakusteko, eta hori oso pozgarria da guretzat. Gustatzen zaigu eta eskertzen dugu gu kontuan hartzea, eta parte hartzea. Oso arrakastatsua izan zen azoka, jendea oso pozik zegoen, bai partaideak, baita ikusleak ere, azoka ikusten egon zirenen babesa eta beroa sentitu genuen, eta komentario asko entzun genituen oso ideia ona iruditzen zitzaizela azoka hau egitea. Espero dugu datorren urtean ere berriro antolatzea "



**OTHMANE  
DEDAH  
BADE**

Sahara

**"A**noetan lehen aldia izan bada ere, horrelako azokak beste herri batzuetan ere egiten dira, eta oso ideia ona iruditzen zait, bai bertan jaiotakoentzat, baita beste herrialde batzuetan jaio direnentzat ere.

Horrelako ekimenez laguntzen digute denoi munduko beste kulturen aurrean begiak zabaltzen, eta elkar ezagutzen eta elkarrekin erlazionatzen; eta hori oso ona da aurriritzei eta beldurrei aurre egiteko, eta mugak hausteko.

Beste kulturetako jendearekin erlazionatzeak mesfidantza sortzen digu askotan, eta horrelako ekimenez bidez pertsonak zuzenean ezagutzeko aukera daukagu, eta horrek erakusten digu askotan gure beldurrek ez dutela inolako oinarririk.

Gainera, kanpoan jaio garenontzat, ekimen hauek laguntzen digute herriko biztan parte hartzen, eta guk egiten dakizkigun gauzak erakusten. Ni, adibidez, argazkilaria naiz, eta koadroak margotzen ditut, herri batzuetan erakusketak jarri ditut... "




## JOSUNE EIZMENDI MANTEROLA

Euskal Herria

“Gure herriko kaleetan, ikastetxeetan, osasun-zentroetan eta abar, jatorri desberdinetako gero eta jende gehiago ikusten ditugun honetan, garaia da, besteak beste, eguneroko jardueretan, ekitaldietan, festetan eta abarretan herritar horiei beren presentzia eta partaidetza bultzatzeko eta errazteko bitartekoak jartzeko (aukera ematen zaienean, jakin badakite erabiltzen eta eskertzen).

Horrez gain, uste dut gure bizimoduan eta kulturaren zenbat eta lehenago murgildu eta, batez ere, gure hizkuntza zenbat eta lehenago ikasi, orduan eta gizarte aberatsagoa eta sendoagoa lortuko dugula. Ez dezagun ahaztu gu ere arrazoi ekonomikoengatik eta politikoengatik migratu zuen eta duen herria izan ginela eta garela //





# Asteasu



Azalera: 16,6 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.515, asteasuarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Asteasu Batuz** (6), Bai Asteasuri (2)  
eta EAJ-PNV (1)

[www.asteasu.net](http://www.asteasu.net)



Parte-hartzearen ardura

**PILAR LEGARRA KORTAJARENA**  
(alkatea)



# ASTEASUKO KULTUR ETA KIROL-TALDEAREN GOGOETA-PROZESUA

Noiz

2012ko apirila-maiatza

Parte-hartzaileak

20 lagun (7 emakumezko, 13 gizonetzko)



**K**ultur eta kirol-jarduerak izaten dira sarritan herriari bizia ematen diotenak, eta Asteasuko Udalak prozesu hau bultzatu zuen Asteasuko kultur eta kirol-bizitzaren inguruko gogoeta egiteko, arlo horietako erronka nagusiak adosteko eta etorkizunerako oinarritzko egitasmoak proposatzeko.

Hori guztia aurrera eramateko, berariazko lantalde bat eratu zen herritarrekin, Udalaren ardurapean, eta bertan bereziki gazteek hartu zuten parte, normalean ekintza guztietan aritzen diren “saltseroek”; helburu eta nahietako bat bazen jende berria erakartzea, baina ez zen lortu ikuspegi desberdinak edo berriki izango zituen jende berria taldera eramatea. Proposamen zehatzak egiteaz gain, funtzionamendurako oinarriak ere ezarri zituen taldeak, eta etorkizunean lanean jarraitzeko asmo irmoa zeukan.







## ITSASO GONZALEZ DE LEIBA

Aiztondo  
mankomunitateko  
langilea  
54 urte

“**K**ultur taldearen sorrera eta honetan eman zen parte hartzeko prozesuaren ondorio eta tresnen bitartez, herrian zenbait kolektibo ‘aktibatu’ eta herriko giro eta kulturaren inguruko ekintza asko sortu eta egin dira. Niri dagokidanez, Emakumearen Egunaren inguruan sortu den emakumeen taldeari ere bultzada garrantzitsua eman diola pentsatzen dut, nik gehien lan egiten dudana taldeari, alegia. Gure arteko harremana sendotu egin da, eta herriko jendea elkar ezagutzeko eta elkarrekin kolaboratzeko gune bat ere sortu da. Edozein ekintza dela eta, horrela, parte hartzearen bitartez, emaitza hobea eta arrakastatsua da, bata bestearen laguntzan babestuz proiektuak egoki garatzen dira //”



## JULEN LARRUSKAIN OIAGA

Komunikazio-arduraduna  
36 urte

“**O**so prozesu interesgarria izan zen hasieratik. Adin eta mota guztietako jendea elkartu ginen. Jardunaldiak ere oso atseginak ziren, eta horrela lan egiten asko egin genuen aurrera. Parte-hartzea ere nabarmena izan zen, esan daiteke populazioaren abaniko osoak eduki zuela presentzia eta bertatik atera genituen hausnarketetatik gerora oso erabilgarriak izan zaizkigun ideia eta tresnak garatu dira.

Geroztik, kultur taldearen ibilbidea zehaztuz joan da, esango nuke herriak bere egin duela eta espektatiba-puntu bat ere sortu duela gauza eta planteamendu berriak plazaratzerakoan. Bere komunikazio-tresnak ere asko zabaldu dira, buletinera 70 pertsona daude harpideturik eta webgunea maiztasun handiarekin berritzen da herriko kultur agenda dinamizatuz //”



# ASTEASUKO KUDEAKETA-PLAN ESTRATEGIKOAREN DISEINUA

## Noiz

2012. urtean zehar

## Parte-hartzaileak

Galdetegiari erantzun diotenak, 298 lagun (148 emakumezko, 150 gizonezko)

tokiko plana /  
plan estrategikoa



**A**steasuren egoera orokorraren diagnostikoa egiteko eta aurrera begirako helburu zehatzak definitzeko, Asteasuko Udalak galdetegi bat prestatu zuen eta hainbat herritarri betetzeko eskatu zien (lagina aukeratzeko, kontuan izan ziren sexua eta adin-tartea, Asteasuren isla izateko). Ondoren, galdetegi horretako ondorioetatik eta proposamenetatik abiatuta, etorkizuneko erronkak identifikatu zituzten eta parte hartzeko hainbat organo aurreikusi ere bai. Behin-behineko batzorde bat ere sortu zuten, eta elkarte gisa eratzeko bidean da. Zenbait azpitalde sortu zituzten: komunikazioa (webgunea eta abar), udarako kale-zinema, gazteen taldea eta dantzazaleen taldea, besteak beste.



# Baliarrain




Azalera: 2,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 131, baliarraindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Herritarrak** (4)

[www.baliarrain.net](http://www.baliarrain.net)



# HAUR ETA ADINEKOEN ISOLAMENDUA EKIDITEA

Noiz

2012. urtean zehar

Parte-hartzaileak

35 lagun (17 emakumezko, 18 gizonetzko)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**H**errietan badira bereziki zaindu beharreko adin-tarteak, babes edo laguntza handiagoa behar dutelako, eta horietako bi multzo dira haurrena eta adinekoena, sarritan laguntza edo konpainia behar dutelako egunerokoan. Herri txikiek ez daukate handiek adinako baliabiderik gizarte-zerbitzuetan edo herritarren ongizatean, eta horien faltan herritarrek beraiek estaltzen dituzte gabeziak eta aurkitzen dituzte konponbideak, elkarri lagunduta.

Herri txikia izanik, Baliarrainen adinekoak astean behin baino ez dira biltzen gehienetan, elizaren inguruan. Gainera, adineko asko bakarrik daudenez, igandeetako elizkizuna ere utzita daukate, ezin direlako joan. Etxe edo baserrian egoten dira, eta ordu asko bakarrik, gainera. Herriko gazteak konturatzen dira adinekoak beren etxeetatik ateratzeko herrian dinamika bat sortu behar dela eta gazteekin batera herriko edo gazteen ekintzetara oso lasai joaten dira. Horregatik, herriko gazteek urtean zehar ekintzak antolatzen dituzte eta adinekoei bertan izateko gonbitea luzatzen diete. Besteak beste, honelakoak antolatzen dira: San Isidro egunaren inguruko ekitaldia, San Juan bezperako ekitaldia, azaroan hitzaldiak, azaroan egiten den Adinekoen Eguna, abenduan izaten diren bideo-emanaldiak, pelikulak...

Haurren kasuan, ikasturte osoa herritik kanpo pasatzen dute, eta herriarekiko atxikimendua estutzeko eta sendotzeko, guraso-elkarteak hainbat ekintza antolatzen ditu, guraso guztien adostasunarekin. Udalak laguntza ekonomikoa ematen dio guraso-elkarteari, eta horrek eskolarik gabeko egunetarako eta jaiegunetarako ekintzak antolatzen ditu: udaberrian, herriko ibilaldia; herrian jolasak; herriko jaietan, egun batean hurrek nahi dutena jartzea; udan, udaleku irekiak; aste kulturean, gazteak adinekoekin elkartu eta elkarrekin ekintza bat gauzatu; Gabonetan, parte-hartze aktiboa izatea...







## JULITA ARTEAGA

Erretiroduna  
80 urte

**"B**aliarraingo herrian, ohiko ekimenak egiten dira, eta ekimen horietan adinekoak kontuan hartu eta parte hartzeak oso gustura jartzen nau. Horrek adierazten du gogoratzen direla gurekin ere.

Niretzat aipagarriak dira eta honela jarraitzea nahiko nuke:

- Jubilatuen Eguna ospatzen denean eta bertan gure iritzia emateko aukerak ikusten ditudanean.
- Gure argazkiak gorde eta erakusten direnean.
- Oparitxoak etxera ekartzen dizkigutenean.

Ekimen horiekin, herriko adinekoei animoak indartzen zaizkigu.

Nire aldetik orain arte bezala jarraitu eta antzeko esperientziak bultzatu eta antolatzea nahiko nuke //



## JUANTXO ZUBELDIA

Pentsioduna  
57 urte

**"N**ire egoeran, eta niri lagungarri egiten zaizkidan bezala, beste herritarrek ere esaten dute, herrian nabarmenduko nituzkeen alderdiak dira:

Gizarte-zerbitzuen teknikaria bertan izatea, sendagilea eta sendagilearen laguntzailea ere herrian izatea eta, gainera, euskaldunak izatea.

Talde-dinamika honetan lehen esandakoaz gain, elkartzen gaituen dinamika garrantzizkoa da: hitzaldiak, hamaiketakoak, bazkariak, e.a.

Etorkizunera begira, orain arte herritik sortzen diren ekimenak aurrera eramatea nahiko nuke, ohikoa den bezala //



**AITZIBER  
OLAIZOLA**

Administrari laguntzailea  
37 urte

“**H**erriko haurrak herrian biltzeko eta urteko ekimenak elkarrekin prestatzea izan da nabarmenduko nukeena. Eta, horretaz gain, herriko txikienei aukera eman zaie herriko adinekoekin zenbait ekimen elkarrekin egiteko eta hori garrantzizkoa izan da.

2012ko partaidetzaren barnean, gustukoena auzolana izan da. Oso esperientzia bikaina izan da, haur eta gurasoen artean egin duguna.

Eta aurrera begira, gutxienez orain arteko ohiturak zaindu eta ahal den guztia hobetzen saiatzea da ”



**UGAITZ  
GARMENDIA**

Ikaslea  
13 urte

“**G**ehien nabarmenduko nukeena da herrian urte askotan zehar egin den ludoteka. Hau da, adin desberdinetako herriko haurrak elkartzen ginen eta txikiak arduradun batekin jolasean ibiltzen ziren, zahartxoagoak kiroletan eta nire adinekoak eskolako lanak egiten. Gainera, arduradunak laguntza eskaintzen zigun.

Gustukoenak, kanpora egiten ditugun irteerak.

Eta horrela jarraitzea nahi dut, ludotekarekin jarraitzea eta irteerak eginez ”

# BALIARRINGO PARTAIDETZA

Noiz  
2012. urtean zehar

Parte-hartzaileak  
45 lagun (32 emakumezko, 13 gizonezko)

herri-mugimendua



**B**aliarraindarrak talde edo elkarteetan antolatuta daude, eta horiekin lan berezia egin nahi zuen Udalak, elkartu, elkarren berri izan eta urtean zehar egin behar ziren ekintzak partekatzeko, elkarrekin lantzeko eta gauzatzeko. Talde hauekin egin zen lan: guraso-elkartea, herriko elkarte, adinekoen topagunea eta gazteen komisioa. Bilerak oso giro onean egin ziren, eta urteko ekintzak guztien artean adostu eta antolatu ziren.





## GARRAIO PUBLIKOA

Noiz  
2012ko urria-abendua

Parte-hartzaileak  
25 lagun (17 emakumezko, 8 gazte neska-mutil)

mugikortasuna



**L**urraldebusek herri-garraiorako proposamen zehatza egin zion Udalari, eta hori aztertzeko, ontzat jotzeko edo behar baldin bazen hobekuntzak edo aldaketak proposatzeko, Udalak gazteekin eta emakumeekin lan egin zuen. Helburua zen herri-garraioa arrazoizkoa eta herritarren beharrei erantzungo ziena izatea, eta autobus-zerbitzurik ez zegoen kasuetan, gurasoek hartzea garraioaren ardura, gazteak bilduta eta txandaka. Guztira hiru bilera egin zituzten, Udaletxean.

## HONDAKINEN PREBENTZIOA

Noiz  
2012ko urria-abendua


Parte-hartzaileak  
45 lagun (32 emakumezko, 13 gizonetzko)

garapen  
iraunkorra



**U**dalak helburutzat zeukan Baliarrainek bere herri-hondakinak % 100 kudeatzea, eta horretarako herritarrekin bi bilera egin zituzten, batik bat taldeetan edo elkarteetan antolatuta zeudenekin, egoeraren eta asmoen gaineko informazioa emateko, etorkizunean hondakinak bertan kudeatzeko lan egiteko eta horretarako pauso zehatzak emateko. Horretaz gain, etxez etxe ere ibili ziren, ekarpenak jasotzeko.

# Belauntza



Azalera: 3,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 287, belauntzatarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Denok bat** (4) eta

Belauntza berreginez (3)

[www.belauntza.net](http://www.belauntza.net)



# PARTAIDETZA

Noiz

9 hilabete

Parte-hartzaileak

20 lagun inguru bilerako (% 25 emakumezkoak, % 75 gizonezkoak)

hirigintza



**B**elauntzako Udalak etorkizuneko hirigintzako asmoak biltzen dituen plangintza eginda zeukan, baina horren baitan beharrezkotzat jotzen zuen herritarrei informazio zuzena eta gardena ematea, asmoetara gerturatzea eta partaidetza sustatzea. Horretarako, hasteko, hainbat bilera antolatu zituen herritarrekin; gero, inkestak banatu zituen herriko etxe eta baserrietan; eta, azkenik, bileretan eta inkestetan jasotako datuekin, udal-plangintzak etorkizunean izango zituen erronkak jasotzen zituen triptiko bat egin eta etxez etxe banatu zuen. Hirigintza-planerako informazioaz gain, bestelakoen berri izateko eta jasotzeko baliagarria izan zen prozesua: argiteriaren beharrak, trafiko-arazoak...

Bileretan herritarrek oso ondo erantzun zuten, asistentzia ona izan zelako eta gogotsu hartu zutelako parte; inkestek, berriz, ez zuten hain emaitza ona eman, agian Udaletxean bertan entregatu behar zirelako; hurrengorako, egokiagoa edo eraginkorragoa izan daiteke inkesta bileretan bertan betetzea eta jasotzea, geroko utzi gabe.



# Elduain

Azalera: 25,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 232, elduaindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5)

[www.elduain.com](http://www.elduain.com)



# ELDUANGO HERRI-KONTSEILUA

## Noiz

2012. urtean zehar

## Parte-hartzaileak

23 lagun (4 emakumezko, 19 gizonezko)

parte hartzeko  
sistema



**E**lduaingo Udalak Herri Kontseilua eratu zuen 2011ko amaieran, gai garrantzitsuen gaineko erabakimena Udaletik herritarrengana mugitzeko.

Kontseilua eratzeko, deialdia egin zuen eta nahi zuten herritarrek izena eman ondoren, 2012an zehar sei bilera egin zituen, hainbat gai jorratzeko: hondakinen kudeaketa, krisi ekonomikoak eragindako murrizketak, uraren kudeaketa, festak... Gai horietan Kontseiluak adostasunez (eta bozketarik gabe) egin zituen proposamenak eta horiek aintzat hartu zituen Udalak behin betiko erabakiak hartzeko.

Udal-hautetsiak eta herritarrak gerturatu egin ziren elkarrengana, eta herritar batzuegan udal-kudeaketarako ilusioa piztu egin zen, hau da, prozesuak balio izan zuen herritar batzuk mugiarazteko edo aktibatzeke. Hobetzekoetan, Udalak nabarmendu zuen beharrezkoa zela prospektiba handiagoa eta aurea hartzea, urte osoko gaiak eta lanak aurreikustea, batik bat.



# Ibarra



Azalera: 5,03 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 4.045, ibartarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), EAJ-PNV (2) eta PSE-EE (1)

Parte-hartzearen ardura

**JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA**

(alkatea)



[www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)





# TAO SISTEMAREN ANTOLAKETA

## Noiz

2011ko azaroa-2012ko maiatza

## Parte-hartzaileak

Batzarrean: 280 lagun (% 40 emakumezkoak, % 60 gizonezkoak)

Lantaldean: 10 lagun (3 emakumezko, 7 gizonezko)

mugikortasuna



**M**ugikortasuna, oro har, eta bereziki autoa aparkatzea, arazo handia da Ibarren. Tolosatik oso gertu dago, eta Tolosara lanera edo enkargutara joaten den jende askok autoa Ibarren uzten du eta horrek arazoak eragiten dizkie ibartarrei aparkatzeko, herri-sarreran, batik bat. 2009an, Ibarako Udalak TAO (gaztelaniaz OTA) sistema ezarri zuen, baina ez zen izan ibartar guztien gustuko erabakia; izan ere, hainbatek kritikatu egin zuten herritarren ekarpenak eta iritzia ez zirelako aintzat hartu, herritarren artean ez zegoelako aukera-berdintasunik, defizit handia zuelako...

2011n, hauteskundeon ondoren Gobernu Talde berria eratu zenean, parte hartzeko prozesu hau jarri zen martxan aurreko sistema hobetzeko eta herritartzeko asmotan. Alkatea buru zela, zinegotzi batek eta aguazilak lagunduta, bi batzar orokor egin zituzten herrian, eta auzo batean beste bi. Lehen batzarretan egoeraren berri eman zieten herritarrei (defizita,



auzo batzuetako eskaerak, herritar guztiei aukera berdina ematea...) eta gaia talde batean lantzeko proposamena egin zieten; horrela, lantalde bat eratu zen gaia lantzeko, eta hamabost bilera inguru egin ondoren, proposamen zehatza idatzi zuen. Bigarren batzarrean, berriz, proposamen zehatza azaldu eta eztabaidatu zen, baita onartu ere. Azkenik, proposamenak gehien eragiten zuen auzoan 2 bilera egin ziren eta bizilagunekin aparkaleku batzuk adostu zituzten.

Onartu zen proposamenari esker, TAO sistema beste auzo batzuetara zabaldu zen, defizita murriztu egin zen eta herritar guztiek izan zuten "egoiliar" (erresidente) izateko aukera, eta ez auzo jakin batzuetakoak soilik; halaber, aparkalekuak optimizatu egin ziren, eta gehien eragindako auzoetan auzotarrentzako aparkalekuak bermatu egin ziren.

Esperientzia oso positiboki baloratu zuen Udalak, helburu nagusiak bete zirelako, eta ikasgai nagusia izan zen herritarrei informazioa eman egin behar zaiela, gai jakin batzuetan jendea inplikatu egiten dela eta herritarrak prest daudela parte hartzeko. Esperientziak bide bat erakutsi zion Gobernu Taldeari eta neurri batean konfiantza eman zion horrelako ekimenak aurrera eramateko, parte-hartzeari lekua egiteko.

# Orendain



Azalera: 6,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 192, orendaindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (4) eta Batzaleku (1)

[www.orendain.org](http://www.orendain.org)



Parte-hartzearen ardura

**GORKA EGIA ARREGI**

(alkatea)



# ORENDAINGO HERRITARRAK BERTAKO ADMINISTRAZIOAN

Noiz

2012. urtean zehar

Parte-hartzaileak

16 lagun (7 emakumezko, 9 gizonetzko)

parte hartzeko  
sistema



Orendainen ahalegin berezia egin zen Udaleko informazioa herritarren eskura jartzeko, herritarrek ekarpenak egiteko eta udal-erabakietan parte hartzeko. Horretarako, elkarren arteko lan-jardunak sustatu eta egin ziren; gaiak lantzeko, Udalak foroak antolatu zituen, baina inkesta bidez ere erantzuteko aukera eman zien herritarrei.

Besteak beste, ondorengoak landu eta adostu ziren herritarrekin: hondakinen trataera eta kudeaketa, murrizteko; herriko kirolgunea edo jolasgunea antolatzea; garraioaren erabilera (ordutegia eta moduak)... Halaber, beste hainbat proposamen zehatz ere egin zituzten herritarrek, asko Agenda 21 Planean sartzeko modukoak.

Ahalegin handia egin zen herritarrei informazio guztia garden emateko; horretarako, besteak beste, betiko bandoen bidez informatzen jarraitu zuen Udalak, urtean zehar gutxienez bi aldizkari atera zituen gestioaren eta finantzen berri emateko, webgunea eguneratu egin zuen eta informazio guztia bertan jarri zuen, osoko bilkuren laburpenak etxe guztietara banatu zituen, osoko bilkuren aurretik gai-zerrenda etxeetara bidaltzen zien herritarrei...

Prozesu honen bidez herritarrek ikusi zuten Udalak bazeukala herritarren beharrei eta nahiei erantzuteko borondatea, baina muga batzuk ere bazeukala, eta nahi edo behar horiek gauzatzeko, guztien partaidetza aktiboa beharrezkoa zela.





## A.A.E. EMAKUMEZKOA

“L eku guztietan hastapenak lan zailak dira eta partaidetza-prozesua martxan jartzea ikaragarriko erronka iruditzen zait.

Hasiera honek jarraitzea nahiko nuke, ohitura eta kultura bihurtzea. Orendain zero zaborrean lehendabizikoa izan den bezala, partaidetzan ere lehenengoak izatea nahiko nuke.

Partaidetza-prozesuan ondo sentitzen naiz; izan ere, hasierako lotsa hautsi dut eta erronka pertsonala bezala hartu dut.

Niretzat amets handiena da Orendaingo herritar bakoitzak Orendaingo herrirako baliabide garrantzitsu bat dela sinestea.

Eta honako erronka hau luzatzen dut: ea Orendainen, ‘herri bat, xare bat’ lortzen dugun //




# Tolosa

Azalera: 37,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 18.232, tolosarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), EAJ-PNV (7), PSE-EE (1)  
eta Aralar (1)



Parte-hartzearen ardura

**GARIKOITZ LEKUONA IZETA**  
(teknikaria)

[www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)



# LAIA GUNEA

Noiz

2012ko apirila-abendua

Parte-hartzaileak

Tolosako Udaleko sailetako ordezkari bana

parte hartzeko  
sistema



**H**erria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta konplexuagoa izaten da udal-antolara administratiboa (sailak, ardurak...) eta zaildu egiten da koordinazioa, nabarmen geratzen da Udala bera ez dagoela behar bezala prestatuta herritarren parte-hartzea sustatzeko edo bideratzeko.

Tolosako Udalaren kasuan, ikusi zen nekeza zela herritarren partaidetza bultzatzea edo herritarrekin elkarlanean jardutea edo eraikitzea, aurrez ez baldin bazen udal-antolaketa prestatzen eta egokitzen horretarako; hau da, nabarmendu zen Udalak bermatu beharra zeukala proiektuak behar zituen ikuspegi guztiak txertatuta zeudela bertan, Udalak lan egiteko modua eta mekanismoak ere egokitu beharra zeukala aurretik. Horretarako, LAIA gunea jarri zuen abian Udalak, antolaketa eta zeharkakotasun lantzeko espazioa, Tolosarentzat proiektu estrategiko eta eraldatzaileen kudeaketaz arduratzeko.

LAIA gunea Udaleko sailetako ordezkari ez osatuta dago (ez nahitaez sailburuak), eta horiek aurkezten dituzte sail bakoitzeko proiektu estrategikoak, beste kideek bi modutan aberasteko: batetik, zeharkakotasunez edo bakoitzak bere arlotik ekarpenak eginda, eta beharrezkoa bada, azpitaldeak sortuta; bestetik, herritarrekin partaidetzarekin, egoki ikusten denean.

Amaieran, LAIA gunean proiektuak ebaluatu egiten dira, egindako lanaren eragina zenbaterainokoa izan den baloratzeko.







## NEREA CERECEDA

Tolosako Udaleko  
Gazteriako teknikaria  
37 urte

**"A**rgi dago herritarren partaidetzak bizi-kalitatea ematen diola herriari eta bertako biztanleen funtsezko arloak hobetzeari. Nagusiki helburu horrekin sortu zen LAIA proiektua. Funtsezko proiektua eta ezinbestekoa egun, Administrazioan lan egiten dugun langileontzat. Lehendik egindako hausnarketa-prozesu aberatsek eta ondoren hausnarketa horietatik ateratako lehentasunek markatu dute etorkizunean LAIAK eramango duen lan-dinamika.

Bereziki eta oinarrian gustatu zaidana administrazio berean lan eginda LAIAK beste lankideekin harremana sakondu eta estutzeko aukera izan da. Askotan norbere galaxian murgilduta gabiltza unibertsoaren zati inportantea garela kontuan izan gabe. Unibertsoaren zatitxo bat ezagutzeko balio izan digu LAIAK eta uste dut etorkizunean zenbait gairi aurre egiteko eta bidea errazteko balio izan duela. Aukeratutako lantaldeari egokia, orekatsua eta itxaropentsua deritzot //



## IÑIGO MUÑOZ

Tolosako Ingurumen eta  
Agenda 21eko teknikaria  
39 urte

**"N**ire eguneroko lanera ekimen honek gauza asko ekarri ditu. Ingurumen eta Agenda 21eko teknikari naizen aldetik, nire lanerako beharrezkoa zen sail desberdinetako teknikarien artean mahai finko bat osatzea. Alde batetik proiektu estrategikoak eta eraldatzaileak direnak denon artean landu eta bakoitzak bere arlotik aberastu ahal izateko. Zeharkakotasuna benetan praktikan jarri dugula pentsatzen dut. Bestalde, parte-hartzea sustatzeko beharrezkoa zen, baita ere, Udaleko barne-egiturari buelta bat ematea. Sortu dugun mahai honekin eta jaso dugun formazioarekin prestatuago gaude gure alorrean herritarrekin batera proiektuak gauzatzeko. Gehien baloratzen dudana zera da: lehen departamentu bakoitza bere aldetik zebilen, bakoitza bere planekin eta ez genuen ia elkarren berririk; orain, berriz, proiektu estrategikoak denon artean lantzen ditugu eta aukera dagoen heinean partaidetza prozesuekin osatzen ditugu //

## LARRAMENDI AUZOKO URBANIZAZIOA: AUZO-GALDEKETA

Noiz

2012ko martxo-ekaina

Parte-hartzaileak

Batzarretan: 106 auzotar (47 emakumezko, 59 gizonetzko)  
Galdeketa: 1.027 auzotar (1.695etik, hau da, % 60,5)

hirigintza

herri-galdeketa



## TREBAKUNTZA PARTAIDETZA-PROZESUETAN ETA DINAMIZAZIOAN

Noiz

2013ko urtarrila-otsaila

Parte-hartzaileak

17 lagun (8 emakumezko, 9 gizonetzko)

trebakuntza



Larramendi auzoa Tolosaren iparraldean dago, eta hirigintzako berrikuntza-lanak egin behar zirenean, kalea lurraren azpian joatea zela-eta, bi alternatiba zeuden mahaiaren gainean, biak ere oso eragin desberdina zeukatenak auzoaren etorkizunean. Bietatik bat aukeratu beharra zegoen eta gaia bideratu, eta, horretarako, Tolosako Udalak parte hartzeko prozesua jarri zuen abian, amaieran auzo-galdeketaekin.

Talde Eragilea eratu zen, eta hurrenez hurren, pauso hauek eman zituen: hasteko, informazio ahalik eta zabalena eta objektiboena eman auzotarrei; ondoren, behar adina informazio eskatzeko eta emateko bideak jarri; eta, azkenik, bi proiektuak ezagututa, auzotarrek iritzia eman bozketa bidez. Kontsulta 2012ko ekainean egin zen, eta auzotarrak kalea lurperatzearen alde azaldu ziren.

Horrela, gaia itxiztat eman zen eta urbanizazioa orain ez da gatazka-gai; aginduta bezala, Udalak bere egin zuen galdeketaaren emaitza.

Udal-langileak giltzarriak dira udaletatik parte hartzeko prozesuak ongi antolatu eta kudeatzeko, baina batzuetan beharrezkoa da gaian trebakuntza eta behar bezalako baliabideak jartzea horien esku. Horregatik, Tolosako Udalak trebakuntza-saioak antolatu zituen langileentzat; horien bidez, ikusarazi nahi zien badaudela herritarrekin lan egiteko beste modu batzuk, eta partaidetzazko espazio eta prozesuak kalitatezkoak izan daitezen beharrezko irizpideak ikusi eta landu zituzten. Lanerako lehen oinarria jartzeko balio izan zuen, funtsezko ikuspegia finkatzeko.

# TOLOSALDEKO GARRAIO PUBLIKOA DENON ARTEAN ERAIKITZEN

Noiz

2012ko urria-abendua

## Parte-hartzaileak

Eskualdeko herrietako bileretan: 90 lagun (50 emakumezko, 40 gizonezko)

On-line galdetegiak: 43 lagun (28 emakumezko, 15 gizonezko)

Galdetegiak paperean: 7 lagun (6 emakumezko, 1 gizonezko)

Galdetegia autobusetan: 76 lagun (56 emakumezko, 20 gizonezko)

mugikortasuna



# TOLOSAKO ELKARTE GASTRONOMIKOekin BERDINTASUN-PLAN SEKTORIALA

Noiz

2012-2013

berdintasuna



**T**olosaldea eskualdean, herrigune nagusia edo burua Tolosa da eta inguru guztian herri txiki ugari daude, bueltan-bueltan. Horietara iristeko garraio bide publiko nagusiak trena eta autobusa dira. Autobus-zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa da, eta Garraio Sailak eskualderako zerbitzu berriaren proposamena egin zuen, Tolosaldean bizi zirenen garraio edo mugikortasuneko beharretara egokitzeko. Herritarren nahiak eta beharrak kontuan hartuko zirela bermatzeko, Tolosaldea Garatzenek, eskualdeko hainbat udalekin batera, parte hartzeko prozesu hau jarri zuen martxan. Horrela, bilerak egin zituzten 6 herritan, eta bestelako bideak ere jarri zituzten (inkesta on-line edo paperean) iradokizunak, proposamenak eta abar egiteko. Herritarren ekarpenak oso aberasgarriak izan ziren, proposamen zehatzak eta zuzenak egin zituzten, eta horiek guztiak Garraio Sailaren esku geratu ziren, ahal zen neurrian kontuan izateko.



**E**lkarre gastronomikoak, oro har, ezinbesteko eragileak dira herrietako dinamiketan (festak, kultur ekintzak...) eta herritar asko dira horietako kide; baina horietarako sarbidea batzuetan mugatu edo oztopatu egin izan zaie emakumeei, emakumeek batzuetan ezin dute parte hartu elkarre horien funtzionamenduan edo ekintzetan.

Tolosako Udalak emakumeen presentzia eta parte-hartzea bermatu nahi zuen Tolosako festa- eta kultura-jardueretan, aldaketa eragin, eta horretarako ezinbestekoa zen elkarre gastronomikoekin, emakume-taldeekin eta herritarrekin lan egitea, horietako bakoitza lan-ildo gisa hartuta eta koordinatuta. Proiektua abian jarri zen, Talde Eragilea sortuta, eta etorkizunean bereziki lan egingo dute elkarre gastronomikoekin: egoeraren diagnostikoa egingo da, eta 5 elkarre aukeratuta, horiekin batera emakumeen presentzia eta parte-hartzea bermatuko duen dekalogoia zehaztuko da.



# Zizurkil



**Azalera:** 15,4 km<sup>2</sup>

**Biztanleak:** 2.797, zizurkildarrak


**Udalbatzarraren osaera:**

**Bildu** (8), EAJ-PNV (2) eta PSE-EE (1)

[www.zizurkil.eu](http://www.zizurkil.eu)  
[www.zizurkil.com](http://www.zizurkil.com)

Parte-hartzearen ardura

**LEIRE ZUBELDIA DE ESTEBAN**  
(zinegotzia)



# ARMARRIA ALDATZEKO PROZESUA

Noiz

2012ko urtarrila-abendua

Parte-hartzaileak

300 lagun

herri-izaera



**H**erri bakoitzak dauka bere armari bereizgarria, eta Zizurkilgoan, lehen kanoi batzuk agertzen ziren marraztuta, Nafarroako konkistaren baitan, XVI. mendean, Belateko guda akordarazten zutenak; gipuzkoarrak, garai hartan, Gaztelako tropen ondoan ari ziren nafarren aurka, eta kanoi horiek gerra-sinboloak ziren. Beste



leku batzuetako armarrietan ere egon ziren (Gipuzkoakoan, adibidez), baina kendu egin zituzten, eta Zizurkil zen guda haren ikurra armarrarian zeukan bakarra.

Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena baliatuz, Hernandorena Kultur Taldeak, armariaren jatorria gizarteratu eta horren gaineko hausnarketa egitea proposatu zuen.

2012ko urtarrilean, *Sustrai*a aldizkarian, armariaren jatorria azaldu eta ondoko galdera hauek egin zituen: “Zizurkilgo armariak zizurkildarron balioak errepresentatzen al ditu? Ados al gaude gure armariak irudikatzen duenarekin?”. Horrela, hausnarketa-prozesu batera gonbidatu zituen herritarrak, eta hausnarketa horretan parte hartu nahi zutenak bilera batera deitu zituen eta han izan zen Udaleko ordezkaritza ere. 20 lagun inguruko taldea sortu zen bilkura horretan. Talde horrek Zizurkilek armaria aldatzeko nahikoa arrazoi bazegoela erabaki zuen, eta orduan abiatu zen parte hartzeko prozesua. Hasteko, armaria aldatzeko beharra gizarteratu egin zen, informazioa eman, eta ondoren armari berria egiteko irizpideak edo kontuan izan beharreko ideiak zehaztu zituzten (zerk egon beharko zuen armarrarian eta zerk ez); ondoren, irizpide edo ideia horietan oinarrituta, 10 zirriborro edo proposamen zehatz egin zituzten eta herriko festetan ikusgai jarri zituzten, guztien ekarpenak (eta ez botoak) jasotzeko (guztira 200 ekarpenetik gora jaso ziren); azkenik, horiek guztiak kontuan izanik, proposamen bakarra aurkeztu zuten eta 2012ko abenduaren 1ean Udalak armari berria onartu zuen. Bereziki azpimarratzekoa izan zen komunikazioan egindako lana.



## GURUTZE ASUABARRENA

“**H**erri txikietan gauza txikietan, baina fundamentuz.

Horrela bizi izan dut gure herrian, Zizurkilen, herriko armarría aldatzeko, egokitzeo prozesua. Nire ustez, honen inguruan aurten izan ditugun lanei buruzko aspekturik garrantzitsuena herritarrek parte hartzeko sortu dugun dinamika izan dela esango nuke.

Gure kultur taldean, Hernandorena Kultur Taldean, hain zuzen, horrelako ekintza ongi bideratzeko, herritarren parte-hartzeak ezinbestekoa izan behar zuela konbentziturik, hasieratik irmo ekin genion erraza ez zen lan horri.

Hasteko, Udal Taldeari eta alderdi politiko guztiei gure asmoari buruzko berria eta lortutako dokumentazioa ezagutarazi genien. Gero, armarrí berria diseinatzeo deialdia eginda, lan horretan aritu den talde zabal eta anitza sortu zen. Eta behin zirriborro guztiak lortuta, herritarrek horiei buruzko iritzia emateko aukera izan zuten, jai-giro ederrean. Ordura arte, hitzaldiak, bilerak, prozesua bultzatu eta arrazoitzeo nahian. Festa izan da azken emaitza eta prozesu guztia.

Ni oso pozik sentitu naiz. Merezi izan du. Demokrazia ez bada herritarren parte-hartzea, zer izango ote den! Hitz ustela eta faltsua //

## JOXIN AZKUE

“**K**ontua amaieratik hasita, txukuna eta dotorea geratu zaigu, bai, Zizurkilgo armarrí berria. Hain zuzen ere, hori genuen helburu eta xede horren atzetik eman genuen urtebete, luze bezain

oparo. Armarrí ofiziala kuestionatzeo abiatu ginen. Horren hausnarketak armarría deuseztatu beharrera eraman gintuen eta horren sokak beste armarrí berri baten sortze-prozesuan murgildu gintuen.

Orain, egindako ibilbidearen gogoeta egiterakoan, bidea besterik ez zena, ustekabeen, ia helburu nagusi bilakatu zitzaigula konturatu gara.

Gure ekarpena Zizurkilgo armarrí berria izan da. Baina beste emaitza izan dugu, armarría bezain garrantzitsua: horretarako egin dugun bidea, prozesua, alegia. Urrats guztiak talde ireki, zabal eta pluralean eman dira, pauso guztiak banaka-banaka adostuz, herriko adituen eta herritar anonimoen arteko zubiak eraikiz, kontsentsurako behar zen tempusa erabiliz... Ekimenaren sustatzaileek, politikoeo, dinamizatzaileek, artistek, herritar soilek... denek izan dute prozesuan eta erabakietan parte hartzeo uné propioa eta berezia. Horrela, guztiak partaide eta sortzaile sentitu dira eta emaitza, herriko armarrí berria, denek bere bezala gerizatu dute. Genioena: bitartekoa bera, emaitza //



# urola erdia



## Herriak (6)


Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil eta Zestoa

## Biztanleak

30.813 (gipuzkoarren % 4,34)

## Azalera

224,06 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 11,27)



**U**rola ibaiak zeharkatzen du, hegoaldetik Kantauri itsasoaren bila, eta ibaitik hartzen du izena eskualdeak. Urola Aizkorri mendiaren magalean jaio eta Zumaian itsasoratzen da, 57 kilometro egin ondoren, eta Errezil eta Beizama kenduta, eskualdeko beste herri guztietatik iragaten da.

Herri hauek eskualde handiago baten barruan ere azaltzen dira askotan, Urola Kosta izenekoaren baitan.

Herri nagusiak Azpeitia eta Azkoitia dira, bai biztanle-kopuruari dagokionez, baita erdigune ekonomikoak izateagatik ere, eta bien artean dago Loiola. Beizama da, berriz, Gipuzkoaren erdigune geografikoa.

Izarraitz eta Hernio dira eskualdeko mendirik garaienak, biak ere mila metro pasakoak.

Komunikazioei dagokienez, GI-631 errepidea Urolaren arrotik doa, Zumaiaetik Azkoitira eta handik Zumarragara; GI-2634 errepideak, berriz, Errezil, Azpeitia, Azkoitia eta Elgoibar lotzen ditu; GI-2635 errepideak, azkenik, Azpeitia eta Beasain elkartzen

ditu, Mandubiko gainetik. Garai batean trenaren erdian bazebilen eskualdean, Urola izenekoak, Zumarragatik Zumaiera, baina 1980ko hamarkadan zerbitzua kendu eta trenbidea deuseztatu egin zuten; Azpeitiko geltoki zaharrak Trenbidearen Euskal Museoa gordetzen du egun. Eskualdeko garraiobide publiko nagusia autobusa da, Lurraldebusen emandako zerbitzuarekin.

Garai batean lehen sektoreko jarduerak ziren nabarmenak eskualdean, baina industrializazioarekin, industrialde ugari ezarri dira herri gehienetan, eta bigarren sektorea da gaur egun nagusi. Azpeitian altzarigintza zen jarduera behinena, baina krisiak gogor astindu zuen XX. mendearen amaieran, baita metalurgia ere ondorengo urteetan. Herri txikietan, baserri-giroa da nagusi.

Herriak Urola Erdiko Mankomunitatean elkartzen dira.

Gipuzkoako eskualderik euskaldunenetakoa bat da.

Turismoari lotutako jarduerak garrantzi handikoak dira eskualdean, batez ere Loiolaren eta Zestoako bainuetxearen inguruan, lehengo oparotasunarekin ez bada ere ■

# Azkoitia



Azalera: 55,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 11.354, azkoitiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), EAJ-PNV (6), Azkoitia Bai (2)  
eta PSE-EE (1)

[www.azkoitikoudala.info](http://www.azkoitikoudala.info)

Parte-hartzearen ardura

**ESTHER LIZARRALDE MENDIZABAL**

**URRATEGI ALBERDI GARATE**

(zinegotziak)





# DANON HERRIXE

## Noiz

2012ko urria-2013ko otsaila

## Parte-hartzaileak

109 lagun (47 emakumezko, 62 gizonezko)

partaidetzako  
aurrekontuak



**E**gitasmo honen bidez, azkoitiarrek herri-ereduaz hitz egin zuten, hau da, azkoitiarrek nolako herria nahi zuten hausnartu eta proposatu, auzoz auzo eta arloka, baina galdera sakon eta gai potoloetan kateatu beharrean, azkoitiarrei eginkizun errazagoa eta zehatzagoa jarri zieten: auzoaren edo arloaren egoera aztertu ondoren, 2013. urteko aurrekontuetarako proposamen zehatzak egitea, nahi zuten herri-eredurantz urratsak egiten joateko. Horrela, auzoetan eta arloka hainbat bilera egin zituzten eta horietatik ateratako diagnostikoa eta proposamenak tailer batean landu zituzten, larunbat goiz batean, eta bertatik ateratako proposamenak, Udalean landu ondoren, berariaz sortu zen Aurrekontuen Lantaldere eraman eta aztertu zituzten; Lantaldea hauek osatu zuten: auzoetako eta arloetako ordezkariak eta Udaleko hautetsi eta teknikariak. Lantaldeak proposamen zehatzak egin zituen eta horiek 2013ko udal-aurrekontuetan integratu zituen Udal Gobernuak. Horrela, itxi egin zen ziklo osoa, hasieran Udaletik bultzatutako proiektua Udalak jaso zuen amaieran, eta herrian parte hartzeko oinarri garrantzitsua izan daitekeen tresna, “Danon herrixe”, martxan jarri zen.



Etorkizunerako erronka batzuk ere identifikatu zituzten, besteak beste: auzoak are gehiago dinamizatzea eta zaintzea, herritarren parte-hartzea zabaltzeko eta areagotzeko.



## ESTHER LARRAÑAGA DE LA TORRE

Hezkuntza,  
Lanbide Heziketa  
35 urte

**"N**iretzat Danon Herrixe partaidetza-prozesua oso interesgarria izan da. Egindako bileretan Azkoitiko auzo, elkarte edota bestelako herri-eragileen informazio zabala jasotzeko aukera izan da. Prozesua bera atsegina izanik, une oro, bertaratu garenon iritzi ezberdinak errespetatu dira eta horrek zintotasunez hitz egiteko foro egokia sortu du. Gehien jorratu diren gaiak komunak izan badira ere, norberak bere kezka adierazteko uneak egon dira. Lan honetan asko lagundu dute bileretan egindako talde-dinamikek.

Aurtengo udal-aurrekontuan, prozesutik irtendako hainbat ekarpen jaso dira; beraz, ikusten da elkarlanean egindako ahaleginak bere eragina izan duela. Prozesuaren lehen urratsa eman dela deritzot, eta orain erronka nagusia honen guztiaren jarraipenean datza, eta horrek Udal Gobernuaren eta herritarren konpromisoa indartzea dakar //



## ASIER ARANBERRI LARREATEGI

Arkitekto teknikoa  
38 urte

**"A**zkoitiko Udala partaidetza-prozesu bat abian jartzekoa zela jakin nuenean, ideiak erakarri egin ninduen.

Aberasgarria izan da horrelako ekimen batean parte hartu izana; herritarrok, oro har, galdeketa-prozesuei erantzuten ohituak ez gauden arren.

Partaideoi hainbat galdera zuzen eta zehatz egin zizkiguten, lan-esparru eta kokapen desberdinetako herritarroi. Bakoitzak bere erantzunak eman zituen eta guztion artean baloratu eta sailkatu egin genituen.

Azpirarratzekoa da arlo desberdinetako lantaldeetan lan egin genuenean, herrian sumatu gabeko hainbat arazoren berri jakin nuela. Aukera izan nuen eguneroko bizigunetik kanpo gelditzen zaizkidan auzoetako herritarren eskabideak ezagutzeko.

Herritarren partaidetza beharrezkoa ikusten dut herri-kudeaketa hobetzeko. Horrelako prozesu batek herri-garapenean partaide izanaren sentimendua uzten dizu, banakako iritzia kontuan hartzen dutelako sentsazioa, eta ez zure iritzia lau urtetik behin mugatzen denarena //

# AZKOITIKO UDALA HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN INGURUKO SISTEMA ERAIKITZEN

Noiz

2012ko urria-2013ko urtarrila

Parte-hartzaileak

16 lagun (9 emakumezko, 7 gizonezko)

parte hartzeko  
sistema



**A**zkoitiko Udalak parte-hartzearen inguruan etorkizuneko iparra, estrategia orokorra eta bateratua definitzea izan zen egitasmoaren helburu nagusia, gero parte-hartzea gidatu eta dinamizatu behar dutenek aurreikustea zein ziren partaidetzazko lehentasunezko eremuak, horietan gauzatu behar ziren egitasmoak zehaztea eta herritarren parte-hartzea gidatu behar zutenak nola koordinatuko ziren antolatzea. Horretarako, hasteko, hainbat saio egin zituzten plangintza definitzeko, eta, ondoren, sektorerako trebakuntza-saioak egin zituzten.

Prozesuak aukera eman zuen teknikariak eta hautetsiak aldi berean denak elkarrekin lanean jartzeko, eta horrek motibazioa areagotu egin zuen. Balorazioan, udal-teknikariek langai zehatzagoak edo praktikoagoak eskatu zituzten, gai abstraktu edo sakonetan hainbeste murgildu gabe.





# Azpeitia



Azalera: 69,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 14.351, azpeitiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (11), EAJ-PNV (5)

eta Hamaikabat (1)

Parte-hartzearen ardura

**ENEKO ETXEBERRIA BEREZIARTUA**

(alkatea)



[www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net)



# ALDE ZAHARRA BIZIBERRITZEKO PROIEKTUA

Noiz

2012ko maiatza-ekaina

Parte-hartzaileak

143 lagun

hirigintza



**H**erri handi askotan izaten dira auzo edo gune batzuk lehengo bizitasuna galdu egin dutenak, batik bat, alde zaharrak, eta horiek biziberritzeko egitasmo edo plan bereziak jarri ohi dira martxan. Azpeitiko Udalak berreskuratu egin nahi zuen Alde Zaharra, azpeitiarrentzat erakargarria eta bizilagunentzat eroso izango zen gunea izateko, jarduera komunitarioa, aktibitate sortzailea edota ekonomikoa bultzatuko zituena.

Partaidetzazko prozesua gauzatzeko, zortzi batzar egin ziren, bilera bat eragile-talde bakoitzarekin (bizilagunak, merkataria, jubilatuen elkarteak, gazteak, kultur mahaia, emakume-txokoa, tabernariak eta baserritarrak), eta gero eragile guztien ordezkariak batzar orokor batean elkartu ziren, prozesuaren ondorio orokorrak aurkezteko. Batzarretan, Udal Gobernuak Alde Zaharra biziberritzeko ikusten zituen beharrezko elementuak aurkeztu zituen, eta horren gaineko ekarpen zehatzak jasotzea ez ezik, eragileen konpromisoa ere lortu zuten Alde Zaharra biziberritzearen alde lan egiteko, Alde Zaharra Biziberritzeko Mahaia eratu baitzen. Ekarpene edo ekintza zehatz batzuetan, eragileak elkarlanean arituko dira horiek gauzatzeko,

eta beste batzuk Udalak kudeatu eta gauzatu ditu (lurzorua garbitzea, argiztapena hobetzea, tabernetako toloak eta terrazak...).

Biziberritzearen gaia urte askotako aldarrikapena zen, baina aspaldian etsipenean erorita zegoen; nahikoa izan zen elkarlanerako gune bat ematea ilusioa berpiztu eta inplikazioa areagotzeko. Halaber, prozesuaren emaitzetako bat izan zen Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak sortzea. Prozesuan ez zen asmatu etorkinak integratzen, kolektibo handia izanik auzoan, baina Mahaian gaia landu zen eta etorkizunean etorkinek ere parte hartzeko neurriak proposatu zituzten.





# DENON ARTEAN

Noiz

2011ko abendua-2012ko otsaila

Parte-hartzaileak

700 herritar baino gehiago

partaidetzazko  
aurrekontuak



**2** 012ko aurrekontuak osatzeko, Azpeitiko Udalak herritarren ahotsa eta iritzia kontuan izan nahi zituen, eta udal-aurrekontuek azpeitiarren beharrei erantzutea. Horretarako, partaidetzazko aurrekontuak lantzeko prozesua jarri zuen abian eta hainbat gune eratu zituen lanerako eta proiektua aurrera eramateko: Talde Motorra, Udal Gobernuko zinegotzien bilera, Udaleko batzardeak,



Herri Kontseilua eta, azkenik, auzo eta arloetako batzarrak (guztira 26), non ikuspegi orokorra galdu gabe, eremu bakoitzeko ekarpenak jaso ziren.

Oro har, batzarretan diru-kontuak eta asmoak gardentasunez azaldu eta eztabaidatu zituzten, baita herritarren ekarpenak bildu ere (200 proposamen baino gehiago), ahal zen neurrian aurrekontuetan txertatzeko edo etorkizunean kontuan izateko. Prozesuaren amaieran, Udalbatzak onartu egin zituen 2012rako aurrekontuak, baina, horrez gain, Azpeitiko Udalaren egituraren parte-hartzeari zuzendutako gune edo egitura berri iraunkorrak txertatu zituzten (adibidez, auzo-alkateak). Partaidetzazko prozesuak lantzeko, komunikazio-plangintzak berebiziko garrantzia izan zuen, batez ere gardentasuna bermatu nahi zelako.



# HONDAKINEN INGURUKO PARTE HARTZEKO PROZESUA

Noiz

2012ko maiatza

Parte-hartzaileak

Batzarretan: 300 lagun

Ikastaroetan: 357 famili ordezkari

garapen  
iraunkorra



**B**este hainbat udal bezala, Azpeitiko ere jakitun da hondakinak beste era batera kudeatu beharra dagoela etorkizunean eta horretarako lehen urratsak eman zituen parte hartzeko prozesu honen bidez.

Gaur egungo sistemak hainbat gabezia dauzka eta arazo asko eragiten ditu, eta beharrezkoa izango da hondakinak murriztea eta birziklapenean aurrerapausoak ematea, herritarrekin batera. Partaidetzazko prozesu honen bidez, Azpeitia 5 gunetan banatu zuten, eta horietako bakoitzean batzarrak egin zituzten; batzarretan, hasteko, arazoa kokatu eta Udalak egin nahi zuen bidearen inguruko oinarrizko azalpenak eman zituzten udal-ordezkariek, eta, segidan, herritarrei hitza eman zieten, eztabaidarako eta kezak argitzeko, gaiaren inguruan suma zitekeen ezinegona baretzeko; batzarretan izan zen tentsioa, baina baretu eta guztiak jarrera baikorarekin amaitu ziren.

Batzarren ondoren, herritar batzuek beste urrats bat egin nahi izan zuten aurrera eta sei ikastaro antolatu zituen Udalak hondakin organikoak bereizten ikasteko; halaber, 5. edukiontzia erabiltzeko giltzak banatu zituen. Horrela, hondakinaren gaiaren oinarrizko printzipioak bildu zituen adostasun zabala lortu zen.



Hala ere, baloratu zen etorkizunean hondakinaren kudeaketa berri bateranzko pausoak eman nahi badira, batzarrez eta ikastaroez gain, bestelako baliabideak ere beharko direla herritar guztiengana iristeko.

# AZPEITIAN IKASTETXEAK ERE HONDAKINEN INGURUAN LANEAN ERA ERAGINKORREAN PARTE HARTUZ

Noiz  
2012ko iraila-2013ko ekaina

garapen  
iraunkorra



**H**ondakinen gaia hezkuntza-komunitatean lantzea oso garrantzitsua da, ikasleak, etorkizuneko azpeitiar helduak, gaiaz kontzientziatzeko, egoeraren diagnostikoa egiteko, konpromisoak hartzeko eta Udalari proposamen zehatzak egiteko. Ikastetxe bakoitzean

Ingurumen Batzordea eratu zen, eta denak koordinatu egin ziren herri-mailako hainbat foro eta organotan. Hobetzekoetan, bereziki aipatu zen komunikazioaren atala, ikastetxeek egindako lana sarritan ikastetxe barruan geratzen delako eta ez duelako izaten oihartzunik kanpoan.





# Zestoa



Azalera: 43,7 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 3.655, zestoarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (4)

[www.zestoa.net](http://www.zestoa.net)



Parte-hartzearen ardura

**LEIRE ETXEBERRIA LIZARRALDE**

(alkatea)





# ZEKORKETEI BURUZKO ESKAERA

kultura

herri-galdeketak

Noiz

2012ko martxo-ekaina

Parte-hartzaileak

Egiturretan (Lan Mahaia, Kultura Batzordea, Udal Lantaldea eta batzar informatiboak) 49 lagun (25 emakumezko, 24 gizonezko) Eskaera jasotzeko egunean: 1.527 herritar



**Z**estoan zekorketak izaten dira urtero, festen barruan, eta azkenaldian horren aurkako iritziak areagotu egin ziren, horrelakorik ez antolatzeko eskatzeko Udalari; horregatik, Zestoako Udalak, zestoarren iritzia jakiteko,



parte hartzeko prozesu hau gauzatu zuen, Eskaera Eskubidearen formula erabilia.

Prozesuaren amaieran, iritzia adierazi ahal izan zuten zestoarrek, baina aurretik lan handia egin zen zekorketen aldeko eta aurkako jarrerak eta arrazoiak azaltzeko, herritarren artean hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko, galdeketa-prozesua herritarrekin batera lantzeko eta kudeatzeko... Herritar gehienek (963) zekorketekin jarraitzeko nahia adierazi zuten, eta gutxiago izan ziren (542) zekorketak ez antolatzeko nahia adierazi zutenak.

Balorazioari dagokionez, ondorioetako bat izan zen honelako prozesuek badauzkatela arriskuak, eta muturreko jarrerak edo liskarrak ager daitezkeela; izan ere, edozein gairen gainean hitz egin eta eztabaidatu ahal izateko, lehenago besteen iritziak ulertzen, onartzen, errespetatzen eta negoziatzen ikasi beharra dago. Bestalde, oso positiboa izan zen parte-hartzea, eta egiaztatu zen herritarrek prest daudela iritzia emateko. Azkenik, azpimarratzekoa izan zen prozesua garbia eta gardena izateko Udalak egindako ahalegina eta hartutako neurriak.

# Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza

[www.gipuzkoaherritarrekin.net](http://www.gipuzkoaherritarrekin.net)



**ARANTZA RUIZ DE LARRINAGA OLAIZOLA**

Herritarren Partaidetzarako zuzendaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia

# 1. HERRITARREKIN SAREA

## Noiz

2012ko urtarrila-martxo

## Parte-hartzaileak

Gonbidatuta zeuden Gipuzkoako udal guztiak (88), eta saioetan 40k hartu zuten parte, guztira 69 lagunek



**2**011. urtearen amaieran, Gipuzkoako Foru Aldundiak asmoa azaldu zuen Gipuzkoan **parte-hartzea bultzatzeko** eta sustatzeko **udalen arteko sarea** edo gunea artikulatzeko. Sare horren bidez, herritarrek zuzenean parte hartzeko daukaten gaitasuna indartu nahi zuen Aldundiak, eta parte-hartze hori udalen bidez ere izatea, hau da, herritarrengandik gertuen dauden instituzioen bitartez. Horrela, sare horren zenbait ezaugarri zehaztu ere egin zituen Aldundiak; besteak beste, sareak balio behar zuen udalek beraien artean eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere koordinatzeko eta elkarrekin jarduteko, egindako esperientziak sistematizatzeko, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko, eta 2012an sare iraunkorra eta eraginkorra ehuntzea aurreikusten zuen Aldundiak.

2011ko abenduan **abian jarri zen sarea eratzeko prozesua**. Aurrelanak egin ondoren (Taldea Eragilea eta Teknikoa sortu, prozesuaren xehetasunak zehaztu...), aurkezpen-bilera egin zen Ordizian, eta, harrezkero, 2012ko urtarriletik martxora bitartean egin ziren 3 tailerretan, hurrenez hurren hauek landu genituen: Gipuzkoako parte-hartzearen diagnostikoa eta sarearen ezaugarriak, sarearen plangintza (ekintza eta guzti) eta hori gauzatu ahal izateko antolaera. Hiru tailerrotan Gipuzkoako

hainbat alkate, zinegotzi, laguntzaile eta teknikarik hartu zuten parte.

## Lehen tailerra

Lehenengo lana taldea osatzea izan zen; horretarako, elkarrekin lan egiteko balioak finkatu genituen, taldeko kideen asmoak eta espektatibak ezagutu genituen eta prozesuaren ezaugarri eta helburuekin erkatu genituen. Horiez gain, parte-hartzean taldekideek zeuzkaten esperientziak ezagutu genituen. Horrela, pertsona bezala bakoitzaren posizionamendua indartu egin genuen, bai prozesuan, baita taldean ere. Ondoren, diagnostikoa landu genuen, hainbat dinamika erabilia, eta parte-hartzearekin erlazioatutako alderdi batzuk jorratu genituen: ikuspegiak, esperientziak, praktikak, arazoak, premiak, gaitasunak, baliabideak...

## Bigarren tailerra

Lehen tailerreko diagnostikotik abiatuta, legegintzaldiko ikuspegiarekin Sarearen plangintza estrategikoa landu genuen. Plangintza horretan sarearen helburuak eta ezaugarriak definitu genituen, ikuspegi bateratua, estrategiak, erronkak eta lan-



ildoak. Sareko elementu bakoitza aztertu eta erabaki genuen, baita Sarerako beharrezkoak ziren tresna edo baliabideak ere.

## Hirugarren tailerra

Bigarren tailerrean adostutako plangintza garatzeko antolamendua eta funtzionamendua zehaztu genituen. Besteak beste, honelakoak zehaztu genituen: sarea nola egituratuko zen eta nola funtzionatuko zuen, bakoitzak sarearekiko izango zuen konpromiso-maila, sortuko ziren tresnen funtzionamendua... Amaieran, sarea martxan jartzeko urratsak zehaztu genituen eta prozesu osoaren balorazioa egin genuen.



## Sarean landutakoa: abiapuntu diagnostikoa legegintzaldi hasieran

### Helburuak

Udal gehien-gehienentzat **parte-hartzea lan-ildo garrantzitsua** eta estrategikoa da, erronka nagusi gisa identifikatzen dute.

Parte-hartzea sustatzeko **borondate politikoa** nabarmena da. Hala ere, orokorrean **ez dago oso argi nola** egingo den hori, ez baitago plangintzarik. Udalek laguntza behar dute parte-hartzea sustatzeko lanetan eman beharreko pausoak zehazteko. Ezagutza falta da, eta udaletan gaiaren inguruan hausnartzea, eztabaidatzea eta erabakiak hartzea.

Udal guztiek daukate **helburu orokorrak zehaztuta**. Besteak beste, honelako helburuak dira: herritarren eta udalen arteko elkarlana, auzolana, herrigintza; herritarrek aktibatu, indartu, herri-mugimendua sustatu; gardentasuna herritarren aurrean; herritarrekiko gertutasuna; herritarrekiko komunikazioa indartu; lan egiteko moduak aldatu eta parte-hartzean oinarritu...

### Beharrak

**Parte-hartzea sustatzeko borondate politiko handia** dago eta horrelaxe adierazten dute udal guztiek, baina hutsune edo **gabezia nabarmenak** ageri dira udal gehienetan. Oro har, beharrak identifikatzean **bat datoz udal gehienak**: baliabide teknikoak (gidak, materialak...), baliabide ekonomikoak (dirua eta diru-laguntzak), baliabide pertsonalak (aholkularitza, bideratzaile eta dinamizatzaileak, herritar dinamizatzaileak, teknikaria...), trebakuntza (ezagutza, metodologia, dinamizazio-teknikak...), informaziorako eta komunikaziorako kanalak...

## Hainbat ondorio

Euskal Herrian, oro har, eta Gipuzkoan ere bai, betidanik egon da parte hartzeko eta auzolanerako tradizioa. Herri txiki askotan gaur egunera arte iraun du, baina ez hainbeste herri handietan. Hala ere, auzolanerako tradizio hori ez da udalgintzan horrenbeste bultzatu eta orain arte ez da aukera handiegirik egon herritarrek parte hartzeko.

Herri txiki eta handietan egoera ez da berdina, eta premiak ere desberdinak dira. Baina 2011ko udal- eta foru-hauteskundeen ondoren, **inoiz egon den borondate politikorik handiena dago parte-hartzea sustatu edo bultzatzeko**. Horren erakusle, herri askotan berariaz jaso izana asmo hori herri-programetan; hurrengo lau urteetarako plangintzetan ere adierazi dira parte-hartzearen helburuak, baita bera bultzatuko eta sustatuko dela ere, eta batzuetan diru-partidak ere zehaztu dira 2012ko aurrekontuetan asmo horiek gauzatzen hasteko, herri txikietan izan ezik, horietan zaila baita diru-partidak jartzea parte-hartzea bultzatzeko.

Diru-partidei dagokienez, batzuetan gertatu da **diru-partidak** lehenago ezartzea parte hartzeko helburuak baino, eta alderantziz izan beharko luke. Halaber, parte hartzeko aurrekontu batzuetan Parte Hartzeko sailerako bakarrik ezarri dira, eta eremu zabalagoa hartu beharko lukete; izan ere, beste sailek ere parte-hartzearekin landu nahi dituzten ekintzak pentsatu beharko litzukete.

Bereziki azpimarratu beharra dago **elkarteen eta erakundeen lana**. Elkarateak gizarte-eragileak dira, eta horregatik garrantzitsua da **elkarteen erregistroa** eguneratua edukitzea, batez ere herri ertain eta handietan. Ez da lan erraza, denbora eskatzen duelako, baina aintzat hartu beharko litzateke horien lana, aitortu eta lagundu. Elkarteen inplikazioa landu beharko litzateke.

Arlo guztiek elkarren berri izan behar dute eta **komunikazioa eta informazioa** ezinbestekoa da. Udal barrura eta kanpora begira parte-hartzearen inguruko heziketa-lan handia egin behar da eta horren garrantziaz kontzientziatu behar dugu.

Borondatea ona da eta asmoak garbiak, herri askotan hasi dira parte-hartzea sustatzen eta parte hartzeko prozesuak gauzatzen eta pausoz pauso aurrera egiten ari dira, baina **hainbat hutsune edo zailtasun** sumatzen dira. Herritarrak udaletara gerturatu nahi ditugu, udalak herritarrengana, beraiek erabakitzeko aukera izan dezaten. Martxan gaude, baina orain **nola** egin behar den da gakorik garrantzitsuenak.

Udal gehienetan **ez dago behar bezalako baliabide edo tresnarik**, batik bat herri txikietan. Herri handienetan badaude parte hartzeko sailak edo teknikariak, baina herri gehienetan ez dago parte-hartzeaz arduratzeko teknikaririk, edo baldin badago, beste arduraren batekin konpartitzen. Hala ere, herri txikietarako ondo legoke teknikari bat kontratatu eta konpartitzea.

**Trebakuntzaren premia** nabarmena da (udal barrura zein kanpora begira), parte-hartzea nola bultzatu daitekeen jakiteko. Gai hau hezkuntzan ere landu beharko litzateke.

Udal gehienetako gobernuan **parte hartzearen arduraduna** dute eta horietatik askotan parte hartzeko batzordea ere badute martxan.

**Informazioaren kudeaketa** oso garrantzitsua da; herritarrak aktibatu nahi baditugu, informazioa jarri behar dugu beraien esku eta parte-hartzearen garrantzia transmititu. Martxan jarri diren esperientzietan ikusi dugu hori zaintzen ari dela eta praktikan jartzeko konpromisoa dagoela.

Parte-hartzea ezartzen hasi aurretik garrantzitsua da **planifikazioa**: helburuak, metodologia, konpromiso politikoa eta teknikoak, parte-hartzaileak, baliabide ekonomikoak eta

perstonalak, barne-lanak, prozesuaren emaitzen itzulera herritarrei eta parte-hartzaileei nola egin eta azkenik prozesuaren ebaluazioa.

Udalaren eta herritarren arteko distantzia laburtu nahi badugu, **kultura berri bat sortu behar da** eta, horretarako, udalaren orain arteko **rola** gainditu behar dugu eta hausnartu beharra dago parte hartzeko prozesuetan bakoitzari dagokion rol edo paperaren inguruan: zer dagokion udalari, zer herritarrari... Hona hemen udalen rola definitzeko zenbait hitz: bitartekaria, bideratzailea, laguntzailea, gonbidatzailea, sustatzailea, erraztatzailea, gidaria... Herritarren rola definitzeko, berriz, honelako hitzak azaldu dira: kontzientea, eskatzailea, kexatia, ikusleak, zelatan, laguntzaileak, aktiboa, espektantea...

Garrantzitsua da **parte-hartzea sustatzeko gakoak identifikatzea** eta abian jartzen diren prozesuetarako kontuan izatea, bermatzea eta espektatiba faltsurik ez sortzea. Gardentasuna da helburua eta horretarako ditugun mugak ezagutu behar ditugu eta argi adierazi. Zerbait martxan jarri aurretik planifikatzea garrantzitsua da, baina malgutasuna ere behar da.

**Parte hartzeko esperientziak egin, egin dira**, baina ez dago horren berri, **ez dago horiek trukatzeko edo horien berri izateko gunerik** orain arte eta Sareak hori kontuan hartu beharko luke.

**Herriaren tamaina oso kontuan izan** behar da parte-hartzea bultzatzeko orduan, indargune, hutsune eta behar desberdinak baititu bakoitzak.

**Hizkuntzaren tratamenduari** dagokionez, beharrezkoa da hizkuntzak ere kudeatzea, hor daudela aintzat hartzea, baina betiere euskarari lehentasuna eman behar zaio; horretarako, hainbat estrategia erabil daitezke (dokumentua hizkuntza batean eta azalpenak bestean, aldi bereko itzulpena belarrira...). Parte hartzeko prozesuetan euskara zaintzen da,

eta garrantzitsua da hori modu kontzientean planifikatzea edozein prozesu hasi baino lehen.

Orain arte, parte hartzeko esperientzietan **gizon eta emakumeen presentzia** nahiko orekatuta dago, baina gehienetan **ez da berdintasuna lortzeko estrategia edo neurririk jartzen**, ez da bereziki lantzen edo aurreikusten. Gaien arabera ere desberdina izaten da batzuen eta besteen parte-hartzea. Emakumeen presentzia gero eta handiagoa da, baina bileretan, normalean, gizonekoek gehiagotan hartzen dute hitza. Parte hartzeko prozesuetan, emakumeen presentzia areagotzeko, kontuan izan behar dira zenbait alderdi (ordutegia, kokalekua...), baita berariazko erraztasunak eman ere (adibidez, haurtzaindegi-zerbitzua).

Parte-hartzaileen **adinari dagokionez**, ikusten da askotan adinen arteko komunikazioa falta dela eta gazteak erakartzea zaila dela. Batez ere helduek hartzen dute parte, eta gazteek gutxi. Beharrezkoa da adinaren araberrako parte hartzeko tresnak identifikatzea.

Azkenik, parte hartzeko prozesuetan normalean ez da sustatzen berariaz **jatorri desberdinetako herritarren parte-hartzea** eta ez dago irizpiderik horren gainean. Estrategiak definitu eta kudeatu behar dira horiek ere parte har dezaten.

## Sarea zertarako

- Elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko, esperientziak partekatzeko (jakintza, metodologia, akatsak praktika onak, balorazioak), ezagutza sortzeko, geure buruarekin konfiantza hartzeko eta konplexuak gainditzeko.
- Trebakuntza jasotzeko eta emateko, teknikariek zein politikariek.
- Prozesuak elkarrekin lantzeko: planifikatu, segimendua egin eta baloratzeko.





- Parte hartzeko ikuspegia eta kontzeptuak lantzeko eta barneratzeko.
- Informazioa eta ezagutza kudeatzeko, partekatzeko.
- Aholkularitza eta laguntza jasotzeko eta emateko: zalantzak argitzeko, laguntza eman eta jasotzeko, babesa emateko eta jasotzeko...
- Harremanak sortzeko eta errazteko, pertsonen eta udalen artean, instituzio eta herri-eragileen artean; elkar ezagutzeko.
- Parte-hartzean akuilu-lanak egin eta kultura hori sortzen eragiteko: partaidetzaren kultura sortzeko eta zabaltzeko, herrigintza eta ehun soziala indartzeko, parte-hartzea sustatzeko, parte hartzeko dinamikak aktibatuz, besteentzat eredu izateko...
- Gipuzkoa egituratzen laguntzeko, bisioarekin: Gipuzkoa auzolanean egiteko, proiektu partekatua gauzatzeko...
- Gure herri-eredua ikusarazteko, Gipuzkoa mailan nahiz Gipuzkoatik kanpo gure esperientziak zabaltzeko eta ezagutzera emateko.

### Sarearen balioak eta ezaugarriak

- Sareak izan behar du erabiltzeko erraza edota baliagarria.
- Sareak izan behar du **eraginkorra** edota optimizatu, parte-hartzeari dagozkion helburuak lortzen laguntzen duena.
- Sareak izan behar du **dinamikoa**, indartsua eta bizkorra, moldagarria.
- Sareak balio behar du **lurralde-ikuspegia lantzeko**, eskualdekoa zein herrialdekoa, baina herrien tamaina aintzat hartuta.
- Sareak izan behar du **horizontala**, sarekide guztiak maila berean dituen, eta **ekitatiboa** edo bidezkoa, herri bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen dituen.
- Sareak izan behar du **doakoa** (herriei kostu ekonomikorik ez eragitea).
- Sareak izan behar du **gertukoa**.
- Sareak **parte-hartzea** aintzat hartu behar du bere baitan.

## 2. SAREAREN DINAMIKA 2012KO APIRILA-2013KO EKAINA

### KATEA

Egindako bilerak  
12

#### Bilerak non

Donostian (Foru Aldundian eta Udaletxean), Lasarte-Orian, Urretxun, Albizturren, Tolosan, Mutrikun eta Antzuolan

Sarearen **koordinazio-taldea** da Katea.

2012ko martxoan hasita, Sarea osatzean landutako jarduera-planaren segimenduaz eta bertan zehaztutako ekintzak planifikatu eta antolatzeaz arduratu da:

- Trebakuntza
- Berriazko lantaldeak
- Tamainako lantaldeak
- Topaketak
- Komunikazioa
- Webguneari segimendua



### TAMAINAKO LANTALDEAK

#### Noiz

2012ko ekaina-abendua

#### Parte-hartzaileak

Gonbidatuta zeuden Gipuzkoako udal guztiak (88), eta saioetan 41ek hartu zuten parte

2012an, Gipuzkoako udalerrriak herritarrekin batera gidatzeko herritarren parte-hartzea nola egituratuko genuen aztertzeko eta zehazteko (parte hartzeko sistema/eredua) prozesua martxan jarri genuen, ekainetik abendura bitartean. Prozesua 4 azpiprozesutan banatu genuen, herrien tamainen arabera. Gipuzkoa 88 herriz osatuta dago, eta horietatik erdiak baino gehiago herri txikiak dira (3.500 biztanle edo gutxiagokoak).

#### • Herri txikiak (1.000 biztanle arte)

Parte hartu zuten herriak: 17.

Aduna, Mutiloa, Arama, Zerain, Itsasondo, Abaltzisketa, Albiztur, Altzo, Orendain, Gaintza, Ezkio-Itsaso, Gaztelu, Hernialde, Alkiza, Berrobi, Baliarrain eta Ikaztegieta.

Egindako saioak: 6.

Saioak non: Araman, Albizturren, Zerainen, Abaltzisketan eta Itsasondon.

Herri txikietako parte hartzeko sistema landu zuten.



• **Herri txiki-ertainak (3.500 biztanle arte)**

Parte hartu duten herriak: 9.

Zaldibia, Zizurkil, Irura, Getaria, Antzuola, Ormaiztegi, Anoeta, Asteasu eta Segura.

Egindako saioak: 5.

Saioak non: Iruran, Zizurkilen, Zaldibian, Asteasun eta Ormaiztegin.

Herri txiki-ertainetako parte hartzeko sistema landu zuten.

• **Herri ertainak (3.500-10.000 biztanle artean)**

Parte hartu duten herriak: 8.

Urretxu, Zumaia, Usurbil, Mutriku, Deba, Villabona, Legazpi eta Ordizia.

Egindako saioak: 5

Saioak non: Zumaian, Usurbilen, Ordizian, Urretxun eta Legazpin.

Herri ertainen parte hartzeko sistema landu zuten.

• **Herri handiak (10.000 biztanletik gora)**

Parte hartu duten herriak: 7.

Donostia, Tolosa, Azkoitia, Beasain, Zarautz, Lasarte-Oria eta Errenteria.

Egindako saioak: 5.

Saioak non: Lasarte-Orian.

Herri handien parte hartzeko sistema landu zuten.





2013an, tamainaren arabera 3 lantalde osatu ditugu, herri txikiak eta txiki-ertainak elkartuta, hau da, 4.000 biztanle azpitik dituzten herri guztiak. Herri ertainak 4.001-10.000 biztanle artekoak dira eta handiak 10.000 biztanle baino gehiago dituztenak.

Otsailean Hernanin egindako topaketaren ondoren ekin diote lan-dinamikari taldeek, hirurak martxan daude eta urte osoan lan egitea aurreikusten dute. Herri berriak etorri dira taldeetara. Lantzeko gaiak beraiek aukeratu dituzte eta talde bakoitzak landutakoa sozializatzeko, urtarilean Sarearen laugarren topaketa egitea aurreikusten dugu.

#### • Herri txikiak (4.000 biztanle arte)

Egindako saioak: 2, eta beste 3 saio falta dira.

Saio monografikoak egiten ari dira:

- Gazteen parte-hartzea
- Herri-batzarrak
- Auzolana

#### • Herri ertainak (4.001 eta 10.000 biztanle artean)

Egindako saioak: 2, eta beste 2 saio falta dira.

Parte hartzeko diskurtsoa lantzen ari dira.

#### • Herri handiak (10.000 biztanletik gora)

Egindako saioak: 3, eta 2 falta dira.

Funtzionamendu zein harremanen arloan sakontzea, irizpide-proposamen-egitasmo posibleak lantzeko.

## AHOLKULARITZA HERRI TXIKIEI

### Noiz

2012ko ekaina-abendua

### Parte-hartzaileak

4 herri



Herri txikiek zailtasun ekonomikoak dituzte aholkularitza-zerbitzuak kontratatzeko; hori dela-eta, aholkularitza-zerbitzua eskaini genien Gipuzkoako Foru Aldunditik.

### Herria: Albiztur

Zertan: parte-hartzearen inguruko herritarren balorazioa (galdetegia).

### Herria: Zerain

Zertan: Auzolanaren herri-proiektua iraunkortzeko eta egokitzeko prozesuaren diseinua.

### Herria: Mutiloa

Zertan: Agenda 21a (Herri Plana) sendotzeko prozesuaren diseinua (parte hartzeko egiturak sortu).

### Herria: Orendain

Zertan: Agenda 21a (Herri Plana) sendotzeko prozesuaren diseinua (parte hartzeko egiturak sortu).

## BERARIAZKO LANTALDEAK

### Hondakinak

#### Noiz

2012ko apirila-ekaina

#### Parte-hartzaileak

Gipuzkoako herri guztiei irekia, bereziki gonbidatuta 2012an gaia herrian lantzeko asmoa zuten udalak, eta horietatik 18k parte hartu zuten (28 lagun)

11 herri modu iraunkorrean, txikiena 345 biztanlekoa eta handiena 22.000 biztanlekoa.

Hondakinen parte hartzeko prozesuak elkarrekin prestatzeko, berariazko lantalde bat sortu zen. Bost saiotan parte hartzeko prozesua landu zuten.

Bilerak: Astigarragan, Legazpin, Ormaiztegin, Lezon eta Zarautzen.

Herriak: Altzo, Azkoitia, Asteasu, Astigarraga, Berrobi, Irura, Legazpi, Lezo, Mutiloa, Ordizia, Orendain, Ormaiztegi, Pasaia, Segura, Tolosa, Villabona-Amasa, Zarautz eta Zizurkil.

### Partaidetzazko aurrekontuak

#### Noiz

2012ko ekaina-2012ko urria

#### Parte-hartzaileak

Gipuzkoako herri guztiei irekia, eta bereziki gonbidatuta 2012an gaia herrian lantzeko asmoa zutenak. Horietatik 14k parte hartu zuten

Herriak: Usurbil, Eskoriatza, Segura, Ormaiztegi, Legazpi, Hernani, Beasain, Arrasate, Zarautz, Anoeta, Urnieta, Zizurkil, Urretxu eta Aretxabaleta.

Berariazko lantaldean, 4 saiotan, partaidetzazko aurrekontuen prozesua landu zuten:

- Partaidetzazko aurrekontuen oinarritzko printzipioak, estrategiak eta tresnak aztertzea.
- Ikastaroan parte hartuko zuten pertsonak motibatzea partaidetzazko aurrekontuak bultzatzeko.
- Herritarrak ahalmentzeko prozesuetan erakundeek izan behar duten rola zehaztea, gure errealitatera egokituko diren tresnak aztertzea, norabide politiko eta filosofiko sendoa bermatzea.

Bilerak: Donostian (Foru Aldundian eta Udaletxean), Seguran eta Eskoriatzan (saio bikoitza, goiz-arratsaldekoa).

Gida landuta dago.

## TREBAKUNTZA

Oinarrizko bi ikastaro antolatu genituen 2012an, bat uda aurretik eta bestea uda ondoren.

Uda aurretik, **Albizurren** 20 ordukoa.

### Noiz

2012ko ekaina-uztaila

### Parte-hartzaileak

Gipuzkoako 16 herritako ordezkariak, 20 lagun



Helburuak:

- Herritarren parte-hartzearen inguruko oinarrizko eduki teoriko eta filosofikoak, printzipioak, estrategiak eta tresnak ezagutzera, norabide politiko eta filosofiko sendoa bermatzeko.
- Herritarrak ahalmentzeko prozesuetan erakundeek izan behar duten rola zehaztu, eta horretarako tresna eta baliabideak errealitate bakoitzera egokitzeko aukerak lantzea.

Parte hartu zuten herriak: Zarautz, Legazpi, Albiztur, Orendain, Beasain, Oñati, Zumaia, Lasarte-Oria, Urnieta, Asteasu...

Hautetsiak: 19.

Ordezkaritza teknikoak: 1.

Parte-hartzaileak: 20 lagun.

Uda ondoren, **Tolosan** 16 ordukoa.

### Noiz

2012ko urria

### Parte-hartzaileak

Gipuzkoako 18 herritako ordezkariak; gehienak, hautetsiak, eta bakarra teknikaria



Helburuak edo elkarrekin lantzen saiatu garen gaiak:

- Herritarren parte-hartzeaz ari garenean, zertaz ari gara? Oinarrizko irizpideak.
- Udal batek herritarren parte-hartzea bultzatu nahi badu, nola egituratu, nola antola dezake?
- Nola diseinatu kalitatezko herritarren parte hartzeko prozesuak? 8+3 formula eta tresna zehatzak (soziograma, sormena).
- Komunikazio publikoa, parte-hartzearen zeharkako elementu gisa.
- Herritarren parte-hartzearen dinamizatorako abileziak.

Parte hartu zuten herriak: Amezketeta, Arrasate, Beasain, Deba, Donostia, Lasarte-Oria, Legazpi, Mutiloa, Oñati, Oresa, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Villabona-Amasa, Zaldibia eta Zizurkil.







## TOPAKETAK

### Lehen topaketa

#### Noiz

2012ko ekainaren 8a

#### Parte-hartzaileak

Gipuzkoako udaletako alkate, zinegotzi, parte hartzeko teknikari eta laguntzaileak. Herritarrekin Sarean lanean ari diren teknikariak. Guztira 71 lagun (37 emakumezko, 34 gizonezko), 35 herritakoak



Sareak antolatuta, Donostian, 2012ko ekainean, Gipuzkoako parte hartzeko esperientzia batzuk (23) ezagutzeko, trukatzeko eta horietatik ikasteko **Topaketa** egin genuen, Sarearen lehen topaketa.



Hiru multzotako esperientziak bermatu ziren:

- Demokrazia zuzeneko prozesuak (herri-kontsultak)
- Demokrazia ordezkatzailera hobetzeko prozesuak
- Parte hartzeko demokrazia hobetzeko prozesuak

Goiza bi tailerretan banatu zen, eta horietako bakoitzean lau aukera zeuden, hautatzeko:

- Lehen tailerrean: demokrazia zuzeneko esperientziak, espazioen erabilera, partaidetzazko aurrekontuak eta etorkizuna.
- Bigarren tailerrean: auzoekin harremanak, herri-tamainaren araberrako esperientziekin.

Herrietako ordezkariak beraiek eman zituzten azalpenak.



## Bisita

Demokrazia zuzenari buruzko **Mundu Foroa Uruguain.**

### Noiz

2012ko azaroaren 12tik 16ra

### Parte-hartzaileak

Donostiako Udala, Urretxuko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia



## Bigarren topaketa

### Noiz

2013ko otsailaren 1a

### Parte-hartzaileak

Gipuzkoako udaletako alkate, zinegotzi, parte hartzeko teknikari eta laguntzaileak. Herritarrekin Sarean lanean ari diren teknikariak. Guztira 44 lagun (11 alkate, 22 zinegotzi, 1 laguntzaile eta 10 teknikari)



Herritarrekin Sareak antolatuta, Hernanin, 2013ko urtarrilean, tamainako taldeetan landutako parte hartzeko sistemak ezagutzeko, konpartitzeko eta osatzeko helburuarekin bigarren **Topaketa** egin genuen.

Bertan, hasteko, Oscar Rebolloren hitzaldia izan genuen, eta, ondoren, taldez talde bakoitzak bere lana aurkeztu zuen modu sortzailean. Gero, talde-lana egin genuen tamainako taldeen 2013ko asmoak aztertzeko. Bukatzeko, osoko bilkura eta balorazioa.



## Hirugarren topaketa

### Noiz

2013ko ekainaren 6, 7 eta 8a

### Parte-hartzaileak

**Euskal Herriko eta batez ere Gipuzkoako** udaletako alkate, zinegotzi, parte hartzeko teknikari eta laguntzaileak. Gizarte-eragileak, herritarrak. Guztira 484 lagun (105 ordezkari politiko, 100 herritar, 190 teknikari, 89 gizarte-eragile)



Herritarrekin Sareak antolatuta, Kursaaletan, 2013ko ekainean, bertako eta nazioarteko esperientziak partekatzeko helburuarekin hirugarren **Topaketa** egin genuen, **Herritarrekin Topaketak**.



Herritarrentzat, teknikarientzat, gizarte-eragileentzat eta hautetsientzat saio berezituak antolatu ziren eta guztira ia 500 lagunek parte hartu zuten. Bertan, Europa eta Latinoamerikako hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan genuen, Alemania, Islandia eta Ekuador, Venezuela eta Boliviakoak Marta Harneckerren eskutik, baita Gipuzkoako Donostia, Segura, Tolosa, Oñati eta Eskoriatzako udalen eta Auzolan elkartearen esperientziak ere. Talde-lana egin zen eta denon artean saioz saio elkarrekin eraikiz eta Amets Arzallusen laguntzarekin parte hartzearen manifestua osatu genuen.

# manifestua

AMETS ARZALLUS



## Demokrazia ez da denon grazia.

Hiztegi politikoetan dator hitzen zentzugabekeria orokorra. Bidez erratutako hitzak, barren hustutako hitzak, jandako hitzak, politikarientan. Ulerzen gero eta zailagoa den hizkuntza bat, politika. Enigma bat bezala dator egunkarietan, distantzia bat sortuz, gugandik urrun, zenbaki zopa bat, hurbildu eta zepainak erretzen dituen.

Baina hitz batzuk hurbildu dira gugana, batek zioen auzolana, beste batek parte hartzea eskubide bat dela. Nik erantsiko nioke, esku bide bat den ber oin bide bat ere badela parte hartzea, ibili egin behar dela han, norbere arrastoa utzi, norbere alderdi joeretatik deslerrokatzeraino, arriskuak hartuz. Eskuak, oinak, eta ahotsa behar ditu parte hartzeak, eta politikari bati eska dakiokkeen gauzarik onena entzumena da, aspaldian belarri bat itxitako osaba baita gure politika. Baina hemen hitz batzuk entzun ditut, “infórmate, participa, tú eres inportante...”, edo boterearen zabalkuntza beharrezkoa da. Boterearen mapa zabaldu behar da, ez kontinente urrunetaraino, boterearen mapa zabaldu behar da izara bat balitz bezala balkoitik behera, herritar batek bere hatz puntekin hunkitzeko gisan. Boterea ez baitago goian, boterea behean dago, behe sakonetan, gure baitan dago, minuskula batez idatzirik, boterea.

## Baina demokrazia ez da denon grazia.

Alta, demokrazian denok hartzen dugu parte, baita hartzen ez duela dirudienak ere; hark ere hartzen du parte, eta nola, hark ematen baitio legitimitatea nahi bezala agintzen duenari, isilik dagoenak, geldirik dagoe-

nak, gehiengo nagiak. Uste dut ikaririk gabe esan behar dela, parte ez hartzea ere parte hartzeko modu bat da. Ez dirudien arren. Hark bermatzen du dena.

Horregatik, parte hartzeko moduez nahi genuen hitz egin. Gure haurrei hala erakusten zaie etikaren eskolan: “inportanteena parte hartzea da”. Futboleko entrenatzaile oso ezagun batek seinalatu zidan esaldi horretan ezkututzen den gezurra. Ez, garrantzitsuena ez da parte hartzea, inportanteena parte hartze horretan isurtzen dugun ausardia da. Gure belarriei ere min ematerainoko hitzak ahoskatzeko ikaririk gabe hartu behar da parte. Edo bestela nagiak atera ezin dituen gizarte bat izango gara.

Parte hartzea “gihar” bat da esan duzue batzuk, hizki bat aldatu eta bihar bat ere badela esango nuke nik. Bizkaieraz lana esan nahi du bihar hitzak, ardura bat, euskara batuan etorkizuna seinalatzen du. Bihar arteko gihar bat da. “Altxa” zenioten beste batzuek, hartu eta eman, aritu eta ikasi, jarrera bat da parte hartzea. Eta berme nagusia parte hartzearen eskolan: sinismen pixka bat gure gaitasun eraldatzaileetan. Sinismen pixka bat gudan.

## Hasieran esan dugu, demokrazia ez zen denon grazia.

Baina batera bidea eginez, sentitu, pentsatu eta ekinez, badaiteke izatea. Bidea jarriz gero jendea abiatzen da oinez, eta oinez doana beti doa ikasten, eta gutxien uste duenean, irakasten ari da, irakasten ari da bidea luzatu zion hari, agian agintariari. Chiapaseko komunitate zapatis-tetako herri sarreretan hala dator idatzirik: el pueblo manda, el gobierno obedece. Eta gobernuak obedituko baligu, tarte labur batez, ikasiko luke, parte hartzea ez dela politika egiteko modu baten osagai bat gehiago, edo lelo polit bat, ez, parte hartzea da politika hasten den lekua, eta bukatu, ez da inon bukatzen, lehengai agortezina baita parte hartzen duen jendea.

Politikak horixe zaindu behar du, eta horixe erein, parte hartzea kultura bat bihurtu behar da. Bestela esan beharko dugu egun batean, euskarak hitz jokoari bide ematen dion gisan, behin boza eman nuen eta hitzik gabe gelditu nintzen.

*Herritarrekin topaketak, 2013ko ekainaren 7 eta 8an*

# WEBGUNEA

## Noiz

2012ko maiatzetik gaur egunera arte

## Parte-hartzaileak

Lantaldean Irurak, Eskoriatzak, Donostiak eta Foru Aldundiak hartu zuten parte




Gipuzkoako herritarren parte hartzeko esperientziak partekatzeko eta gizarteratzeko tresna egin dugu. 2012ko martxoan teknologia berrien lantaldea sortu zen horretarako.

2013ko urtarrilean tresna erabiltzen ikasteko trebakuntza-saioak egin genituen.

Ikastaroak eskualdeka izan dira, 10 saio guztira.

- Goierri: 3 saio
- Deba arroa: 1 saio
- Tolosaldea: 3 saio
- Urola Kosta: 1 saio
- Oarsoaldea eta Bidasoa: 1 saio
- Donostia eta Buruntzaldea: 1 saio

Orain tresna elikatzeko lanak egingo ditugu, orain arte egindako esperientziak eta orain martxan daudenak gordetzeko.



[www.gipuzkoaherritarrein.net](http://www.gipuzkoaherritarrein.net)



## DIRU-LAGUNTZAK

### 2012ko deialdiak

2012an diru-laguntza berri bat jarri genuen martxan Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzatik Gipuzkoako udalerrietan herritarren parte-hartzea sustatzeko. Dekretua landu aurretik, udalekin diru-laguntzen irizpideak landu genituen eta horiek kontuan hartuta jorratu zen dekretu berria.

Bi deialdi izan ziren 2012an, kontuan izanik legegintzaldiaren hasieran geundela, udalek denbora gehiago izateko plangintza lantzeko.

Lehen deialdia otsailaren 14an jarri zen martxan eta 2 hilabete geroago, apirilaren 19an, ebazpena argitaratu zen.

Bigarren deialdia ekainean jarri zen martxan eta hilabete geroago, uztailaren 18an, ebazpena argitaratu zen.

130 prozesu lagundu ziren diruz, 527.000 eurorekin.

77 udalek jaso zuten diru-laguntza (banaka edo taldeka).

### 2013ko deialdia

2013an, diru-laguntzetan egokitzapen batzuk egin genituen udalekin egindako balorazioaren ondorioz. Udal bakoitzak egin ahal izango zituen eskaerak bira mugatu genituen, eta lehenetsuna eman genien udalek bultzatutako herritarren partaidetzarako esperientzien ikuspegi orokorra edo integrala sustatzen zuten esperientziei. Diru-laguntzaren kopurua herrien tamainaren arabera zehaztu genuen: herri txikiak kopuru txikiagoa, baina laguntzaren ehuneko handiagoarekin; herri handiak, aldiz, kopuru handiagoa eta proiektuaren % 50 gehienez.

Deialdi bakarra izan da 2013an, otsailaren 12an jarri zen martxan eta 3 hilabete geroago, maiatzaren 24an, ebazpena argitaratu zen. 56 udalek egindako 75 eskaera jaso ziren.

64 prozesu lagundu ditugu diruz, 436.614 eurorekin.

55 udalek jaso dute banakako diru-laguntza, guztira 64 prozesu egiteko. Taldekako 5 eskaera egon dira eta 3 onartu ditugu. Guztira 67 prozesu.

# aurkibideak

## HERRIAK IZENAREN ARABERA

herria	orrialdea	herria	orrialdea	herria	orrialdea
Abaltzisketa	188	Elgeta	81	Segura	139
Aduna	191	Elgoibar	55	Tolosa	232
Albiztur	195	Errenteria	168	Urnieta	41
Alkiza	198	Eskoriatza	83	Urretxu	143
Altzo	201	Ezkio-Itsaso	114	Usurbil	44
Amezketza	203	Getaria	156	Zaldibia	145
Andoain	26	Hernani	34	Zarautz	160
Anoeta	207	Ibarra	227	Zerain	148
Antzuola	64	Idiazabal	117	Zestoa	251
Arama	104	Irun	18	Zizurkil	237
Aretxabaleta	69	Itsasondo	119	Zumaia	163
Arrasate	73	Lasarte-Oria	37	Zumarraga	152
Asteasu	213	Lazkao	123		
Astigarraga	29	Legazpi	125		
Ataun	108	Lezo	174		
Azkoitia	242	Mendaro	58		
Azpeitia	246	Mutiloa	129		
Baliarrain	217	Mutriku	60		
Beasain	110	Oiartzun	176		
Belauntza	223	Oñati	88		
Bergara	78	Ordizia	131		
Deba	50	Orendain	229		
Donostia	94	Orio	158		
Eibar	53	Ormaiztegi	137		
Elduain	225	Pasaia	181		



# HERRIAK ESKUALDEAREN ARABERA

eskualdea	herria	orrialdea
Bidasoaldea	Irun	18
Buruntzaldea	Andoain	26
Buruntzaldea	Astigarraga	29
Buruntzaldea	Hernani	34
Buruntzaldea	Lasarte-Oria	37
Buruntzaldea	Umieta	41
Buruntzaldea	Usurbil	44
Debarrena	Deba	50
Debarrena	Eibar	53
Debarrena	Elgoibar	55
Debarrena	Mendara	58
Debarrena	Mutriku	60
Debagoiena	Antzuola	64
Debagoiena	Aretxabaleta	69
Debagoiena	Arrasate	73
Debagoiena	Bergara	78
Debagoiena	Elgeta	81
Debagoiena	Eskoriatza	83
Debagoiena	Oñati	88
Donostia	Donostia	94
Goierri	Arama	104
Goierri	Ataun	108
Goierri	Beasain	110

eskualdea	herria	orrialdea
Goierri	Ezkio-Itsaso	114
Goierri	Idiazabal	117
Goierri	Itsasondo	119
Goierri	Lazkao	123
Goierri	Legazpi	125
Goierri	Mutiloa	129
Goierri	Ordizia	131
Goierri	Ormaiztegi	137
Goierri	Segura	139
Goierri	Urretxu	143
Goierri	Zaldibia	145
Goierri	Zerain	148
Goierri	Zumarraga	152
Kosta	Getaria	156
Kosta	Orio	158
Kosta	Zarautz	160
Kosta	Zumaia	163
Oarsoaldea	Errenteria	168
Oarsoaldea	Lezo	174
Oarsoaldea	Oiartzun	176
Oarsoaldea	Pasaia	181
Tolosaldea	Abaltzisketa	188
Tolosaldea	Aduna	191
Tolosaldea	Albiztur	195

eskualdea	herria	orrialdea
Tolosaldea	Alkiza	198
Tolosaldea	Altzo	201
Tolosaldea	Amezketeta	203
Tolosaldea	Anoeta	207
Tolosaldea	Asteasu	213
Tolosaldea	Baliarrain	217
Tolosaldea	Belauntza	223
Tolosaldea	Elduain	225
Tolosaldea	Ibarra	227
Tolosaldea	Orendain	229
Tolosaldea	Tolosa	232
Tolosaldea	Zizurkil	237
Urola Erdia	Azkoitia	242
Urola Erdia	Azpeitia	246
Urola Erdia	Zestoa	251

# HERRIAK AZALERAREN ARABERA

■ Ez dira ageri liburuan

herria	azalera (km <sup>2</sup> )
Arama	1,33
Ikaztegieta	2
Altzaga	2,53
Berrobi	2,77
Baliarrain	2,8
Irura	2,99
Belauntza	3,4
Anoeta	4,1
Hernialde	4,17
Ibarra	5,03
Lasarte-Oria	5,4
Ordizia	5,65
Orexa	5,85
Larraul	5,9
Leaburu	5,9
Gaintza	5,96
Orendain	6,4
Aizarnazabal	6,55
Ormaiztegi	6,9
Olaberria	6,92
Aduna	7
Alegia	7,59
Urretxu	7,9
Legorreta	8,62
Mutiloa	8,8
Itsasondo	8,94
Gaztelu	9,15
Segura	9,2
Altzo	9,8
Orio	9,8

herria	azalera (km <sup>2</sup> )
Zerain	10,37
Getaria	10,6
Pasaia	11
Abaltzisketa	11,2
Zumaia	11,3
Lazkao	11,4
Alkiza	11,9
Lizartza	12,33
Albiztur	12,9
Lezo	12,9
Bidania-Goiatz	13,37
Soraluze	14,22
Zarautz	14,3
Leintz-Gatzaga	14,7
Gabiria	14,88
Zizurkil	15,4
Zaldibia	16,2
Beizama	16,55
Asteasu	16,6
Elgeta	16,9
Astigarraga	17,156
Villabona-Amasa	17,74
Zumarraga	18,2
Amezketta	20,6
Ezkio-Itsaso	21,2
Eibar	22
Urnieta	23
Usurbil	24,9
Elduain	25,07
Mendaro	25,4

herria	azalera (km <sup>2</sup> )
Aretxabaleta	26
Andoain	27,17
Mutriku	27,7
Antzuola	27,9
Hondarribia	28,63
Idiazabal	29,5
Beasain	29,9
Errenteria	31
Errezil	32,46
Arrasate	34,2
Zegama	35,07
Tolosa	37,9
Elgoibar	39,2
Eskoriatza	40,4
Legazpi	41,8
Hernani	42
Irun	42,8
Zestoa	43,7
Berastegi	45,83
Deba	52
Aia	55,27
Azkoitia	55,4
Ataun	58,9
Oiartzun	60
Donostia	61,5
Azpeitia	69,4
Bergara	77,05
Oñati	108,2

# HERRIAK BIZTANLE-KOPURUAREN ARABERA

herria	biztanle-kop.	tamaina
Orexa	121	txikia
Baliarrain	131	txikia
Gaintza	137	txikia
Altzaga	157	txikia
Gaztelu	166	txikia
Beizama	183	txikia
Orendain	192	txikia
Arama	217	txikia
Elduain	236	txikia
Mutiloa	246	txikia
Larraul	249	txikia
Zerain	265	txikia
Leintz-Gatzaga	272	txikia
Belauntza	287	txikia
Albiztur	312	txikia
Abaltzisketa	324	txikia
Hemialde	348	txikia
Alkiza	357	txikia
Leaburu	388	txikia
Altzo	405	txikia
Aduna	452	txikia
Ikaztegieta	469	txikia
Gabiria	493	txikia
Bidania-Goiatz	537	txikia
Berrobi	589	txikia
Ezkio-Itsaso	609	txikia
Errezil	617	txikia
Lizartza	641	txikia
Aizarnazabal	653	txikia
Itsasondo	667	txikia

herria	biztanle-kop.	tamaina
Olaberria	941	txikia
Amezqueta	970	txikia
Berastegi	1.061	txikia
Elgeta	1.106	txikia
Ormaiztegi	1.320	txikia
Legorreta	1.483	txikia
Segura	1.488	txikia
Asteasu	1.515	txikia
Zaldibia	1.522	txikia
Zegama	1.553	txikia
Irura	1.619	txikia
Ataun	1.680	txikia
Alegia	1.778	txikia
Anoeta	1.832	txikia
Mendaro	1.898	txikia
Aia	2.026	txikia
Antzuola	2.177	txikia
Idiazabal	2.307	txikia
Getaria	2.666	txikia
Zizurkil	2.797	txikia
Zestoa	3.655	txikia
Soraluze	3.981	ertaina
Eskoriatza	4.043	ertaina
Ibarra	4.045	ertaina
Astigarraga	4.818	ertaina
Mutriku	5.029	ertaina
Orio	5.270	ertaina
Lazkao	5.407	ertaina
Deba	5.420	ertaina
Villabona-Amasa	5.872	ertaina

herria	biztanle-kop.	tamaina
Lezo	6.010	ertaina
Usurbil	6.062	ertaina
Urnietza	6.167	ertaina
Urretxu	6.930	ertaina
Aretxabaleta	6.990	ertaina
Legazpi	8.684	ertaina
Zumaia	9.461	ertaina
Ordizia	9.817	ertaina
Zumarraga	10.007	handia
Oiartzun	10.015	handia
Oñati	11.033	handia
Azkoitia	11.354	handia
Elgoibar	11.360	handia
Beasain	13.849	handia
Azpeitia	14.351	handia
Bergara	14.577	handia
Andoain	14.702	handia
Pasaia	15.869	handia
Hondarribia	16.518	handia
Lasarte-Oria	17.889	handia
Tolosa	18.232	handia
Hernani	19.296	handia
Arrasate	21.972	handia
Zarautz	22.697	handia
Eibar	27.396	handia
Errenteria	39.208	handia
Irun	61.006	handia
Donostia	186.185	handia



# ESKUALDEAK, HERRIAK ETA PROIEKTUAK



## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Abaltzisketa	Parte hartzeko sistema	Parte-hartzea indartzen	189
Aduna	Garapen iraunkorra	Adunako iraunkortasunerako ekintza-planaren berrikuspena	194
Aduna	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteentzako eta haurrentzako lokalak	192
Albiztur	Garapen iraunkorra eta Partaidetzazko aurrekontuak	Parte-hartzea: aurrekontuen eta hondakinen prozesuak	197
Albiztur	Hirigintza	Plan Orokorra	196
Alkiza	Tokiko plana / plan estrategikoa	Alkizako Plan Estrategikoa	199
Altzo	Parte hartzeko sistema	Parte-hartzea Altzon 2012	202
Amezketeta	Garapen iraunkorra	Hondakinen kudeaketa berria	206
Amezketeta	Haurrak/gazteak/adinekoak	Amezketako Gaztelekua	204
Amezketeta	Herri-izaera	Espainiako banderaren inposizioa	206
Andoain	Herritarrekin harremanak	Parte hartzeko hariak lotuz	27
Anoeta	Aniztasuna	Herriko kultur aniztasuna landuz: jatorri eta kultura desberdinak, denak anoetarrak	208
Antzuola	Aniztasuna	Elkarbizitza Plana	67
Antzuola	Partaidetzazko aurrekontuak	2013ko parte hartzeko aurrekontuak Antzuolan	65
Arama	Garapen iraunkorra	Hondakinen kudeaketa	107
Arama	Partaidetzazko aurrekontuak	Aurrekontuak	107
Arama	Parte hartzeko sistema	Herri-batzarrak	105
Aretxabaleta	Garapen iraunkorra	Herritarren partaidetza	72
Aretxabaleta	Partaidetzazko aurrekontuak	2013ko udal-aurrekontuak	70
Arrasate	Garapen iraunkorra	Hondakinak kudeatzeko oinarriak	77
Arrasate	Haurrak/gazteak/adinekoak eta Kultura	Auzolanartean	77
Arrasate	Hirigintza	Gureztatu: Arrasateko azoka birpentsatzeko eta biziberritzeko parte hartzeko ekimena	74
Arrasate	Hirigintza	“Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren aurrerapena” agiria aztertzea	76
Asteasu	Kirola eta Kultura	Asteasuko kultur eta kirol-taldearen gogoeta-prozesua	214
Asteasu	Tokiko plana / plan estrategikoa	Asteasuko kudeaketa-plan estrategikoaren diseinua	216
Astigarraga	Euskara	Euskararen Normalizaziorako Plan Estrategikoa	32
Astigarraga	Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema berria	30
Astigarraga	Haurrak/gazteak/adinekoak	Ikastolako jolaslekua	33
Ataun	Garapen iraunkorra	Eman eta hartu, Udalak herritik gertu	109

# HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Azkoitia	Partaidetzazko aurrekontuak	Danon herrixe	243
Azkoitia	Parte hartzeko sistema	Azkoitiko Udala herritarren parte-hartzearen inguruko sistema eraikitzen	245
Azpeitia	Garapen iraunkorra	Hondakinen inguruko parte hartzeko prozesua	249
Azpeitia	Garapen iraunkorra	Azpeitian ikastetxeak ere hondakinen inguruan lanean era eraginkorrean parte hartuz	250
Azpeitia	Hirigintza	Alde Zaharra biziberritzeko proiektua	247
Azpeitia	Partaidetzazko aurrekontuak	Denon artean	248
Baliarrain	Garapen iraunkorra	Hondakinen prebentzioa	222
Baliarrain	Haurrak/gazteak/adinekoak	Haur eta adinekoen isolamendua ekiditea	218
Baliarrain	Herri-mugimendua	Baliarraingo partaidetza	221
Baliarrain	Mugikortasuna	Garraio publikoa	222
Beasain	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen sorkuntzarako lokalak	112
Beasain	Hirigintza	Terrazen ordenantza	111
Beasain	Kultura	Igartza	113
Beasain	Partaidetzazko aurrekontuak	Parte hartzeko aurrekontuak: auzoak eta elkarteak	113
Beasain	Parte hartzeko sistema	Udalaren parte hartzeko estrategiak eta oinarriak	112
Belauntza	Hirigintza	Partaidetza	224
Bergara	Euskara	Euskararen Plan Estrategikoa 2013-15	80
Bergara	Garapen iraunkorra	Hondakinen problematika	80
Bergara	Kirola	Kirol-sarea	79
Deba	Kirola	Debako kirol-elkarteen partaidetza-prozesua	51
Deba	Mugikortasuna	Mugikortasun jasangarria	52
Donostia	Haurrak/gazteak/adinekoak	Antiguako gazteekin Gazteguna eraikitzeko parte hartzeko prozesua	95
Donostia	Haurrak/gazteak/adinekoak	Parte-hartzea aktibatzea Donostiako haurtxokoen eta gaztelekuen sareetan	98
Donostia	Hirigintza	Loiolako Hiri Lorategiaren biziberritze-plana: diseinu berri baten bila	99
Donostia	Mugikortasuna	Ttipi-ttapa	99
Donostia	Parte hartzeko sistema	Auzotarrak eta udala: partaidetza-harremanak	100
Donostia	Trebakuntza	Trebakuntza-saioak	100
Eibar	Tokiko plana / plan estrategikoak	Plan Estrategikoa berraztertzea	54
Elduain	Parte hartzeko sistema	Elduaingo Herri Kontseilua	226
Elgeta	Komunikazioa, Mugikortasuna eta Zerbitzuak	Hezkuntza-zerbitzuak eta garraio publikoa	82



## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Elgoibar	Garapen iraunkorra	Gure balioak: gizarte-plataformak	57
Elgoibar	Parte hartzeko sistema eta Trebakuntza	Partaidetzarako trebakuntza-saioak	56
Errenteria	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen lokalak	172
Errenteria	Herri-mugimendua eta Hirigintza	Kabia espazio kreatiboa	171
Errenteria	Herritarrekin harremanak	Auzoak	170
Errenteria	Kultura	Madalenak Jai Batzordea	170
Errenteria	Partaidetzazko aurrekontuak	Udal Aurrekontuak 2013	172
Errenteria	Parte hartzeko sistema eta Trebakuntza	Parte Hartzeko Plana 2012	169
Errenteria	Tokiko plana / plan estrategikoa	Plan Estrategikoa 2025	173
Eskoriatza	Garapen iraunkorra	“Eskoriatza ere zero zabor norabidean” kanpaina	87
Eskoriatza	Haurrak/gazteak/adinekoak	Haurrentzako jolastokiak	84
Eskoriatza	Kultura	Atxorrotzeko Gaztelua: bisita gidatuak	86
Eskoriatza	Kultura	Zaldibar aretoa: obratan eta zabalik	87
Eskoriatza	Partaidetzazko aurrekontuak	Eskohitza 2013	86
Ezkio-Itsaso	Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema aukeratzea	115
Getaria	Partaidetzazko aurrekontuak	Guztiok bat!	157
Hernani	Herritarrekin harremanak	Herritarren partaidetza bultzatzeko auzoetako bizilagunekin bilerak	35
Ibarra	Mugikortasuna	TAO sistemaren antolaketa	228
Idiazabal	Herri-izaera	Idiazabal bizirik eta identitate propioarekin	118
Irun	Herritarrekin harremanak	Alkatea auzoetan	22
Irun	Hirigintza	Artia eta Belaskoenea	19
Itsasondo	Herri-izaera eta Parte hartzeko sistema	Itsasondo ekinez egina	120
Lasarte-Oria	Herritarrekin harremanak	Auzoz auzoko parte hartzeko prozesua	40
Lasarte-Oria	Sozio-ekonomia	Tokiko ekonomia dinamizatzeke partaidetza-prozesua	38
Lazkao	Herritarrekin harremanak	Herritarrei hitza	124
Legazpi	Garapen iraunkorra	Agenda 21eko herritarren foroak	128
Legazpi	Garapen iraunkorra	Atez atekoa ezartzea	128
Legazpi	Hirigintza	Hiri-ekipamenduen erabilera herritarrekin zehazteko prozesua	126

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Lezo	Haurrak/gazteak/adinekoak	Irrien lagunak Oarsoaldean	175
Mendaro	Parte hartzeko sistema	Lantaldeak osatzea	59
Mutiloa	Tokiko plana / plan estrategikoa	Herriaren etorkizuna erabakitzeko herri-mailako hausnarketa	130
Mutriku	Garapen iraunkorra	Mutriku 2022	61
Mutriku	Garapen iraunkorra	Hondakinen kudeaketa	61
Oiartzun	Garapen iraunkorra	Eskola Agenda 21	180
Oiartzun	Hirigintza	Oiartzungo Plan Orokorra	177
Oiartzun	Hirigintza	Arau Subsidiarioen prozesua	179
Oiartzun	Hirigintza	Hirigintzako Aholku Kontseilua	179
Oiartzun	Kirola	Kiroldegiko egutegia	179
Oiartzun	Kultura	Xanistebanak	180
Oiartzun	Partaidetzako aurrekontuak	2013ko aurrekontuak	179
Oñati	Parte hartzeko sistema	Herrijorran proiektua	89
Oñati	Parte hartzeko sistema	Harreman-estilo berri baterantz	91
Ordizia	Aniztasuna	Ordizia kolore	134
Ordizia	Garapen iraunkorra	Atez atekoa martxan jartzeko prozesua	135
Ordizia	Hirigintza	Oianguko partaidetzako prozesua	132
Ordizia	Parte hartzeko sistema	Hartu hitza, piztu Ordizia	136
Orendain	Parte hartzeko sistema	Orendaingo herritarrak bertako Administrazioan	230
Orio	Herri-izaera	Orioko curriculuma	159
Ormaiztegi	Parte hartzeko sistema	Oрмаiztegiako Parte Hartzeko Sistema	138
Pasaia	Garapen iraunkorra	Pasai Donibane atez ate	184
Pasaia	Herri-mugimendua	La Herrera Herriraren V. topagunea	182
Pasaia	Hirigintza	Alabortzako parte hartzeko prozesua	184
Segura	Garapen iraunkorra	Atez atekoa ezartzea eta autokonposta bultzatzea	142
Segura	Herri-mugimendua eta Komunikazioa	Web-orria: Segurako herri-ataria	140
Segura	Hirigintza	Segurako Hirigintzako Plan Orokorra berridaztea	142
Tolosa	Berdintasuna	Tolosako elkarte gastronomikoekin berdintasun-plan sektoriala	236
Tolosa	Herri-galdeketa eta Hirigintza	Larramendi auzoko urbanizazioa: auzo-galdeketa	235
Tolosa	Mugikortasuna	Tolosaldeko garraio publikoa denon artean eraikitzen	236

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Tolosa	Parte hartzeko sistema	LAIA gunea	233
Tolosa	Trebakuntza	Trebakuntza partaidetza-prozesuetan eta dinamizazioan	235
Urnieta	Berdintasuna	Berdintasunerako diagnostikoa eta I. Plana	43
Urnieta	Mugikortasuna	Urnietako Mugikortasun Plana	42
Urretxu	Garapen iraunkorra	Eskola Agenda 21	144
Urretxu	Herri-mugimendua	Herrigintza Urretxun	144
Urretxu	Parte hartzeko sistema	Urretxuko Parte Hartzeko Estrategia	144
Usurbil	Hezkuntza	Usurbilgo hezkuntza-eredua	45
Zaldibia	Herri-mugimendua eta Komunikazioa	zaldibia.org	146
Zarautz	Berdintasuna eta Mugikortasuna	Zarauzko hiri debekatuaren mapa	162
Zarautz	Mugikortasuna	TAO sistema	161
Zarautz	Trebakuntza	Nola komunikatu?	161
Zerain	Garapen iraunkorra eta Herri-galdeketa	Hondakinen kudeaketa	151
Zerain	Kultura	Errementari aretoa	151
Zerain	Parte hartzeko sistema	Auzolana	150
Zerain	Tokiko plana / plan estrategikoa	Zerain Herri Eredua	149
Zestoa	Herri-galdeketa eta Kultura	Zekorketei buruzko eskaera	252
Zizurkil	Herri-izaera	Armarria aldatzeko prozesua	238
Zumaia	Hirigintza eta Mugikortasuna	Odieta-San Joseko Plan Berezia	164
Zumarraga	Kultura	Urretxu-Zumarragako musika-arloaren kohesioa	153



# HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

■ Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Aniztasuna	Herriko kultur aniztasuna landuz: jatorri eta kultura desberdinak, denak anoetarrak	Anoeta	208
Aniztasuna	Elkarbizitza Plana	Antzuola	67
Aniztasuna	Ordizia kolore	Ordizia	134
Berdintasuna	Tolosako elkarte gastronomikoekin berdintasun-plan sektoriala	Tolosa	236
Berdintasuna	Berdintasunerako diagnostikoa eta I. Plana	Urnieta	43
Berdintasuna	Zarauzko hiri debekatuaren mapa	Zarautz	162
Euskara	Euskararen Normalizaziorako Plan Estrategikoa	Astigarraga	32
Euskara	Euskarako Plan Estrategikoa 2013-15	Bergara	80
Garapen iraunkorra	Adunako iraunkortasunerako ekintza-planaren berrikuspena	Aduna	194
Garapen iraunkorra	Parte-hartzea: aurrekontuen eta hondakinen prozesuak	Albiztur	197
Garapen iraunkorra	Hondakinen kudeaketa berria	Amezketeta	206
Garapen iraunkorra	Hondakinen kudeaketa	Arama	107
Garapen iraunkorra	Herritarren partaidetza	Aretxabaleta	72
Garapen iraunkorra	Hondakinak kudeatzeko oinarriak	Arrasate	77
Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema berria	Astigarraga	30
Garapen iraunkorra	Eman eta hartu, Udalak herritik gertu	Ataun	109
Garapen iraunkorra	Hondakinen inguruko parte hartzeko prozesua	Azpeitia	249
Garapen iraunkorra	Azpeitian ikastetxeak ere hondakinen inguruan lanean era eraginkorrean parte hartuz	Azpeitia	250
Garapen iraunkorra	Hondakinen prebentzioa	Baliarrain	222
Garapen iraunkorra	Hondakinen problematika	Bergara	80
Garapen iraunkorra	Gure balioak: gizarte-plataformak	Elgoibar	57
Garapen iraunkorra	“Eskoriatza ere zero zabor norabidean” kanpaina	Eskoriatza	87
Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema aukeratzea	Ezkio-Itsaso	115
Garapen iraunkorra	Agenda 21eko herritarren foroak	Legazpi	128
Garapen iraunkorra	Atez atekoa ezartzea	Legazpi	128
Garapen iraunkorra	Mutriku 2022	Mutriku	61
Garapen iraunkorra	Hondakinen kudeaketa	Mutriku	61
Garapen iraunkorra	Eskola Agenda 21	Oiartzun	180

# HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

■ Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Garapen iraunkorra	Atez atekoa martxan jartzeko prozesua	Ordizia	135
Garapen iraunkorra	Pasai Donibane atez ate	Pasaia	184
Garapen iraunkorra	Atez atekoa ezartzea eta autokonposta bultzatzea	Segura	142
Garapen iraunkorra	Eskola Agenda 21	Urretxu	144
Garapen iraunkorra	Hondakinen kudeaketa	Zerain	151
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteentzako eta haurrentzako lokalak	Aduna	192
Haurrak/gazteak/adinekoak	Amezketako Gaztelekua	Amezketeta	204
Haurrak/gazteak/adinekoak	Auzolanartean	Arrasate	77
Haurrak/gazteak/adinekoak	Ikastolako jolaslekua	Astigarraga	33
Haurrak/gazteak/adinekoak	Haur eta adinekoen isolamendua ekiditea	Baliarrain	218
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen sorkuntzarako lokalak	Beasain	112
Haurrak/gazteak/adinekoak	Antiguako gazteekin Gaztegunea eraikitzeko prozesua	Donostia	95
Haurrak/gazteak/adinekoak	Parte-hartzea aktibatzea Donostiako haurtxokoen eta gaztelekuen sareetan	Donostia	98
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen lokalak	Errenteria	172
Haurrak/gazteak/adinekoak	Haurrentzako jolastokiak	Eskoriatza	84
Haurrak/gazteak/adinekoak	Irrien lagunak Oarsoaldean	Lezo	175
Herri-galdeketa	Larramendi auzoko urbanizazioa: auzo-galdeketa	Tolosa	235
Herri-galdeketa	Hondakinen kudeaketa	Zerain	151
Herri-galdeketa	Zekorketei buruzko eskaera	Zestoa	252
Herri-izaera	Espainiako banderaren inposizioa	Amezketeta	206
Herri-izaera	Idiazabal bizirik eta identitate propioarekin	Idiazabal	118
Herri-izaera	Itsasondo ekinez egina	Itsasondo	120
Herri-izaera	Orioko curriculuma	Orio	159
Herri-izaera	Armarria aldatzeko prozesua	Zizurkil	238
Herri-mugimendua	Baliarraingo partaidetza	Baliarrain	221
Herri-mugimendua	Kabia espazio kreaktiboa	Errenteria	171
Herri-mugimendua	La Herrera Herriraren V. topagunea	Pasaia	182
Herri-mugimendua	Web-orria: Segurako herri-ataria	Segura	140
Herri-mugimendua	Herrigintza Urretxun	Urretxu	144

# HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

■ Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Herri-mugimendua	<a href="http://zaldibia.org">zaldibia.org</a>	Zaldibia	146
Herritarrekin harremanak	Parte hartzeko hariak lotuz	Andoain	27
Herritarrekin harremanak	Auzoak	Errenteria	170
Herritarrekin harremanak	Herritarren partaidetza bultzatzeko auzoetako bizilagunekin bilerak	Hernani	35
Herritarrekin harremanak	Alkatea auzoetan	Irun	22
Herritarrekin harremanak	Auzoz auzoko parte hartzeko prozesua	Lasarte-Oria	40
Herritarrekin harremanak	Herritarrei hitza	Lazkao	124
Hezkuntza	Usurbilgo hezkuntza-eredua	Usurbil	45
Hirigintza	Plan Orokorra	Albiztur	196
Hirigintza	Gureztatu: Arrasateko azoka birpentsatzeko eta biziberritzeko parte hartzeko ekimena	Arrasate	74
Hirigintza	“Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren aurrerapena” agiria aztertzea	Arrasate	76
Hirigintza	Alde Zaharra biziberritzeko proiektua	Azpeitia	247
Hirigintza	Terrazen ordenantza	Beasain	111
Hirigintza	Partaidetza	Belauntza	224
Hirigintza	Loiolako Hiri-Lorategiaren biziberritze-plana: diseinu berri baten bila	Donostia	99
Hirigintza	<a href="#">Kabia espazio Kreaktiboa</a>	Errenteria	171
Hirigintza	Artia eta Belaskoenea	Irun	19
Hirigintza	Hiri-ekipamenduen erabilera herritarrekin zehazteko prozesua	Legazpi	126
Hirigintza	Oiartzungo Plan Orokorra	Oiartzun	177
Hirigintza	Arau Subsidiarioen prozesua	Oiartzun	179
Hirigintza	Hirigintzako Aholku Kontseilua	Oiartzun	179
Hirigintza	Oianguko partaidetzazko prozesua	Ordizia	132
Hirigintza	Alabortzako parte hartzeko prozesua	Pasaia	184
Hirigintza	Segurako Hirigintzako Plan Orokorra berridaztea	Segura	142
Hirigintza	<a href="#">Larramendi auzoko urbanizazioa: auzo-galdeketa</a>	Tolosa	235
Hirigintza	Odieta-San Joseko Plan Berezia	Zumaia	164
Kirola	<a href="#">Asteasuko kultur eta kirol-taldearen gogoeta-prozesua</a>	Asteasu	214
Kirola	Kirol-sarea	Bergara	79



# HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

■ Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Kirola	Debako kirol-elkarteen partaidetza-prozesua	Deba	51
Kirola	Kiroldegiko egutegia	Oiartzun	179
Komunikazioa	Hezkuntza-zerbitzuak eta garraio publikoa	Elgeta	82
Komunikazioa	Web-orria: Segurako herri-ataria	Segura	140
Komunikazioa	zaldibia.org	Zaldibia	146
Kultura	Auzolanartean	Arrasate	77
Kultura	Asteasuko kultur eta kirol-taldearen gogoeta-prozesua	Asteasu	214
Kultura	Igartza	Beasain	113
Kultura	Madalenak Jai Batzordea	Errenteria	170
Kultura	Atxorrotzeko Gaztelua: bisita gidatuak	Eskoriatza	86
Kultura	Zaldibar aretoa: obratan eta zabalik	Eskoriatza	87
Kultura	Xanistebanak	Oiartzun	180
Kultura	Errementari aretoa	Zerain	151
Kultura	Zekorketei buruzko eskaera	Zestoa	252
Kultura	Urretxu-Zumarragako musika-arloaren kohesioa	Zumarraga	153
Mugikortasuna	Garraio publikoa	Baliarrain	222
Mugikortasuna	Mugikortasun jasagarria	Deba	52
Mugikortasuna	Ttipi-ttapa	Donostia	99
Mugikortasuna	Hezkuntza-zerbitzuak eta garraio publikoa	Elgeta	82
Mugikortasuna	TAO sistemaren antolaketa	Ibarra	228
Mugikortasuna	Tolosaldeko garraio publikoa denon artean eraikitzen	Tolosa	236
Mugikortasuna	Urnietako Mugikortasun Plana	Urnietako	42
Mugikortasuna	TAO sistema	Zarautz	161
Mugikortasuna	Zarauzko hiri debekatuaren mapa	Zarauz	162
Mugikortasuna	Odieta-San Joseko Plan Berezia	Zumaia	164
Partaidetzazko aurrekontuak	Parte-hartzea: aurrekontuen eta hondakinen prozesuak	Albiztur	197
Partaidetzazko aurrekontuak	2013ko parte hartzeko aurrekontuak Antzuolan	Antzuola	65
Partaidetzazko aurrekontuak	Aurrekontuak	Arama	107
Partaidetzazko aurrekontuak	2013ko udal-aurrekontuak	Aretxabaleta	70

# HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

■ Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

esperientzia-mota	esperientiaren izena	herria	orrialdea
Partaidetzazko aurrekontuak	Danon herrixe	Azkoitia	243
Partaidetzazko aurrekontuak	Denon artean	Azpeitia	248
Partaidetzazko aurrekontuak	Parte hartzeko aurrekontuak: auzoak eta elkarteak	Beasain	113
Partaidetzazko aurrekontuak	Udal-Aurrekontuak 2013	Errenteria	172
Partaidetzazko aurrekontuak	Eskohitza 2013	Eskoriatza	86
Partaidetzazko aurrekontuak	Guztiok bat!	Getaria	157
Partaidetzazko aurrekontuak	2013ko aurrekontuak	Oiartzun	179
Parte hartzeko sistema	Parte-hartzea indartzen	Abaltzisketa	189
Parte hartzeko sistema	Parte-hartzea Altzon 2012	Altzo	202
Parte hartzeko sistema	Herri-batzarrak	Arama	105
Parte hartzeko sistema	Azkoitiko Udala herritarren parte-hartzearen inguruko sistema eraikitzen	Azkoitia	245
Parte hartzeko sistema	Udalaren parte hartzeko estrategiak eta oinarriak	Beasain	112
Parte hartzeko sistema	Auzotarrak eta udala: partaidetza-harremanak	Donostia	100
Parte hartzeko sistema	Elduaingo Herri Kontseilua	Elduain	226
Parte hartzeko sistema	Partaidetzarako trebakuntza-saioak	Elgoibar	56
Parte hartzeko sistema	Parte Hartzeko Plana 2012	Errenteria	169
Parte hartzeko sistema	Itsasondo ekinez egina	Itsasondo	120
Parte hartzeko sistema	Lantaldeak osatzea	Mendaro	59
Parte hartzeko sistema	Herrijorran proiektua	Oñati	89
Parte hartzeko sistema	Harreman-estilo berri baterantz	Oñati	91
Parte hartzeko sistema	Hartu hitza, piztu Ordizia	Ordizia	136
Parte hartzeko sistema	Orendaingo herritarrak bertako Administrazioan	Orendain	230
Parte hartzeko sistema	Ormaiztegiko Parte Hartzeko Sistema	Ormaiztegi	138
Parte hartzeko sistema	LAIA gunea	Tolosa	233
Parte hartzeko sistema	Urretxuko Parte Hartzeko Estrategia	Urretxu	144
Parte hartzeko sistema	Auzolana	Zerain	150

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Sozio-ekonomia	Tokiko ekonomia dinamizatzeko partaidetza-prozesua	Lasarte-Oria	38
Tokiko plana / plan estrategikoa	Alkizako Plan Estrategikoa	Alkiza	199
Tokiko plana / plan estrategikoa	Asteasuko kudeaketa-plan estrategikoaren diseinua	Asteasu	216
Tokiko plana / plan estrategikoa	Plan Estrategikoa berraztertzea	Eibar	54
Tokiko plana / plan estrategikoa	Plan Estrategikoa 2025	Errenteria	173
Tokiko plana / plan estrategikoa	Herriaren etorkizuna erabakitzeko herri-mailako hausnarketa	Mutiloa	130
Tokiko plana / plan estrategikoa	Zerain Herri Eredua	Zerain	149
Trebakuntza	Trebakuntza-saioak	Donostia	100
Trebakuntza	Partaidetzarako trebakuntza-saioak	Elgoibar	56
Trebakuntza	Parte Hartzeko Plana 2012	Errenteria	169
Trebakuntza	Trebakuntza partaidetza-prozesuetan eta dinamizazioan	Tolosa	235
Trebakuntza	Nola komunikatu?	Zarautz	161
Zerbitzuak	Hezkuntza-zerbitzuak eta garraio publikoa	Elgeta	82



# bibliografia

Liburu hau egiteko, oinarri nagusia herrietatik jasotako informazioa izan da, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte hartzeko diru-laguntzak zurtzeko herriek bete zituzten sistematizazio-fitxak; beste prozesu batzuetako informazioa lortzeko, batez ere udaletatik jaso dugun materialean oinarritu gara.

Gainerakoan, informazio gehiago lortzeko, Interneteko hainbat webgunetara jo dugu, eta, besteak beste, ondorengoak erabili ditugu:

- Auñamendi entziklopedia  
<http://www.euskomedia.org/aunamendi>
- Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL)  
<http://www.eudel.net/>
- Gipuzkoa Batzar Nagusiak (Gipuzkoako eskualdeak)  
[http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio\\_historico\\_de\\_gipuzkoa.jsp?id=05](http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio_historico_de_gipuzkoa.jsp?id=05)
- Gipuzkoako Foru Aldundia  
<http://www.gipuzkoa.net/>
- Euskaltzaindiaren Onomastika  
<http://www.euskaltzaindia.net/onomastika>
- Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa  
<http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Udalen webgune ofizialak
- Wikipedia  
<http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>

Herritarren parte-hartzearen gaineko bibliografia oso zabala eta anitza da, baina esku-eskura izan ditugu ondorengoak:

CIMAS: *Metodologías participativas. Manual*, Observatorio Internacional de Ciudadanía y Medio Ambiente Sostenible (CIMAS), Madril, 2009.

FORONI, Nicola; ELHUYAR AHOLKULARITZA: *Eraldaketa-prozesuak. Zer, zertarako, nork, nola...*, Ulibarri programa, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011.

Hainbaten artean: *Nola egin kalitateko partaidetza-prozesua? Gida praktikoa*, EUDEL, 2009.

Hainbaten artean: *Sistematizazioa, gure praktiken gaineko begirada berria. Giza transformazioko esperientziak sistematizatzeko gidaliburua*, Alboan, Bilbo, 2004.

MARAÑÓN, Manu: *Bilera eraginkorrak. Gida praktikoa*, Komunikarte.

MITXELTORENA, Jasone: *Auzolanaren kultura*, Txalaparta argitaletxea, Tafalla, 2011.

PINDADO SÁNCHEZ, Fernando: *La participación ciudadana es la vida de las ciudades*, Donostiako Udala eta Ediciones del Serbal, 2008.

herritarrekin



Gipuzkoa  
BERRIA